


ELKARRIZKETA


Santiago Aizarna
Irakurlea

Liburu arteko zomorroa

72 urte ditu eta,
aukeran, nahiago
luke *ez izan, izan* baino.
Kazetari gisa egiten
du lan oraindik ere,
baina bere burua
irakurletzat du.
Horretan, irakurtzen,
eman omen du bizia.



TESTUA: ARANTXA URREBIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS



«Zahartzaroa espero nuen bezalakoa da»


«Orain, agian, 30.000 liburu-edo izango ditut etxean eta zure afizioa hain muturreraino eramaten baduzu, liburuek bota egiten zaituzte etxetik. Barojaren pertsonaia bat datorkit gogora, Paradoxen uzaltzen dena. Pertsonaia horrek liburuen bizioa du, nik bezala, eta etxea liburuz betetzen zaitonean ezin du bertan bizi. Orduan, liburu bat erosten duenean, irekitzen du etxeko atea, botatzen du liburua barrura eta alde egiten du, etxea liburuen bihurtu delako.»

Niri ez zait hainbeste gertatu, baina tira. Nire lanerako lekua liburuz josia dago, noski, pasiloak ere bai, egongela zeresanik ez, ohe ondoan chuinka liburu daude,

pilatutik, komunean ere gauza bera gertatzen da. Etxe handi samarra dugu eta, hala ere, liburuek gainditu egin naute.

Pentsatu izan dut, behin baino gehiagotan, zer egin nire liburuekin ni hil ondoren. Eta ez dakit zer egin. Alde batetik, etxean ez dugu leku gehiago, baina ez ditut liburuek galdu nahi ere. Nik ditudan liburu asko ez dira gehiago agertuko, eta iruditzen zait zaindu egin behar ditudala.

Tarteka, lurrean edo pilatzen diren liburu batzuk kaxetan sartu eta arrebairen ganbarara eramaten ditut. Ilan ditut zer egin erabaki bitartean. Gainera, ez naitz hain eskuzabala. Liburu bakoitzak bere historia du, bere



bidea egin du niregana etorri aurretik. Azken batean, nire bizitzaren zati garrantzitsua dira, nire ondare bakarra. Eta nirekin nahi ditut. Beraz, seguraski ondo-koek erabakiko dute nire liburuen etorkizuna.»

Gero gerokoak

«Gutxitan pentsatu izan dut geroan zer gertatuko zaidan, oso larreak. Adibidez, pentsatu izan dut nolakoa izango nintzen 2000. urtean eta, noski, pentsatzen nuen mende bukaera honetan franko zaharra izango nintzela...»

Nik uste dut zahartzaroa espero nuen bezalakoxea dela, ez nau ezerk gehiegi harritu. Ez nuen esperantza handirik ere.

NORTASUN AGIRIA
SANTIAGO AIZARNA

1928

Oiartzunen sortua. Lau anaia-arreba ziren. Amak denda zuen herrian. Aita, mikelete izandakoa zuten.



1946

Madrilera joan zen medikuntza ikastera. Urtebete egin zuen. Handik Granadara, eta Granadan gaixotu... Etxera itzuli eta sendatu ondoren, soldadutza egin zuen eta Filosofia ikasten hasi zen, Madrilen berriz. Urte batzuk noraezean eman ondoren, kazetaritza ikasten hasi zen, J.M. Mendiolaren eraginez.

OFIZIOA. Medikuntza ikasten hasi zen, filosofiara jo zuen ondoren eta azkenik kazetari egin zen. Lanbide nagusia, ordea, irakurtzea izan omen du.



IDAZLEA

Liburu irensle eta liburu sortzailea. Argazkian, duela hamar urte *Don Pio el Chapelauendi* lana aurkeztu zuean.

1967

Kazetaritza ikasketak burutu zituen, baina ordurako hasia zen lanean, kolaborazioak egiten.

1970

Ezkondutua egin zen, «franko zaharra nintzela». Ez du seme-alabarik. «Zorionez, nirea kostata baina zorionez. Ni neroni ez naiz izan mundu honetan gustagarri eta nola ekarriko nuen beste norbait ni gus-tura ez nengoen mundu honetara».

1993

Jubilazio garaia heldu zitzaion. Orduz gero, astero argitaratzen du artikuluren bat lanleku izan duen egunkarian, *El Diario Vascon*.



SARIAK

Banatu ere egin ditu, Argazkian, Joseba Arregik Joan Mari Irigoieni 1990eko Euskadi Literatur saria eman zionean.



MIKEL CASAL

Autoargazkia

SANTIAGO AIZARNA

Gizon bakartia naiz, beti irakurtzeko zaletasun handia izan duena, bakardadean ongi bizi dena. Ez dut sekula ambizio handirik ez asmo handirik izan. Ez dut uste bizitza nirekin gaizki portatu denik. Eta, halere, ez nago kontentua.

Ez naiz ere pertsona garratza edo depresiboa. Konforme nago, baina ez nago konforme.

Zentzu horretan, existentzialista naiz. Gaztea nintzenean oso modan egon zen existentzialismoa eta orain ez. Nik uste dut beti izan naizela existentzialista, baita existentzialismoa zer zen jakin baino lehen ere.

Bakardadea asko apreziatzen dut eta emaztearekin ongi konpondu gara horretan ere, biok izan gara eta gara oso independenteak. Bakoitzak bere erritmoa du eta hari jarraitzen dio. Elkarren askatasuna errespetatuz. Guretzat gauzak ondo joan dira, askatasunak eta errespetuak funtzionatu dute.

Memoria handikoa izan naiz beti, eta oraintxe izango nintzateke Batxilergoko liburu batzuk buruz errepikatzeko gauza. Orain apur bat galdu dut, baina oraindik memoria ona dut. Galdetzen didazu zer bait eta agian momentuan bertan ez dut gogoratuko, baina handik gutxira bai.

Denboraren lana

A.U.

Gizon eder bat, beste ezer baino lehen. Beltzez jantzia dator, goitik behera. Pintzadun gaitzak, kotoizko izerditakoa gerriaren gaitetik.

Handik, belztasun hartatik, sortzen da burua, kaskoko ilea eta bizarrak zuria eta motz, sasoi batean izan zuen itxura pittin bat basatitiki urrun. Lehenengo istantean betidanikoa drudien bizarraren azpian nor dagoen galdetzeko tentaldia sumatu dut. Gero, dagoena dagoela, berdin zaiola pentsatu eta edertasunak ez duela esplikaziorik behar.

Garbia burua, garbirik garbiena trudi osoa. Bizitzak, hainbeste utteren buruan, sobran zegoen guztia kendu eta kendu aritu izan balitz bezala, sobran zegoena errotik atera arte.

Ez omen du eskubiko belartirik ondo aditzen. Ahotsak, midea, antzerki aktore askok nahiko lukeen oihartzuna dauka, sakonetik datozen erreen kantu sakona.

Aise egiten du barre, ozenki eta labur, algara urrutitik baletorkio bezala, tristurarik gabeko mundu batetik.

Sen handikoa

JOSE MARIA MENDIOLA

IDAZLEA

Beste ezer baino lehen, maia handiko pertsona da Santiago Aizarna, sen handiko gizona, gizaki duina.

Heriotzaren ideiarekin obsesio-natuta bizi da, eta guztion aurrean goitik beherako atea izango balitz bezala aurkeztzen du bere burua. Baina gauza gutxi eglatik urruna. azken baieztapen hori baino...

Ezagutzen ditudan pertsonen artean, Aizarnak dauka federik erro-tuena eta sakonena, nahiz eta bera saiatu fede hori erabateko sinesga-betasunaren estalkiarean azpian ezkatuzten.

Bere burua idazten duen irakur-letzat hartzen badu ere, idazle sako-na da. Bere artikulatu manituak ira-ortza besterik ez dago...

I Izan eta ez izanaren artean aukeratzeko modurik balego, nik bigarrena hartuko nuke»

Beti izan naiz zomorro samarra, bakarzalea; beti izan ditut lagun gutxi, txikitan eta orain»

kurlea naiz, beste ezer baino gehiago. Hori izan da nire benetako ofizioa. Kazetaritza bizibidea izan zen, irakurri ahal izateko egin behar nuen zerbaite. Gainera, kazetaritza berandu etorri zen nire bizitzara eta liburuak txiki-txikitan.

Ni beti izan naiz motza, ambizioz gabea. Horrelakoa jaio nintzen. Nire asmoak betetzea ez da zaila izan. Nik gauza gutxi eskatu diot bizitzari eta eskatutakoa baino gehixeago eman dit. Ez naiz kezkatzen.

Nik, 'izan' eta 'ez izan'-en artean aukeratzetik banu, bigarrena aukeratzeko nuke: 'ez izan'. Eszeptiko jaio nintzela uste dut eta, urteekin, areagotu egin zait eszeptizismoa. Ez dut ezertan sinesten, ez goian, ez behean, ez erdian.

Eta, gezurra badirudi ere, mingostasunik gabe dio hori, bizitza aldapan behera omen doakion honetan.

Zahartzaroaren magalean


«Beti sumatzen duzu behera zozela, baina pixkanaka. Nik, egia esan, ez dut galera nabarmenik izan. Zahartzarora eskaileta bat jaitzea bezalakoxea da: jaitzen duzu maila bat eta han gelditzen zara puska batean, gero beste maila bat jaitzen duzu eta han egongo zara beste bolada batez....

Badakit gezurra dirudela eta askok nik esango dudanari barre egingo diola, batna nik, oraindik, neure burua gaztetzat jotzen dut. Badakit zahartu naizela, baina nire premiak, niri gehien gustatzen zaizkidan zerak ez ditut moztu behar izan.

Egia esan, nire irudipenez, nik ez nuen jubilatzeke premiarik, egiten nituen lanak egiteko arazorik ez nuen. Baina egia da lan-kide guztiak gazteak nituela eta nik haien artean araro ematen nuela, lekuz kanpo jarritako lore-ontzi bat bezala.

Irururogeita bost urte bete nituen jubilatut nintzen, baina ez ezinaren ondorioz. Eta nire bizitza ez da asko aldatu. Agian aldatu den gauza bakarra egunkarira joatekoa da, baina, gaur egun ere, goizeko bederatzietan ordenagailuaren aurrean jarri eta goiz osoa lanean ematen dut. Goizero, txakurra paseatu ondoren.

Jende gutxiago ikusten dut, hori bai, baina ni beti ibili izan naiz gutxi jendarrean. Nire mundua liburuak dira eta horretan ondo informatua egoten naiz, azken berriak, azken joerak... Hortik aparte ez zait gauza asko interesatzen. Jarraitzen ditut notiziak, bai. Baina nik tratatu gutxi dut jendearekin. Txikitan ere horrelakoa nintzen.



Eszeptiko jaio nintzela uste dut eta, urteekin, areagotu egin zait eszeptizismoa»

Liburuak izan dira nire afizio bakarra, eta bizio izatera ere heldu dira. Liburu artean ez dut ezer behar»

Jendea beti izan da, niretzat, urrutiko zerbaite eta ez naiz nolako den esateko kapaz sentitzen. Izan ere, hatn gutxi tratatzen dut jendea... Ikusten ditudan gauza asko ez dira nire gustukoak, baina, tiru, bakoitzak uhal duena egiten du, edo nahi duena. Ez da nire kontua jendea juzgatzea.

Jendearekin tratatu gutxi dut eta gazteekin gutxiago. Teletistan ikusten ditut, nola mugitzen diren, zer egiten duten... ez dut ondo entenditzen, iruditzen zait denbora asko galtzen dutela mila kontutan, musika kontu horietan-eta.»

Denboraren alborra

«Niretzat, bekaturik handiena denbora galtzea da. Ezin dut, ezin dut denbora galdu. Niretzat, denbora betetzea irakurtzea edo idaztea da. Beste gainerako guztiak denbora galtzeko moduak dira. Badakit hori ez dela bidezkoa, baina niretzat horrela da. Argi, gutziz argi.

Paseatzen ari naizela, adibidez, sentitzen dut denbora galtzen ari naizela. Eta egiten dut, bai, sen-

dagileek aginduta, baina ni ibiliz aspertu egiten naiz, ez diot ibiltzeari eta begiratzeari grazia-rik ikusten. Etxean ez naiz sekula aspertu; etxean, sekula.

Nik, liburu artean nagoela, ez dut beste ezer behar. Niri ematen didazu zelda txiki bat, bakarrik, ez beste inorekin, liburu mordoa, eta zoriontsu naiz.

Hirtan, hori bai. Ni mendian jaioa naiz; orduan eta hobeto. Urteak pasa ditut hiri handietan eta beti egon izan naiz gustura. Hiri handietako anonimotasuna gustatzen zait. Inork ez zaitu eza-gutzen, inork ez ditu kasurik egiten eta libreago zara. Beste alde batetik, hiri handi batek aukera gehiago du kultur kontuetan, liburu kontuetan...»

Eta mutu gelditzen da, eskatutako ebaki hoztuari azukrea jartzen dio eta begiak urrutu finkatzen ditu, liburuak jostako plusa itsas-gizonak bilatzen duten lur agindutakoa balltz bezala.

Orain badakit urte gutxi gelditzen zaizkidalda. Gainera, duela gutxi gaixotasun larri bat izan nuen, eta sendagileak esan zidan agian ez nintzela kirofanotik bizirik aterako.

Orduan, ezer baino lehen, emazteari esan nion ez nuela eltzizunik nahi, ezta eskelarik ere. Hil ondoren, itsilatsunean errautsi eta kilto. Andreak esan zidan jendeak ez ziola sinetsiko eta arrebari deitu nion, bera ere jakinaren gainean egon zedin. Egunkari ikoiak ere esan nien ez nuela nire heriotza aipatzerik nahi.

Gero, gauzak uste baino hobeto joan ziren eta hemen nago, bizirik. Baina ondokoek badakite zer nahi dudana, zer egin behar duten eta zer ez ni hil ondoren.

Hemen dago, bai, bizirik eta asmo bakarra aitortzen dio bere buruari: irakurtzen jarraitzea.

Bakardadearen grina

«Ni oso bakarrik bizi izan naiz beti. Ez dut lagunartirik izan. Beti izan naiz zomorro samarra, beti izan ditut lagun gutxi, txikitan eta orain. Ni beti ibili naiz liburu artean, bakarrik. Liburuak izan dira nire afizio bakarra, bizio izatera ere heldu dena. Ira-

LIBURUAK. 30.000 bat omen ditu ebkean.

ELKARRIZKETA

Maixux Rekalde
Kazetaria

Elkartasunaren premia



Jubilatu berria da, eta azken urteotan, besteak beste, bakegintzari eskaini dio ahaleginik handiena. Bakea premiazko bezain posible delakoan.

TESTUA: ARANTXA URRETABIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS

«Bakea ez zaigu zerutik etorriko»

Irakasle ikasketak egin zituen gaztetan eta, hogei eta lau urte zituela, Ameriketara joan zen, misiolari gisa. Ez omen delako, sekula sartan, besteen sufrimenduetan aurrean ezer egin gabe gelditzeke gauza izan.

«Hamabost urte pasa nituen Latinoamerikan, misiolari lanean. Bertakoei laguntzeko asmoz joan nintzen, eta han ikasi nuen bazeudela kristautasuna bizitzeko beste modu batzuk. Latinoamerikan, kristautasuna era askoz errealago batean bizitzen da, egunoroko bizitzari lotua.

Iruditzen zait gaur, batez ere Europan, Eliza ez dagoela errealitatean txertatua, eta horregatik egin duela alde jende askok Elizatik. Ni txikia eta gaztea nintzenezan, Elizaren inguruan bizi ginen, gizarte nekazari batean. Gaur, ordea, gizarte asko aldatu da, aurreapen asko eman dira, zientifikoak eta teknologikoak, eta jendea askoz jantziagoa gara. Batez beste, ezin da aurrekoarekin konparatu ere.

Orduan, arazoak gauza batzuk esaten dizkizu eta, askotan, ez datoz lehen ikasitako edo entzundakoarekin bat. Kristau jatorriaren askori traja txikia gelditu zaio, estuegia. Neroni ere, batzuetan. Badira 26 urte Txiletik etorri nintzela eta, oraindik, ez naiz hemengo elizaren hainbat jokalaritara ohitzen».

Bakearen kezka

Itzuli zen, bada, Ameriketatik, egin zuen (zortzi urtez) lana Iruongo ikastolan, andereño gisa, egin zituen Euskal Telebista martxan jarri aurretik eratuako ikastaroak, hasi zen Herri Irratian lanean eta, ondoren, Gipuzkoako Gotzaitegian. Aldi berean landu zituen kristau talde desberdinekiko haremna.

«Nire bizitzan, nik ez dut sekula nire sinetsmena alde batera utzi; edozer gauza egiten dudala, sinetsmenak bultzatua izaten da, horrek bultzatu nau besteen alde zerbait egitera. Horrek eraman ninduen Ameriketara, eta horrek bultzatu ninduen bakegintzara.

Han, kristau talde horietan, bakeari buruzko kezkak sortu ziren eta bilera batzuk egin genituen, hainbeste sufrimendu sortzen zuen arazoari konponbidea eman nahian. Arilu ginen hilabete batzuetan gizarte mugimenduak aztertzen, batzuekin eta besteekin hitz egiten. Halako batean, Lurraldeakoekin kontaktatu genuen. Haiek gure interes bera zuten, eta berehala egin genien bat.

Esperientzia ona izan zen, guztiontzat. Desberdinak ginen, jatorriz eta norabidez, eta horrexegatik aberastu ginen guztiok, elkarlana eginez. Haindik gutxira sortu zen Elkarrizketa eta hasiera hasieratik egin dut lan bertan».

Elkarlanaren onura

«Bakarriko lana ez da, askotan, aski izaten. Herri honetan aberastu handia dugu horietan, antzolan, elkarlana, kooperati-

11 Bizitzan ez dut inoiz sinetsmena alde batera utzi; egiten dudana dena sinetsmenak bultzatua da»

11 Su-etenaren garaian, bide bat dagoela ikusi eta ukitu dugu; orain ez dugu lehengora itzuli nahi»

bak... Horiek kultura jakin baten ondorio dira, sendotu behar dugun ohitura bat.

Zaila, ez ezinezkoa

Noski, pertsona desberdinen arteko elkarlana ez da erraza, bere zailtasunak ditu, maila guztietan. Bainak zailtasunak zailtasun, elkarlanari buruzko kultura bat egiten joan behar dugu.

Politikariek elkarlana egiten ikasi behar dute, baina biztanleok ere ikasi egin behar dugu gure auzoetan, gure herrietan. Elkarlanerako edo elkarrizketarako eragozpenak maila guztietan gertatzen dira, areago bakearen aldeko mugimenduetan. Horrek adierazten du elkarlana zein zaila den. Zaila bezain premitazkoa.

Bakoitzak bera erara egingo du lana, nik gizarte mugimenduetan parte hartuz, beste batzuek hortik kanpo. Nik uste dut alderdi politikoak eta sindikatuak aski ez direlako sortzen direla gizarte mugimenduak, gizarteak, historian zehar, behar izan dituen tresnak sortu dituelako.

Gizarte mugimenduetan parte hartu gabe ere egin daiteke zerbait bakea eraikitzeko: jarreruk alda daitezke, akordioak erraztu daitezke. Bakoitzak berea argi esan behar du, eta besteak esaten duena ere entzun behar da. Eta ez desberdintasunak zeintzuk diren jakiteko, adostasunak antzemateko batziki, ea hori zertan datoren nirekin bat.

Hemengo gatazka ez dute alderdiek bakarrik konpondu behar. Elkarrizketa da akordiorako bidea; baina alderdiak akordio batera iristen badira ere, gizarteak eta biztanle guztiok onarpen bat eman behar diogu. Edo, bestela, akordioak ez du balio.

Eta onarpena eman edo ez erabakitzeke, jakin egin behar dugu, ikasi. Ezin dugu gorrarena egin. Ez, entzun egin behar da, galde-tu, ikasi. Hori guztion esku dago».

Irtenbide bila

«Arazo honen konponbidea zaila da, baina ez ezinezkoa. Ezin gera gintezke dolumentan, sufrimenduan. Aurrera begiratu behar dugu. Badakigu konpon daitekeela, baina baita ere konponbidea luze joko duela. Arazo hauek beti jotzen dute luze.

Begira Irlandan ere zenbat kostatzen ari zaien. Irlandakoa, begibistan da, ez da erraza gertatzen ari. Baina han, zailtasunak zailtasun, gauza batek ematen dit inbidia: han, beti, atzerapausoak edo krisiak izan dituztenean ere, beti jarraitu dute hitz egiten. Eta guk, ez. Gainera, irlandarren kontuan, estatuburuak bultzada dute. Eta guk, ez.

Zaila izango da bidea, zaila eta luzea, baina ez ezinezkoa. Ausartuko nintzateke esatera hemendik urtebetera egoera hobetoagoan egongo garela. Kontua, orokortasunean hartuta, duela bi urte baino askoz hobeto dago, nahiz eta momentu honetan krisi latza igar-




11 Nahiz eta une honetan krisi latzean egon, orain dela bi urte baino askoz hobeto gaude»

rotzen ari garen.

Beste aldetik, badira politikari batzuk ere gauza berriak eta ausartak plazaratzen ari direnak. Hor dugu, alde batetik, Lehendakaria, tinto jarraituz. Odón Elorza ere hor dago, bere alderdiak hartutako bideaz gain beste bideirik ere badagoela adierazten. Ausardia horiek baloratu egin behar dira».

Bakea ukitu

«Garbi dago gizartearen gehien-gok ez duela indarkeriari nahi. Indarkeriak ezinezko handia sortzen du gizartearen, eta ezin dugun





**Gizartearen
gehiengoak ez
du indarkeriarik
nahi; gizarte
ezinegon handia
sortzen du»**

Horrek guztiak, biztanleoi konpromiso handia eskatzen digu. Azken batean, bakea ez digu inork emango.

Ez dirudi, halere, Maixuxek konpromiso horri uko egingo diotnik. Jubilatu zenetik goizero egiten du lan Elkarriko egoitzan.

«Nik bolondres lana egiten dut. Nire izaerari komeni zaita goizean goiz jaiki eta zerbait konkretua egitea, ordu jakinean. Jubilatu nintzenetik askok esaten didate orain ondo biziko naizela, denbora guztia niretzat izango dudala.... Eta bai, lehen baino askoz denbora gehiago dut niretzat, baina baita besteek laguntzeko ere. Nik bakarrik ez dudala ezer aldatuko jakinik, gainera.

Baina horrela lortu nuen barruan dudak aberastasun apurra, eta horrela jarraitu nahi dut, osasunak laguntzen didan bitartean. Hori gabe ez niñzateke zoriontsu izango».

Eta zoriona egindako lanaren arabera neurtzen bada, Maixux, dudarik gabe, zoriontsu da.



ZAILTASUNA.
Zaila da elkarlana; zaila eta luzea izango omen da bakerako bidea. Zailtasun hitza maiz erabiltzen du; nekez entzungo zaito, ordea, ezinezko hitza.

hori alderdi politikoetara ere iristen da. Gizarteak asko sakondu ditu giza-eskubideen baloreak eta eskubide guztiak errespetatu egin behar direla. Eskubide horiei buruz gizartea gero eta sentiberagoa da.

Gainera, su-etanaren garaian hilde bat badagoela ikusi eta ukitu egin dugu, eta orain ez dugu lehengora itzuli nahi. Beste zerbait nahi dugu, bakea nahi dugu.

Zerutik ez da etorriko
Baina ezer egin gabe gelditzen laguna, bakea ez da zerutik, curia bezalaxe etorriko.

NORTASUN AGIRIA
MAIXUX REKALDE

1934
Oartzunen sortu zen,
ekainean. Magisteritza ikaske-
tak egin ondoren, zortzi urtez
andereño izan zen Iruen.

Batzar eratzailera

Movimiento social por el dialogo y el acuerdo



BAKEGINTZA
Kezka horrek bultzaturik, Elka-
rri taldearen sorrerako taldean
egon zen 1992an.

1958
Misiotara joan zen,
Latinoamerikara. Bost urte
eman zituen Ekuadorren eta
hamar Txilen.

1981
Euskal Telebistak antolatutako
ikastaroak egin eta Donostiako
Herri Irratian hasi zen lanean.

KAZETARITZA
Mikrofonoak ez
ditu arrotzak.
Irratian lan egin
ondoren,
kazetaritza
ikasketak eta
kazetari lana
uztatu zituen
Donostiako
Gotzaindegian.



1982
Donostiako Gotzaindegian hasi
zen lanean kazetari gisa.
Kazetaritza ikasten ere hasi zen
urte berean, eta bost urteren
buruan amaitu zuen karrera.
Gozzaindegiko prentsa bulegoa
eratu eta han jardun zuen iaz
erretiratu zen arte.

1992
Elkarriren sorreran parte
hartu zuen. Han jarraitzen du,
bolondres lanetan.



LANARI UTZI GABE
1999an erretiratu zen, Elkarriko
kideekin egin zioten argazkia
hartu zuten urte berean. Lanari,
ordea, ez dio utzi.



Autoargazkia

MAIXUX REKALDE

Argiago dut izan nahi nukeena,
naizena baino. Lokatu zuzkidan
urteotan ardura izatea gusta-
tzen zait. Ez naiz atzera begira ego-
ten; auleran, nahiago aurrera begira
egotea.

Arazo baten aurrean, zergatik sor-
tu den ulertzen saiatzen naiz eta, ahal
baldin bada, hura konpontzen. Gau-
za onak gertatzen direnean ere, gus-
tatzen zait haien zergatia ulertzen.

Irakurtzea gustatzen zait, haus-
nartzea ere bai.

Oro har, pertsona ordenatua naiz,
beraz. Niretzat lehentasunak argitzea
garrantzitsua da. Zer den lehenengo,
zer datorren ondoren... Lehentasun-
ak argi eduki behar dituzu, edozer-
tan. Ordena behar du, halaber, egu-
nerokotasunean, ordutegian eta
lehentasunetan. Oporrak beste gau-
za bat dira, baina astegunetan, nahi

dudan gehiena egingo badut, neure
denbora eta neure burua oidenatu
behar ditut.

Nik ez dakit zer den aspertzea. Ez
zait batetik bestera beti korrika eta
presaka ibiltzea gustatzen, baina bai
egunak eta asteak betirik edukitzea.
Gainera, ezkongai naizenez, ez dut
senarrik, ez dut seme-alabarik eta nire
denboraren jabe naiz.

Temperamentuz baikorra naiz,
horrela ikusten ditut gauzak, berez,
neure burua behartu gabe. Berez atz-
erazzen zaidana, baikortasuna da.
Momentu txarrak ditudanean ere,
beti esaten diot neure buruari hori ere
pasako dela, eta, bitartean, ikasgaiten
bat aterako dudala.

Gero, gizarite mugimendu honetan
lan egiteak aberastu egin nau. Gai-
nera, hietan adim askotako jendea
dago eta hori beti da aberasgarria.

Itsasoa ez
dago laino

A.U.

Hegazti bat noski, hego sendoak,
begi zorrotzak, bate-
ra indartsuak eta gozoak.
Inondik ere ez harrapari bat, bai-
na atzapar sendoak, airerako
nahiz hurrerako egokiak.

Lanazko trajea darama, eta ba-
rruan, estanpatu fineko txanbra
Koloreak ondo egokituak. Doto-
re, eta ez arroparen eraginez,
Seguru misioetan ere txukun
ibiltzen zela, pelikuletan bezala.

Dotorea hizkeran ere. Hori ere
ordenatua, hasitako esaldi guztiak
bukatzen dituen hortetakoa. Tar-
teka, oso malz, Irribarre egitera-
koan, begiak piztu egiten zaizkio,
Gabonetako zuhaitzei argitxoak
pizten zaizkien bezalaxe.

Urdinik urdinena begietan, itsa-
soak eta zeruak nahi luketen
moduan.

Perlak belarrietan eta boligrafo
baten laguntza eskuetan, baina ez
urduri dagoelako. Ez dio bere
buruari desordena horretarako
baimenik ematen.

Espiritu
askatasunaJOAQUÍN ASTIZ
DONOSTIAKO GOTZAINDEGIA

Euskal Herritik milaka kilo-
metrotara geundela ezagu-
tu genuen elkar Maixux
Rekalde Urdanpiletan eta biok,
orain dela hamarkada asko. Azken
urteotan, bere lankidetzaz jasotze-
ko aukera ere izan dut Donostian.

Bere nortasun konplexuan hiru
ezagutari azpimarratuko nitzuke:
jaioterri izan duen herriaren sus-
traierie dien fideltasuna; bere bizit-
zaren urte asko eskaini zien -eta
oraindik ere eskaintzen dien-
herri latinoamerikarekin dituen
kidetokotasunak; azkenik, herriak
bereganatzeko duen sentiberata-
suna eta herri horiek era guzti-
tako pertsoneri ulergarri egiteko
duen kezka, bere kazetari presta-
kuntzari zor dion dohaina.

Hori guztia, espiritu askatasun
handiz adierazia, askatasun
horrek leuntzen baitu kritiken
zakatasuna, horietatik gurtzisten
gaitzakerien garrantzia. Hitz gu-
ztitan, mundura zabaltzen jakin
duen emakume eriskaldona.

ELKARRIZKETA

Manuel Montero

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea

Hausnarketa eta ekintza



Historialaria da bizibidez eta zaletasunez, eta ez ditu irabazi zaharrak Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektoretzarako hauteskundeak.

TESTUA: ARANTXA URREBIZKALIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS

«Unibertsitateak badu gizarteari zer irakatsi»

Plitzordua goizean goiz zen eta Bilboko Club Deportivon. Beraz, espero zitekeen Manu Montero praka motzetan etortzea, toailea lepotik zintzilik eta, agian, boxeoko eskularruak soinean.

Errektorea garaiz iritsi da, baina ez dator kirola egitetik, etxetik baizik. «Bolada honetan goizean goiz jaikitzen naiz, bostetan edo bost eta erdietan, eta uneak esnatzen diren arte idalzi egiten dut, normalcan egunkari baterako edo besterako artikuluren bat. Kirolerako, berriz, ez dut bolada honetan apenas denborarik aurkitzen. Asteburuan pittin bat, gchienez jota ere».

Bolada honetan, esan du birritan, eta epe mugagabe hori errektore egin zutenean hasten da, duela bi hilabete.

«Ni historialaria naiz eta horixe irakasten nuen Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultatean».

Fakultate hartako dekanoa izan da azken hiru urteetan.

«Nonbait, ez nuen nire zeregin gaizki bete eta inguruko hartzuek Errektoretzarako hautagai izatera bultzatu ninduten. Ez dut oso argi ere zergatik aurkeztu nuen azkenean neure burua. Pixkanaka hartzen dituzun erabaki horietako bat izan zen. Nik badaikit nolako unibertsitatea nahi nukeen eta postu honek zure iritzia praktikara eramateko aukera ematen dizu».

Errektoretzarako hauteskundeek ez zuten hauteskunde politikoekin antz handirik izan. Cureak eredugarri izan dira: parte-hartze izugarria, unibertsitateari buruzko eztabaidak, hautagaien arteko harreman finak... Uste dut horretan badugula zer irakatsi».

Euskara eta politika

Eztabaida fin eta ganorazko horien buruan, Manuel Montero bi gaitzespen nagusi jaso zituen. Lehen, Ermuko Foroaren sortzaile izatea. Bigarrena, euskaraz egiteko ezintasuna.

«Bai, hasieratik egon nintzen ni Ermuko Foroan eta gogoan dut

Ermuko Foroa gehiegi erradikalizatu dela iruditzen zait; ez nator bat orain egiten duenarekin»

Orain arte, beharrezko izan ditudan hizkuntzak ikasi ditut, eta aurrerantzean ere horixe egingo dut»

lehenengo bileran bertan galdetu nucla ez ote ginen beste txiringito bat sortzen ari. Niretzat, Foroa hausnarketarako plataforma behar zuen izan, tarteka bere deliberamenduak gizarteari eskainiko zizkion topalekua. Ez beti lehen planoan eta politikagintzan murgildurik egongo zen elkarre bat.

Kezka hori salbu, hasterako egi-tasmoa gustatu egin zitzaidan. Foroa geroztik eraman duen bidea ez dut hatin gustuko. Iruditzen zait gehiegi erradikalizatu dela eta ni ez nator orain Foroa egiten duenarekin bat.

Euskararena ere birritan edo aipatu zidaten. Ni Ean sortua naiz, eta txikitari nola-hala moldatzen nintzen euskaraz. Orain ere ez naiz erabat ezjakina, ez zait euskara erabat arrotz egiten. Gainera, euskarari buruzko jakinduriak baino garrantzi handiagoa du jarrerak, eta nik euskaraz egin dut hatinbat aurkezpen edo nire diskurtsoaren zati bat eta Unibertsitatearen euskalduntze-plana nire lehentasunen artean dago. Nik, orain arte, hizkuntza kontuan, beharrezko izan ditudan ikasi ditut eta horrela jarraituko dut aurrerantzean,

beharrezko dudana ikasiko dut».

Hasi berria

Hautatu zuten, bada, Errektore. «Etxean ez zuten nire erabakia gogo handiz hartu, baina tira. Nire zeregin historia da eta Errektoretza behin-behinekora da, oraingo lau urterako».

Denbora gutxi daramat lan honetan eta oraindik ez dakit gustuko izango dudana edo ez. Errutinak finkatzeko denbora ere ez dut izan, ezta lan honek errutinarako tartea utziko didan jakiteko ere. Bulegoa bera ez dut oraindik erabat nire sentitzen. Ezagutzen nuen, noski, alde zurretik, baina mahaiaren beste aldetik. Lehenengo momentuan ilogarri samarra iruditu zitzaidan, serioegia, edadeko pertsonen gustukoa edo. Bueltaren bat edo beste eman diot kontuari, ea nola alda dezakegun kutsu hori, baina ez dut irtenbidea aurkitu. Ohiuko naiz, noski».

Han, bulegoko mahal gainean pare bat ustegabe aurkitu zuen: «Lehenengo ustegabeak auditoria batzuek eskaini dizkidate. Seguru arazoek irtenbidea badutela, baina ez dut uste irtenbide hori erraza eta arina izango denik. Nire bizitza zeharo aldatu da. Bizitagoa da orain, egunak luzeago egiten zaizkit eta egunero gauza asko gertatzen zait».

Besteak beste, pintadak. «Joan den astean berrehun pintada inguru azaldu ziren, Montero abizena diana baten erdian zutela. Ez zen lehenengo txanda eta jakin badakit horrek ez duela nire jokatera aldatuko. Orain arte, pintadek eta abarrek ez naute atzera bultzatu. Dagoeneko egoki iruditu zaidan fakultate eta eskola guztietan izan naiz eta, oro har, ondo hartu nautela esango nuke. Lehenengo egunean, Gipuzkoako campusean izan nintzen eta han pankarta handi bat zegoen, Montero kanpora zioena. Jope, pentsatu nuen, utz lezadazue lehenik lan egiten, eta gero erabakiko duzue nire lana ona den edo ez. Ez dakit nola joango den kontua,

baina, errektorea naizenez, Unibertsitateko bazter batera joateko premia ikusten badut, joan egingo naiz. Kontrakoa ez zait burutik ere pasatzen, porrot baten adierazle litzatekeelako».

Egun osoan

«Gauza hauek hoztasunez ikusi behar dira. Niretzat printzipio kontua da, ez adore kontua. Adoreak ez du honetan zerikusirik».



ILUSIOA
Hori gabe ez omen da lan egiteko gauza





Utz iezadazue lan egiten, eta gero erabakiko duzue egin dudana ona edo txarra den»

Gainera, pintada horick ikusten ditudanean beti iruditzen zait beste norbaitentzat direla, ez niretzat. Euskal Herriaren egoeraren ispilu dira, ez Unibertsitatearen egoeraren ondorio.

Nik ezin dut ilusioa galdu, hori gabe ez bainatz lan egileko gauza. Eta lan honek ordu guztiak jaten dizkizu. Bulegoan ez nagoenean ere beti ari naiz zerbaiti bueltak ematen. Oraingo, goizeko ordu horietan bakarrik naiz deskonektatzeko gauza».

Izan ere, hirurogei milatik gora dira Euskal Herriko Unibertsitatean ikasten ari diren ikasleak.

«Gure gizartearen zati handi batentzat Unibertsitatea ezinbesteko bidea da bizitza antolatzeko

Nire kezkarik handiena hurrengo urteotan unibertsitateak egin behar duen aldaketa da»

orduan. Gaur gizartearen esparru guztietatik datoz ikasleak Unibertsitateera eta hori aldaketa handia da. Esan dezakegu gizarte osoarentzat lan on bat egiteko ezinbesteko baliabidea dela Unibertsitatea».

Puntaren puntan

«Guk gizartearen beharrak bete behar ditugu, eta uste dut horretarako ondo kokatuta gaudela. Lehen mailako titulazio batzuetan indartsu gara, puntako ikerketa dugu hatibat alorretan... Oro har, gure Unibertsitatearen maila ona da, erdittik gorakoa, dudarik gabe.

Nire kezkarik handiena datozen urteotan egin behar ditugun

aldaketak dira. Teknologia berriak desafio handia dira eta titulazio berriak eskatzen dituzte. Horretara egokitzen ez bagara, zaharkitu egingo gara, atzean geldituko gara.

Horrekin batera, geurè burua ere hobekiago ezagutu behar dugu. Adibidez, ez dakigu gure lizentziatuek egindako ikasketekin zerikusia duen zerbaitetan lan egiten duten, edo ez.

Nik uste dut orientabide sistematik kale egiten duela askotan. Adibidez, badira titulazio batzuk inolako langabziarik ez dutenak, besteak beste, Meatzaritza eta Nautika. Bada, gero eta ikasle gutxiagok aukeratzen ditu lanbide horiek. Baina orientabidea hobetzeko, alde aurretik gure lizentziatuen nondik norakoa aztertu behar dugu».

Eta hor dago, goizean goiz, ekintzarako prest.

«Bai, ekinza gustuko dut, baina zer egin badakidanean. Funtsan, orain arteko nire bizitza irakurtzea izan da, irakurritakoz hausnartu, aztertu, pentsatu...

Ekintza horren ondotik dator, ez aurretik».



NORTASUN AGIRIA
MANUEL MONTERO

1955
Urtea bukatzeko zorian zegoela jaio zen Bilbon. Hamaika urte Ean egin zituen. Geroztik, jaioterria bizi da.



POLITIKAGINTZA
Teorian ez ezik, praktikan ere ezagutu izan du. Argazkian, 1990ean Democracia Socialista taldeko kide zela.

1977
Bikain batez lizentziatu zen I historian Deustuko Unibertsitatean. Hurrengo urtean irakasle lanean hasi zen han bertan.

1987
Deustun Doktoretza lortu eta, urte berean, EHU-UPVri hasi zen irakasten.



UNIBERTSITATEA
Irakasle, dekanu, errektore... Hamahiru urte daramatza Euskal Herriko Unibertsitateari lotuta. Ibarretxe lehendakariaren eskutik hartu zuen otsailean kargua.

1997
Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatean hamar urte zeramatzala -1995az gero, katedradun- Fakultateko dekanu hautatu zuten.

2000
Otsailean Euskal Herriko Unibertsitateko errektore bilakatu zen. Ezkondua da eta bi alaba ditu, zazpi eta hiru urtekoak.



Agazkian, Jose Luis López de Lacalle kidea hil ondorengo gaitzespen kontzentrazioan.



MIKEL CASAL

Bi arantza bihotzean

MIGUEL GONZALEZ SAN MARTIN
UNED-EKO IRAKASLE

Duela hamabost urte ezagutu nuen Manuel Montero, historiar garaiak irakasten ari zela. Ez dut gogoan egun hartan gorbata ote zeraman, edo sorosle kamiseta. Azalpenak hamar minutu bete baino lehen, pentsatu nuen. Eta nire nabaria, ez zela haren atonik berminetik hain nabarso gertatzen zen hitz zaparrala puzteko gaitzespen kontzentrazioan. Ezer esanirik, gaitzespenaren bidez, berariaz kanpalekua nire munduarekin eta zuzenbidearekin zabaldu nuen. Ez Lion zigurari. Bertigoan sentitu nuen Alde egiteko tentaldia ere sentitu nuen, bai bainekien txikitatit naizela besteen tikak antzeratzera enana, baina beti pozuko naiz alde egian ez

izamaz. Nire bizitzan izan ditudan irakaslearen artean hobereenetakoa gertatu zen eta; are garrantzitsua, sekula ezagutu dudun pertsona joberenetakoa bat, I historia liburua ugari idatzi du Monterok, zientifikoak eta dibulgatiboak, eta chunka artikulua egun-egun irakurtzen dituztuz. Baina, horien artean, bereziki izan da gizarte zibilaren konprenisioa. Azkenia da eta apala, benetako jakinaren moduan, zuzenbidearen inguruan. Baina, horien artean, bereziki izan da gizarte zibilaren konprenisioa. Azkenia da eta apala, benetako jakinaren moduan, zuzenbidearen inguruan. Baina, horien artean, bereziki izan da gizarte zibilaren konprenisioa. Azkenia da eta apala, benetako jakinaren moduan, zuzenbidearen inguruan.

Boxeolari bakezalea

A.U.

Gizon mamitsua da, zahala, sendoa, barruan samendi bat daramaten horietakoa. Arinka egiten du hitz, ondo aliozkatu gabe, magnetofonoak berak batzuetan ulertu ezin duela. Burmuina mingaina baino arinago doako eta bor-borlean duen mezuari kosta egiten zaio denbora eta beste lege fisikoak betetzea. Halere, hausnarketaren alde azaltzen da, boxeolari bakezale baten gisa.

Altzairuzkoa eskumuturreko ordularia, urre kolorekoak botolak, urdina alkandora eta trajea, arrasto gorriak urrezko euskarria daraman korbatan. Mintzaleku eskaini digun leku dotore eta bikain horretan gizon gehienek daramaten janzkera bera.

Londresen egon zitekeen Club hau, eta han bageunde bezala isilik daude bertakoak, egunkaria irakurtzen. Zutik jartzen garenen Monterok leiho handietara egiten du so, Bilhoko kale zalapartatsuetara begiratzen duen beiratera. Bidean bizpahiru aldiz gelditzen da, eskua emanez norbait agurtzeko.

Autoargazkia

MANUEL MONTERO

Historialaria naiz, batez ere XIX. mendearen bukaera eta XX.aren hasiera ikeritu ditut. Era berean, nire inguruan eta une honetan gertatzen dena ere interesatzen zait.

Pentsatzen dut barrutik organizatua izango naizela, baina kanpotik ez oso. Adibidez, nire lan mahaiek nahaste-borrastea dirudite, baina badakit paper bakoitza non dagoen. Anarkia, baina kontrolatua.

Ez dakit betidanik edo aspalditik, baina gauza da sarritan begiratzen dudala neure burura, neure burua aztertzeko. Uste dut ondo asko ezagutzen ditudala nire akatsak eta hori dut autobioikararako joera. Horregatik, nahiaago dut aurkatarai artasunik ez eduki, eta horri buruz horretaz ez egiten.

Nahiz eta gaitzespenaren bidez, berariaz kanpalekua nire munduarekin eta zuzenbidearekin zabaldu nuen. Ez Lion zigurari. Bertigoan sentitu nuen Alde egiteko tentaldia ere sentitu nuen, bai bainekien txikitatit naizela besteen tikak antzeratzera enana, baina beti pozuko naiz alde egian ez

izamaz. Nire bizitzan izan ditudan irakaslearen artean hobereenetakoa gertatu zen eta; are garrantzitsua, sekula ezagutu dudun pertsona joberenetakoa bat, I historia liburua ugari idatzi du Monterok, zientifikoak eta dibulgatiboak, eta chunka artikulua egun-egun irakurtzen dituztuz. Baina, horien artean, bereziki izan da gizarte zibilaren konprenisioa. Azkenia da eta apala, benetako jakinaren moduan, zuzenbidearen inguruan. Baina, horien artean, bereziki izan da gizarte zibilaren konprenisioa. Azkenia da eta apala, benetako jakinaren moduan, zuzenbidearen inguruan.


ELKARRIZKETA

Arantxa Iturbe
Irratilaria

Irratiarekin maitemindua

Idazle izan nahi zuelako ikasi zuen kazetaritza eta, orain, ez luke irratia inolaz ere utzi nahi. Horrekin batera liburuak idatzi ditu, baita irratirako nobela bat ere. Eta ume bat izan du. Hain zuzen, ama izatearen zailtasunaz mintzatzen zaigu azken liburuan.

TESTUA: ARANTXA URRETABIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS





«Ez digute esaten ama izateak zer dakarren...»

Goizean goiz irratira heltzen denerako, gobernatu du umea, eraman du haurtzaindegira olibo tramankuluekin batera (ordezko arropak, biberot beroa, baloia...).

«Gaur egun, irratilari naiz ehuneko hirurogeita hamabostean, ama ehuneko hogeita bostean. Idazletarako ez zait ezer gelditzen. Hori da nire gaurko errealitatea.

Gogoz, erdi bana izango nintzateke irratilari eta idazle, biak batera. Biek betetzen naute eta ez nuke jakingo bien artean aukera egiten. Horrekin batera, noski, ama naiz. Baina hirurak uzartzea zaila da, oso zaila.

Idazle izan nahi nuelako hasi

11 Zuzena delako, manipulaziorako tarte gutxi eskaintzen duelako maite dut nik irratia»

nintzen kazetaritza ikasten eta orain, hainbeste urteren buruan, irratia maite dut. Zuzena delako, ezer gutxi estaltzen duelako, manipulaziorako tarte gutxi uzten duelako, batez ere zuzenean ari baldin bazara. Bai, gus-

11 Oso gaizki pasa nuen umea jaio eta hurrengo urtean; deuseztatua sentitu nintzen»

tatzen zait. Badu gero telebistak ez duen magia, batetik askoz baliabide guxiago behar dituzuelako, aski da mikrofonoarekin eta, bestalde, pentsatze hutsak zu ari zarela sukalde pilo batean sartzen, lantegi askotan eta jendea-

ren gertuko bihurtu zarela, zure aurpegia ezagutzen ez badute ere».

Zailtasun isildua

Hogeit urte bete baino lehen hasi zen lanean kazetari gisa. Gerorago idatzi zuen lehen liburua.

«Txikitatik, etxean, amak ikasi egin behar nuela esaten zidan, nik nahi nuena izango nintzela... Eta nik idazle izan nahi nuela esaten nuen. Izugarri lagundu zidaten amak eta familiak, oro har. Agian amak berak lortu ez zuena nigan jartzen zuelako-edo».

Irratigintza, literatura... Esparru horietan ezaguna izan ondo-

ren erabaki zuen ama bihurtzea. Dena zoragarria zela kontatzen zioten aurretik ama zirenek, baina ez da hori izan bere esperientzia.

«Iruditzen zait gizarteak, edo auskalo nor, tranpa egin zidala, ez zidatela abisatu zer zetorkidan ama izatearekin batera. Hori salutzeko edo kontatzeko idatzi nuen 'Ai, ama!', ama izateko bidean daudenei abisu bat zor niela sentitzen nuelako.

Nik uste dut amaberrien ezjakintasunaren errua ez dela bakarrik aurreko belaunaldiarena. Adibidez, ni izan naiz kuadrilan azkenetakoa umea izaten, eta aurrekoei galdetzen nienean, beti jaso izan dudana esperientziaren alde ona izan da, ez besteak.

Nik oso gaizki pasatu nuen umea jaio eta hurrengo urtean. Deuseztatua sentitu nintzen, amalatu. Badakit hori ez zaitela guztiei gertatzen, eta baita ere beti alde onak bakarrik aipatu dizkidatenek gero luzaro egiten baduzu hitz, aitortzen dizutela oso hilabete gogorak pasa dituztela, baina, tira, boladatxo bat. Esan, bada, hori, esan, gutxiarik, hila-bete batzuetan oso gogorra dela.

ELKARRIZKETA



PREMIAK. Bereak lehenak ez zirela onartzea gogorra izan zela dio Arantxa Iturbek.

Ez naiz, bakarrik, lanaz ari. Banekien ama izan ondoren hila-bete batzuetan ez nuela lo lasai eta luze egingo, minak izango nituela, depresioa.... Beste zer-baitelaz ari nautz. Gaizki sentitu nintzela esaten dudanean, iruditzen zait hori gatzki ikusia dagoela. Ni hasiera-hasieratik sentitu nintzen umearen esklabo, batez ere tilia eman nion garaian. Gogorra izan zen nire premiak lehenak ez zirela onartzea. Ez naiz damutzen, baina benetan gertatu zena kontatu nahi izan dut.

Badut lagun bat, katalana, kazetaria. Bada, hark, lehenengo umea izan zuenean, esan zidan bera engainatua sentitzen zela, gurasoek beti bultzatu zutela ikastera, lanera, horretarako prestatu zutela. Eta ez zidaten esan zer etorriko zitzaidan ume bat izaterakoan, nola biziko nintzen edo nola ezbiziko nintzen.

Ni isiltasun horren kontra erdi-gezur diren egien kontra errebelatzen naiz. Batzuetan, haserre izugarriak ere sortzen zatzkit, inoren kulpaa ez dela jakinda ere».

Gu baino lehenagokoak

«Gure aurreko emakumeek, etxe-ko lanetik aparte beste zerbaite egiten zutenean ere, seme-alabak zituzten helburu nagusi, haintzat bizitzen ziren. Eta asko, behin seme-alabak bideratuak edo ikusten dituztenean, bizitzeko ilusiorik gabe gelditzen dira. Bizitzan lortu nahi dituzten helburu edo arrakastak seme-alaben bidez lortu nahi dituzte, edo senarraren bidez. Ez zuzenean.

Nire belaualdiko emakumeak desberdinak gara, etxeakoandreak gara, gure lana dugu eta umeak ere bai. Nik neuk ez nuke nire lana ezergatik aldatuko. Ordainduko ez balidate ere, seguru lan hori egin nahiko nukela. Puntu horretaraino.

Amatasunari buruzko engainua ez da jaso dugun bakarra. Guk, aurreko belaunaldiko zenbaiten lanagatik, sinetsi egin dugu bikotean benetako berdintasuna posible dela. Eta agian ia posiblea da, umeak etorri arte. Nik uste nuen hori beretzkoa zela,

11 Edozertan profesional ona izan nahi baduzu, ezin duzu ume batek sortzen duen lotura eduki»

berez etorriko zitzaigula berdintasuna, guztiok, gizon nahiz emakume, heziketa bera jaso genuela eta... Gero, ikasi dut heziketa bera jaso dugula, edo oso antzekoa, baina gizoni ez zaitela heziketa hori komeni eta ez dutela erabat bere egiten.

Niri beti esaten didate nire gizona inbidia garria dela. Berak txandaka egiten du lana eta, lanean ez dagoenean, berak egiten ditu erosketak, berak egiten du sukaldean. Ni ixarra naiz horretan eta, gainera, ez dut ikasi nahi, ikasten badut, handik aurrera niri tokatuko zaidalako.

Umea etorri zen arte oso libreak ginen biok. Gero sortu ziren arazoak, umearekin batera. Haurra eguneroko kontua da, eta egunean hogeita lau ordukoa.

Kontu honetan ere, emakumeok badugu erruren bat. Agian, biok umearekin gaudela, senarra bizikletan ibiltzera edo paseatzerara bultzatzen dugu. Joan zaitetz, mattea, aste osoan lanean aritu zara-eta... Eta kontuak, noski, bentajak ditu, dena delako hori egin ondoren, umore hobean egoten delako gizona eta... Beratei, ordea, ez zaie inoiz bururutzen guk ere bueltatxo bat emango genukeenik».

Konponbide txarra

«Nik behar dut lana, horrek nire orekari eusten laguntzen didalako. Horregatik iruditzen zait hanka sartu nuela umea jaino ondoren urtebetez lan egin gabe egon nintzenez. Egia da, umea zainteaz aparte, urte horretan nobela bat egiteko asmoa nuela. Eta, halako batean, neure burua ikusi nuen umea beso batean eta beste eskuarekin janaria prestatzen, ezertarako demorarik gabe... Kontua zaila da berez, oso

11 Amatasunaren inguruko isiltasun eta erdi-gezurren aurka errebelatzen naiz»

irtenbide zailakoa. Emakumeak aukeratu behar du umea izan nahi duen edo ez. Eta bai, maila batean aukeratzeko, harridura, engainatu samarrak bizi gara, zertan ari garen ondo jakin gabe.

Eta umerik izan nahi ez baduzu, gizartearen prestoa jaso behar dugu, galderatxoak, harridura, aholkuak... Igual on beharrez egiten dute hori, hain esperientzia zorionsua bizi ondoren, hura besteongana zabaldu nahi dutelako edo...

Hori bai, gero eta konbentzituago nago. Edozertan profesional ona izan nahi baduzu, benetan ona, ezin duzu ume batek sortzen duen lotura eduki. Eta hori nik enpresa publikoan lana egiten dudala. Ezagutzen ditut nik enpresa pribatuaren lanean ari direlako, etxea organitzatzeko, hiru neska behar dituztenak, bata goizean umea eskolara eramateko, bestea arratsaldean... Eta igual irabazten duten soldataren erdia horretan joaten zaie, ez dutelako beste modurik. Laguntza dute, baina hori antolatzen ere ez dute lan gutxi egiten.

Gauzak, zentzu honetan, okerrera doaz, batez ere enpresa pribatuaren. Askotan, ama izan ondoren, hamar egun pasa baino lehen hasi behar izaten dute lanean».

«Nik dagoenez, ez du bide erraza aukeratu. Ez du, halere, ezer baztertu nahi.

«Nik nobela luze eta polita idatzi nahi dut, biak batera, luze eta polita. Luzea, aspertu egin naitzelako beti motzean ondo moldatzen naizela entzuten. Orain erronka hori jarri diot neure buruari. Egoskorheria kontua da eta ez dut etsiko. Baina horrek, oraingo behintzat, itxaron egin beharko du».



NORTASUN AGIRIA
ARANTXA ITURBE

1964

Ekainean jaio zen, Alegian (Gipuzkoa). Hiru senide izan ziren. Ama, extekoandrea, txikitari artista izan nahi zuena.



IRRATIGINTZA

Hamar urtetik gora daramatza saio berean, baina horrek ez du orain arte aspertu. Irratiarekin maiteminduta dagoela dio...

1983

Nafarroako Unibertsitatean Kazetaritza ikasketak hasten ditu. Horiei ekin bezain laster hasi zen lanean kazetari gisa: Deian, Herri Irratian eta Euskadi Irratian egin zuen lan. Hala ere, urterik galdu gabe amaitu zuen karrera 1988an.

IDAZLE

Sel urte zituela irabazi zuen idazle gisa aurreneko saria. Orduan egin zioten elkarrizketa batean handitan zer izan nahi zuen galdetu zioten, eta berak idazle erantzun.



1988

Euskadi Irratiko *Goizean Behin* saioan hasi zen, eta horretanxe jarraitzen du gaur egun.

1992

Sari garrantzitsuren bat eskuratu ondoren, lehenengo liburua argitaratu zioten, *Ezer baino lehen* ipuin bilduma.

1999

Ai, ama! saiakera argitaratu zuen. Ezkondua da eta mutiko baten ama.



SARIAK

Idazle bezala eskuratu du sari garrantzitsurik, eta Goizean Behin saioak ere eman dio pozik... Argazkian, lantaldekideekin horietako sari bat jasotzen dute.

Miresgarri eta
maitagarriJOXERRA GARZIA
IDAZLEA

Euskarazko uhinetan surfean dabilen edonor maitemintzeko moduko ahots beroa. Ezin uka hori ere badela Arantxa Iturbe.

Miretsi, nik gehiago miresten diot, ordea, beste dohain bat, ahotsarenak ez baitu, bere aldetik, meritu handirik. Esaten duena esaten duela, dioena baino gehiago esaten ari dela iradokitzen daki Arantxak uneoro. Eta hori ez da berez datorrena. Intonazio jakin bat, kumplimendu aretatuz aukeratuak, distantzia egokia, horiek guztiak behar dira horretarako, eta horiek landu egin behar izaten dira. Hala bide-etari, naturaltasuna da gehien landu beharreko artifizioa.

Bere pertsonalekiko eta haiek dakarzkieten gatekiko urrutiramendu ondo kalkulatu hori, bestalde, autodefentsa ere badela esango nuke nik: bestela nekez iraugo zuen hainbeste urtez jendearen belarri-izkinan.

Ahots berodun irratiko profesional handi bat baino askoz gehiago da, ordea, Arantxa Iturbe niretzat. Filoso-fiako ikasle izan nuen berak 18 urte zituela (orain EITBren kanpainan agertzen den argazkiko hori izan nuen ikasle). Lankide gero, idazleekin elkarrekin. Idazle scintitu gabe, idazleekin Elkarteak kideak izan gara luzean biok. Oraindik ere hala gara (barkide, alegia) baina uste dut ari garela asumitzen idazle izaera ere, zer arraiol! Baina, oro gaitetik (eta hala ere), adiskide dut Arantxa. Eta horretan dela esango nuke nik Arantxa trebean: uhinetik kanpo, aurrez aurre, lekukorik gabeko harremanetan.

Gauza jakina da hizketan trebea dela. Entzuten, berriz, ez du parearik. Horrek egiten du Arantxa horren miresgarri. Horren maitagarri.

Tximeleta eta erlea

A.U.

Tximeleta bat, lorez lore ibili beharrean, hitzez hitz dabilena. Hegoak zabaltzen dituenen, eta ia beti ditu zabalik, ikus dezakezu dena dagoela hitzez egina, are hegoak.

Ile motzak, praka estuak, oinetako plataformadunak, niki malba, gorputzari erantsia eta larruzko zamarra beix argia. Begiak, beti, betaurrekoz azpimarratuak, agian erleen tema ere erakusten dutenak. Diseinuko belarritako zilarisak. Zigarroak beti hurbil, gero, piztu ondoren, hautsontzian ahazten baditu ere. Motxila bizkarrean, auskalo ze altxorrez betea.

Oraindik ez zaio erabat desagertu berea beti lehenengo dela uste duen umearen ausardia. Hegan egiten duenean igartzen zaio, baita nekeak jotzen duenean ere. Lotan ere, ziur aski, baina ez dut hori egiazlatzerik izan.

Autoargazkia

ARANTXA ITURBE

Barre zein negar errazekoa naiz. Oso. Denbora gutxian batetik bestera aldatzeko kapazidatea dut, gainera. Gora-behera askoko pertsona naiz eta, askotan, ez diot neure buruari hori barkatzen. Iruditzen zait azken urteotan ari naizela hori pixka bat kontrolatzen, eta horrek lasaitzen nau. Zeren, gora-behera horiek ez dira niretzat onak, baina ingurukoentzat, are okerragoak baitira.

Horrekin batera, izaera bizia dut eta pronto gaiztoak ere bai. Nik uste dut nire izaera ez dela ona, adibidez, talde bat zuzentzeko. Saiatzen naiz hori kontrolatzen, txarra baita, edonorentzat, jefearen umorearen arabera jokatu behar izana. Asko sufritzen da eta asko sufriarazten. Gainera, hanka sartu dudanean hori aitortzea eta barkazioa eskatzea kosta egiten zait, kontua ahazteko tentazioa ere izaten dut, baina badakit gizagez ezin dela hori egin.

Azkarra naiz lanean, berez, eta horrekin suerte handia dut. Bi gauza egiteko momentu batekin nahikoa dut, denbora gutxian gauza asko egiten dut. Jokaera honek badu bentaja erantsi bat: neure burua zuzitzen laguntzen didala. Kobardeen justifikazioa da hori. Demagun elkarrizketa bat prestatzeko hogeita minutu ditudala. Egunero dut elkarrizketa eta seguraski ondotoz edo aterako zait. Baina ondo gelditzen ez bazait, hori daukat justifikazioa, denbora faltan.

Hori bai, sistema honekin ez naiz ia sekula satisfakzioz haultzen, ez ditut gauzak guztiz borobil eta brillantelortzen, nik nahi nituzkeen bezala.

Aldakorregia naiz. Noiz fidatu behar dut neure buruaz, gora noanean edo behera abiatutakoan. Eskerrak urteek... (The text is partially cut off at the end of the page.)


ELKARRIZKETA

Rafa Díez Usabiaga
LAB sindikatuaren idazkari nagusia

Gizarte-misiolaria

Berrogeita hiru urte ditu eta hogeita bost daramatza sindikalgintzan murgildurik, «egunean hogeita lau orduko militantzian».

TESTUA: ARANTXA URREBIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS



«Elkarlanaren ordeztu harresiak ditugu, lubakiak»

Hemezortzi urte zituela hasi zen lanean multinazional batean eta handik gutxiara sartu zen LAB sindikatuari. Bertatik defenditzen du «sindikalgintza eta sektore aurrerakoien zeregina» gizarte zuzenago baterako giltzari direla.

«Alderdi politikoaren inguruan kultura desegokia ari da sortzen. Azkenean, alderdi politiko bati buruzko loturak bi motakoak izan daitezke: edo barruan zaude eta bertan lan egiten duzu - eta alderdi guztiek dute horrelako ejerzito txiki bat -, edo lau urtean behin botoa ematen diozu eta kilito.

Historikoki, alderdi politikoek, batez ere ezkerrekoek, beti izan dute sare soziala, sare militantea, gizartea bizkortzeko eta azkartzeko. Hori, salbuespenak salbuespen, desagertzen ari da. Gaur alderdi gehienak komunkazorako tresna huts dira, sare sozialik gabe gelditzen ari dira. Barruko bizitza, konpromiso militantea, gizartearen arazotxo berruzko eztabaida eta gizarte-arekiko dinamika iraunkorra desagertu egin dira. Europa osoan gertatu da hori. Euskal Herriari dagokionez, nik uste dut indar abertzaleek bakarrik gordetzen dutela sare hori, indar hori.

Sindikatuak, herriz, akatsak akats -ez gaude gaurko gizarteari behar bezala egokituak, bertsorikuntza baten premium gaude-, badute barruko bizitza, badute dinamika iraunkorrik. Azkenean, enpresa batean edo sektore batean, egunero aritu behar duzu langileen interesen defentsan, etengabe. Sindikatu bat etengabe eta egunero dago tentsionatua langileen interesak defenditzeko.

Sindikatuaren bizitza dago, eta alderdi politikoak fosilizatuta daude».

Gazteen arazoak

«Etorrizunari begira, sindikatuon zeregina funtsezkoa da. Indar sindikalik gabe ez dago ezkerreko eskaintza politikorik. Estatu espainolean, adibidez, UGT eta Comisionesen nora ezetik dator ezker politikoa nora eza, ez alderantziz. Sindikatuak indar birtual soil bilakatzen badira, ezker politikoa bera desitxuratu egingo da.

Egia da sindikatu askotan, Estatu espainolean nahiz Europako leku askotan, heriotza biologikoak sindikatuak hil ditzakeela, barruan daudenak zaharrak direlako eta belaunaldi berriekin loturarik ez dutelako. Sindikatu batzuk zahartzen ari dira, alternatibarik gabe.

Hala ere, gazteak dira gaur lan baldintza okerrenak dituztenak. Badago hemen esplotazio isila, zaratarik sortzen ez duena, ikusten ez dena. Gazteek ondo dakite hori, baina haien gurasoek ere.

11 Sindikatuetan bizitza dago, baina alderdi politikoak fosilizatuta daude»

11 Ordu estrak egiten dituenak beste norbaiti enplegua lapurtzen ari zaiola jakin beharko luke»

Duela hogeita bost urte-edo lanean hasten ginenok baina hamairka aldiz okerrago sartzen dira gaur gazteak lan munduan.

Asko goratpatzen da gaur hazkunde ekonomiko eta sortzen ari den enplegua. Gure kezka nagusietako bat enplegu horren kalitatez eza da, batik bat gazteen-tzat. Guk, alor zehatz horretan, esplotazioa ikusten dugu, soldatetan zein lan orduetan.

Gainera, une honetan ez dago loturarik hezkuntzaren eta enpleguaren artean, bi mundu desberdin dira. Gazteek, hezkuntzatik ateratzen direnean, sekulako etena gaintu behar dute, kasu askotan, ikasitakoak ez die ezertarako balio egin behar duten lanerako. Eta ikasitakoak praktikatzeko ez baduzu, lanaren munduan erabiltzen ez baduzu,

lauzpabost urteren buruan ikasitakoak ez dizu balio, zaharkitu egin zaizu».

Lan mota desberdinak

«Une honetan, kompetentzia basati honetan eta erabiltzen diren lan baldintzekin, dena aldatu da. Orain arte pertsona batek bizialdi osoa bete zezakeen enpresa berean. Orain enpresa guztietan dauden egonkortasunik gabeko lanpostuak eta, sarritan, postu finkoa duena zaharrena da, jubilatzear dagoen norbait.

Oro har, gaurko lanaren bereizkuntza malgutasuna eta ezegonkortasuna dira. Eta egonkortasunik gabeko lana bi helburu nagusirekin erabiltzen da: alde batetik, etekin gehiago atera ahal izateko eta, bestetik, langileari beldurra sartzeko eta enpresetan egiten den sindikalgintza ahaltzeko. Enpresa batek berrogei langile baditu eta hortetatik hogeita hamarrek behin-behineko lanpostua badute, oso zaila izango da bertan ekintza sindikalik burutzea.

Hori izan da neo-liberalismoaren ondorioetako bat, klase subjektuaren atomizazioa. Gaur egun era askotako langileak daude: lanpostu finkoa dutenak, behin-behineko lana dutenak, autonomoak, langabetuak, pentsiotidunak, aurre-jubilatuak... Zatiketa horretatik etorri da sindikalgintzaren ahulezia ere eta, horrekin batera, kapitalaren nagusitasuna lan harremanetan».

Lana lapurtu

«Horren aurrean, edo langile guztien interesak defenditzen ditugu edo korporatibismoaren atzapa-



retan erortzen gara. Askotan esan izan ohi da sindikatuak lan egiten duten langileak dituzela gogoa, ez gainerako guztiak. Eta esanera horretan badago egia apur bat. Afiliatuak ditugun sektoreen arabera egiten dugu lan sindikatuak eta, normalean, afiliatuta daudenak lan finkoa dutenak dira. Langile sektore eta mota asko gelditzen da hortik kanpo. Hori gerta ez dadin, benetako elkartasuna behar da, eta elkartasuna sektore guztien erreibindikazioak lotzetik dator; adibidez, lan orduen murrizketa, ordu estren kontrako jarrera...

Euskal sindikalismoarentzat haitze freskoa izan dira azken urteetan 35 orduen aldeko borroka eta gizarte-soldataren aldekoa, helburu horiek langile guztientzat balio dutelako, baita lanik ez dutenentzat ere. Azkenean, alderdi politikoak ere behartu ditugu horretaz arduratzera. Bi aldarrikapen horien inguruan egin zen Euskal Herriari greba orokorra, eta horrelakorik ez da gertatu Europa osoan.





Duela gutxi batzar bat egin genuen gazteekin haien lan arazoak aztertzeko, eta beraiek argi zuten ordu estrak egiten dituen beste norbaiti enplegua lapurtzen ari zaiola. Gazteek argi dute hori eta horren modu sinplean planteatzen zuten elkartasuna».

Hitz handiak darabiltza hitzetik hortzera, hitz potoloak: elkartasuna, batasuna, elkarlana, borroka... Modu apalean ahozkatuak, hitzik arruntenak balira bezala, mende eta erdiko sindikalgintza laburbildu nahirik.

Etorkizunari begira

«Euskal Herrian, gaur bertan dugun egoeran, badira aukera objektiboak eszenatokiz aldatzeko. Baina baita beste fase luze eta gogor batean murgiltzeko ere. Bi aukerak hor daude eta, azkenean, guztion lanak erabakitiko du nora joko dugun.

Esana dut alderdi politiko gehienek freskotasuna galdu dutela eta, azkenean, kupula huts direla, giza-sarerik gabeko elkarteak. Eta hor goian dauden horiek

«Alderdi politikoen lubakiak kenduko balira, gizartearen kohesioa sendotu egingo litzateke»

gero eta zailtasun gehiago dute elkarlanerako.

Azkenean, elkarlanaren ordez, harresiak ditugu, trintxerak, lubakiak. Azken bi urteotan pertsona batzuk trintxera bat utzi eta beste trintxeretara hurbildu dira. Badirudi horrek zerbait aldatu duela, onerako izan dela.

Ni ziur nago, goikoan lubakiak kenduta, gizarte honen kohesioa handia dela. Alderdien lubakiak kenduko balira eta kultura politiko irekiago batera joko bagenu, gizartearen barne kohesioa sendotu egingo litzateke; abiadura handian, gainera.

Nire ustez hori ondo nabaritu

«Gu baino hamaika aldiz okerrago sartzten dira gaur egun gazteak lanaren mundura»

da azken bi urteotan. Denbora gutxi izan da eta, hala ere, familiarian, koadriletan, herrietan, beste kimika bat sortu da, beste hizketarako modu bat, elkarrekin egiteko eta hitz egiteko beste modu bat. Giza-kohesiorako joera dugu euskaldunok, Irlandan, adibidez, ikusten ez dena. Ziur nago goitik jarritako harresi eta lubakiak kentzen badira, gizartearen elkarlanerako uholdea handia izango dela.

Egina dugu frogaz azken bi urteotan. Eta orain, kimika berri horretaz gozatu ondoren, jendea lehengora itzultzeko prest al dago? Ez dut uste».



GIZARTEA. Lubaki, harresi eta oztopoak gehienbat goikoan artean daudela uste du Diezek, ez gizartearen.

NORTASUN AGIRIA
RAFA DIEZ

1956

Lasarte-Orian sortu zen, Gipuzkoan. UBI bukatu ondoren, Informatika ikasketak egin zituen.



SINDIKALGINTZA

Hogei urte zituela bildu zen LABera. 1989ko argazkian, Joselu Cereceda kidea atxilotu zuteneko prentsaurrekoa.

1974

18 urte zituela hasi zen lanean Lasarteko Michelinen. Hamahiru urtez egin zuen bertan lan.

1976

Greba baten harira sartu zen LAB sindikatuari.



LANKIDETZA

LABen eta ELAren arteko lankidetzaz ez da atzo goizekoa. Elkarrekin ospatu zuten 1995eko Maiatzaren 1a Jose Elorrietak eta Rafa Diez Usabiagak.

1986

Espainiako Parlamenturako hautatu zuten. Gaur egun ere Euskal Herriarrok taldeko legebiltzarkide da.

1992

LABeko idazkari nagusi izendatu zuten. Duela hilabete batzuk berretsi dute karguan sindikatukideek. Bi seme-alaba ditu, neska eta mutila, 14 eta 9 urtekoak. Familiari denbora gehiago eskaini beharko liokeela aitortzen du...

POLITIKARI

Duela hamalau urte hautatu zuten aurreneko legebiltzarre-rako. Argazkian, Inigo Iruin eta Arnaldo Otegi taldekideekin.



MIKEL CASAL

Apala baino apalagoa

JOSELU ZEREZEDA

Duela hogei urte baino gehiago dira Rafa ezagutu nuela. Gure lehenengo topaketa lanean, sindikatuari izan zen. Rafak ezaugarri berezi batzuk ditu, baina agian nabariena bere lanerako gaitasuna eta gogo nekaezina izan daitezke. Bere osasunaz gehiago arduratu beharko luke. Baina lan horri esker sindikatuari eman diona baloraezina da, benetan.

Apala baino apalagoa da. Gizartearen lortu duen ospeak eta izenak ez dute bere baitan eraginik izan. Herriko semea da eta horrela darrai. Berarekin harreman pertsonalak izatea plazer bat izan zen, eta da.

Sindikatu guztien lanaren emaitza da, baina, nahitaez, Sindikatuak badu Rafaren kutsadura apur bat, zozionez. Eta hau normala da, erabat. Rafak lorpen eder bat dauka, euskara bihotzeratu du eta lan-tresna izateaz gain, bere bizitza pertsonalaren protagonista ere bada. Arlo honetan, ereduzkoa.

Arlo sozialean zintzo eta zorrotza, arlo politikoan bezalaxe. Zorrotzasi- nangailek defendatzeko orduan, Aberria defendatzeko bezalaxe. Baina, batez ere, bere buruarekin da zorrotza, autokritikoa.

Erabatekoa, kide bezala, militante bezala, lagun bezala.

Berriro
saiatzen da

A.U.

Luzea da, eta argala, ez gihartsua. Reglamentoko praktak, beso motzeko alandora eta apenas apainguririk, ez bada ezkontza-eraztuna eta al-tzairuzko ordularia, urrezko puntu eta guzti.

Begiak pittin bat triste, bizkarra makur, ile leuna ia arrasto zuririk gabea.

Mantso egiten du hitz eta batzuetan, hizkuntza bere gogora makurtzen ez bada, atzerapauso bat egin eta berriro saiaten da, hitzak menderatu arte. Hor, begien argia estaltzen duen borondate horretan egongo da gakoa, baruko indar isila.

Autoargazkia

RAFA DIEZ USABIAGA

Pertsona konprometitua naiz, aspalditik. Hogei bost urte daramatzat militantzia sakon batean, egunean hogei lau orduko militantzian. Bizimodu hori nekez uztartzen da norberaren bizitzaren garapenarekin, familiarekin etab. Etengabea tentsioa sortzen da hortik, eta nire inguruan elkar ulertze handia dagoelako egin dezaket nire lana.

Gainera, gu ez gara, hainbat politikari bezala, soldata handia jasotzen dugun pertsonak. Hemen, sindikatu honetan, denok soldata bera jasotzen dugu, 135.000 pezeta hilabeteko.

Iruditzen zait, zentzu horretan, misiolariak gurea, lan sozialerako misiolariak. Uste dut nahikoa beneratua dudala hori. Batzuek esaten dute Euskal Herrian misiolari politiko asko dagoela eta, bai, nolabait esplikatu behar da Euskal Herrian gortatzen dena. Hori herri honen historiarekin lotua dago, Euskal Herriko kanpo ez da hainbeste lan kolektibo ikusten.


Dudan adinarekin, iruditzen zait nire pasiborik handiena lan kezkekin deskonektatzeko zailtasuna dela. Eta egiazko deskone-xiorik egiten ez baduzu, konexio ona ere ez duzu egingo zure inguruarekin. Horixe dabilkit orain bueltara, etxekoekin denbora gehiago eman eta aportazio gehiago egin nahi nituzkeelako.

Azkenean, denbora aurrera doa, seme-alabak ditugu, inguru-ne bat eta zure bizitza, goizetik gauera arte, zurrumbilo baten barruan dago, eta horrek aberas-tasun pertsonala murriztu egiten ditu.

elkARRIZKETA

Kepa Aulestia
Artikulugilea

Abertzale izateko moduak



Politikagintzaren lehen lerroan egon da urte askoan eta, orain, dezente atzeragotik, bere iritzia, kezka eta hausnarketak kaleratzen ditu.

TESTUA: ARANTXA URREBIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS



«Abertzale izateko era asko dago eta guztiok gara askotarikoak»

Besteak beste, liburu bat argitaratu du egunotan, *Gutun amai-gabea*. Bertan, duela ia berrogei urte galdu zuen aitonari eskutitz luze bat idazten dio, hark bizi eta bideratu zion abertzaletasuna eta oroitzapen pertsonalak nabasten dituela.

«Badakit, gure artean, lehen pertsonan eta nik erabiltzen dudana tonuan hitz egitea obsesio bat dela. Ohituak gaude hirugarren pertsonara edo pluralera: ni esan ordez, gu esatera, baita tonu zientifiko edo historiko batera ere.

Lehenagandik jasotako memoria isil hura guk ere isilean gorde dugu. Isiltasun hori kaltegarria izan da. Nik uste dut guk gure buruarekin, gure inguru-

koekin eta gure seme-alabekin abertzaletasunari buruz hitz egiteko zailtasun handiak ditugula eta hori, nire ustez, gure gurasoekin horretaz argi hitz egiteko gauza izan ez ginelako da.

Gainera, guri bideratu zigiten memoria zulatuta zegoen, hutsunez eta tabuz josia. Eta guk, zetorren hura zetorren bezala jaso beharrean, 60ko edo 70eko hamarkadetan zulo haiek estali egin genituen. Nork bere kabuz eta ahal zuen moduan. Guk idatzi diegu berari euren bizitako historia».

Aitonaren garaiki

«Argi dut gure aitonen beharrik ez zirela. Hori zehazteko zela...

11 Arazo handiak ditugu abertzaletasunari buruz hitz egiteko, eta isiltasun hori kaltegarria da»

norbait hiltzea. Pentsatzen zuten herri honek nola-halako nagusitasun moral bat zuela, beste norbait hiltzea kanpotik edo erbeste-tik etorritakoen gauza zela.

Uste zuten euskaldun batek ezin zuela horrelakorik egin, eta hori bakarrik erlijio kontuak zirela...

Hori guztia birrinduta gelditu da. Niretzat kezkarria da nola naturaltasunaz erabiltzen eta jasaten dugun biolentzia, normala balitz bezala. Nik uste dut hedatu dela euskaldungoaren barnean gutariko batek zerbait egin badu, izugarriko indarkeria izanda ere, halakok izango zuela arrazotzen bat egindakoa egiteko. Hori tolerantziaren eta erlatibotasunaren gehiegikeria da, mutur-muturrera eramandako zerbait.

Biolentzia, ordeu, ez du faktore neutro bat. Biolentziak bere autonomia du, bere bizitza; nola edo hala, bere autonomia. Berak sortzen ditu ideologia bat, kultura bat, portamolde batzuk. Azken...

nengoa zer den ez dakigun bezala, ez dakigu zer puntutaraino den biolentzia konfliktu baten adierazpena edo konfliktu horren muna».

Gaurko gurasoak

«Nik uste dut gure belaunaldiko gurasoak bigunegiak izan gaitela. Heziketa autoritarjoari uko egin eta gure seme-alabak askatasunean hezi ditugu, eskuzabollasun osoz. Eta azkenean lortu dugun produktua oso diletantea da, erlatibotasunari erabat emana. Ez gara ausartu gauzak zer puntutaraino diren onak eta zer puntutatik aurrera txarrak adierazten.

Mantikeismoari ihes egin nahirik, atzera egin dugu. Adibidez, ez gara beste norbait...



guk eta inguratzen gaituenak zera bat osatuko bagenu bezala. Askatasun kolektiboa eta indibiduala aldarrikatzen ditugu, baina gero ez dago erantzukizunik, ez damurik ez barkazio eskakizunik. Dena galtzen da testuinguruetan, baldintzetan, besteen jarretan... Egiten duguna egiten dugun moduan egitera derriortuak bageunde bezala.

Unerik latzenak

«Gaur, askorentzat, abertzale izatea nahitaezkoa da eta, gainera, abertzale izateko modu bakarra dago. Nik uste dut abertzale izateko modu asko daudela, abertzale guztiok garela askotarikoak. Eta abertzale izateko modurik seguruenak alderdikide izatea dela. Horrela, taldean, ez zara susmargarri. Eta kontu eroso da hori: total, hurrengo egiten zara eta kitto.

Dudarik gabe, orain baino lehen pasa ditugu une latzak, baita gaurkoa baino hobea ere. Adibidez, gaur bizi dugun sektarismoa ez da samurra, baina ezta gaur sortutakoa ere. Francoren kontra ari ginen garaiko sektarismoa baino gehiagorik ezin da asmatu. Nik uste dut justu Franco hil aurreko urteak oso gogorak izan zirela zentzu horretan, orduan boikot gogorak egiten zitzaizkien abertzaleen dogma betetzen ez zuten, abeslari, idazleei...

Orain ez dugu horrelakorik aipatzen, baina izugarria izan zen. Miresgarria da sasoi hartan sektarismo horri aurre egin behar izan ziotenen jokaera. Orduan arraroak iruditzen zitzaizkigun batna nik, orain, miretsi egiten ditut haietako pertsona asko, beti gizarte hobea baten aldeko lanean, beti zapalduen alde.

Baina, oro har, nik uste dut bizi izan dugun historiaren momenturik txarrenean gaudela. Esaten dute lehen ere bizi izan ditugula honelako une latzak, baina ez. Momentu batzuetan hildako gehiago egon dira, benetako sarraskiak, baina sekula ez dugu

11 Bizi izan dugun unerik txarrenean gaudete orain zatiketarik ez zibilaren itxurak hartzen ditu»

11 Ondo bizi garen bitartean, konfliktua neurritz kanpo dramatizatzeko kapaz gara»

11 Francoren kontra ari ginen garaietako sektarismoa baino handiagorik ez da oraindik asmatu»

dea traunkorra da. Jendeak izugarriko fideltasuna dio botoari».

Abertzaleen topea

«Kontuan izan behar da, HB edo EH bezalako erakunde erradikal eta iraultzaileak boto gehien lortzen dituen eskualdetan, ia langabeziarik gabeko eskualdeak direla. Kasualitatea? Izan liteke. Baina, hala ere, horrek adierazten du kapaz garela, ondo bizi garen bitartean, konfliktua neurritz kanpo dramatizatzeko».

Konfliktua egon badago, baina, bizi garen moduan bizita, gehiegi dramatizatzen dugu bizi dugun egoera.

Hor egiten du kale abertzalearen, hor aurkitzen du bere mezua gizartearen zabalteko otoporik handiena. Eroso gaudenez, ba itra, jolas gaitzen gerretara, egin dezagun gerraren itxura, horren antzeko zerbait pentsatuko bagenu bezala. Antzeko zerbait egon, badago, abertzaleen historiari beti egon da horrelako zerbait.

Nik uste dut izugarria izan dela urte hauetan lortu duguna, ezin daithekeela esan Euskal Herrian batna hobeto ezin dela inon bizi eta, era berean, zapalduak gaudela. Biak balera, ez.

Beste gauza bat da ondo bizi garela eta, gainera, hobeto bizi nahi dugula, hitza eta erabakia nahi ditugula. Baina onartu beharko dugu izugarria dela lortu duguna.

Abertzalegoan oso zabaldua dago honako uste hau: dena posible ez denez, posible denak ez du garrantzirik. Eta hori ez da egia.

Nik uste dut orain duguna dela etorkizunerako oinarritik sendoena, hori baino sendoagorik ez dugula asmatuko. Abiapuntua hori da, horrek izan behar du, nire ustez».

Horik aurrera, ez omen da «une larri honetan» irtenbidea zela den zehaztera ausartzen. Eta ausardiarik eza azpimarratzeko, buruari eragiten dio, behin eta berriro.

GOGOETA. Euskal Herriko gizartearen akritiko eta iheslaria hedatu izanak kezkatzen du, gogoeta faltak.



berez, txarra dela esateko gauza izan, horren atzean ezin daithekeela justifikaziorik ez testuingururik egon, ez arazorik ez programarik.

Azkenean, euskaldunonaren pentsatzeko modu akritikoa hedatu da, nahikoa iheslaria, ezer juzgatu nahi ez duena eta, gainera, autozensura egiten duena. Nik uste dut, agian konturatu gabe, gorpuztu gabeko gizarte bat sortzen lagundu dugula.

Eta, horrekin batera, panteismo moduko bat asmatu dugu,

NORTASUN AGIRIA
KEPA AULESTIA

1956

Ondarroan jaioa, itsasbazterrik famatuenean. Txikitan, familia osoarekin batera Pasaiaira joan zen bizitzera.



1956koa, Euzko Legebiltzarraren lehenengo legegintza. Kepa Aulestia, ezkerrean, eta beste batzuk, eskuinean.

EUSKADIKO EZKERRA

1980.ean mitinlari Tolosan (Gipuzkoa), Xabier Gurrutxaga eta Mario Onaindiarekin batera.

1975

Batxilergoa eta UBI bukatu ondoren, ETA(pm)ko partaide egin zen. 1975ean atxilotu eta kartzelaratu zuten.

1977

Aministiak ireki zizkion kartzelako atak.



1985

Euskadiko Ezkerra alderdiaren idazkari nagusi izendatu zuten.

1986

Eusko Legebiltzarkide hautatu zuten 86.eko eta 90.eko hauteskundeean.

2000

Politika utzi eta Bilbon bizi da. Enpresa komertzial bat du anaiarekin batera. Iritzi artikulak argitaratzen ditu eta Talaia aldizkaria zuzentzen du.



HAUSNARKETA

Adiskide eta kolaboratzaile inguratuta, Talaia aldizkariaren ale baten aurkezpen ekitaldian, 1998an.



MIKEL CASAL

Lotsagorritzeko gauza dena...

INAZIO MUJIKIA IRAOLA

Nortasun Agiriari Pedro Aulestia ageri da. Etxekoentzat Kepa izan da berrogeita lau urtez. Ez du Nortasun Agiri izena aldatzeko asmorik. Nahiago du Pedro hori bere horretan eta bere horretarako gorde, hotza hotza zen garaiko oroitzapen hondartzat.

Gutun amaigabearen aurkezpen-ekitaldiaren ondoren, bazkaritan ari ginela, ez dakit zein gaiten harira esan zuen gizon-emakume prestua (*honestoa* esan zuen berak) erraza dela ezagutzen, lotsagorritzeko gauza den huraxe. «Lotsagorritzen dakiena» idaztera nindoan, baina «gauza dena» esan zuela uste dut. Izan ere, lotsagorritzen ez da ikasten, berez da norbera gauza edo ezgauza.

Liburuan dio aitonaentzat familia zela aberriaren eredu. Nago ez ote zuen idela horixe bera jaso ondare nagusi bilobak. Nolanahi

den, ezin da ukatu atxikimendu berezia diola familiar. Atxikimendua, hizkeraz eszenifikatua sarri. Euskara batuan airtuko da zurekin, eta, halako batean, telefonoz amari, edo beste Aulestiatarren bati deitu, eta orduan Ondarroako hizkerak mugatzen duela haren aberria sentitzen duzu.

Beti miretsi izan dut Keparen begi analitikoak. Aurrez aurre ezagutzen ez, eta jarduera politikoan bete-betean ari zela ere bai. Ez da, errez berotu eta, zernahi esaten duen horietakoa izan, ez lehen ez orain. Keparen idazlanak jarraitu nahi dituenari horixe eskatzen zaio, beroarena aurretik erantzita hastea irakurtzen. Zer pentsa gelditzeko prest egotea aurretik. Bestela jokatuta, lotsagorrituko litza-tekela uste dut. Eta lotsagorritzeko ahalmenak ematen dio kolorea bere benetako nortasun agiriari.

Itsasbazterreko mendia

A.U.

Handia da, guztiz, eta, dageneko, sendoa, gazte garaiko ertzak apur bat biribildurik.

Traje urdin iluna darama, reglamentozkoa ez balitz harikoa, ohiko ehunak baino malguagoa. Hezur koloreko alkandora eta korbatarik ez. Mokasin beltzak eta galizetin luze finak, zangoan gurutzatu ondoren ere azal izpirik erakusten ez duten horietakoak.

Lasai egiten du hitz, baina ez motel. Keinuak ere ez dira oso ugarriak.

Ilea zuriz zipzirtindua eta begiak toledura xamurrez inguratuak, sarritan aurpegiatzen zaion irribarre zuhurraren eraginez.

sasbazterrean sortu, hezi eta inbiz da, baina lurraren fidagarritasuna du, Muhammad berak nekaz mugituko hokeen mendlaren itxura tematia.

Autoargazkia

KEPA AULESTIA

Nik uste dut batera naizela tradizio zalea eta errebeldea. Lasai eta lotsatia. Hausnarketara emanda, agian gehiegi, baina lasaitu naiz horretan ere pittin bat, urteek bareizen laguntzen dutelako. Halako batean, ulertzen duzu gauza guztiak ez direla aztertu behar, batek ez duela denborarik edo ahalmenik edozein arazoren aurrean jarrera bat edukitzeko. Neurrian egin behar ditugula gauza guztiak.

Nire bizitzaren konstante bat izan da arazo publikoekiko kezka (arazo politikoak ez esatearren). Txiki-txikitik izan dut ardura hori. Ez dut noiztik esango, harrigarria dirudielako. Aitona Valentin hil zitzaigunean nik zortzi urte nituen eta egun hartan gertatutako gaur gertatu izan balitz bezala gogoratzen dut, zer pentsatu nuen haren hilobiaren aurrean. Nire erara, seguru asko era erromantiko eta pelikulero batean, zin egin nion nolabait eutsiko niola ez dakit zer su edo zerari.

Egia da, era berean, urte askotan nire lanbidea horri lotua egon dela eta oraindik ere nire eginkizunen zati bat hor dagola. Ahalegintzen naiz informatua egoten eta nire iritzia ematen.

Lau alaba ditut eta nik esango nuke bizitza lanetan izan dudana guztia hori dela emakumezko lagun asko batea beti nire inguruan. Nire lagunik minenak neska izan dira eta dira. Horrekin asko ikasit du, politikan nahiz bizitzan.

Orain, politika aktibotik guztiz aparte nago eta ez dut bertara itzultzeko inolako asmorik. Nik ondo pentsatu nuen garai hartan, oraindik ere lagin ditudan asko orduan ezagutu nituen. Hain nire sentitzen nuen egiten genuena; orain ez nintzateke izango antzeko lotura sentitzeko gauza.

Nik, orain, artikulua idazten ditut eta konpromisorako edo gizaitearriko lotura beste bide batzuetatik doa.

Gauza txarrak esatekotan, esango dut nahiko burugorria naizela, nahiko autosufizientea askotan. Eta orguiloso, oso, batzuetan intratable bilakatu arte.

elkARRIZKETA

Jose Inazio Ansorena Miner

Txistulari eta pailazo

Hamelingo txistularia

Musika entzuten,
jotzen edo idazten
ari ez denean,
haurren algarak
fabrikatzen eta
entzuten ditu.
Bata zein bestea
euskaltzaletasunak
bultzaturik.

TESTUA: ARANTXA URRETABIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS



«Haurren inguruan inozokeria asko dago»

Aitona txistulari ospetsua zuen, garairik ilunenetan igandero Donostiako kaleetan txistua jotzen zuena. Hantxe, aitona igandero lantoki zuen Konstituzio plazan jaiotzen zen adiskide eta lankide askok Peter izendatzen duten gizona.

«Igande goizetan, aitona diatona jotzen zuen eta kaleei buelta eman ondoren plazan sartzen zenean, han egoten nintzen ni zain, balkoian. Orduan, aitona, balkoira begiratu eta makilarekin agurtzen ninduen.

Etxean beti bizi izan da musika. Aitona ez ezik, aita eta osaba ere txistulariak dira. Baina ez zidaten inongo presiorik egin. Kresalan hasi nintzen, bertako dantzari taldean, kuadrilakoekin, dantzari gisa. Gertatu zen dantzari asko ginela eta txistulariak, herriz, guxiegi. Horrela hasi nintzen, ia halabarrez. Nik

11 Gaur egun ere danbolinteroak badu bere lekua gizartean, baina leku hori zein den jakin behar dugu»

etxean banuen txistua eta bultzatuta hasi nintzen, baina ez etxekeok bultzatuta. Gero afizioa hartu nion, baina, hala ere, pena izugarria eman zidan dantza uzteak».

Bikote unibertsala

Txistularia da orain: Donostiako Txistulari taldeko zuzendari, hain zuzen.

«Mundu osoan zabaldua dau-

11 Hasiera-hasieran erabaki genuen ez genuela gure bizimodua pailazo izatetik aterako»

de danbolina eta txistua bikote gisa. Aldaketak daude batetik bestera, Salamancan, Mexikon, Ekuadorren, Ingalaterran... txistua handiago edo danbolina txikiago, bakoitzak itxura desberdina. Mundu osoan bikote horri danbolina deitzen zaio. Eta hemen ere bai, danbolinteroak.


Datuak dauzkagunetik, XII. mendetik aurrera, irudietan, kapituletan-eta, beti infernua-

jartzen zuten danbolinteroak, gaztedia galbidera eramaten zuela leporatzen baitzioten.

Gero, dibertsio kontrolatu bilakatu zen, udalaren soldatapeko. XIX. mendean, liberalismoaren eraginez-edo, danbolina karlistoarekin lotu zen, ideologia atzerakolekin. Santa Kruz apatzak, esate baterako, herri bat hartzen zuenean aurretik danbolinteroak eramaten zuten eta musika horrekin sartzen ziren herrian. Gero, danbolinteroaren musika eta dantza suloa baimentzen zituen, ez bestelakorik.

Mende honetan abertzaletasunak ere lagundu zuen horretara: gure dantzak garbiak dira eta besteak ez...

Gaur egun, danbolinteroak badu gizartean bere lekua. Herri handi batean ezin dugu konpetitu izugarriko basleak erabiltzen



ELKARRIZKETA



GURASOAK.
Haurrak baino gehiago aldatu omen dira azken urteetan. Eta guraso izatearen kontzeptua galdu...

dituen talde batekin. Guk gure txokoa bilatzen dugu eta kalez kale gabiltzanean, ahal dela, oinezkoentzako kaleetan ibiltzen gara. Jakin behar dugu gure lekua zein den, eta horretara egokitzen garenean jendeak oso gustura hartzen gaitu.

Txistuak gure artean zentzu errituala ere badu, jendeak oso gustuko duena. Kamera musika edo barrokoa egiteko ere balio du txistuak. Dantza folklorikoetarako ere bai, noski. Hortik kanpo, dantza, gaur egun, gero eta gehiago egiten da tresna elektronikoenekin».

Pailazo bilakatu zirenekoa

«Txistularitzarena Kresalan sortu zen, eta pailazoena ere bai. Han hasi ginen umeentzako festa- eta antolatzen larumbat arratsaldeetan. Bururatzen zitzaiguna eta ahal genuena egiten genuen, super-zortziko filmak, antzerkia... Beti dena euskaraz, noski. Batzuetan gure poltsikotik dirua jarri ere bai.

Halako batean, pailazoena bururatu zitzaigun. Betiko joerarekin, 'egin dezagun', esan genion geure buruari eta di-da, hast ginen ikuskizun bat antolatzen. Kuadrila giroan egiten genuen hori eta handik gutxira, hiru lagun gelditu ginen: Ktxki, Mixki eta Kaxkamelon. Horrela hasi ginen.

Geroztik hogeita bost urte baino gehiago pasa dira, eta orain txikitari gure ikuskizunetara etortzen zirenak guraso bihurtuta etortzen zatzkigu, euren seme-alabekin.

Ustekabean hasi ginen, borondatez baterik eta oso trakets eta, halako batean, Ateteko ikastolara joan ginen eta handik aurrera detak jasotzen hasi ginen. Hamahiru urtez ibili ginen herriz herri, gehienetan xentimurik kobratu gabe. Kasuren batzuetan joan-etorria eta makilajeak ordaintzeko adina irabaziz...».

Lana, ez lanbidea

«Hasi berria zegoen Euskal Telebistak saio bat eskatu arte, horrela joan ziren gauzak. Egin genuen saio hura eta hor hirukotea desegin egin zen. Xabier Otaegi eta biok gelditu ginen, eta izenak aldatu ondoren, jarratu egin genuen. Handik aurrera, Txirri, Mirri eta Txiribiton izan ginen.

Guk, duela urte mordo bat telebistan egin genuen lehen saiotik, gure lanak ahal bezain profesionaletan izan behar zuela pentsatu genuen, baina ezin genuela hortik bizimodua bilatu, ez zegoelako nahiko merkaturik. Orduan erabaki genuen bizimodua beste nolabaik antolatuko genuela eta, tarteka, pailazo lana egingo genuela. Serio eta profesional, baina hori gure ogibidea zenik pentsatu gabe. Serio egiten dugu eta -nik hala uste dut- baita txukun ere.

Urte guzti hauetan euskara lantzen saiatu gara, euskarari zukua ateratzen, erregistroak bilatzen, esapideak aukeratzen, askotan elebitasunaren ondorioz. Azken kontu honek kritika bat baino gehiago ekarri digu, gaztelaniazko hitzen bat tartekatatu izan dugulako. Garbizaleei ez zaie hori gustatzen, baina guk hitz horiek umore iturri eta esprestobide bilakatu ditugu».



☞ Gaurko haurrak oso bizkorak dira eta gauza asko ikusten dute, baina oso azkar bukatzen zaie haurtzaroa»

☞ Batzuetan haur txikiegiak eramaten dituzte ikuskizunetara, baita haur mimatuegiak ere»

Aldaketa handiak.

«Gu pailazo lanean hasi ginenean hona mundua aldatu egin da, haurrak aldatu egin dira. Eta, batez ere, gurasoak aldatu dira. Haurrak ere aldatu dira, noski. Batetik, askoz gauza gehiago dituzte inguruan eta, beraz, bizkorragoak dira.

Lehenago haurrak urtea bete arte-edo sehaska eduki zuten zintzen; oraingoak, berriz, beste dinamismo bat ematen zaie. Hori objektiboa da, psikologoen frogatua: gaurko umeak bizkorragoak dira. Gero, askoz ere gauza gehiago ikusi dute eta horrek eragindakoak egin ditu. Horrekin batera kontsentituagoak daude, eta hor dago problemarik handiena.

Haurrak aldatu dira, bai, baina, gehienbat, gurasoak aldatu dira, gurasoek galdu egin dute, neurri handi batean, guraso izatearen kontzeptua.

Mendeetako lehen aldatu dira eta zaila da gurasoentzat zer egin

jakitea. Espero dezagun hiru edo lau belaunaldi pasa baino lehen gauzak baretzen hastea.

Gaur, batzuetan, haur txikiegiak eramaten dituzte ikuskizunetara; haur mimatuegiak ere bai. Nik uste dut gaur haurren inguruan inozokeria asko dagoela, goata artean biltzen dituztela. Eta gure ikuskizuna ez da horrelakoa. Gu, haurrentzat, emozio fuertea gara. Momentu batean, Txirrik bihurrikeriak egiten ditu eta, agian, goata artean hezitako umea larritu egiten da.

Bada modan jarri den beste gauza bat: haurrak bakarrik uzteko ohitura. Zortzi ume barruan utzi eta beraiek ospa. Ez. Gure ikuskizunak familian ikusi behar dira, gure emankizuna, askotan, tentsioa delako.

Gaurko haurrak oso bizkorak dira eta, gainera, haurtzaroa oso azkar bukatzen zaie. Gu honetan hasi ginenean hamahiru edo hamalau urteko haurrak pozik etortzen ziren gure saioetara. Gaur egun, hamaita urte gehiegitxo dira, hortik aurrerakoak beste kontu batzuetan dabilza.

Hori guztia krisi sakon batean gauden seinale da, krisi kultural batean. Gizarteak eta kulturak, oso denbora laburrean, mendetako legeak aldatu ditu eta, horren ondorioz, denok nahiko galduta daude.

Belaunaldiak beharko ditugu hori berriz ere konpontzeko. Familiari buruzko planteamonde guztiak aldatu egin dira sakonean, oinarritik; horregatik gaude galduta».

Bitartean, musika joko du eta tartetean, algarak landuko ditu serio eta txukun, gero haurrek, ikuskizunetan, martxan jarri dituzten. Malkoren bat ere bai, haurrek ez dezaten guztia mantxungaren denik pentsatu.

NORTASUN AGIRIA
JOSE INAZIO ANSORENA

1953
Donostian jaio zen, Konstituzio plazan. Geroztik, beti bizi izan da Donostiako Parte Zaharren inguruan. Ahal dela, kaia eta itsasoa begien aurrean.



TXISTUA
Ezkerreko betaurrekoduna da Jose Inazio Ansorena, Donostiako Udal bandako zuzendari orduko hartan ere.

Letretako lizentziatura egin zuen Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean, Filologia Errómanikoaren arloan eta, bederatzi urtez, irakasle izan zen Donostiako Manuel de Larramendi ikastetxean. Ez da, ordea, erraza, bere ibilbide anitz eta zabala dataren mende jartzea...

FUNTZIOA
Xabier Otaegirekin batera, Euskal Telebistako *Funtzioa* saioan aspaldiko batean...



1972
Pailazo lanetan hasi zen beste bi lagunekin batera. Euskal Telebistatik deitu zituztenean bilakatu ziren *famatu*. Hala ere, ez dira hortik bizi.

1982
Euskaltzaindiaren *Felipe Arrese Beitia* poesia saria irabazi zuen. Irakurle amorratua izateaz gain, idazle trebea dela ere erakutsi du Ansorenak.



PAILAZO
Txirri, Mirri eta Txiribiton 1997an. Euren aurreneko ikusleak gaurkoen gurasoak dira...



MIKEL CASAL

Autoargazkia

JOSE INAZIO ANSORENA

Langilea naiz, edo hori esaten dute, zorrotz xamarra, malalietxekoa. Era berean, zintzoa. Hori uste dut, behintzat. Normalean, agenda planez beteta izaten dut eta ez zait denbora iristen. Beti ibiltzen naiz egiteko gelditzen zaidanari begira.

Irakurzalea naiz eta paper zaharrak miatzea gustatzen zait. Zaletasun asko dltut. Mendia naitz itsasoa maite dltut. Gu, txikitan, kaitan haitz-takoak gara, karramarroak harrapatzen, kiskirak... Beti izan dugu kuadrilan itsasontziren bat, baina azken hamar urteotan ez. Denbora eskatzen du eta hori ez dut sobran. Ezagutzen ez nauen jendeak esa-

ten du oso serioa naizela, Kontserbatorioko zuzendaria nintzenea hori esaten zidaten. Aldiz, ezagutzen ez nauen askok ganberroa naizela esango dute. Irakaskuntzan urte asko eman dut eta gustatzen zait. Baina, aukeran, nahiago musika jo irakatsi baino. Entsaioak gustatzen zaizkit, prestakuntzak, moldaketak.

Ordenatua naiz, batez ere denbora antolatzerakoan. Gauza batzuetan maniatiko ere izan ninteko, maniak hausten saiatzen banaiz ere. Nik beti esaten dut urduri, enkargu bat ematen didatenean egoten naizela. Gero, lana ondo eta txukun prestatu ondoren, joan egiten zaizkit nerbioak.

Jenio jakintsua

XABIER OTAEGI
PAILAZO ETA BANKARIOA

Jenioa. Zentzu guztietan jenioa. Hau da, jenialidadeak egiten dituzten horietakoa batetik, eta jenio txar sakon eta ugaria dutenetakoa, bestetik. Egiten dituen gauza guztiak egiten ditu ondo (hanka sartzak berak, mundialak izaten dira), ez du erdipurdikeriatan jarduten. Zerbaitetan sartuz gero, leporaino murgildu eta emaitzak ondorioz beti izaten ditu espezialak, jenialak. Langilea da oso, hori du bere sekretua.

Eta zer-nolako dialektika, aizuze! Ez duzue diskusioan sekula santan gaitutuko. Bere jarrera beira lodituzte estaliko balu bezala, kontrakoari aximurririk egiten sikierra ez dio utziko. Baina honetan ere badu bere sekretutxoa: ezagunak dituen gaietan bakarrik eztabaldatzen da.

Ziklistoaz, adibidez, tutik ere ez daki. Oraintsu, Eddy Merckx izeneko ziklista gazte bat badabilela aitortu zigun tonu jakintsuz. Induraini buruz ere zerbait badauki. Nire aldetik, Haimar Zubeldia izeneko usurbildar gazte bat egundoko ziklista datorrela esaten hasi nartzalo, jakinaren gainean egon dadin.

Baina txistuaz, euskal kantua, musikaz eta literaturaz, antzerkiak, pailazogintzaz eta umoreaz galdegiten badiozue, asko eta ondo erantzungo dizue.

Esan dizuet hasieran, jenioa da.

Bat bi denean

A.U.

Txikila da eta sendoa. Mozorrorrik gabe (praka pintadunak kateatzen, mokasinak eta kitto), gehiago dirudi txistulari pailazo baino.

Serio eta txukun azaltzen denean, begiek ez dute puntu jostalari galduko. Eta jostalari eta txukun azaltzen denetan, beti igarriko zaio tristura puntu bat edo agian ez da tristura, agian beste niaren arrastoak dira, han ezkutuak.

Boligrafo batekin jolasean egiten du hiltz eta edozein gai alpatzen duehean, beti sumatzen duzu nahi izanez gero, luzarotan, dokumenturik, serio eta txukun jardun lezakeela. Hitzuna da eta horrela ikusten du bere burua. Baina hitzun kontrolatua, sakabanatzen denean berehala harita itzultzen den horietakoa.

ELKARRIZKETA

Yolanda Alzola
Telebistako aurkezlea

Itxura baino gehiago

Lau urte darama aurkezle gisa eta, oraingoz, horretan jarraitzeko asmoa du. Jendeari, gehienetan, eskatzen duena eman behar zaiola uste du, eta itxura hutsarekin ez dela aski, are gutxiago itxura hutsaren erreinua dirudien telebistan.



TESTUA: ARANTXA URRETABIZKALIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS

«Eskatzen duena eman behar zaio jendeari»

Arte Ederretan lizentziatu ondoren, Madrilera joan zen ikasketak osatzeko asmoz. Han, ikasi bitartean, publizitatea izan zuen lanbide. Aldez aurretik, egina zuen zertxo bat Euskal Telebistan.

Euskal Herrira itzuli zenean, argitaletxe batean hasi zen lanean, haurrentzako liburuetakoa marrazkiak egiten.

Horretan ari zela sortu zitzaion Euskal Telebistaren saio berri batean lan egiteko aukera.

«Argitaletxean lanean ari nintzela deitu zidaten Euskal Telebistatik saio berri baten aurkezle izateko. 'Lo que faltaba' zen. Aurkeztu nintzen, aukeratu ninduten eta hor erabaki zaila hartu behar izan nuen: edo nire ikasketen arlotik joan, edo telebistan lan egin.

Telebista aukeratu nuen, kostata. Esan nion neure buruari orduan egiten ez banuen, ez nuela sekulan egingo. Marrazkiak, diseinuak, ordea, beti izango da aukera posible bat.

Hasieran, satoak ordu erdia zuen bakarrik, eta ez genuen pentsatzen kotileoaren kontuarekin hainbesteko arrakasta izango genuenik.

Lehenengo saioetan erregetzaren inguruko pertsonaia aipatzen genituen gehienbat. Ikusizunen munduko pertsonaia gero etorri zen».

Prensa arrosa


«Nik neuk betidanik irakurri izan ditut arrosa koloreko aldizkariak. Gure etxean beti erosi izan da 'Hola'. Horixe irakurtzen zuten nire bi amamek, eta amak ere bai.

Gero, Madrilan, mundu hori pittin bat ezagutzen hasi nintzen, aldizkariak eratuak festetara joaten nintzelako. Niretzat dibertigarria zen, baina besterik gabe. Ez dut inoiz inor idealizatu. Agian gustatzen zait hau edo hura ezagutzera, baina ez ditut idealizatzen.

Gogoan dut, 'Lo que faltaba' ren hasieran, satoaren zuzendariak guztioi galdetzen zigula nori interesatuko zitzaizkion, Euskal Herrian, Lolitaren gorabeherak. Halako batean, konturatu ginen hemengo jendea beste edonongoa bezalako dela eta baietz, interesatzen zitzaioela Lolita norekin elkartzeko den.

Nik uste dut jendeari eskatzen duena eman behar zaiola. Ez beti, baina askotan, bai. Denetarik eskatni behar zato ikusleari. ETBk saio baharra du bihotzaren inguruko gauekin, gurea. Eta ez zait gehiegi iruditzen.

Lehen, jendeak harreman asko zuen aldamenekoarekin edo parekoarekin. Orain, gero eta gutxiago. Agian ez duzu aldameneko ate bizi dena ezagutu ere egiten. Oraingo harremanak ez dira hain hurbilak eta prentsa arrosan azaltzen direnak hurbil sen-



titzen ditugu, agian pareko atean bizi den ezezaguna baino hurbilago. Badakigu halakoa norekin eta noiz ezkondu zen, noren alaba den, noren andregaita izan den, zer arropa eramaten duen festetara edo erosketak egitera irriten denean, zer-nolako hizkera duen... gauza asko. Nik uste dut hori dela kontua, famatuak ezezagun direla.

Normalean lanean bertako harremanak ditugu eta, asteburuetan, lagunak. Agian hori ez da nahikoa.

Gainera, beti gustatu izan zaigu halakoren edo bestearen bizitzaren berri izateko. Gainera, zu haurdun bazau eta halako famatu ere haurdun badago, bada harengandik hurbil sentitzen zara. Edo zu banantzeko zorian zaudela beste norbait banantzen bada, gauza bera gertatuko zaizu.

Hortik aparte, modaren kontua ere badago, eta jendeari interesatzen zato halakok zer arropa janzten duen ikustea, festa batean edo

ezkontzen denean. Lehen, alboko jendeak buruz egiten genuen hitz eta gaur, agian, telebistan azaltzen den jendeari buruz».

Famatuen bizimodua

«Gaur jendeak famatua izan nahi du, kosta ahala kosta. Ikusten du horrelakoek diru asko dutela, kristoren txaletak dituztela, sekulako arropak... Pentsatzen dute prentsa horretan azaltzen den jendea oso ondo bizi dela eta ikusleak, aldez, agian ez du lanik edo lan kaskarra du, beti bizi izan da herri berean, ez du bidaiatzen...

Eta bai, famatu batzuk ondo biziko dira, baina beste batzuk hor dabilta beti, atentzia deitu nahtan, beti kamera baten edo kazetari baten bila, atsedenik gabe. Agian hemen azaltzen banaitz, handik edo hemendik delako didate lan bat eskaintzeko... Niri, egia esan, batzuek pena ematen didate, ez inbidia.

Hemengo jendea, ordea, lan bat egin delako egiten da famatua, ez ez-dakit-noren semea edo ala-

11 Prentsa arrosan azaltzen direnak hurbil sentitzen ditugu, pareko atean bizi den ezezaguna baino hurbilago»

12 Niri famatu batzuek pena ematen didate, ez inbidia; gauzak ez dira diruditen bezalakoak»

ba delako. Kepa Junkera famatua da, batna osp musikari ona delako. Gauza bera gertatzen zaie futbolarietako edo politikarietako. Baina hemen ez dago ezer egiten gabe famatua bilakatu denik.

Gu saiatu gara bestelako famatuak bilatzen, batna ez ditugu aurkitu. Gainera, hemengoekin kontu handia izan behar duzu. Ezin duzu ahaztu halakori buruzko berri bat ematen duzunean, datorren astean edo datorren urtean satora deituko duzula. Eta suabe-suabe aritu behar duzu.

Famatuen munduan edo prentsa arrosak islatzen duen giroarekin beste hainbat giroarekin gertatzen dena gertatzen da: itxurak itxura, gauzak ez direla diruditen bezalakoak.

Kontuan izan behar da bizitza arrunta, jende arruntarentzat, ez dela beti zoragarria izaten. Eta hori ahazteko ere begiratzen dituzu famatuak. Bizitza gogorra da guztiontzat eta famatu hauek, aldez, beti dirudite zoriontsuak, beti dirudite alaiak, beti ederrak. Dirudite, eta jendea horrekin gelditzen da, itxurarekin.

Iruditzen zait jendeak pentsatzen duela ni telean azaltzen naitzenez haren naitzela lanean eta, orduan, berrikeria bat egin eta kitto, ez gidoirik ez ezer. Eta ez, ez du inondik ere horrela. Ni goizeko hamarretan haren naitz lanean eta, normalean, zortzietan edo bukatzen dut. Beste askotan festa batera joan behar duzu edo auskalo zein ekitaldira. Ni, egia esan, saiorako bizi naiz. Hain zuzen, horregatik behar ditut oportunitateak.

Itxuraren nagusikeria

«Lan honetan itxurak sekulako garrantzia du. Ikusleak aurkezlearen itxurari begiratzen dio, ez esaten duenari. Kanpoko zerarekin gelditzen dira. Hori horrela da, eta kitto.

Baina itxura hutsarekin ez daukazu ezer. Beste zerbat ere



LANERAKO BIZI. Goizeko 10etan hasi eta arratsaldeko 8etan bukatzen omen da bere lan eguna.



11 Euskal Herrian ez dago ezer egin gabe, ez-dakit-noren semea edo alaba delako famatua denik»

11 Nik ez dut neure itxura bakarrik zaintzen, eta saiatzten naiz gauzak ikasten; ez dut txoratu nahi»

behar da. Kasu batzuk egongo dira baina, oro har, jendea asper-tu egin da itxura hutsa eskaintzen dutenekin. Lan honetan, itxura egokia izateaz gain, beste gaitasun batzuk behar dituzu.

Gero, egia da jendeak, kalean, itxura bakarrik aipatzen dizula. Nik, tarteka, nire kritikak sartzen ditut. Ez dut hizketaldi feminista oso bat sartuko baina, tarteka, puntu kritikoak bai, ahal dudan neurrian, noski. Baina gero, kalean, ez didate esandakoq aipatzen, itxura baizik.

Egia esan, gauza bera gertatzen zait niri gehienetan, ikusle gisa ari naizenean. Batzuetan, azaleko tontakertekin gelditzen naizela. Baina ni, nire bizitzan, ez naiz bakarrik itxuraz arduratzen. Beste gauza batzuk ere

ikasten ditut, ez dakit, ingelesa, adibidez.

Nik neure betiko zaletasunak gordetzen ditut, diseinua, dekorazioa... eta horrek ere lagundu egiten dit lanerako. Eta bai, batzuetan, neure buruari arinkararako joera leporatzen diot, ez dakit, gauza friboloak interesatzen zaizkidala, beti nabilela edertasunaren atzetik... Ba horrelakoa naiz, eta kitto.

Baina nik ez dut neure itxura bakarrik zaintzen. Saiatzten naiz gauzak ikasten eta asteburuak niretzat gordetzen, nire betiko lagunekin egoteko. Ez dut txoratu nahi. Gainera, tentaldi horri makurituko banintzaio, beti egongo lirarteke betiko lagunak edo ama hankak lurtean mantentzen laguntzeko».

NORTASUN AGIRIA
YOLANDA ALZOLA

1971

Gernikan jaioa da, baina txiki-txikitatik bizi da Durangon. Madrilen, Londresen etaartzelanon eman ditu buelta batzuk.

1994

Arte Ederretan lizentziatua, Leioan. Diseinua izan zuen aukeraturako espezialitatea.



IRAGARKIAK

Lizentziatu ondoren, Madrilerajoa zen ikasketak osatzera. Publizitate arloan hasi zen lanean. Telebistarako iragarkietan, etxeokoa gaztearena egiten zuen. «Gazte, baina ez hainbeste. Ez beste munduko inor. Txaketadun trajea eta mototxa jarri, eta konpresak saltzen nituen, agian lejiak. Sekula ez perfumeak».



LO QUE FALTABA

Txetxu Ugalde du lagun Yolanda Alzolak aurkezle lanetan, ETB2ko saioan.

1996

Euskal Telebistaren bigarren katean, *Lo que faltaba* saioan hasi zen lanean, aurkezle gisa.

2000

«Nire bikotekidearekin bizi naiz Durangon». Ez dago ezkonduarik eta ez du haurrak izateko asmorik. «Ez oraingoz».



SAGARDOAREN KOFRADIA

Hernaniko Sagardoaren Kofradiako kide egin zuten. Euskal Herri osoan egin da ezaguna bere telebista saioari esker.



MIKEL CASAL

Autoargazkia

YOLANDA ALZOLA

Ni pertsona arrunta naiz, bizitzan suete handia izan duen pertsona arrunta. Lan poltadut, nekosoa baina polita. Beti pentsatu izan dut aingeru laguntzaile bat edo daukadala. Beti izan naiz ausarta, erronken aurrean atzera egiten ez duten horietakoa. Gauza askorekin ausartu naiz, zezen handiak toreatu ditut. Baina inor engainatu gabe. Ikasi dut, neure burua prestatu eta prestatzen dut, bizitzak horixe eskatzen duelako.

Pertsona irekia naiz eta hori adierazi nahi dut neure lanean, irekia naizela eta hurbila. Nire kuadrila betikoa da, txikitakoa, eskolara nirekin joan

zirenak. Bidaiatzea gustatzen zait. Hemezortzi urterekin Europa bitan errekorritua nuen. Beti izan naiz oso mugitua, tokietara lotzen ez den norbait. Edozein tokitan ondo sentitzea erraztasuna, edozein leku nire egiteko erraztasuna izan dut beti. Batetik bestera ibiltzea gustatzen zait, mugitzaiek ez dit beldurrik ematen, alde-rantziz, behar dut. Leku batek asetzen ez banau, alde egiten dut eta kitto.

Aurrerantzean ere bidaiatzeko asmoa dut. Adibidez, Holanda asko maite dut eta holandarrak ere bai, maiz egon naiz han eta maiz itzuliko naiz bertara, jendea eta lekua zoragarriak

Inbidia hutsa

A.U.

Ilea bizkarraren gainean duela dator, baina bertin etor zitekeen mototsaz edo ilea kizkurgailuz josia. Barne arroparen itxura duen soineko batez dator, erdi arrosa kolorekoa, erdi malba, aurtengo udak agintzen duen bezalaxe. Hezur koloreko zapatak, takoidunak, garalerak tramankulurik gabe ibiltzeko balmena ematen badio ere. «Ondo jantzia joan behar duzu, batez ere modaz hitz egiten baduzu».

Telebistaren indarrak guztiz konbentziturik, elkarrizketaren harian eta nire oinetakoei begira, esaten du berak (edo beste norbait) telebistan sandalia gorriak modan daudela esaten badu, barra-barra doazela emakume guztiak sandaliak gorriak erostera. Eskerrak nik alde z aurretik erosak nituela, pentsatu nuen lasaltasunez.

Berritsua izan daiteke, baina ez du gogoz kontrako hitzik botako, egindako elkarrizketetan elkarrizketatuek irakatsi bezalaxe. Horretan, azaltzen duen munduaren marka darama: hitzak neurtuak eta komeni direnak. «Hortik kanpo gutxitan abiatzen naiz. Nik ere ikasi dut hori egiten».

Begiak zabal eta epele, keinu dotoreak, zangoak behar bezala gurtzatuak eta eskuak dantzan argazkilaria alde egin ondoren ere.

«Itsusiek pentsatzen dute itsusi ez garenak tontak garela. Baina ez, eder edo itsusi izateak ez du zerikusirik adimenarekin. Inbidiaz esaten dute hori, inbidia hutsez».

iruditzen zaitzaidalako. Itxuraz ere dexente arrunta naiz. Publizitatean lan egiten nuenean, beti ematen zidaten etxeokoa ere ama gaztearen pape-ra.

Agian, egunen batean, telebistako lan hau bukatu egingo zait edo asperu egingo naiz edo... Bada, orduan, beste gauza batzuk egingo ditut, gustura gainera. Dekorazioa, adibidez, izugarri gustatzen zait. Aldizkariak erosten ditut, liburuak... Betidanik gustatu izan zait. Zerbait ikastelotan horixe ikasiko nuke, dekorazioa. Eszenografia ere maite dut, asko, eta gustura diseinatuko nituzke telebistako platoonak. Ez dut nire bizitza mugatu nahi.


ELKARRIZKETA

Luis Llach
Abeslaria

Herri txiki bateko hiritarra

Berrogeita hamar urte beteak, eta erdiak baino dezente gehiago musikari emanak. Ikasle gisa ikusten du bere burua, eta ez dabil errenditzekotan.

TESTUA: ARANTXA URRETABIZKAIA



ZABALIK

«Herri txikiei errespetu handia zor zaie»

Kontzertua bukatu berria da eta Llachek ez darama kantaldian zeraman jertse bera. Izerditako moduko bat du soinean, eta elkarrizketa egiten den bitartean, tarta, plastikozko ontzi batean duen entsaladilla jaten du. Bai-mena eskatu ondoren, ia inaktik gabe dagoen honetan, pixkanaka ipurdia aurrerago eta bizkarrezurra atzerago, ia etzanda gelditu arte, ez dituelako manera onak galtzen.

«Kantuan hainbeste urte daraganok, normalean, denetik abesten dugu kontzertuetan, kantu berriak eta aspaldikoak, kontuz nahasturik. Aspaldiko batzuk, ordea, ez ditut aspaldian ahesten. L'estaca, adibidez.

Dagoeneko ez zait nirea denik ere iruditzen. Behin baino gehiagotan tokatu zait kanta hori munduko bazter askotan entzulea, kantu herriko bihurturik. Grezian «koronelen diktaduraren garaian»; Txilen, Pinocheten kontra.... Behin, rock talde iparramerikar bati entzun nion kanta eta, aurkezpenean, esaten zuten Poloniako kantu herriko bat zela, Berlingo murtuaren kontrako.

Kantagile batentzat paragebea da kantu batek ihes egin eta bere kasa bizi dela ikustean sentitzen duen poza. Ametsik gozoena.

Batzuetan, neure buruari galdetzen diot nola demontre egin duen L'estacak hain bide luzea, inolako sustapenik gabe, ez marketingik, ez bozgorailurik. Normala iruditzen zait, adibidez,

Dylanen kanta bat mundu guztian ezaguna izatea, baina nire bat.... Uste dut ez zaidala bizitza osoan ezer hobea gorik gertatu».

Exortzismo gisa

«Kantuan bidez, idea batzuk kalatzen salutzen naiz ni. Nire obsesioa idea horietan musika jartzea da, musikarik aproposena. Baina ni musikaria naiz, ez ideologoa.

Musikaria natz eta maite dut nire lanbidea. Gauza askotarako balio dezake lanbide honek, orot-

lanaren bidez, exortzismo bat egiteko, zeure burua edo bihotza husteko, ikasteko... Gauza askotarako, baina ez zerbait trakasteko.

Batek baino gehiagok pentsa dezake joan zaidala horretarako adina, baina beti ikasten ari den pertsona naiz ni. Agian norbaitek, nire musikaren bidez, munduaz, bizitzaz edo bere buruaz zerbait ikas dezake, baina ez nire borondate pedagogikoari esker. Ikasle bat naiz, ez irakaslea.

Uste dut musikariok, gure

lanaren bidez, exortzismo mota bat egiten dugula. Musika arrazotzkoa ez den espresabide bat da. Matematikaz egina dago musika, eta bide horretan Bachek esan zuen esa daitekeen guztia. Nik ondo asko ezagutzen ditut nire mugak eta hori egiten dut lan, esparru hori zabaltzeko nahian.

Orduan, batzuetan, gure musikaren bihotzetik mamu gisako batzuk sortzen dira eta jendearengana heltzen direnean, entzuleari bere exortzismoa egiten lagun diezaiolke. Horretantxe saiatzen naiz ni, badakit batzuetan lortzen dudala helburu hori, eta kantatzen dudun guztietan saiatzen naiz».

Donostian eskainitako kontzertuak adierazten zuenez, gau hartan lortu zuen mamu-eskualdatze hori. Kantaldia bukatutaz eman zuenean, jendeak ez zion alde egiten uzten. Kamerinora heldu zenean, herriz, han zuen zale eta lagun mordoxka bat, zain.

Jendearengandik ikasi

«Nik jendearen benetako premia dut. Besteak beste, ez dut irakurketa izaterik lortu. Saiatu, saiatu naiz, baina alferrik. Beraz, ikasketa mota hori amaitua dut. Beste norbaitek hitz egin ez ikasten dut nik eta, beraz, harreman mota hori oinarritzkoa zait.

Adibidez, gitarra eta exitouri buruz dakidan guztia ez da liburuetan ikasia, ez besterik hitz egin ez nireganatua baizik, haiekin biziz. Poesia irakurtzen

11 Minoriekiko eta hizkuntzekiko errespetuan oinarritzen ez bada, Europak ez du etorkizunik»

11 Estatu espainolak ez du ulertzen dibertsitatea dela aberastasunaren iturburu»

dudanean ere, kantuan pentsatuz egiten dut. Tarte bat dudanean musika jotzen dut, ez dut liburu bat hartzen. Horregatik, ikasiko badut, besteak behar ditut.

Hori bai, lan mota hau egiten duzunean zure inguruan defentsak ere jarri behar dituzu. Bestela, beti egongo zinateke jendea inguratua, ezertarako lasaitasunik gabe».

Eta bai, Llachen managerrak ondo betetzen du hesi lana. Haren kamerinora heldu baino lehen, elkarrizketagileari hiru audientzi eskaera heldu zitzaizkion jendearengandik. Hirurak katalanek egindakoak.

Estatuaren arazoa

«Sarritan, kanten aurretik aurkezpen luzeak egiten ditut. Mikro bat dut, eta entzuleak, eta ikusten dut hitz egin behar luketena isilik dardela, kontuz, zentuz. Bada nik, nik hitz egiten dut. Eta gauero egiaztatzen dut nik bezala pentsatzen eta sentitzen duen asko dagoela munduan zehar. Haiek, ordea, ez dute mikroirik».

Llachek gogotik erabiltzen du bere mikroa eta ez du gorratena edo zoroarena egiten politikaren inguruko zerbait aipatzen zalonean. Alderantziz.


«Espainian zehar asko dira gure kontzertuak entzuteko garaian hizkuntza oztopo gisa sentitzen ez dutenak. Milioika, agian. Baina Estatu espainolak, oro har, ez du ulertzen aniztasuna dela aberastasanaren iturburu. Aniztasunari uko egiten zatonean, aberastasanari egiten zaito uko. Pobretu egiten zara.

Dibertsitatearen kontu honean, transtizio garaian eman ziren aurrerapauso batzuk. Gero, eskuinak erreakzionatu egin zuen eta nazionalismo espainiarra sendotu egin zen. Etorri zen estatu-kolpea, eta sozialistak gailundatu zirenean, beldur handiegia zuten. Sozialisten doktrinaren bazegoen dibertsitatearen balorapena, baina, izuturik, atzera egin zuten. Gero, aski lan izan dute korrupzioari aurre egiten.


Iruditzen zait orain okerrera goazela, Europako beste herri batzuek aurrera egiten duten bitartean. Agian beheargotik datoz, baina aurrera doaz, eta gu, ez. Ez bada minoriekiko errespetuan eta hizkuntzekiko errespetuan oinarritzen, Europak ez du etorkizunik».

«Herri txiki bateko hiritar txikia naiz», esan du kontzertuan.

«Herri txikiak ez dute errespetu izateko merezi. Hori, errespetua eskatzen dut lehenik, niretzat eta nire herriarentzat. Hortik aurrera, agian interesatuko zait Espainiaren bat, baina errespetu hori



ZABALIK



ZABALIK

ukatzen badidate, ez zait interesatzen. Askatasuna eta errespetuari bai, koakzioari edo uniformizazioari, ez. Hortik datoz nire joera independentistak.

Askotan, adibidez Barne ministroak hitz egiten duen bakoitzean, iruditzen zait gizon horrek nik nahi nukeen proiektuari labainkada bat sartu diola. Nik neuk ez dut Barne ministroaren proiektuaren partaide izan nahi».

Tristurarik gabe

Mantso egin du hitz hasieratik, eta tarteka gorpuzkera eta bizkera suspertu bazaizkio ere, entsa-

ladillarekin batera badirudi pilak bukatzen ari zaizkiola. Nekaturik dago, baina ez dirudi, inolaz ere, gizon tristea. Tristura, ordea, sarritan kantetan aipatzen duen zer-bait da.

«Ez dut izaera kontua denik uste. Ni ez naiz pertsona tristea baina, triste zaudenean, sentikorrago zara besteeen oinazearekiko. Askotan aipatu izan dugu hori abeslarion artean, eta nik uste dut, oro har, triste zaudenetan sentiberago zaudela, konposatzeko orduan ere.

Zoriontsu sentitzen zarenean, aski lan duzu zoriona gozaten

11 Kantuen bidez ideia batzuk kaleratzen saiatu izan naiz beti, eta horretan dihardut»

11 Nik bezala pentsatzen eta sentitzen duen asko dagoela egiaztatzen dut gauero»

eta zaintzen. Gainera, tristura mota asko daude. Tristura handia sentitu nuen, beste askok

bezala, Poliziak Gasteizko langile haiek hil zituenean. Eta Campanadas a mort tristura sakon eta izugarri bati irteera emateko idatzi nuen. Aztertu nituen eskuratutako requiem guztiak, nire egin nituen, eta irten zena irten zitzaidan. Gaur musika horrek beste norbaiten tristurari espre-sabide bat ematen badio, ni zoriontsu».

Ume bat bezain zoriontsu, esan ohi da. Batzuetan kantatzen ari denean gertatzen zaion bezala, silolan etzanda horixe dirudi, izandako umearen oroitzapena erabat galdu ez duen gizona.

IKASLEA. Besteengandik ikasten omen du gehien. Oinarrizkoa zaio, hartara, jendearekiko harremana.

NORTASUN AGIRIA
LLUIS LLACH

1948

Vergesen jaio zen maiatzean. Katalunian, Frantziatik oso hurbil. Lau urte zituela ikasi zuen gaztelera, eskolan.



JENDAURREAN.

Aurrenko kantaldia eskuak dardarka zituela eta begiak ezin irekita eman zuela konjatu ohi du abeslariak.

1963

Bartzelonara joan zen ikasketak egitera. Igeniaritza ikasketak hasi zituen unibertsitatean. Ondoren, giza-ekonomia eta filosofia ikasketak egin zituen.

1967

Gitarra, eskuetan, martxoan eskaini zuen bere lehen kontzertua. Urte horretan abestu zuen aurrenko aldiz *L'Estaca*. Aurrenko diskoa, berriz, 1969an argitaratu zioten.



KONPROMISOA.

Bidezkoak iruditu zaizkion kausa guztiak atzera egin gabe defenditu ditu beti Llachek.

1971-1976

Erbestean eman zituen urte horiek, arazo politikoek bultzatutako turista gisa.

1977

Campanades a morts diskoa, Gasteizen erahildako langileen omenez.

Guztira, hogeitamar bat disko kaleratu ditu. Horietako askok belaunaldi oso baten musika banda osatu dute...

EMANALDIAK.

Egun, ez da arrakasta zerrendetan agertzen den musikari horietakoa. Nahiago du gogoko dituen lekuetan aritzea areto handiak betetzen saiatzea baino.



MIKEL CASAL

Pilak kargatuta

GORIKA KNÖRR

Lluís Llach adiskideari buruz idaztea kosta egiten zait, adiskidea izateaz gain halako elikatzaile espiritualtzat hartu izan dudalako betidanik. Gaixorik sentitzen direnak, medikuarengana joan ohi dira. Nik, berriz, noizbehinka, disko edo emanaldien bidez Lluísengana jotzen dut, ene arimaren pilak kargatu nahian-edo.

Ni Tarragonakoa izateak ere lagundu egin bide digu geure arteko komunikazioan. Donostian euskara ikasi baldin banuen ere, beti gorde baitit nire baitan nire amaren hizkuntzarlarion musikaltate eta, nahi baldin bada, samurtasuna. Lluís-ek bere kantu eta emanaldietan hainbestetan erreibindikatzen duen samurtasuna *-tendressa*, katalanez- bizitza balore garrantzitsu bat baita niretzako ere.

Ni kantatzen hasi nintzenean, Lluís eskarmentu handiko kantaria zen jada. Berarekin lehendabiziko aldiz kantu nuenean, berriz, -Donibane Lohitzunen, 1974eko irailean- oso urduri nengoen hasieran, baina kantaldiaren bukaeran *L'Estaca* elkarrekin

kantatu genueneko hura betirako gordeko dut ene baitan. Katalandarrak sentitzen den euskaldun honentzat ez baitzen izan bere-halakoan ahazteko moduko aukera, ez horixe!

Donostian, Lluís Companys zenaren omenezko jaialdiaren ondoren, solasean egon gara. Esan dit Toulouserara joan behar duela laister, kantatzera. «Nik ere bai» esan diodanean bere harridura azaldu dit. «Toulouse-ko Casal Catalàko lehendakari den Joan Claret agindu nion, egiten ari naizen diska berria bukatzen dudanean, bertan kantatuko dudala», esan diot Lluísi. Poz handia hartu du Lluísek, ene politika kontuetatik aparte, kantari jarraitzen dudala jakin duenean.

«Eskerrik asko, Lluís», esan diot Victoria Eugeniako kamerinoan. «Lehenengo, ene amak hainbestetan gure etxean hizpide izan duen Lluís Companys Presidaren omenez kantatzeagatik; eta, bestetik, gaur, berriro ere, sentibilitate, samurtasun eta mediterraneotasunez bete etxeraten naizelako».

Pilak kargatuta, hain zuzen ere.

Autoargazkia

LLUIS LLACH

Lluís Llach izeneko pertsonaia ez zait batere interesatzen, ezta neure burua ere. Niretzat, ni ez naiz behatu edo arakatu behar den zerbaiteko norbait.

Natura behatzea dut gustuko, ez dakit, hondartza, mendia, zuhaitz bat, izarrak. Luzaroan egoten naiz naturari begira eta, batzutan, ikusten dudana ere aldatu egiten dut irudimenaz. Txalupa bat gehitzen diot hondartzari edo erreka mendiari.

Gainontzeko gizakiak ere interesatzen zaizkit. Neronez, bate-re-batere ez. Interesgarriagoa iruditzen zait besteen bizitza aztertea nirea miaztea baino.

Liluratu nahi duena

A.U.

Abesteraoan, gorputz osoa jartzen du dantzan, eserita egonda ere. Harrotzen ditu lumak, luzatzen du lepo liraina edo gordetzen ditu, lepoa eta burua, hegalen artean. Dantzatzen ditu erriimoaren arabera mokasinez jantzitako oinak, baita pianoak horretara behartzen ez duenean ere.

Kantuan, haurrarena egiten du, gaztetxo galduarena, maitalearena, zapuztuarena, haserretuarena, errebendikatzailearena. Tristearena ere bai sarritan.

Ez dabil garaipen bila. Liluratu nahi du entzulea eta horretara makurtzen ditu keinu guztiak.

Ondoren, kamerinoan, gorputza kulunkatzen dion siloia izan nahi luke edo, agian, norbaitek bazter batean utzi duen lore-sorta hortera, baldin eta loreak landareetan baleude.

Nabermenagoa da kantuan hustu denaren nekea, begietan bakarrik igertzen zaion poza baino. Gorputzari crantsi zaizkio lumak eta lepoak kostata eusten dio buruari.

Asetu du liluratzeko premia.

ELKARRIZKETA

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

Gizon lasaia



Irakasle izana da luzaroan eta, duela dozena bat urte, euskaltzainburu izendatu zuten. Hortik zaintzen eta bultzatzen du euskararen bilakaera, irribarrez eta algaraz.

«Harriturik nago zenbat bide egin dugun ikusirik»

Patxadaz entzuten ditu galderak, patxadaz aletzen erantzunak, denbora adiskide balu bezala.

«Hogei urtez izan naiz irakasle eta uste dut horrek markatu duela nire bizitza. Ni pedagogoa naiz; erran nahi baita, maite nuela irakaslea. Maite nituen bai haurrak eta bai ikasle helduagoak ere. Nih beti ukan ditut harreman goxoak haiekin. Notzbehinka, nire larderia ere erakutsi dut, dudarik gabe, baina haiek bazekiten ni justua nintzela. Egun batez jakin nuen vache mais juste esaten zidatela; bortitza, baina justua».

Eta, itzulpenarekin batera, lehenengo algara bota du. Lasai hura ere, gorputz osnaka eginkizunean parte hartzen duela, buru soildutik oin puntetaraino.

«Nire amatxi, nire aitaren ama, irakaslea zen Batgorriko auzo batean, eta hark bultzatu ninduen, pixkanaka, maisu izatera. Gero, nire seme-alabek, hasieran, ez zuten nahi batere irakasle izan. Azkenean, orain, denak irakasleak dira». Eta beste algara labur bat egin du, azken hitzen ironia azpimarratuz.

Iparrar eta Hegoa

Iparraldean jaio eta bertan bizi den gizon honek Hegoaldearekin harreman ugari izan du betidanik.

«Guk, Iparraldekoak, badugu,

H Hogei edo hogeita bost urte falta zaizkigu inguruko hizkuntzek dutena ukateko»

nire ustez, tolerantzia gehiago. Hori urgi eta garbi erraten dut. Nire ustez, Hegoaldean tolerantzia gutxiago dago, gutxiago. Guk, agian demokrazian bizi izan garelako, demokrazia ikasi egin dugu eta onartzen dugu besteek beste ideia batzuk ukan ditzaten. Hegoaldean ez duzue oraindik ikasi hautsi-mautsietan datzala bizia, hautsi-mautsiak ez direla ezbehar bat, bizitzaren funtsa baizik».

«Zuek, Hegoaldekoak, biziak zarete, zaintsuak. Guk, aldiz, lasai ikusten ditugu gauzak, beste ikuspegi batekin, ikuspegi demokratiko batekin».

«Ekonomiaren aldetik aberatsak zarete, gu baino gehiago. Baina, hainbeste urteren buruan, nire esperientzia elkar errespetuarena da. Euskaltzaindian beti errespetatzen dugu elkar, nahiz ez ditugun ideia berak».

«Euskaltzaindian elkarrekin

U Une honetan, zazpiehun edo zortziehun euskaldun gara, sekula izan den baino gehiago»

bizi gara, elkarrekin egiten dugu lan eta, zoritxarrez, esperientzia hori ez dago behar bezain zabaldua. Zentzu horretan, Euskaltzaindia salbuespen bat da eta, nire ustez, hori txarra da».

«Oraindik ere, gure historiaren ondorio diren mugak ez dira erabat desagertu. Muga bat izan dugu erdian eta muga horri eutsi diote frantses jakobinoek eta, berrogei urtez, Francok. Horrek zekarren gu Parisi buruz ari ginea eta zuek Madrili buruz».

«Orain, emeki-emeki, aldatzen ari dira gauzak. Lehen, adibidez, gure politikoentzat mugaz beste aldekoa deabrukertia zen. Handik heltzen zena gaiztoa zen, zikina. Eta orain, ez. Muga desagertu egin da, Hegoaldeko jende asko etorri da hona bizitzera, eta hemengoak gero eta gehiago joaten dira Hegoaldera. Zuen aldeko politikoak ere gero eta maizago datoz hona, hemengo alkateekin

eta harremanetan daude, etengabe».

«Nik uste dut Ipar eta Hegoaldearen arteko lehen harremana kulturaren aldetik etorri zela, eta kultura da lehen, nahitaez. Orain, harremanak ez dira kulturari buruzkoak bakarrik. Adibidez, Iparraldekoak zuen autonomia miresten dugu. Bitan zatiturik daude Hegoaldeko lurraldeak baina, halere, lurralde horien autonomia eta boterea miresten dugu hemen, guk sekula ukanez ez dugun autonomia, politikaren nahiz ekonomiaren aldetik, bai kulturaren edo irakaskuntzaren aldetik».

«Eta hori, nahitaez, etsenplu bat da, hemengo jakobinoek ikas dezaten. Hegoaldean gertatzen denak sekulako bultzada ematen die euskarari eta Euskal Herriari».

Hizkuntzaren inguruan

«Horretan satiatzen gara Euskaltzaindiatik, hizkuntzak berak dituen ahalak baliatzen. Eta, bai, gure lana mantso doa. Baina, egia esan, ez da beste modu batez egiten ahal. Hizkuntzak ez dira jostailuak. Norbait jositzen baldin bada hizkuntzarekin, idazlea da. Idazleak behar ditu hitzak bota, pentsatu, berea behar du izan eragina».

«Gainera, gertatzen dena da euskarak ez duela beste hatnbat hizkuntzak ukan duten historia. Ez da ahaztu behar badirela hizkuntza asko ahoz bakarrik egiten direnak, ez idatziz. Euskara, berriz, esparru guztietan sartua da, telebistan, irratian, komunikabideetan, Interneten... Horrek esan nahi du oso gaurkoak garela, ez atzokoak. Oraingoak gara eta bihurtari buruz aritzen gara».


«Une honetan, sekula baino euskaldun gehiago gara. Uste dut zazpiehun edo zortziehun mila izango garela. Bada, Euskal Herria ez da sekula hainbeste euskaldun izan, ezta lurraldeetako biztanle gehienek euskara egiten zutenean ere».

«Gu, orain, euskara batu bat moldatzen ari gara, eta hogeitahogeita bost urte falta zaizkigu inguruko hizkuntzek dutena ukateko, naahiz euskara idatzari nahiz ahozkoari buruz. Agian gehixeago izango dira, hogeitahamar urte falta zaizkigu, baina, bitartean, hizkuntza finkatua da edo finkatzen ari gara».

Bide erdian


«Kontuan izan beste hainbeste, hogeitahamar urte, darماغula batasunaren saio honetan, eta ni harriturik nago ikustrik zenbat bide egin dugun hogeitahamar urtez».

«Guk ukan dugun zoriona irakaskuntza da eta, bereziki, Hegoaldean izan den irakaskuntza. Horrek asko egin du Euskaltzaindiaren proposamenen alde».



HARREMANA. Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lotura gero eta handiagoa dela uste du Haritschelharrek.





11 Zahartzarotik hobeki ikusten dira gauzak, askozaz hobekiago»

11 Hegoaldean gertatzen denak sekulako bultzada ematen dio Euskal Herri osoari»

Eta irakaskuntza esaterakoan, ez da Unibertsitatea ahaztu behar.

«Urte hauetan ortografia osoki aldatua izan da eta, dagoeneko, aldaketa hori finkaturik dago, gure gazteek berezkoa balira bezala ikasten eta betetzen dituzte arauak. Eta hori guztia hain epe laburrean... Nik ez nuen sekula horrelakorik pentsatuko.»

«Nik 77 urte ditut. Erran nahi baita bide luze bat ukana dudala. Egindako bidearen luzera neurtzeko abantaila handia da hori. Ni duela berrogeita bost urte sartu nintzen euskal estudioetan eta bitarte horretan oso bide luzea egin dugu, luzea eta aberatsa.»

«Azken hogeita hamar urteak oparoak izan dira, eta are gehiago azken hogeitaz, Jaurleri-tza sortu zenetik. Batzuk erraten dute ez duela axola zein alderdi politiko dagoen Gasteizko Gobernuaren buruan, baina hori ez da nire iritzia.»

Azken epea

«Erran dezaket nire bizitzarekin euskararekin gertatu den gauza bera gertatu dela. Gaztetan maisu izan nahi nuen eta izan nintzen. Gero, bigarren mailako irakasle izan nintzen eta, azkenik, Unibertsitatekoa. Txikitan ez nuen sekula horrelakorik pentsatuko. Txikitan ez nuen pentsatuko Baigorriko alkate izango nintzenik edo Euskaltzainburu, ezta euskaltzain ere. Ni izendatu arte, Euskaltzainburuak beti izan dira Hegoaldekoak. Baina ni oso ondo hartua izan naiz, hasieratik.»

«Egun batez, beharko dut utzi Euskaltzainburuagoa. Beno, segituko dut Euskaltzaindian, hala nola Villasantek jarraitu zuen, nahikoa gaixo egon den arte. Nik beti erraten dut prest naizela noiznahi uzteko.»

«Orain trankil bizi naiz, lasai. Aspaldi erretiratu nintzen irakaskuntzatik eta orain Euskaltzaindia da nire lan bakarra. Badakit beste epe bat badela eta epe hori laburra izango dela, noiz izanen den ez badakit ere. Ahal den luzeana izatea espero dut, ez naiz batere presaturik horretarako», eta orain artekoak txiki uzten dituen algarra bota du.

«Zahartzen zarenean, zure ikuspegia ez da gazte zineneko ikuspegia. Hemendik, zahartzarotik, gauzak hobeki ikusten dira, askozaz hobekiago.»

«Batzuetan, zure gogoan badoa gibelera eta ikusten duzu nola iragan den zure bizitza, gauza on eta txarrekin. Baina beste batzuetan geroari buruz, etorkizunari buruz, ari zara eta berriz oldar berri batekin jokatzeko zara.»

«Batak egiten ditut nik, baina ez gehiegi gibelari buruz. Gelditzen zaidan epea laburra izango da, baina horrek ez du geroarekiko interesa gutxitzen, inondik ere ez.»

NORTASUN AGIRIA
JEAN HARITSCHELHAR

1923

Martxoaren 13an sortu zen Baigorriin, eta bertako eskola publikoan egin zituen lehen ikasketak. Ondoren, Baionan, Mont-de-Marsanen eta Tolosan ikasi zuen.

Baxilergoa bukatzerakoan, Tolosan burutu zituen maisu izateko ikasketak.



IRAKASKUNTZA.

Erretiratzeko garaia heldu zitzaion arte, horixe izan du lanbide nagusi, beti ere beste hainbat zeregin esku artean zuela...

1951

Gaztelaniazko lizentziatura lortu eta Agen herriko lizeoan zazpi urte eman zituen irakasle lanetan.

1962

Urte arraro eta seinalatua: Baionara heldu zen, bertako Euskal Erakustokiko buru gisa; euskaltzain hautatu zuten; Bordeleko Unibertsitatean hasi zen irakasle gisa. 27 urtez aritu zen Baionan, 24 urtez Unibertsitatean eta 38 daramatza Euskaltzaindian.

1971-1980

Baigorriko alkate izan zen bederatzit urtez.



EUSKALTZAINDIA.

38 urte daramatza euskaltzain lanetan, horietako 12 Euskaltzainburu. 1989ko argazkian, Ardanza lehendakaria eta Aita Villasante alboetan dituela, kargua hartu zuen egunean.

1988

Abenduan, Euskaltzainburu hautatu zuten euskaltzain osoek, eta horretan dihardu orduz geroztik. Luis Villasanteren lekua hartu zuen Haritschelharrek.

Hiru seme-alaba ditu, bi 1uribil eta bat urrun samar. Sei biloba eman dizkiote seme-alabek. Zaharrenak hamasei urte ditu; gazteenak, berri, hamar.



MIKEL CASAL

Euskaltzaindiko gizona

JUAN M. LEKUONA

Sortzez Baigorrikoa dugunez, etxetik eta herritik datorkio euskaldun zahar eta hiztun egokiaren titulua. Baina Jean Haritschelhar, batez ere, Frantziako Unibertsitateetik datorkigun lankidea da: zuzenean euskaltzain oso izendatua, urgazle (laguntzaile) izan gabe. Erakundearen barruan doktoradutza zibila egindakoak K. Mitxelena eta bora beste titularrik ez zen garaietako euskaltzaina dugu.

Haritschelharren espezialitatea euskal literatura da, batez ere euskal poesiaren alorrean. Pierre Topet-Etchauni eskainitako ikerlan zabal eta sakonak hala adierazten du.

Auto gutxi zen garaietan, Haritschelhar berebil baten jabe zenez, berari egokitzen zitzaion euskaltzainak hara eta hona eramatea. Askotan entzun izan diot Jeani: «Domala orduan grabagailurik ez ukana ene kotxean, K. Mitxelena eta P. Lafittek autoan egnikako solasaldi interesgarriak jasotzeko...».

Jean Haritschelhar altxor bat izan da Euskaltzaindiarentzat: plazagizona; euskara, frantsesa eta gaztelania arras ongi menderatzen dituen; formazio eta eskarmentu ederraren jabe; erakundearen berri ongi dakiena. Hitz bitan, Euskaltzaindiko gizona.

Autoargazkia

JEAN HARITSCHELHAR

Nik uste dut pertsona alai eta baikorra naizela, bizia maite dudala, dudarik gabe. Malte dut adiskidantza, maite dut elkartasuna, uste dut aski tolerantia naizela, ez, beharbada, osoki ere, bakoitzak bere izaera baitu.

Nire ofizioak galde egin dit bertzeri buruz jokatzeari. 11aurrei buruz, ikasleel buruz... Beti pentsatu izan dut ahal bezain zerbitzari ona izatea, laguntzaile ona. Horretan salatu naiz bizitza osoan, baita Baigorriko alkate nintzelarik ere.

Gaur egun nire emazteak esaten dit jubilatua egon arren ez nauela gehiegi ikusten, baina nik horrela pasatu dut neure bizitza, besteen zerbitzuko.

Beti erran dut, pasatu naizen toki guztietan eta buru nintzelarik, beti erran diet ene menpean zirenei besteen zerbitzuan zirela, hori zela lanaren funtsa, bestekiko zerbitzua.

Noizbehinka, izaera bizia ere badut, baina uste dut normalan badakidala neure burua zaintzen, gauzak hozki ikusten. Adibidez, uste dut Euskaltzaindian ez nauela sekula biziki haserre ikusi.

Malte ditut eztabaidak, baina bakoitzari hitza ematen bazaito, gehienetan norbait isilarazi nahi baita. Ez, ni demokrata naiz horretan ere.

Txipiroiaren tinta

A.U.

Apreta urdinak, praka beisak, alkandora urdin argia gerri ooparoaren gainetik. Urre koloreko betaurrekoak, urrezko ordulari zaharra, urrezko eraztuna ezkutu eta guzti, urrezko ezkontza-eraztuna.

Osagai berekoak dirudite elkarrikota gutzia zipiritzintzen duten algarazalapartatsua. Hori bai, bere buruaz edo berak esandakoz egiten du barre, ez entzundakoz, lagun hürkoaz zapuzteko beldurrez balego bezala.

Txipiroiak tinta bezala erabiltzen ditu algarak, defentsa gisa, esandakoa eta pentsatutakoa babestu nahirik.

Ez du eskuen premiarik esaldjak azpimarratzeko. Sarritan, elkarrekin korapilatutik uzten ditu magalean, ahaztuak, erdi ezkutuak. Aski du ahotsarekin, hurniak egiten dituen keinu ugariekin, bizkarraldearen babesa gutxitan bilatzen duen gorpuz sendo eta handiarekin. Eta urte askoan komunikabideen aurrean egoteak eman dion eskarmentuarekin.

ELKARRIZKETA

Diego García
Maratoilaria


Atletismoaren langilea

Berrogei urte betetzeko zorian, munduan punta-puntako kirolaria da. Bartzelonako eta Atlantako Joko Olinpikoetan parte hartu ondoren, telebistaz ikusiko du aurten maratoi olinpikoa, baldin eta entrenatzaileak baimena ematen badio...



adidas

TESTUA: ARANTXA URREBIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS



«Gogorragoa da arrantzaleen lana»

Hamaika urte daramatza kirolari emana, korri eta korri Azpeitia eta Azkoitiaen artean. Astero berrehun kilometro gora, urtero hamar mila kilometro baino gehiago...

«Kirolean, segur aski, ez dago ezer maratonia baino gogorragorik. Baina gogorragoa da arrantzaleen lana edo egun osoa esmerilarekin ibiltzen direnena».

«Pribilegiatu bat naiz», esan du lehenengo aldiz eta behin baino gehiagotan errepikatuko du gauza bera elkarrizketak irau bitartean, kontua zalantzan gera ez dadin.

«Maratoi bat prestatzea lau hilabeteko lana da. Egunero egunero, goiz eta arratsalde, kalerik

Beti sentitu izaridut Euskal Herria defenditu dudala, nahiz eta bandera espainolaren pean lan egin»

gabe, festa egunik gabe. Sakrifizioerik gabe jai duzu. Baina, asko sufrituta ere, alde aurretik luna ondo eginda ere, agian galdu egiten duzu, ez duzu nahi zenuen marka lortzen edo ez duzu proba guztian sengudo batez ere disfrutatzen».

Edozein kirolarientzat amets bat da olinpiadetan parte hartzea, eta nik lortu dut»

Joko Olinpikoak

«Edo ezin duzu Olinpiadetan parte hartu; niri aurten, forman egonda ere, gertatu zaidan bezalaxe. Azkeneko mementoa arte itxaropen piska bat izan dut, baina hiru maratoilari bakarrik doaz Espainiatik eta ni ez naiz

hiruhota horretan sartu. Atarian nengoon eta atarian gelditu naiz.

Edozein kirolarientzat, amets bat da olinpiada batean parte hartzea eta nik bitan lortu dut amets hori. Hirugarrena izango zen azkena eta hor gelditu naiz, hirugarrenik gabe.

Pena handia eman dit, batez ere Euskal Herria defenditu nahi nuelako. Oraintxe konturatzen naiz, Bartzelonan edo Atlantango nintzenez baino hobekiago, olinpiadak zer diren».

Eta sobran izpirik ez duen gorputz osoaz azzimarratzen ditu, batera, pena eta ohorea.

«Maratoilari batek bere buruaren aurka egiten du borroka, beti norberaren mugen bila, beti muga

horiek gainditu nahirik. Horregatik da hain gogorra, guztia zure barruan jokatzen delako. Bakarrika, askotan kamikaze gisa.



Gero, lasterketan ari zarenean, ez dizu pentsatzeko denborarik ematen. Hasten zara eta saiatzen zara gorputzarentzat sentsazio onak bilatzen, zure erritmoa, zure martxa aproposa bilatzen eta ez duzu beste ezertan pentsatzeko denborarik. Beti barrura begira, inguruneari kontu egin gabe».

Ikurrina bihotzean

Sakrifizioa gora eta behera, ez dago Diegoren hitzetan kezarik ez harrokeriarik. Etengabe korritzea berezkoa balu bezala.

«Hogeita zortzi urterekin hasi nintzen kontu honetan eta lan asko egin behar izan dut olinpiadetar joateko, munduko txapelketetan parte hartu ahal izateko.

Hori lanean egiten da, etengabeko lanean. Eta une txarrak gainditzen. Askotan entrenatzen zara egunetan eta egunetan, asteetan eta asteetan, eta ez duzu erritmoa lortzen, ez duzu forma aurkitzen. Eta buruari etengabe bueltak ematen dizkiozu, goizeko entrenamendua bukatu ondoren



arratsaldekoa nolako izango den pentsatzen.... Egiten duzu maratoi bat eta biharamonetik, buzoa jantzi eta korrika hasi behar duzu berriro. Bakarrik. Ni atletismoaren langilea naiz. Hori bai, langile pribilegiatua. Eta beti sentitu izan dut nire lanarekin Euskal Herria defenditzen ari naizela, nahiz eta bandera espainolaren pean aritu. Nire bihotzean ikurrina dago, ikurrina handi bat.

ATARIAN. Sydneyrako bidean, atarian zegoen eta atarian gelditu da.

Badut lagun bat, betikoa, azkoitiarra bera, eta niri animatzailea joan izan denean beti eraman izan du ikurrina bat. Gogoratzen naiz Europako txapelketa batean buelta osoa, bostehun metrokoa, ikurrina handi batekin egin nuela. Hasi nintzen buelta ematen eta jendeak bandera espainolak botatzen zizkidan. Nik, toreroek bezala, itzuli egiten nizkien banderak. Ikurrina bat lortu nuen arte.

Hartu nuen ikurrina hura eta harekin eman nuen buelta osoa. Noski, hautatzaileari eta federazioari ez zitzaion hura asko gustatu, baina ez zait axola. Nik beti daramat ikurrina mailetan. Handik aurrera, federazioarekin nahi-

koa larri ibilti naiz, baina hori da gutxiena. Nik neurea egin nuen eta kitto».

Atletismoari esker

«Kontu honetan, borondaterik gabe, jarraitpenik gabe, jai duzu. Baina ni profesionala naiz, hau da nire lana.

Dendan ere egunero egiten dut lan, goizez eta arratsaldez. Ez dira ordu asko baina, tira, horrek laguntzen dit burua beti maratotoian ez edukitzen. Yamaina hartu behar diozu kontuari, ezin duzu gehiegi itsutu. Horregatik, nahiago dut goizean goiz entrenatu eta gero, ordubate arte, beste zerbait egin. Bestela, agian, dendan lanean aritu beharrean etxean geldituko banintz, sofan etzanda egongo nintzateke, arratsaldeko entrenamenduari bueltak ematen. Eta ahalegin horri guztuari esker, etxe bat daukat,

etxe polit bat, oso polita, egia esan. Eta hori atletismoak eman dit. Arrantzan jarraitu izan banu edo esmerilarekin, seguru ez nukeela horrelako etxe bat lortuko. Atletismoari esker, etxe eder bat dut eta dena ordaindua, gainera, zorrik gabe.

Ez dugu futbolariak bezala irabazten, baina, halere, pribilegiatuak gara. Nik, behintzat, horrela ikusten dut neure burua.

Jaikitzen naiz eta entrenamendura. Gero, dendara lanera eta, bazkaltzera, amarengana. Kiro-lari guztien moduan, pasta asko eta haragia plantzan. Hori bai, egunean bi edo hiru garagardotxo. Nik esan ohi dut horiek direla nire bitamina.

Etxeke beste lan guztiak nik egiten ditut, etxea txukundu, arropa garbitu... Eta txukuna dut etxea. Agian txukunago egongo da atletismo profesionala uzten dudanean, baina, gizona izateko, uste dut ez naizela gaizki moldatzen».

Hemendik aurrera

«Duela urte batzuk, hogeita hamaliru urte zituztenak zahar- rakk ziren maratoirako. Orain, ordea, Australiara joan direnak, Martin Fiz, Abel Anton, ez daude berrogei urtetik urrun. Eta mala handia dugu kirolean. Agian zortea izan dugu, min handirik hartu ez dugulako. Urteek ere laguntzen dizute buru barruan gauzak argi edukitzen, motibazioa galdtu gabe. Hori da gure arazorik larriena, adin honetan, motibazioa galtzen baduzu, zureak egin du.

Halere, uste dut maratoi gutxi gelditzen zaizkidala profesional gisa. Gero, noski, kirola egiten jarraituko dut, baina helbururik gabe, disfrutatzeke.

Nik uste dut kirola premiazkoa dela, ezin hobea gaurko bizitzaren estresa gainditzeko. Jendea hasi da kirola egiten baina, askotan, gogorregi sartzen dira eta gero utzi egiten dute. Nik uste dut jende guztiak egin beharko luketela kirol piska bat, besterik ez bada ere, egunean ordu erditxo

Atletismoari esker etxe eder bat dut, dena ordaindua eta zorrik gabe»

Kirola premiazkoa dela uste dut, ezin hobea bizitzaren estresa gainditzeko»

bat ibili, paseoan, zure burua bortxatu gabe, disfrutatzen.

Nik, etorkizunean, dendan jarraituko dut, eta larunbat edo igandean mendira joango naiz edo bizikletarekin buelta batzuk emango ditut.

Gainera, ezingo nuke kirola bertan behera urtzi. Gure bihotza handia da, ahalegin handiak egiteko ohitura du eta arriskutsua izango litzateke, bat-batean, kirol-lik gabeko bizitza egiten hastea. Guk, lehen mailako kirolariok, arrisku handiak ditugu, baina kontrolatuak gaude. Eta atletismo profesionala utzi ondoren ere, kontrolak egin beharko ditut, bihotza bizitza berrira ohitu arte».

Bitartean, goizero eta arratsal- dero korrika egingo du Azpeitia eta Azkoitia bitartean, inguruko bazter lasaigarriek kaso handirik egin gabe.

Salbuespenik gabe, ez bada igande honetan prestatua duen plana. Igande goizean, goizeko zazpitan, telebistak Australiako maratonia emango du, hainbeste ahalegin egin ondoren debekatu egin zalon maratonia.

«Pentsatzen ari naiz, maratonia telebistan ikusi ondoren, Azpeitia-tian tzigarrizko jendea egongo dela, kilometroak direla-eta, agian, entrenatzaileari igandean ez entrenatzeke baimena eskatuko diot».

Begietan sekulako distira due- la esaten du hori, gurasoengandik ezohiko eskupekoa lortu nahi du- en umearen antzera. Bihotz gogo- rra beharko luke izan baimen hori ukatuko llokeen entrenatzaileak.

NORTASUN AGIRIA
DIEGO GARCIA

1961
Urriaren 12an jaio zen Azkoitian. Garai hartako beste hainbat mutiko bezala hazi zen, han eta hemen jolasean eta hainbat kirol eginez.

1977
Arrantza hasi zen lanean, Getariako itsasontzi batean. Lan honetan hiru urtez jardun ondoren, Itsas Armadan egin zuen soldadutza. Han hasi zen korrika egiten.



GARAIPENAK KROSEAN
Kros lasterketa ugari korritu ondoren, Antxon Gorrotxategik animatuta, Behobia-Donostia bezalako proba luzeak korritze-ari ekin zion 1985ean.



LEHEN MARATOIOA
Lehen maratokia Donostian korritu zuen, 1989an. Ez zuen irabaztea lortu, baina bai Euskadiko errekorra hobetzea. Pozik geratu zen.

1992
Bartzelonako Joko Olinpikoetako maratolian parte hartu zuen; bederatzigarren sailkatu zen. Atzetik aurrera, karrera bikaina egin zuen egun bero hartan.



ZILARREZKO DOMINA
Helsinki, 1994ko Europako Txapelketan, zilarrezko domina lortu zuen. Podiumean, bi lagun handi izan zituen ondoan: Juzgado eta Martín Fiz.

1995
Maratokia irabazi zuen lehen aldiz, Sevillan. Urte bat geroago Atlantako Jokoetan izan zen.



MIKEL CASAL

Gnomo saltaria

A.U.

Txikia, argala, gihartsua, liraina, txukunaren txukunez, dutxatu berria. Praka bake-roak gerrian behar den bezala traba-
tuak; oso gazteek, oso lirainek edo oso estiloisuek bezala. Kotoizko alkandora eta, noski, kirolerako zaparrak.

Begi nabarrak, biziak, niniak txiki eta sakon. Aise ibiltzen da, oinek lurra zapalduko ez balute bezala. Ez du keinurik egiten esandakoa azpimarratzeko, agian hitzak maite

dituelako, hitzetan sinesten duelako.

Maratoilari gisa ikusi izan ez bagenu, lanaz eta sakrifizioaz hitz egiten entzun izan ez bagenu, pentsatuko genuen saltari hasiko zela. Eta, agian, hasiko da berehala, azken maratoiaren bueltan, mendian, aldapa gora, inor gutxi entzun dezakeen txirularen doinuari jarraituz.

Bitartean, asfalto gainean ditu oinak, hari erantsiak, iluntasunetik sortu izan balira bezala.

Bakardadea

ANDONI EGAÑA

Bakardadea berezkoa du Maratoia-aren jardunak Asfaltoaren belztasunean Argitzen dira egunak.

Bi ezaugarri berekin ditu Azkoitiko txapelketan Bakardadea azalekoa Eta (h)ondoan lagunak.

Autoargazkia

DIEGO GARCIA

Ni oso pertsona normala naiz, guztiz normala. Ez noa kaletik eliteko kirolaria naizela pentsatzen, ez dut pentsatzen *hemen doa Diego Garcia, maratoilari famatua*. Bai, bitan hartu dut parte olimpiadetan, munduko txapelketetan ere bai... baina, hortik aparte, normala naiz, eta horrela hartzen nau jendeak ere. Ikusten naute entrenatzen ari naizela eta agurtu egiten naute, baina pertsona normal bat agurtzen den bezala.

Oraindik ere betiko lagunak ditut eta haiekin ibiltzen naiz. Hori inportantea da niretzat, burua ez galtzen laguntzen dida-telako.

Segur aski, borondate handia dut eta baita sakrifizioarako gaitasuna ere. Zeren, hori gabe, ez baitago maratoirik.

Hamaika urte daramat kontu honetan, eta dudan guztia atletismoari zor diot. Agian, nik nahiago nuke ehun metro egitea. Ehun metro korritu, marka ona egin eta kitto. Baina nire gaitasunak beste batzuk dira.

Lagunen kontuak garrantzi handia du niretzat. Andoni Egañaren laguna naiz, adibidez, eta urtean laupabost aldiz biltzen gara afaltzeko. Andoni asko etortzen da Azpeitiara, Lizasoren lagun handia delako. Eta nik bertsoak maite ditut, txarra naiz ni horretan, baina onak direnak maizten ditut.

Egañak txapelketan finalean egiten duena, adibidez, niretzat, olimpiadetan ehun metroko proba irabaztea bezalakoxea da. Nik uste dut gure bertsolariak Nobel saria merezi dutela; hainbeste jenderen aurrean, hainbeste tentsioz inguratutik eta hain berro bibrilak bota...

Afari batean sortu zen Andoni eta bion arteko apustua. Agian orain, Behobia-Donostian beste apustu bat egingo dugu.

Hori izango litzateke erretiratzeko memento ona. Hor hasi nintzen eta hor bukatzea polita izango litzateke.

elkARRIZketa

Julen Guerrero
Futbolaria

Lehoien kapitaina

Zortzi urterekin hasi zen lehoi-kume gisa eta orain, hogeita seirekin, aita izateko zorian, Athleticen ikurra da, lehoirik ederrena eta preziatuena. San Mamesko erregea.



«Lasai eta apal daramat fama»

Entrenamendu lekutik dutxara metro gutxi daude, baina umez eta gaztetxo josiak, baita gurasoz eta abarrez ere. Dolore zeharkatzen du hesia Julen Guerrerok, autografo bat honi, argazki bat beste haiekin. Irribarrez.

«Zortzi urte nituela hasi nintzen Athleticen eta, harrezkero, bizitza osoa eman dut bertan. Zortzi urterekin jokalaria izan nahi duzula badakizu, San Mamesen jokatu nahi duzula. Ez dakizuna da ametsetik erreahitara doan bidea bihurria eta zaila dela. Pausoz pauso heldu naiz nagoen lekura, etapaz etapa. Ez da erraza aukeratuen artean gelditzea. Urtero galbahe handia egiten zuten eta hamabost edo hogei mutil koskor berri etortzen ziren.

Zaila izan da baina, zorionez, beti lortu izan dut entrenatzaileuren onarpena, baita gurasoen laguntza ere. Niri eta nire anaiari betidanik, txiki-txikitatik, gustatu izan zaigu futbola. Auzoan, eskolan, hiru urterekin, laurrekin, beti aritu izan gara futboleko eta, gainera, ongi ateratzen zitzaigun. Eta Lezaman hasi ginenean, gure gurasoak alde zuden, noski. Aitak eramatekin gintuen, astean behin baino gehiagotan, Portugaletetik Lezamara, eskola bukatu ondoren. Eskerrak aitari, zein hala eta guztiz ere gaueko hamarretan heltzen ginen etxera...

Horixe izan zen gurasoek egin zutena, guri lagundu, guk nahi genuena lortzen lagundu. Hori gabe ez genukeen ezer egingo, baina bultzada gurea izan zen, ez gurasoena.

Ni harro nago bizitza osoa Athleticen egon izanaz. Maisu onak izan ditut eta dezente ikasi dut. Tamalez, hori talde gutxitan gerta daiteke, agian gurean bakarrik».

Diruaren hotsa

«Urte hauetan, noski, egin didate eskaintza bat batno gehiago, eta batzuetan irabazten dudana baino gehiago irabazteko. Nik, ordea, beste gauza batzuk buloratu ditut, niretzat diruak baino garrantzi handiagoa dutenak. Nik bete dut San Mamesen jokatze ametsa, lehenengo ekipoa eta etxean, familia eta udiskideak galdu gabe... Gustura zaude, pozik, jendeak maite zaitu eta adierazi egiten dizu maitasun hori... Hori guztia dirua baino garrantzitsuagoa da. Hori izan da eta da nire aukera, eta ez naiz inondik ere damutzen.

Gainera, urtez urte jendeak maitasun handiagoa eskaintzen didala iruditzen zait, eta nik betidanik pentsatu izan dut maitasun horrek elkarrekikoa behar duela izan. Nik uste dut ondo daramadala kontua, apal eta lasai, ahal dudun guztia eskaintziz.

Argi dut, beti, guztiok garelako pertsonak, autografoa eskatzen

11 Jendeak maitatu eta adierazi egiten dizu maitasun hori. Diruak baino garrantzi handiagoa du horrek»

11 Ni harro nago bizitza osoa Athleticen egon izanaz. Maisu onak izan ditut eta dezente ikasi dut»

duena edo hura sinatzen duena. Eta hori da gure artean izan behar dugun tratua, pertsonen artekoa. Ni ume izana naiz, ilusioz bete, eta Athleticen jokalariek idoloak ziren niretzat. Badaikit ume horrek zer sentitzen duen, zer esan nahi duen irribarre horrek.

Gainera, nire ustez, hortik dator kio bizitza Athleticen eta jokalariek gara ilusio hori bultzatu behar dugun lehenak. Jendeak gustura itzuli behar du etxera. Entrenamendua ikustera datoz,

nirekin edo bestearekin argazki bat egitera. Hori gure lanaren barruan dago, dudarik gabe».

Burua ez galtzeko

«Nola edo hala, nire ametsa bete da eta, horrekin batera, zurrumbilo bat gertatu da. Zurrumbilo horren erdian nago eta, burua ez galtzeko, gauzak argi izan behar dituzu. Eta, nire kasuan behintzat, beste zerbait: inguruko laguntza. Haiek laguntzen didate niri oinak lur gainean izaten. Haiek eta izan ditudan entrenatzaileek, noski, ez baita donon talde honen entrenatzaile izatera heltzen.

Bizitza osoa daramat honetan, eta aspaldi ikasi nuen futbol profesionala ez dela bestea bezalakoa. Behean zaudenean, gora heldu nahi duzu, eta, bitartean, dibertitu egiten zara, adiskidetasunaz gozatzen duzu... Jokatzeko partida, elkartzeko zara, beste familia batzuekin bazkaltzera...

Futbol profesionala, ordea, beste zerbait da. Lehiaketu hutsa, norgehiagoka hutsa. Irabazteak axola du, ez beste ezer. Egunetik egunera, futbolak gehiago eskatzen dizu, muturreraino, kalerik egin gabe, hutsunerik gabe. Muturreraino, muturraren muturreraino. Hori da legea eta, futbola maite baduzu, ezin diozu lege horri uko egin.

Hasten zarenean ez dakizu



11 Pertsona heldua egiten zara, zure adinekoak oraindik gaztetxo diren erabakiak hartu behar dituzulako»

hori. Baina berehala ikasten duzu. Hamabi urterekin txapelketa batean parte hartzen duzu, agian etxetik kanpo. Hamabostekin egona zara atzerrian, bakarrik, gurasorik gabe. Futbolari esker izan ez balitz, nik ez nukeen horrelakorik biziko. Eta bizitakoak irakasten dituz.

Gazte heldua

«Horrekin batera, diziplina baten barruan zaude, ordena baten barruan, jende desberdinarekin harremanetan jartzen ikasten duzu, hainbat lekutan nola egon eta nola moldatu... Horrek guztiak helarazten zaitu, nahitaez.

Agian, pertsona heldua zaru besteak oraindik gaztetxo diren. Nik ez dut beste batzuen patxada izan. Hamabost edo hamasei urte nituela erabaki garrantzitsuak hartu behar izan nituen eta erabaki baten eragina oraindik indarrean dago.

Hemezortzi urterekin egin nu-

LEHIA. Futbol profesionala norgehiagoka hutsa dela dio Portugaleteko zurigorriak.



11 Edonor 25-30 urterekin asentatzen da bere lanean. Futbolariok alderantziz egiten dugu»

en estreinaldia San Mamesen. Nahitaez, ume bat nintzen, baina berrogeita hamar mila lagun zeuden ume hark egindakoa ikusten, jarruitzen, epaitzen.

Gainera, ni txikitatik izan naiz taldeko kapitaina, kategoria guztietan. Berezkoa bezala dut, ikasi egin dudalako. Noski, hori bakoitzaren nortasunaren arabera doa. Niri, futboletik kanpo, gauzak nire modura gustatzen zaizkiri eta horretan saiatzen naiz, baina ez naiz zelaitik kanpo hapi-tain sentitzen».

Betirako, ezer ez

«Futbolaren inguruan ibili da nire bizitza, ia hasieratik, eta jakin badakit mundu honek harrapatu egiten zaituela. Futbolari izandako askok, profesional izateko garaia bukatzeko unea helzten zaiotenean, ez du unibertso honetatik kanpo bizi nahi izaten. Badira, itxuraz behintzat, aldaketa hori zauririk gabe eman dutenak, bai-



na zenbaiti oso gogor egiten zaio.

Edonor hogeita bost eta hogeita hamar urte horien bueltan asentatzen da lanbide batean. Guk alderantziz egiten dugu. Hogeita hamar urte ditugunean utzi behar izaten dugu gure aurreko bizitza. Eta beste bat asmatu behar dugu, nahitaez, hortik aurrerakoa bizitzaren erdia baino gehiago izan daitekeelako.

Nik banekien, ia hasieratik, hau ez zela betirako. Orain badaikit zerbait gehiago: ez zaidala honetan urte asko geratzen eta laster havi guztia iragana izango dela. «Horregatik ahalegintzen naiz neure burua prestatzen, trebatzen. Kazetaritza egiten ari naiz, txandaka asgnatura batzuk, ahal dudan moduan. Iaz bost asgnatura atera nituen, eta

etorkizunean ikusiko dugu.

Entrenatzaile karneta lortzen ere saiatzen naiz, lanak eta egunerokotasunak uzten didanean.

Ez dakit zer egingo dudan hau bukatutakoan, eta horregatik saiatzen naiz bide bat baino gehiago zabaltzen, unea heldutakoan aukera bat baino gehiago izan dezadan. Umetatik, oso umetatik, jakin nuen futbolaria izan

nahi nuela, baina hemendik aurrerakoa ez dut hain argi.

Ikasi ditudan gauzen artean hauxe datorril burura maiz: ez dakizula hurrengo instantean zer gertatuko den. Horregatik saiatzen naiz etorkizunerako bideak zabaltzen eta, bitartean, neure burua aberasten.

Pianoa jotzen dut, ez nik nahi bezain maiz, baina ez dut utzi. Zaletasun gisa landu dut, gutxi, baina utzi gabe. Eta, besteak beste, nire kultur maila zaintzen saiatu naiz. Polita da ikastea eta ikastako edozerk askotarako balio dizu, mila istoriotarako, mila gertakizunerarako. Bizitzak bide asko zabaltzen dizu eta zura da aukera, zuk erabaki behar duzu.

Nik bete dut nire ametsa. Athleticean nago, lehen ekipoa. Baita selekzioan ere. Han jokatu dut jokalaririk hobereenen kontra. Eta gure afizioaren mailasuna dut. Gurea, gainera, ez da nolana hiko afizioa. Baketsua da, baina beron. Eta edonon errespetatua, salbuespen gutxirekin. Batzuetan, ordea, gure zaleek ez dute izaten merzi adinako harretra. Urrutian daude, sekulako esfortzua egin dute bertara heldzeko, ehunka kilometro eginez, eta arriskuan ikusten dituzu. Gu ez, gu babes-tuak gaude. Baina zaleak ez.

Alegia, erregea arduratu egiten da kumeez, inguruko ez eta inguruko ez inguruko ez.

NORTASUN AGIRIA
JULEN GUERRERO

1974

Portugaleten sortua, urtearen hasieran, hain zuzen ere urtarri-laren 7an, Errege biharamunen. Oso urmetatik hasi zen futbolean, lagunekin batera.

1982

Zortzi urterekin heldu zen Lezamara, Athleticen futbol eskolara. Maila guztietatik igaro zen: kadeteak, jubenilak, Bilbao Athletica. Talde guztietan erakutsi zuen golak sartzeko trebezia.



LEHEN TALDERA

1992ko irailean egin zuen debuta Ligan, San Mamesen, Cádiz-en aurka. Heynckes alemaniarra zen orduan Athleticeko entrenatzailea.



SELEKZIOA

Hemeretzi urte baino ez zituen Julen Guerrerok Espainlako selekzioarekin lehen aldiz jokatu zuenean. 1993an izan zen, Mexikoren aurka.

2000

Urtea bukatu aurretik, bere lehen umea izango du. Orduan, golak sartzaz gain, beste ardurarik bat, garrantzitsuagoa, hartuko du bere gain.



88 GOL

Athleticeko lehen taldean ari denetik, 88 gol egin ditu Portugaletakoak. Aurtengo Liga 100era hel daiteke. Zifra biribila benetan.

2007

Zazpi urte barru -33 izango ditu orduan- bukatuko da Athleticen sinatu zuen kontratua.

Ikur dotorea

XABIER AZKARGORTA

Edonork entzun du Barça klub bat baino gehiago dela, eta hala izango da.

Gauza bera esan daiteke Athletic buruz. Eta, Athleticen barruan, Julen Guerreroz. Jokalaria da, lehen mailakoa, baina hori baino gehiago ere bai. Julen ikur bat da, sinboloa asko eta askorentzat.

Horretaz gain, gero eta emakume gehiago hurbiltzen dira futbol partiduetara eta, dudarik gabe, hauentzat Julen ere sinbolo bat da.

Eta hori, jokalaria izateaz gain, ikur izatearen lana oso ondo betetzen duelako txalotzen dut nik, gehienbat, Julen Guerrero. Batzuek hainbeste txorakeria eta hainbeste faltukeria dagoen honetan.



MIKEL CASAL

Autoargazkia

JULEN GUERRERO

Nire burua pertsona lasaltzat dut. Erabakiak hartu aurretik asko pentsatzen dut, buelta asko ematen dizkiet kontuei, eta ez futbolari bakarrik. Neurketa bakoitza jokatu aurretik mila buelta ematen diet jokalariei, entrenatzaileak esandakoari... Eta bukatu ondoren berdin, zergatik egin dudan hau eta ez hura...

Gauzak txukun eta ordenaturik gusatzzen zaizkit, argi, ez nahasiak. Uste dut nire emozio gehienak kon-

rolatzen ditudala, gehienetan. Gutzitok dugu, tarteka, haserrealdiren bat, baina iruditzen zaizt gehienetan ez diodala neure buruari amore ematen.

Apal izaten salatzen naiz, eta beste-ei laguntzen.

Inbidia da gutxienez maite ditudan hitzetako bat. Izena ere ez zaizt gustatzen. Sentikizun ezezkorra da; pertso-

na bakoitzak bere baloreak ditu eta bakoitzak tokatu zaionarekin moldatu behar du.

Egia da inbidia hor dagoela, egune-ro egiten duzula topo harekin eta haren kontra jardun behar duzula. Inbidia txarra da, baina ez bakarrik hori sentitzen duenarentzat. Inbidia-tua denak ere sufritzen du.

Dena den, futbolaren mundua emozionala da, beroa eta ni hor barruan ahal bezain ondo irauten saiatzen naiz.

Ama askok nahi lukeen suhia

A.U.

la agindu duenaren antzera.

Erantzunaren ondoren irribarrerik txikiena, apenas ezpainen bazter batean kokatua. Ez nauzu harrapatu eta alferrik saiatuko zara.

Jendeak nigandik irribarre bat espero badu, hor doa irribarre. Hitz egiteko gauza ote naizen jakin nahi badu, hortxe esaldi zuzen batzuk. Gutzia (matina a proposen) berezkoa

balitz bezala.

Ama askok nahiko lukeen suhia omen da, eta izango da. Baina, era berean, neska askok nahi luketen printzea, ume askoren unibertsoan izarrak distiranteena.

Lana bukatu ondoren etxera itzuli nahi duen gizonak, argi utzi nahi du autografo eske hurbiltzen zaionarentzat ere zabalik dagoela berak urratu duen bidea. Eta badirudi esandakoa sinesten duela, saguak eta lehoiak berdintsu balira bezala.

elkARRIZKETA

Eva Argiñano
Gozogilea

Aukerak aprobetxatuz

Besteek eskainitako aukerez baliatuz egin omen du bidea, txoriak habia belartxoak aprobetxatuz egiten duen bezala. Gozogilea da, sukaldari guztiz ospetsu baten arreba. Eta gainerakoon bizitza gozatuz bizi nahi du.

TESTUA: ARANTXA URRETABIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS





«Lehiakor ez izatea da nire lehia nagusia»

Eriantzunak putzu sakon batetik atera behar balitu bezala ekin dio hizketari eta, askotan, hasperen batez hasten ditu esaldiak. Gero, berehala, kontakizunari amore ematen dio, eta hortik aurrera ez dago aldaparik.

«Nik ez nuen sekula pentsatu handitserakoan sukaldean lan egingo nuenik. Ikasle haskarra eta arazoak zituen adolezentea nintzen. Nik uste dut nire amak ez zekiela ongi nola jokatu nirekin, eta anai zaharrenarengana bidali ninduen, ea hark hobeto gobernatzen ninduen. Orduan, Karlos Zarauzko Golfean ari zen lanean eta han hasi nintzen, garrak garbitzen, ilarrak aletzen, barazkiak garbitzen....»

Horretan ari nintzela, sukal-

dean, pastelgilea ikastaro batzuk egitera joan zen eta hura ordezkatzeko mandatu eman zidan niri nebak. Hasi nintzen gozogintzan, itzuli zen pastelgilea, jarraitu nuen harekin eta, halako batean, pastelgilea beste jatetxe batera joan zenean, nik hartu nituen haren postua eta ardura.

Horrela heldu nintzen ni gozogintzara, txirripaz, ez nik aukeratuta. Seguraski protesta egingo nuen momentuan, nik jocra hori baitut, protesta egin eta qero egokitu.

Ez zen bat-bateko maitasuna izan. Gozogintza oso tekniko da, eta asko kosta zitzaidan teknika menderatzea. Gainera, motela naiz, oso ikasteki. Hori bai, ikastal-

11 Gozo klasikoak, tradizioarekiko errespetu guztiz eginak, horixe da nik nahi dudana»

Jauzi hirukoitza

«Gaur egungo sukaldaria oso ikastaldea da eta teknologia korapilatsuak erabiltzen ditu. Jaktaren izenetik hasita, bezeroak ustekabea eskatzen du. Gaur egun, jatetxe bateko sukaldean etxeetako sukaldean ez dituzten tramankuluak ditugu: lurrunezko labeak,

eransten ez diren plastikoak...

Niri ondo iruditzen zait abangoardiako sukaldaritza eta are hobeto jendeak hori eskatzea. Baina ez da hori nik egin nahi dudana. Jakin badakit jendeak ez dituela etxean apenas bizkotxoak, gailetak, stanak edo natilak egiten. Seguraski, askori ahaztu ere egiten zaio horien zaporea.

Agian horixe da nik nahi dudana, gozo klasikoak behar bezala eginak. Hostore on bat, adibidez, oso leku gutxitan egiten da, ezta jatetxe on askotan ere.

Hortik doa nire bidea, gauza onak, goxoak, tradizioarekiko errespetu guztiz eginak, pittin bat egokituak –hori bat–, pintzelkada moderno batez.

«Gaur egun, sukaldaria baditu-

di beti eta edozertan oso lehiakorra izan behar duzula. Ni, ordea, ez naiz inondik ere lehiakorra edo, bestela esanda, nire lehia nagusia lehiakor ez izatea da. Ez dut lehiakortasuna inondik ere maite. Ez dut notari zahar ematera behartuta egon nahi, ez lanean ez bizitza pertsonalean.»

Leku bila

«Nire lekuaren bila ari naiz, presarik gabe. Leku hori, seguraski, xumea izango da, nik horixe nahi dudalako. Xumea etu nire. Nahiago dut saguaren burua izan, lehotaren buztana baino.

Leku txiki bat nahi nuke, gozokiak egiteko, betiko edo aspaldiko gozogintza klasikoak, orain hiltzorian dagoen hori. Eta lortuko



egiten eta hori, ostalaritzan, sekulako luxua da. Nik ez dut festa egunik ez asteburu librerik ez zubirik. Gau libreak dira nire luxua, eta horretan ez nago amore emateko prest, ez bada tarteka, oso tarteka.

Gainera, haurrak hazten ari dira eta orain, noizean behin, arte libre bat dut. Horri esker egiten dut aurten soinketa, eta Internetez zerbait ikasten ari naiz. Datorren urtean, beste tartetxoren bat hartzen badut, agian ingelesarekin hasiko naiz. Auskalo. Presarik gabe, ez baitituz presak maite. Lasai, baina atzera egin gabe.

Orain arte, izan ditudan aukerak aprobetxatu egin ditut, baina egin ditudanak ez dira nire ekimenez sortu. Horrelaxe gertatu zen, adibidez, komunikabideekin. Komunikabideetan lan egiteak errespetu handia ematen dit. Guztiz izutzeraino batzuetan.

Ez nago, ordea, izuvari amore emateko prest. Aurre egiten diot beldurrari eta, oraingoz, beti menderatu izan dut beldur hori. Ez naiz handizalea, baina ez dut atzean geratu nahi, ezkutaturik, izuturik».

Zaldi hezia

«Nik uste dut txikitari thasitakoak gero eta eragin handiagoa duela niregan. Urte luzetan familiarengandik aldentu samar ibilia naiz, beti kalean, beti azkenean familiarterako bazkarietan...»

Amak hamabi urte bete nituen arte irakatsitakoak uste dut erro sendoak dituela nire barruan. Gero, hogeita hamar urte bete arte urrundurik ibili naiz eta orain, berrogeirekin, sarritan ikusten ditut neure buruan amaren keinuak, errepikaturik, haurrekin ari naizenean, adibidez.

Ashotan esaten diot amari sineskaitza irudituko zaiola nola zaintzen dudan orain, gaztetan zein urrundurik ibili nintzen ikusita. Orain, gustura egiten diot kontu amari, gustura ibiltzen naiz harekin. Egia esan, horrela

11 Pastelgilea ikastaro batzuk egitera joan zelako hasi nintzen ni gozogintzan, Zarauzko Golfean»

11 Gauetz ez dut lanik egiten eta hori, ostalaritzan, sekulako luxua da; eta horretan ez dut amore emango»

11 Ez naiz handizalea, baina atzean geraterik ere ez dut nahi izaten, ezkutaturik, izuturik»

tan eta guzti egin zidaten».

Eta barre egiten du, algararik gabe, elkarrizketaren harian behin baino gehiagotan egin duen bezala».

BIHURRIA.

Ingurukoek hala ikusi izan dutela dio Eva Argiñanok.

Ausartuko naiz

«Sarritan pentsatzen dut, zahar-izerakoan, baratze bat eduki nahi nukeela, baratze txiki eta ezkutu bat. Han, guztien begietatik urrun, nire gauzak landatuko nituzke, letxugak, barazkiak... eta egunero zainduko nituzke. Ezkutuak, inork ez dezan esan ez ditudala landatutakoak ondo zaintzen, letxugak marraskitiloz josiak daukela, ez dudala baratzea jorrratzen, edo...»

Ez dut neurtua izan nahi, ez dut begiratua izan nahi. Iruditzen zait jendeak ez duela ulertuko nahi dudana, eta kritikatu egingo nauela. Horregatik izango da ezkutua nire baratzean, kritikak galarazteko.

Tarteka, edozortan ari naizela, zaharzaroa elortzen zait gogora. Adibidez, hemen, jatearearen inguruan dugoen paduran, duncen artean paseatzen ari naizela, bertako zikinheriak ikusi eta bazterra asko maite dudanez, zaharzaroon pentsatzen dut, zahar-zaharra izango naizenean poltsa handi batekin joango naizela bertara, potekak, papertxoak eta plastiko muturrak bilduko ditudala. Bai, batzuetan bururatsen zait hori izan daitekeela nire bizitzaren bukaera, hainbeste maite dudana lekua garbitzen aritzea. Eta ez dut hori gizartearen mesederako egingo, neure buruaren pozerako baizik.

Gaur horrela hasiko banintz, jendeak pentsatuko luke, agian, burutik eginda nagoela. «Hori txor-roa da» pentsa dezakete, eta horixe bai ezetz. Baina zahartu ondoren bat, iruditzen zait orduan ausartuko naizela. Hartuko dut poltsa handi bat eta padurako zikinheria guztiak bilduko ditut.

Presarik gabe hori ere, bitzak eskaintutako gogotik aprobetxatuz.

pasatu dut denbora asko azken udan, amarekin eta haren lagunekin, denbora-pasa, limonada edanez».

Ondo hezitako zaldia

«Batzuetan esaten dut ondo hezitako zaldia naizela. Nire ingurukoek beti bihurri samartzat jo naut, baina nik gero eta obedi-enteago ikusten dut neure burua, luzaroan moldatu gabekoa izan ondoren, orain, azkenean, moldatu izan banintz bezala.

Lehenago batean esan nien lagunei ingurunera moldatu beharra zegoela, zumeak egiten duen bezala, haizearen aurrean makurtu egin behar dugula, besteia haizeak hautsi egingo gaituelako. Eta lagunak ez zotozen bat, errie-



dut, badakit lortuko dudala.

Edozein lanbide duzula ere, benetan puntaren puntan egon nahi baduzu, mugarik gabeko orduak eman behar dituzu, ia zure bizitza osoa. Eta nik ez dut hori nahi. Nire lanari esker bizi nahi dut eta, lan hori ondo egin ez, gero eta hobeto. Baina bi haur ditut eta haien zaharzaroz gozatu nahi dut.

Gozteko zazpi eta erdietan edo zortzietan hasten naiz lanean, arratsaldeko laurak arte, gutxi gora behera. Gauetz ez dut lanik

NORTASUN AGIRIA
EVA ARGINANO

1960

Udaberrian jaio zen, Beasainen (Gipuzkoa). Familiako laugarren eta azken urtea da. «Nire amaren ohean jaio nintzen, aurreko hirurak bezala».

ANAI-ARREBARIK GABE

«Nire aurreko ahizparekin sei urteko diferentzia dut, eta dezente txikia nintzela aldegin zuten beste hirurek etxetik. Ni alaba bakarra banintz bezala gelditu nintzen».

**ZARAUTZERA**

Zarauzko Golfeko sùkaldean hasi zen lanean 1975ean, hamabost urterekin. Karlos anaia zaharra izan zuen ondoan lehen egunetik.

**TELEBISTA**

Euskal Telebistan egin zuen bere lehen agerraldia telebistan, Karlos anaia eskutik. Geroztik, komunikabide askotan egin du lan, eta postreari eskainitako atal berezia gidatu zuen.

BI HAUR DITU

Zarauzten bizi da eta han egiten du lan, etxetik hurbil. Olnez joaten da. Bi haur ditu, hamaika eta zortzi urtekoak.

**ODOLKIAREN KOFRADIA**

Aurtengo otsailan, Odolkiaren Kofradiako kide egin zuten bere jaioterrian, Beasainen. Irudian, odolkiekin igurtzi zuten unea ikus daiteke.

EPAIMAHAIETAKO KIDE

Bere postreari ospe handia hartu dute, eta hainbat lehiaketako epainu haikide izan da.

Inork ikus ez dezan

A.U.

Zaldi gisa deskribatzen du bere burua, baina izan zitezkeen zakur lirain eta bake-tsua, inor izutzen ez duen horietakoa, hondartzaren ertzean. Edo ezer adierazi gabe sustraiak urrutira bidaltzen dituen landarea. Kasu horretan, duna baten atzean loratutako lilla seguraski.

Kaleko jantzita dator, praka bakeroak, takoirik gabeko oinetakoak, jertse arrosa argia, zahar antzeko belarritakoak. Berehala jartzen du jakatxo zuria eta instantean luzeago dirudi, are lirainago, jakatxoarekin batera sukaldarien txano luzea jantzi izan balu bezala.

Azazkalak jaten ditu, baina ez odola egiteraino. Motzegi ebaklak dirudite, baina zainduak.

Algararik gabe egiten du barre sarritan, alaitasuna edo bizi-poza ezkatu nahi balitu bezala. Inork ikus ez ditzan, inork kritika ez ditzan.

«Gozogintzaren gakoa, osagai gutxiarekin gauza desberdin etxeko asko egitean datza». Eta izan daiteke metafora bat.



MIKEL CASAL

Autoargazkia

EVA ARGINANO

Batzuetan pentsatzen dut ezezaguna naizela beste guztiarentzat, ez nautela harrapatzen, ez nautela naizen bezala ikusten, beste modu batera baliz. Ez dut propio egiten eta ez dakit zergatik gertatzen den. Ez dut uste ezkatzen naizunik.

Pertsona entregatu bat naizela uste dut, oso klasikoa, jenio biziakoa. Tarteka, haizeren batek jotzen nau eta ezin naiz isilik gelditu, bota egin behar dut bururatzen zaidana. Moderatua naizela uste dut, baina aldamenekoez ez naute horrela ikusten. Dezentetan gelditzen naiz pixka bat, gertatzen dena edo egin dudana hausnartzeko. Zergatiak bilatzen ditut. Gauza batzuk txiripaz gerta daitezke, baina bizitzan dena ez da txiripa eta ustekabea.

Desberdina naiz lanean eta lanetik kanpo. Lanean oso ordenatua naiz, guztiak garbi egon behar du eta leku jakinean. Zorrotza naiz, ez dut ezer barkatzen. Lanetik kanpo alderantziz gertatzen zait, ez dut sekula ezer aurkitzen, nahasi egiten naiz, galdu. Ondo asko dakite nire lagunek askotan ezin dudala sartu buruan zein ordutan duten haurrek musika eskola, eta joango natzale motxila eta txirula eramatera musikariek ez dutenean.

Oso lagun onak ditut, benetako adiskideak, eta izugarri gustatzen zait haiekin egotea, paseatzea, berriketan egitea... Oro har, orekatua eta egiten dudana bizitzarekin pozik nagoela esango nuke.

Uste dut ikuspegi zabaletik ikusten ditudala gauzak, orokorrean, inguruan gertatzen dena orokorki ikusteko gauza naizela, ez bakarrik alderdiz alderdi. Alde onak, txarrak eta erdipurdikoak ikusten ditut.

Ikasteko makala izatea da nigandik gutxien maite dudana. Batzuetan ikusten ditut ni nagoen puntura bide-zidorez etorritakoak, arin, muturrik jo gabe. Makala naiz, guztiz makala.

Ez dut nire burua feministatzat, baina oso baikorra naiz emakumeei buruz. Gauza batean behintzat aberatsagoak gara emakumeok: gure interesak antzizgokak dira eta horrek lehentasun desberdinetara garamatza.

Herri txikiak maite ditut, eta bertako bizimodua. Hiri handiek antsietatea sortzen didate.

EVAK KARLOS ANAIARI BURUZ

11 Karlosen itzala zabala da, biribila, alde guztietan babesten duena. Ez da itzal iluna eta itogarria, baizik eta babeskorra. Eta pertsona asko biltzen gara hartara».

11 Beti esaten dut, nik ikasi bitartean, garesti irten natzaiola Karlosi. Ez bakarrik dirutan, baita pazientzian ere. Ondo daki noiz bultza egin; noiz


11 Ez dut uste anaiak sekula oztopatu nauenik. Alderantziz, hargatik izan ez balitz, orain ez nintzateke nagoen lekuan egongo».

ELKARRIZKETA

Andolin Eguzkitza
Idazlea

Euskaldunberri zaharra

'Idazle' jarri nahi izan du izen-abizenen azpian. 'Irakasle' ere jar zezakeen, edo Euskal Idazleen Elkartearen buru. Berrogeita zazpi urte ditu, idazteko denbora gutxi, eta euskaltzain oso izan nahi du.



«Idazle kontzientzia falta zaio idazleari»

Mutil-koskor zenean ikasi zuen euskara eta adin-nagusitasunera heldu baino lehen jarria zen Aresti, Kintana eta Mitxelenaekin harremanetan.

«Gazteena nintzen ingurune horretan eta hor hasi nintzen idazten, aldizkari batean edo bestean. Umemoko bat nintzen. Eskarmentu gutxikoa eta munduaren berri gutxi zuena. Baina oso ausarta».

Lizentziatura eskuratu bezain laster joan zen Salamancara ikasketak jarraitzera, Koldo Mitxelena zenaren eskutik. Eta, ondoren, Koloniarra. Han deskubritu zuen zer zen Europa, Erdialdeko Europa berrera. Handik Estatu Batuetara, ingeles ez apenaz zekien arren.

Estatu Batuak

«Hura bai beste mundua. Linguistikari teorikoa ikastera joan nintzen eta horretan aritu nintzen, buru-belarri. Ingelesko azterketa egin zidatencan esan nion neure buruari ingelesa ez nekela, baina intuizio asko nuela, toneladaka. Eta asmatu egin nuen, justu-justu, gutxieneko puntuazioa lortuz.»

Hogeita gutxi urte nituen harantz joan nintzenean eta han hasi zen nire gaurko bizitza. Ikasi nuen linguistikaz, benetan. Baita zerbait gehiago ere, gizaki moduan ere aurrera egin nuen. Linguistikaren atzetik joan nintzen Estatu Batuetara eta han egin nintzen pertsona heldu, zentzu askotan, are pertsonalenera. Zentzu batean, esan dezaket Ameriketara deskubritu nuela neure burua.

Han nengoela, behin baino gehiagoan pentsatu nuen han geldi nintekeela, bizitzera. Baina gurasoek presio handia egin zidaten, batez ere amak. Azkenean, presio horri amore emanaz etorri nintzen Euskal Herrira eta beti esaten dut eskertu behar diodala ama zenari itzultzera behartu ninduelako.

Estatu Batuetan asko ikasi nuen, bai, baina ez nintzateke orain han biziko. Bisitarean bat, argian hiru hilabeteko egonaldia, tarteka dudak nostalgia ordaintzeko. Baina bizi, bizi, ez. Oso gizarte gogorra da. Han, bakar-dadea aseguratua duzu. Hemen posible da, han, segurua.

Ni europar sentitzen naiz eta hori Estatu Batuetan deskubritu nuen. Bizitzeko moduan, jendea kontuan hartzeko moduan edo lagunak egiteko moduan, europarra naiz, eta Europar bizi nahi dut.

Horrek ez du esan nahi hango gauza onak baloratzen ez dituz-

danik. Alderantziz. Beti harritzen nau jendeak zein gutxi dakien Estatu Batuei buruz eta zenbateko arinkeriak botatzen dituen kontrako iritzia.

Asko dira adibideak. Bata, askatasun pertsonalaren defentsa da. Izugarriak dira horretan. Klase sozialen arteko iragazkortasuna da bestea. Europar klase sozialak oso markatuak daude eta Estatu Batuetan klaseak egon badagoz, baina klase batetik besterako ibilbidea ez da hemen bezain zaila. Estatuak berak uzten ditu dirua Unibertsitateara joateko eta hori da klasez aldatzeko biderik hoberrena.

Batez beste, hamabi urte egin nituen Euskal Herritik kanpo, baina itzulera ez zitzaidan gogorra egin. Agian, nahiz eta kanpoan egon, Euskal Herritik lotura galdu ez nuelako, familiarekin nahiz euskararen inguruko munduarekin».

Kontzientzia eza

Hainbeste urteren buruan, itzuli zen etxera, hasi zen lanean irakasle gisa, unibertsitatean eta «lagunarte berri bat sortzen» saiatu zen. Handik urte batzuetara Euskal Idazle Elkartearen buru izendatu zuten.

«Familia oso aberzale batekoa naiz eta nire aitak, adibidez, ikastolen sorreran, parte hartu zuen, mila saltsatan sartua zegoen. Behar bada, aitarengandik jasoko nuen gizar-tearekiko joera hori. Gauza da nik uste dudala zerbait eman behar dela, gizartedri zerbait eskaini behar zaiola, ez dela nahikoa beti nor bere buruz jardutea.»


Laster beteko ditut Elkartearen dagozkidan lau urteak. Esan dezadan ez dela lan ordaindua eta ez dagoela ordutegirik ez antzekorik. Baina, niretzat behintzat, lan psikologiko handia eskatzen du. Egia da oso langile finak daudela bertan, elkarrekin ondo moldatzen garela, baina, halere, buruaren zati handi bat betetzen dit.

Joateko momentuan eskakizun bat egingo dut: hurrengo lehen-dakariari ekintza bakoitzeko ordaindu egin behar zaiola edo, bestela, hileko hainbeste».

Elkartearen talaiatik aztertzen ditu idazleak eta haien jokaerak. «Lehen, euskal idazlea gizona


« Euskal idazleak ez du sinesten euskaldun eta idazle izatea posible denik»

« Gero eta gehiagok ateratzen dute bizibidea euskaraz idatziz»



zen, eta ez gaztea. Orain, gaztea da eta ez beti gizonezkoa, gero eta emakume gehiago baitago esparru honetan, zorlonez. Gainera, ez daude hor inolako kuota betetzeko, parte hartzen dutelako bidez. Antza denez, idazten hasten den emakume askok ez du aurrera egingo, eta gizonak bai. Baina aldaketa gertatu da, gertatzen ari da. Oro har, nik uste dut idazleek ez dutela interes handirik jartzen elkarteetan eta horrek arrazoi nagusi bat du: nik uste dut euskal idazleak oraindik ez duela sinesten euskaldun eta idazle izatea posible denik. Badakit hortik bizitzea guztiz zaila dela, eta frogak nabarriak dira. Baina horretarako bideak jarri behar dira. Gaur egun, gero eta gehiago dira euskaraz idazten bizibidea irabazten dutenak.

Idazle kontzientzia falta zaio, oro har, idazleari, hori da nire analisia. Badirudi gauzak apur-



ka-apurka hobetuz doazela. Lehen ez zuen inork kontzientzia hori. Beharbada, benetan beraien burua idazle gisa ikusi zuten lehenak Mirande eta Aresti izan ziren eta, ondoren, 1960ko hamarkadaren bukaera aldera idazten hasi zirenak.

Hortik aurrera kontuak aurrera egin du, eta horren adibide da azken Galeusca. Idazle euskaldun asko hurbildu ziren bertara, eta gehienak gazteak. Hori seinale ona da».

Leihatilaren beste aldean

«Egia da Euskal Idazleen Elkartaren lehendakaritza onartu nuenen ez mela hainbeste lan emango zidanik uste, baina ez naiz damutzen. Alderantziz, pozik nago, elkarrekin lan asko egiten duelako eta Administrazioaren erantzuna gero eta hobea delako».

Administrazioa esan du eta horretaz mintzo da, azken urteotan

negoziaketetan denbora luze eman duen pertsonari dagokionez, zentzuz.

«Nik uste dut Administrazioa prest dagoela gure idazleei laguntzeko, arrazoi politiko orokorrak direla medio, baina batzuetan ez dakite zer den benetan idazle bat, zer oztupo dituen, nola egiten duen lan. Sarritan iritzi okerrak dituzte idazleei buruz, bitxiak, desegokiak. Adibidez, alferrak direla edo sekulako desordenan bizi direla.

Egia da, baita ere, Administrazioan lan egiten duten guztiak ez direla berdinak. Besteak beste, ez da berdin zurekin hitz egiten duena euskalduna izan edo ez. Administrazioan lan egiten duen erdaldun askok ez daki bizi garenik ere, ez du gure mundua inondik ere ezagutzen, ez du guri buruzko berririk. Zaharrak, hor nonbait. Baina ausartzen naiz esatera zure hizketakidea gaztea

«Euskaltzain oso izan nahi nuke; hori da nire ametsa, eta horretan saiatuko naiz»

«Idazletzat dut nire burua, nahiz eta azken urteotan denbora gutxi eskaini diodan literaturari»

eta erdalduna bada, jai duzula.

Idazletzat dut neure burua, nahiz eta azken urteotan literaturari denbora gutxi eskaini diodan. Saiazten naiz diziplinatua izaten, idazteko denbora emango didan ordutegia antolatzen, baina gutxitan lortzen dut horrelakorik. Eleberria eta poesia landu ditut, eta bietan lortu izan dut plazerra. Nik sinesten dut poesiaren bidez bestela ezagutuko ez zenituenak ezagutzen dituzela. Poesiarik irakurtzen ez duenak ezagupen modu bat galtzen du, beste ezagupideek eskaintzen ez dutena.

Gaur egun, bi dira nire biziaren ardatz nagusiak: linguistika –irakasle gisa–, eta literatura. Eta amets bat, euskaltzain oso izatea. Ez naiz tituluzalea, baina euskaltzain urgazle naizela dioen zera paretean jarria dut. Bai, euskaltzain oso izan nahi nuke eta horretan saiatuko naiz».

ARDATZAK. Bi ardatz nagusi ditu bizitzan: literatura eta –irakasle bezala– linguistika.

NORTASUN AGIRIA
ANDOLIN EGUZKITZA

1953

Santurtzin (Bizkaia) jaioa, abenduan, gutxira sei anai-arreba izango zituen familia abertzalean. Gurasoak ez ziren euskaldunak.

1975

Filologia Erromanikoan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Lizentziatura eskuratu bezain laster hamabi urtez luzatuko zen ibilaldia hasi zuen Salamancan, Koldo Mitxelena-ren babesean.

ETXERA.

Hamabi urte atzerrian ikasten eman ondoren, familiak eraginda itzuli zen Euskal Herrira. Orain ez da erabaki hartaz damutzen, baina izan zuen kanpogan gelditzeko asmorik.



1977

Alemaniar joan zen, Koloniara, linguistika ikasketak osatzera. Bi urtez egon zen han.

1979

Ingelesa menderatzen ez bazuen ere, Estatu Batuetara joan zen, linguistika ikasketak jarraituz.



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA
1997an, Elkartearen ardura joxerra Garziaren eskutik hartu zuzenean egindako argazkia.



ETORKIZUNA

Laster utziko du ElEren lehendakari eta, agian, asti gehiago izango du idazteko, hori falta zaio-eta gaur egun.

1986

Doktoradutza lortu zuen Kalifornian, UCLA Unibertsitatean. Urte hartan bertan itzuli zen Euskal Herrira.

1997

Euskal Idazleen Elkartearen buru hautatu zuten. Bilbon bizi da eta EHuko irakaslea da, Gasteizko Filologia fakultatean. Euskaltzain urgazle ere bada.



MIKEL CASAL

Eleaniztasun
kosmopolita

X. KINTANA

Mitselenak inol ez esan zenez, lagun gutxi izango da Euskal Herrian Andolin Eguzkitzak atzerrian ikasten jarduteko bezainbat beka lortu duenik. Alemanian eta Estatu Batuetan, batez ere, egotaldi luze bezain emankorrak izan ditu, eta horrek, atzerriko minutuak ikasteko duen erraztasunarekin, eleazitun harrigarria bihurtu du: ingelesa, alemana, italiara, katalana... ederki menderatzen ditu. Halere, ez zaigu hor gelditu, hizkuntzoz gainera, herri horien bizimodua, historia eta literatura ere sakonki ezagutzen saiatu da bera, mundu ikuskera kosmopolita lortuz. Horretarako, baina, ez da, soilki, bibliografiaz baliatu. Ahal izan duen guztietan, bertako jendeekin harreman zuzenak izan ditu, hizkuntza berean mintzatzeko aukeraz baliatuz.

Nortasunari dagokionez, bere ideologian euskalduntasunak erro teoriko eta sentimental sakonak dauzka, zalantzarik gabe, eta bere eguneroko bizitzan horiek kontsekuenteki aplikatzen saiatzen da. Adimen oneko eta beti informazio bila dabilenari gertatzen zaionez, ordea, bizitzako gertakarien aurrean Andolin ez dugu beti erabateko iritzi finkoa duten horietakoa: malgua izaten da, badaki zuriaren eta beltzaren artean badela grisik asko ere, eta horregatik nahilago izaten ditu arazoak fabardura ugari eta zehatzaz epaitzea.

Autoargazkia

ANDOLIN EGUZKITZA

Nekez haserretzen naiz. Tarteka prontoak ditut, izugarriak, bizpahiru minutukoak. Baina haserre egotea kosta egiten zait. Era berean, lagunekin apurtzea izugarri kostatzen zait, eta askotan nire txarrerako da.

Behar bada, kontziliadore samarra naiz, nahiz eta horrek ez duen nire ideten alde egingo ez dudarik esan nahi. Normalean, harreman onak ditut jendearekin. Agian hori ere altarengandik jaso dut. Aita oso pertsona liberala zen eta hil zenean, hiletetan, Santurtziko hainbat frankista egon zen, lagunak zirenak. Bera EAkoa zen, eta Jarraiko neska-mutilek koroa bat

eskaini zioten.

Oso ordenatua naiz, agian despistatua ere banazelako, eta ordenarik gabe gutxi galdurik ibiliko nintzatekeelako. Beti dakit non dauden gauzak, non paperak. Bakarrik bizi naiz eta aste dut etxea ordenaturik dagoela, txukun.

Etengabe dudak sententzia zera da: gustatuko litzatekeela maitatua izatea, edonorengandik, hori ezinezkoa dela jakinda ere. Nik ez diot inoiz mori agurra ukatu eta haserretzen naizen gutxietan ere, haserre hori ez da betirakoa izaten.

Lagunei garrantzi handia ematen diet. Badituz lagunak, munduan zehar, neskak eta mutilak, Alemanian edo Estatu Batuetan, eta gubitan elkartzen bagara ere, harremana gordetzen dugu.

Arropa neuk erosten dut. Lehen arreak eta amak aukeratzen zidaten jantziko nuena, baina neure gustua dut eta arropa nik aukeratzen dut. Ikasi dut jantziak zuzandik asko adierazten duela eta nahi dudana adierazten saiatzen naiz.

Aitortu behar dut amets bat dudala. Ez dut Euskal Herriko lehendakaria izan nahi, ez dut Aita Sabdua izan nahi. Baina euskaltzain oso izan nahi dut.

Ardoa bezala

A.U.

Liraina da, luze eta arina. Baina bertzik gabea, samurra. Ez daralena apaindura askorik, baina berehala igertzen zaio soinean daraman arropa ez dela txirripaz edo axolagabekeriak hautatua izan. Metalzko betaurreko urre-kolorekoak, belarritik behera lokarri beltza zintzilik. Gustura egiten du hitz eta solasa

irribarez ziprirtintzen du. Halere, entzuten du eta badaki nola adierazi entzuten ari dela, betaurrekoen gainetik edo kristaletan zehar. Gutxi bezala, ederrago da orain gaztetan baino, agian aspaldian galdutako orduko

haur prodijio itxura. Negoziatzaile ona dela diote, eta hala izango da, seguruenik hizketakidea irribarez desarmatzen duten horietakoa. Irribarrez eta temaz, behin bide bat urratzen hasiz gero ez baitu berehala etsitzen.

Zakurra, seguraski, zakur afgano dotore bat, kaskoko ilea aspaldian galdutzen hasia bada ere.

ELKARRIZKETA

Txaro Arteaga
Irrati esataria

Berdintasunaren bila



Hogeita bost urtez egin zuen lan irratian, eta horien erdia darama Emakunden. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna du helburu eta horretan saiatzen da, tematsu eta irribarrez.



«Gauzak aldatzeko pazientzia izugarria behar da»

Irrati esataritzat dauka bere burua, azken hamabi urteotan Emakundeko buru bezala ezagutu badugu ere.

«Nire oraingo karguak asko markatzen du. Jendeak sentitzen du Emakundeko feminismoaren ikurra garela, eta guk esandakoa pertsonalizatzeko joera du, nire lana edonori kontu hartzea balitz bezala.

Jokaera horren atzetik emakumeon lortu bat dago: bat, berdintasunaren kontua politizatu egin dugu eta erakundeetara erantzukizuna eskatzen diegu. Baina askok eta askok pertsonalizatu egiten du gure mezua, haiek ezkatuta nahi duten zerbaiten

PD Oso zaila da kulturak eraikitako harresiak zeharkatzea»

kontra joango balitz bezala.

Hor konturatzen zara zenbateraino den zaila kulturak eraikitako harresiak zeharkatzea. Gainera, jendeak, normalean, beldur dio berrikuntzari, seguruago sentitzen da hartutako ohi-turen barruan. Eta jende askok, gizon nahiz emakume, beldur dio feminismoari, kasu egin die kontutako gezurret. Adibidez, uste dute

PD Gaurko gazte askok berdintasunaren ameskeria bizi du»

inposatzaileak garela, aginte-riaren aldekoak. Edo gizonezkoen kontra gaudela...

Nik uste dut nire senarrari ere askotan aitapazen diotela nire lana, agian txisteak eginez eta guzti. Baina nire gizonari ez zaio axola, ez du aintzat hartzen. Nik uste dut grazia eta guzti egiten diola.

Nire alabak gehiago sentitu

izan du nire itzala, besteek sentiarazi diotelako, noski. Ni bereztat ama natz, ama normala. Duela gutxi kontatu zidan ez dakit nor esan ziola ni oso intolerantea nintzela, beti errietan ari banintz bezala. Eta alabak ez zuen hori ulertzen, bere iritziz ni naizelako ezagutzen dituen pertsonen artean tolerantetelakoa.

Aiba, egia da

«Hogeit urte bete baino lehen, irratian lanean ari nintzela, egin nuen nik topo feminismoarekin. Eta handik aurrera urtebete pasa nuen, aiba, egia da, esaten. Ez nuen ulertzen nola ez nintzen lehenagotik konturatu.

Nik uste dut gizon eta emakume askori niri duela hogeita hamar edo berrogei urte gertatu zitzaidana gertatzen zaiela, sumatzen dutela zerbaitek dagoela ondo, zerbaitek behar dela, baina ez dakite zer edo nola.

Gauza da gaia gero eta gogokoago egin zitzaidala eta hari buruz irakurtzen hasi nintzela eta, gero, beste emakume batzuekin lanean. Argi ikusi nuen hori zela bidea eta, hori ikusten duzunean, aldatu egiten zara barrutik (kanpotik ere bai, agian, baina hori ez da hain garrantzitsua). Begietan lente berezi batzuk jarri izan bazenitu bezala ikusten duzu beste



tako tardeelan jartzen dira eta, oraindik ere, binak edo hirunaka joaten dira komunera, babes-
tuak, bertan elkarri kontuak kontatzeko.

Berdintasunaren espejismoa ari dira bizitzen, ez benetako berdintasuna. Asko ez da horretaz jabetzen lanean hasi arte, hor ikusten dituzte desberdintasunak, lan mundura sartzeko ordutan. Hasten dira lanean eta ez dute lana ezkontzerakoan utziho dutenik esango. Hori oso garbi dute, ekonomikoki independenteak izan nahi dute, menpekotasunik gabe. Eta independentzia ekonomikoa ez da nahikoa, baina bai oinarri sendoa.

Baina atzetik datozenek jakin behar dute zenbat zor dieten aurrekoari. Haiengatik izan ez balitz, ez geundeki gauden lekuan. Gure belaunaldiak zerbait lortu du eta hurrengoak gehiago lortuko du, baldin eta horretan saiatzen bada.

Bide luzea dago hemendik benetako berdintasunera. Etu luzeago izango da gauzak ondo bideratzen ez baditugu.

Etexko lanak

«Gaur egun, hartu etxetik kanpo ere lan egiten duen hamar bikote eta haren artean hiru bakarrik dira etxean laguntzen duten gizonak. Hamarretik hiru, hori da gure egoera.

Bai, etxeko lanaren banaketan gauzak asko aldatu dira, baina batez ere jende baten artean, ez gizarte osoan. Normalean, puntu honen inguruan ateratzen dira gaur deabru guztiak, batez ere emakumeak ere etxetik kanpo lan egiten duenean.

Nik uste dut kontu honetan gainditu egin behar dugula elkarri gauzak leporatzen ibiltzeko joera eta gauzak beste modu batera azaldu behar ditugula, nondik gazozen jakinda, norgehiagoka gaindituz. Modu baikorren. Eta ez da hain zaila.

Bestalde, iruditzen zait gaur

Atzetik datozenek jakin behar dute zenbat zor dieten aurretik izan dituztenei»

Jende askorentzat emakumeon arazoak bigarren mailakoak dira; beti dago beste zerbait aurretik»

asko ikusten ez duena.

Honek ez du esan nahi emakume guztiok berdintasunaren alde gaudenik, ezta gutxiago ere. Baina kontu hau perspektibaz ikusi beharra dago, bestela etsitzeko arriskua baitago. Atzera begiratu behar da, eta aurrera, non gauden ikusteko».

Berdintasunaren ameskeria

«Neska gazte askok pentsatzen du feminismoa kontu zaharra dela, aspaldikoa, gaur egun lortua dagoela berdintasuna.

Oraindik argitaratu ez dugun azterketa batek dioenez, gazte askok berdintasunaren ameskeria bizi du. Uste dute lortua dagoela eta ez dutela horren alde ezer egin behar. Ikusten den zatian, berdintasunak lortua dirudi. Baina ikusten ez diren kontuetan frogatzen da ezetz.

Adibide bat jarriko dut, horrela hobeto ulertzen baita mezua. Azterketak gizon eta emakumeok espazioa modu desberdinean erabiltzen dugula frogatzen du. Taberna batean, adibidez, gizonak barran jartzen dira, atean eta atetik komunera doan bidean. Neskek, berriz, gizonak utzi-

deen inguruko borroka.

Pentsatzen duzu hainbat pertsonak gainditu duela, teoria mailan gutxienez, berdintasunarekiko beldurra; eta gero ikusten duzu ezetz, gauza zehatzetara heldzerakoan berdintasunaren kontra daudela. Nik uste dut Alardeen inguruko arazoa izugarria dela, beste ezerk baino gehiago adierazten duela zein bide luzea gelditzen zaigun benetako berdintasunera iristeko.

Nik beti pentsatu izan dut oso primitiboak garaile gure harremanetan, eta horrek alde onak eta txarrak ditu. Baina hainbestelarikoa, ez nuen espero.

Ilor dago, ordea; hau da dugun herria. Hori da aldatu behar duguna, eta ez du balio ezjakinaren egiteak.

Gauzak hobera aldatzeko pazientzia izugarria behar da, gauzak garbi eduki, norabide horretan bultzatu..., baina pazientzia. Kontuan izan behar da jende askorentzat emakumeon arazoak bigarren mailakoak direla, beti dagoela aurrean jarri beharreko zerbait».

Gizonekin batera

«Emakumeok aspaldi hast ginen geure burua aztertzen, ikasitako hainbat kontu zalantzan jartzen. Guk, nola edo hala, argi dugu bidea nondik doan, etxean, kalean, lanean.

Baina gizonek ez dute bere identitatea aztertu, ez dute lan hori egin, eta batzuek sentitzen dute premia. Nik uste dut hori egiten den neurrian, biok batera, berdintasunezko harremanak sortu behar ditugula, eta berdintasunak gizarteari onura ekarriko diola, gizarte osoari, gizon nahiz emakumeari».

Hori bai, etorkizunean. «Noski, badira berdintasun osoz eratutako bikoteak, baina gizarteak, orohar, ez du jokoera hori».

Errezeta: lana eta pazientzia. Erraza edo, gutxienez, posiblea dirudi Txaro Arteagaren ahoan.

NORTASUN AGIRIA
TXARO ARTEAGA

1944
Donostian jaio zen, maiatzean, guztira hiru seme-alaba izango zituen familian.

1963
Donostiako Herri Irratian hasi zen lanean. Bertan lan egin nahi zuen lagun batl laguntzera joan zen eta bera izan zen aukuratua, ez laguna. Hogeita bost urtez egin zuen lan Herri Irratian. Tebistan ere aritu zen aurkezle gisa.

EMAKUNDE
Aurpegiak eta izenak azkar erretzen dituzte politikagintzatik hurbil dauden Administraziooko karguek, baina Txaro Arteaga eta Emakunde hasiera-hasieratik izan dira elkarrekin.



1989
Emakunde EAEko Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendari izeridatu zuten, eta beti berretsi izan dute postu horretarako, agintari politikoak aldatu badira ere. Bertako kontuez arduratzeaz gain, askotan hartu du parte nazioarteko biltzar eta bilertan. Besteak beste, Danimarkan Europako Kontseiluaren eskutik, Londresen Europako Batzordearen eskutik, Pekinen NBERen eskutik... Ezkonduta dago eta hogeita hamar urteko alaba du. Aita ere etxean du.



KARGUAREN POZ BITXIAK
Proiektzio publiko handiko beste emakume batzuekin batera, Queimadaren Kofradiaren kide egin zuten 1997an.



GAZI-GOZOAK
Hurbil-hurbiletik ukitu dute Irun eta Hondarribiko alardeen inguruko ika-mikek. Argazkian, 1999ko Irungo Alarde Ofizialean parte hartu zuen emakume batekin ageri da.



MIKEL CASAL

Autoargazkia

TXARO ARTEAGA

Optimista naiz, berez, beti arazoan alde ona ikusten duten horietakoa. Emakunden bertan, arazoren bat sortzen zaigunean, nik beti pentsatzen dut konponbidea aurkitu behar diogula. Ez naiz pentsatzen hasten noiena den erria, noiena erantzunkizuna...

Akuboa naizela esaten dute, baina nik denbora asko hartzen dut neure buruarekin egoteko, nire lasaitasunarako. Adibidez, bidalak egiten ditudanean beti aurkitzen dut neure buruarekin egoteko denbora. Irudiltzen zait nahikoa ondo orekatzen ditudala ekintza eta hausnarketa.

Ez nuke inolako arazorik izango bakarrik bizitzeko. Beti sentitu izan dut bakardadea berezkoa dugula, beti gaudela bakarrik munduan. Beste gauza bat da batekin edo besterekin harremanak izatea, baina nik ez dut menpekotasunik.

Ni independentea naiz, barrutik, gainera. Ez da plantak edo itxurak egiten ditudalako, ez. Neure buruaren jabe sentitzen naiz.

Gehienok bezala, askotan egiten ditut nahi ez ditudan gauzak. Baina zergatik egiten ditudan jakinda, neure burua engainatu gabe. Gustatzen ez zaidan zerbait egiten dudanean, badakit zergatik ari naizen horretan, gaineko zerbait hori eskatzen didalako.

Lagunak garrantzitsuak dira niretzat, baina ez ditut egunerokotasunean behar. Agian luzaroan telefonoz bakarrik egiten dugu hitz, agian ez dugu luzaroan elkar ikusten. Baina elkartzeko garenan, berehala gertatzen da lotura.

Denbora faltan bizi naiz eta askotan

pentsatzen dut zenbat gauza egingo dudan jubilatutik ondoren, zenbat gozatuko dudan denboraz. Batzuetan pentsatzen dut ezin naizela hil egin nahi ditudanak egin baino lehen.

Errespetuari garrantzia ematen diot, baita pribatutasunari ere. Nik besteel eskaintzen didan errespetua eskatzen dut niretzat. Agian baten batek pentsa dezake ez dudala interesik, hainbat galdere egiten ez dudalako. Agian norbaitek jokatera hori hoztasuntzat har dezake, baina errespetua da.

Normalean umore onez esnatzen naiz. Nire senarrak esaten du erraza dela nirekin bizitzea, beti antzeko tenorean nagoela, gora behera handirik gabe.

Simpatika naizela ere esaten dute, eta nik uste dut jendearekiko jarrera hori aitarengandik ikasi nuela. etxean ikasia edo, agian, kromosometan etorri zitzaidala.

Ahotsaz dantza

A.U.

Airosa heldu da, espazioa bete-tzeari beldurrik ez dionari dago-kionez. Txaketa eta galtzak ezki hostoek sasoi honetan duten kolorekoak, niky zuria, gorpuzari gogotik atxikia.

Apaindura gutxi, ez bada Grace Kellyk asmatu zuen mototsean biltzen den ilearen kolorea: morea.

Oreka aipatzen du, eta ikusi ahal antzematen zaio berak aipatzen ez duen oreka mota berr bat: duen adina ukatu gabe, gazteengandik ikasi nahi duenarena.

Keinu ugari egiten du, buruaz,

eskuez, besoez, lanbidetzat hitza izan ez balu bezala. Akina da, modu kutsakor eta zalapartatsuan.

Eta dantza egiten du ahotsaz, gora, behera, uhinka, saltoka, hegan. Egiten du hitz eta, zu konturatu gabe, sare bat egin dizu inguruan, entzulea harrapatu nahi duen ama-rauna.

Tolesturarik gabekoa

PAKO SAGARZAZU

Bada Euskal Herriko historian ziurraski inork idatziko ez duen atal bat, gutxi batzuen memorian grabaturik dagoena. Txaro eta biok —eta zorionez oraindik hor dabilzan beste gutxi batzuk— gazteak ginen irratian lanean hasi ginenean, eta berehala sortu zitzaigun premia bat, oroimen gaizloko zuzendari tirano baten gogorki horrokatzeko premia.

Benetan zaila izan zen ataka hartan ez zegoen hitzerdika aritzeko aukerarik, eta elkar ezagutzeko aukera izan genuen, tiranoa garaitu genuen arte.

Ez dut uste oker nabhlenik Txaro gure artean gehien horrokatu zenetako bat izan zela esaten badut, ataka hartan, eta gerora ere bai, kutsu frankista argia zuen irratia hura herrikoi bihurtu zen arte.


Angi asko eta itzal asko bizi izan ditugu elkarrekin. Harrezkero dakit nik zintzoa dela, prestua goltik behera, tolesturarik gabekoa eta kontsekuentea. Ikusia dut algaraz eta negarrez eta gaur, hainbeste denboraren buruan, benetako laguntzat dut Txaro.

elkARRIZKETA

Pello Zabala
Arantzazuko fraidea

Arantzazurako jaioa

Eguraldiak eta irratiak egin dute famatu ia jaiotzetik Arantzazuko fraide izan nahi zuen baserriko semea. Ametsa bete zuen, aspaldian. Hor eta horretantxe jarraitzeko gogoa ez zaio bukatu oraindik ordea.



«Jende askok oso ikuspuntu murrizta du eguraldiaz»

Santutegia garbitzen ari da haize indartsua, hosto ugariren laguntzaz.

Pello makutsik dator, ordea, oinetan arauzko izateko argiegi diren sandaliak besterik ez. Eta ez haizearen gogorak ustekabeen harrapatu duelako.

Txiki-txikitatik ikusi zuen gaurko santutegia jaiotzen, eta zazpi urterekin hazekien han bizi nahi zuela.

«Aita hil zenean nik bederatzirte nituen eta ordurako bane-kien, erabakita nuen Arantzazun bizitzea. Bertako giroa gustatzen zitzaidan eta herriko apaizarekin tira-bira handiak izan nituen, hark seminariojako nahi ninduelako eta nik Arantzazura etorri nahi nuelako.

Hamar urterekin etorri nintzen Arantzazura, gaurko eliza oraindik bukatzeko zegoenean. Dorreak, adibidez, erdibidean ziren.

Frantziskotarretan hasi eta orduan ohizkoa zen ibilbidea egin nuen: Foruan bi urte, gero Zarautzen... Hamabost urterekin abitua jantzi, ileari fraide itxura hori eman... Hemenetzi edo izango nituen Arantzazura itzuli nintzenean. Horixe nahi nuen eta horrelaxe gaude».

Irratiaren bidea

«Ikasketek irauan bitartean, nire afizioak organoa eta cuskaru izan ziren. Nik txikitatik maite eta landu izan dut musika. Arantzazura etorri baino lehen, mutikotan, solfeo asko nekien, afizio handia nuen. Gero, hemen, aukera eman zidaten eta erraz ikasi nuen pianoa jotzen. Gero organoa...».

Bide horretatik etorri zitzaion Euskadi Irratian musika salo bat egiteko aukera eta, ondoren, eguraldiaz jarduteko eskakizuna.

«Hasieran erdi txantxetan hasi nintzen, modu informalean, eguraldiaz hitz egiten, ez zutelako beste inor hori euskaraz egiteko gai zenik. Hasi nintzen eta saiatu nintzen ikasten, irakurtzen, han eta hemen. Beharrek, nolabait, bidea egiten du, edo eginartzen dizu, eta gaur hor ibiltzen naiz, herriz herri, eguraldiaz hitz egiten. Musika klasikoa maite dutenak gutxi dira eta eguraldiak, berriz, beste tiradizo bat du.

Gaur goizeko saioan bertan, haizeaz hitz egiterakoan, goizean haizearekin jolasean ibili diren putreak aipatu ditut, deskribatu

dut nola jarri dituzten hegoak zabalik eta, hegoak batera mugitu gabe, nola aritu diren haizearekin gora eta gora, azkenean han goian puntutxoak besterik ez izan arte...».

Nik beti aipatzen dut haizea, hori eguraldiari buruz dudan filosofiaren harruan dagoelako. Gure zaharrek ere horri begiratzen zioten eta horrekin antzemanen zuten etorriko zen eguraldia. Berez, dagoen haizeak asko adierazten du, baita gorputzaren tonua ere, templea...».

Kalean, ordea, heste modu batez ikusten da. Axola duena zera da, euria egingo duen edo ez. Aipatzen diezu haizea eta ez dute horretaz entzun nahi. Bihar euria egingo duen edo ez, hori da gehienei interesatzen zaiena.

Nik, haleko jendea-ri gerturarazi nahi diot kaletik ikusten ez den gauza asko. Kalean ez duzu zerurik ikusten, ez dakizu ilargia dabilen edo ez. Eta nik asko aipatzen dut ilargia satoetan, jendea jabetu dadin, nahiz eta kalean bizi, ilargiak baduela bere eragina».

Eskolan irakatsi

«Urte askotan ez da eskolatan ia ezer irakatsi. Baina gaur eguraldiak protagonismoa hartu du, eskolatan ere. Gaur eguraldiaren kontu asko edo iparra eta hegoa bereizten eta antzekoak ikas daitezke eskolan.

Baina jende askok oso ikuspuntu murrizta du eguraldiaz, pronostiko argi bat nahi du eta kito. Gaur egungo jendeak ez daki eguzkia zein ordutan ateratzen den ere, ez zaio buruan sartu neguan ordu batean ateratzen dela eta udun hitu ordu lehenu-go. Ez dira konturatzen eguzkiak hitu orduko jira duela negutik udara.

Ni lehenago txoriekin ibiltzen nintzen, zaletu eta kanario pila hazi nuen. Gero, horiek lan asko ematen zutela eta begoniekini hasi nintzen, begonia klase desberdinak zaintzen. Gero, koleoak etorri ziren. Txiki-txiki jarri, zaindu, kimatu, zaindu bete-bete egin arte. Terrazan jarri, sartu... Nik

11 Haizeak asko adierazten du, baita gorputzaldia ere»

11 Euria egingo duen edo ez, hori interesatzen zaie gehienei»

beti behar izan dut horrelako zerbait. Bitzita zaintzea bezala da eta esker oneko zaletasuna. Gertutik bizi duzu natura eta horretarako ez duzu baliabide asko behar».

Komentu barruan

«Gure San Frantziskok ez zuen komenturik nahi izan, garat haie-tan komenturik enpresa bat egin-da zeudelako. Sartzeko dote haun-dia behar zenuen, adibidez. Beraz, lehendik maila bat zutenak sar zitezkeen komentuetan.

Lehen komentuetako bizitza zoragarria zen, ahal zuzenaren-tzat, noski. Jaiki, otoitz egin, gosalduta eta, bazkaltzeko ordua arte, libre-libre nahi zenuena ikasteko, zure gelan, inork moles-tatu gabe. Eta arratsaldean ber-din, lan guztiak beste batzuek egi-ten zituztelako.

Gaur, guztiok egiten ditugu lan guztiak, garbitzea eta gatnerako-ak. Baina beti duzu nahi duzuna ikasteko denbora. Fraideok anai-di bat osatzen dugu eta elkarri





lanak kenduz edo arinduz, bata bestearenak eginez, askoz denbora gehiago duzu libre. Apaiza izanez gero, parroikia bat duzu eta hori lotura handia da.

Ez omen da siestarik gabeko fraiderik. Niretzat, berriz, siestako ordua liburu batez gozatzeke ordua da».

Gaurko eliza

«Zentzu batean, hurbilago gaude Europatik Espainiatik baino. Gaur egun, kristau laikoek egiten dute lehen guk egiten genuen gauza asko eta gaurko hau askozaz elizago da lehengoa baino. Lehen apaizak, fraideak eta monjak ziren eliza, eta gainerakoak artaldeak.

Laiko horiei lagundu egin behar zaie eta, beharbada, hor hutsune bat dago. Gaudenok nahiko zahartuta gaude, eta horiei bidea erakusteko gauza ez akaso. Horiek apaiz berriak behar dituzte, euren arteak irtenakoa.

Lehen bezalako apaizak etorri zain egotea alferriakoa da.

11 Gaur laikoek egiten dute lehen guk egiten genuen gauza asko; gaurko eliza lehengoa baino elizagoa da»

Berriak beharko dute izan, izaez, ezkonduak edo ezkongabeak, baina lan hori gaudenok baino hobeto egingo dutenak.

«Apaizak etorri etorriko dira, baina bestelakoak etorri behar dute orain. Agian lehenengo arazoak da Erromak ez duela arazo hori onartzen», eta oraingoan ez du algararik egin, irribarre txiki bat baizik.

Distantzia apur bat

Aste buruetan egiten ditu, gehienbat, elizako lanak. Asteazkenean, irratiko lanak eta gainerakoak, laister argitaratuko duen liburua,

11 Apaizak, etorri etorriko dira, baina bestelakoak etorri behar dute orain»

adibidez; gizarteari lotutako lanak.

«Herriarekin harremanetan zaude eta, noski, baduzu gizartearen gertatzen denaren berri. Baina nik uste dut fraideok distantzia gorde behar dugula arazo politikoekiko, eta halaxe egin dugula. Nork bere interesak ditu eta antzeman dezakezu, akaso, fraide bakoitzak botoa nori ematen dion. Gure artean bai, aipatzen ditugu kontu horiek, baina elizan, jendaurrean, ez. Mezu orokorrak bai, bakea, elkarrizketa eta antzekoak. Baina ez aukera politiko zehatzak. Ez, hori inondik ere ez.

Nik alderdi guztietan ditut lagunak eta harreman horiek zaintzen ditut. Baina nik, neure kasuan, aurren-aurrenetik ikusi nuen ez niola botoa inori emango. Pentsatu nuen neure burua libreago sentitzen nuela modu horretan, guztiengandik gertu egoteko era zela. Botoa emanez, aldiz, lotuago egongo nintzela. Pentsatu nuen distantzia horrek guztiengandik hurbilago egoteko aukera ematen zidala.

Gero, politikoren bat jabetuko zen ez nuela botoa ematen edo eta bai, etorri izan zait baten bat, erabaki hori okerra dela esatera, baina, oraingoz, ez nau konbentzitu».

Arantzazuko dorre nagusia edo inguruko harri erraldoiak bezain konbentzigitza dirudi Pello Zaballak. Mende erdia darama Arantzazun eta entzun omen ditu sirenen kantu urrunak. Izan ere, landua du entzumen, fiabardura guztiak entzuteko gai bihurtu arte. Baina Arantzazutik urrutiratuta nahi duenak, jai du.

ARANTZAZU. Hemeretzi urte zituela egonkortu zen Arantzazun. Horixe nahi zuen, eta bere horretan jarraitzen du.

NORTASUN AGIRIA
PELLO ZABALA

1943
Ekainaren zan jaiotzen Amezketan (Gipuzkoa), guztira sei anai-arreba izango zituen familian. «Aita zena nik bederatzire urte nituela hil zen. Bost anai-arreba gelditzen ginene eta amak 32 urte zituen. Bizitzaren mingotsa, nolabait ere, gaztetatik ezagutu nuen».

1953
Arantzazura joan zen, fraide izateko bideari ekiteko.

ARANTZAZUN.
Berrogeita zazpi urte daramatza Pello Zabalak Arantzazun. Txiki-bikitatik omen zuen fraidetarako bokazioa



1966
Ikasketak bukatu ondoren, bere lehenengo meza eman zuen, Arantzazun.

1982
Musika klasikoari buruzko saiokari hasiera eman zion Euskadi Irratian. Geroztik, lau mila saiotik gora egin ditu.

1985
Eguraldiari buruz hitz egiten hasi zen Euskadi Irratian bertan. Hori esker egin da ezaguna Euskal Herriko hainbat bazterretan.



EPAIMAHAIKIDE
Musika aditua, trikitixa lehiaketan epaimahaiko lanak bete izan ditu. Soinua ere jotzen du amezketarrek.



HITZALDIAK
Herri herri eguraldiari buruzko hainbat hitzaldi eman izan ditu. Meteorologiaren inguruko kontuak oso gertutik jarraitzen ditu jende askok, eta haien berri jakiteko irrikaz egoten da.



Autoargazkia

PELLO ZABALA

Amezketan jaioa naiz eta nik nire sustratak han sentitzen ditut, Txindokipean. Amaren aldetik, Fernando Amezketarren odolekoa naiz eta horrek ere pentsarazten dit. Harrengana ere heltzen dira nire zainak. Pernandorengandik beti gustatu izan zait behartsuen defendatzaile izan zela, beti aritu zela, tokatu zitzaion sasoiari, boterea zutenen kontra borrokan. Zazpi-zortzi urtetik Arantzazura bertatu nahi izan nuen. Arantzazun bi gauza nagusi daude: Ama Birjinaren santutegia eta frantziskotarren komentua. Frantziskotarren komentuan dagoen enbor hau Amezketako Pernandoren mentua da. Hortik ateratzen dena? Bada, musikaren soltuak eta eguraldiaren inguruko lanak. Lau haizcetara hedatutako adarrak dira. Antzeko zerbait naiz. Hortik aparte, langilea naiz, izan behar eraman dudana eta daramadan bizitza kontuan harturik. Goizeko sei etan jaiki eta hamarrak pasatxo ohera; ordu asko dira lan egiteko. Gainera, esan ohi da fraideak slesta behar izaten duela eta hala izango da. Niretzat, berriz, siestarena da liburu bat hartu eta hartaz gozatzeko denborarik ederrena. Alai naizela esaten dute, eta ez dakit hori berezkoa dudana edo daramadan bizitzaren eragina den. Agian, nerez ez nintzen alai, baina horrela egin nahi izan dut neure burua, alai eta baketsu.

Putreak bezala

A.U.

Txandal galtza urdin ilunak, oinutsik, larruzko sandalia marroiak, zeruak inoiz ez duen urdineko poloa, besoak ere atrean. Poloak datorren urtean Arantzazun ospatuko den kontu baten berri ematen du: bostehun urte beteko dituzte Arantzazun frantziskotarrek. Armazoi urdinxkako betaurreko handiak eta eskuo

telefonoa eskutik askatu gabe. Putreak aipatu ditu, hegoak zabalik, luma bat mugitu gabe gora zeruan, haizeari esker. Horrelako zerbait izan zitekeen, beti Arantzazuko santutegiaren gainean. Begietan putrearen ikatzeko argi bera, sekula

etsiko ez duenaren seinale. Hitzak maite ditu, laztantzen eta zaintzen. Eta doinuak. Abeslarien trebetasunaz menderatzen du ahotsa, hainbeste entzule lluratu duen lanabes zintzoa. Gustoz erakusten ditu santutegiko hazterrak, edozein etxeko jaunek sailoko kuadroak erakusten dituen bezala. Arantzazun.

Konpromiso handiko gizona

ANTTON KARRERA

Arantzazun bizi arren, toki askotara iristen den gizona da Pello. Goizean, jaiki ondoren, etxetik irten aurretik, egunero eguraldiaren iragarpena gosaria bezain preziatua da askorentzat. Egia esan, epe motzeko iragarpenetan ez da gaizki ibiltzen, hori dela eta egin zaigu ezaguna. Tenporekin sartzen denean... Hori beste kontu bat da!!! Meteostat eta espazioan dauden beste tramankuluen laguntza erabiliz astebete aurretik ezin badute asmatu, nola demontre egin daiteke bi edo hiru hilabete aurretik, haizeari bakarrik

begiratuta? Hori ikusten ez dena sinestea baino zailagoa duk, Pello!!! Hala ere, nabaria da askok sinesten dituela Pellok tenporekin egiten dituen iragarpenak. Hain gauza zaila izan arren, arrakasta hori edukitzea miresgarria dela aitortzen dut. Zientziarena ez baina ohitura eta fede kontua izango da. Musika munduan oso jakintsua da Pello, batez ere klasikoan, baina ez dituz arrotz beste musika motak: Aktore

bezala ere ikusi izan dugu telebistan, Fernando Amezketarren oinordeko zuzena dela erakutsiz. Gaurkotasunez, gizarte honetako arazoetan buru-belarri sartutako gizona dugu Pello; eta hori, Arantzazun sartuta egonda bakarrik ez daiteke egin. Fede edo erlijio sinetsmenean ez diat itzaropenik, baina bai hik bezala gizarte honetako arazoekin konpromisoa dutenekin. Azkenik, barkaidak urriaren azkeneko larunbateko bazkarira ez joan izana. Madrilerara joan behar izan nian, eta pentsatuko duk zertara.

elkARRIZKETA

Teresa del Valle
Antropologia katedraduna

Ikasitakoak banatuz



Barruan txikiago bat gordetzen duten egurrezko panpina horietan bezala, antropologoaren azalaren azpian Mikronesian misiolari izandakoa aurkitzen duzu. Han eta hemen, jendartea aztertu nahiean.

«Emakume asko aldaketan aurka ari dira»

Txikitari, eskolan, misioak aipatzen zizkioten eta, horrekin batera, urrutiko herriak: Japonia, Txina, Mikronesia. Gainera, aita bidaiazalea zuen eta askotan egiten zituzten harekin ametszko bidaia. Horrela sortu omen zitzaion misiolari izateko gogo. Misiolari Mikronesiar.

«Nire etxekoak ez ziren oso erlijiosoak eta ez zitaten nire aukera gustatu, baina neurea egin nuen: hogeita bat urte nituela sartu nintzen komentuan, Berrizeko Mesedetakotan.

Hasieratik eskatu nuen Mikronesiara joan nahi nuela eta, nire eskakizuna aintzakotzat hartuta, Estatu Batuetara bidali ninduten, garai haietan Mikronesia Estatu Batuen menpe baitzegoen. Han egin nituen ikasketak eta Mikronesiara joan baino lehen ere, herri askotako jendearekin nituen harremanak: amerikarrak, txinatarrak, japoniarrak, mikonesiarrak...

Burutu nituen historia ikasleak eta, azkenean, Mikronesiara bidali ninduten. Han hasi nintzen lanean, irakasle gisa, unibertsitate publiko batean. Unibertsitate hartara uharte askotako jendea zetorren, kultur sustrai desberdinetako jendea.

Hamar urtez egon nintzen han lanean, kultur dibertsitatearik antzenezaren erdian. Ikasi nuen kultur haiek eta hizkuntza haiek apreziatzen eta, halako batean, oraindik barruan nituen aurretiritzi arrazista edo etnozenizistak desegiteari ekin nion.

Antropologiarekin topa

«Artean historia lantzen ari nintzela, Mikronesiako historiararen inguruan aritu nintzen eta horrek irila askotara mugiarazi zidan, jende askorekin hitz egitera, ida-

11 Komentua utzi nuenean, segurtasuna galdu nuen, eta askatasuna irabazi»

11 Hamar urte eman nituen kultur dibertsitatearik antzenezaren erdian»

tzirik ez zegoena kontatuko zidaten pertsonekin hitz egitera.

Lan horrek prestatu zuen nire burua antropologiarako eta Hawaiiko unibertsitateko doktordarutza egitera joan nintzenezan berehala ulertu nuen nik antropologia ikasi nahi nuela.

Antropologiak zure unibertsitate zabaltzen du, erantzun batzuk eskaintzen dizkizu eta baita galdere asko ere. Beste talde batzuen esperientzia ikasteko aukera ematen dizu, ikusitakoa dagokion testuinguruan kokatzen laguntzen dizu. Aldaketa-prozesuak ulertzen thasten duzu, kulturaren eta ekonomiaren artean dauden loturak zehazten, adibidez, teknologia berriek jendearen jokararengan duten eragina.

Eta bai, batzuetan biluzik sentitzen zara, zuretzat garrantzia handia duten balioak beste batzuentzak baliogabeak direla ikusten duzunean.

Hori izan zen nire bizitza berrogei urte bete nituen arte, lana, ikerketa, komunitatea...

Txaketa txiki gelditzen ari zidaidala sumatu arte, bizitza molde hark kortsatu egiten ninduela sumatu arte.

Bukatu nuen doktardutza eta berriro trakaskuntzan hasi baino lehen, nire gurasoak zaintzera etorri nintzen Euskal Herriara, urtebeterako edo. Hemen hartu nuen ordena uzteko erabakia.

Hutsunera salto

«Momentu hartan ez nuen inolako ziurtasun ekonomikorik. Heziketa bat nuen, bizikizun ugari, baina lanposturik ez. Zentzuren batean, hutsunera salto egitea izan zen... Iruditzen zait nire erabakia askoren dibortzioaren edo banaketaren pareko dela, batetik min hartzen duzu eta bestetik askapena sumatzen duzu.

Duela lau urte edo, komentura itzuli nintzen, Berrizera, nire alaba txikiarekin. Orduan ulertu nuen zer nolako ziurtasuna eskaintzen zuen bizimodu hark, etorkizunerako, zahartzarorako...

Esan nion neure buruari ziurtasun horren truke askatasuna lortu nuela, eta nire aukera berretsi egin nuen.

Azkenean Euskal Herrian lan egiteko erabakia hartu nuenean, ikusi nuen hemen ez zegoela antropologiarik unibertsitatean eta nik unibertsitatean egin nahi nuen lan, ikusitakoa banatu nahi nuen.

Zorroagako Fakultateak kontratatu ninduen eta harrezkero hemen nago, ikasten, ikertzen eta irakasten.

Euskal emakumea


«Nire ikerketa antropologikoak emakumearen ingurukoak izan

dira gehienbat. Generoari buruzkoak. Emakume eta gizonen arteko harremanak nola gauzatu diren, nondik sortu den desberdintasuna eta boterea... Berdintasunean oinarritutako jendaraketa eraketa ahal izateko, abiapuntua zein den argi eduki behar baita.

Nik argi nuen Mikronesiarekin eta Estatu Batuekin harremanetan jarraitu nahi nuela, baina hemen bertan gertatzen zena eta gertatu zena aztertu nahi nuela. Izan ere, diktaduraren azken urteetan ez nintzen hemen egon eta urte latz haietan egin ez nuena ordaintzeko premia sumatu nuen.

Eta Euskal Herriko Unibertsitatean lanean hasi bezain laister osatu genuen emakumeari buruzko mintegi bat, irakasle eta ikasleak elkartzen zituen.

Guzti horretatik sortu zen 1985ean liburu batean argitaratu genuen ikerketa. 'Mujer vasca, imagen y realidad' izan zuen izenburuztat eta bai, azterketak



JAUZIA. Askatasunaren truke, nora helduko zen jakin gabe egin zuen jauzi. Antropologia izan zuen helmuga.

ELKARRIZKETA

argi asko azaltzen zuen gauza bat zela irudia eta bestea errealtitatea.

Horretarako alde aurretik euskal emakumeari buruz argitaratutako guztia aztertu genuen (Caro Baroja, Barandiaran...) eta berehala ikusi genuen irudia baserriko emakumearengan oinarritua zegoela. Are gehiago, lehengo baserrietako emakumearengan.

Guk baserria aztertu genuen, hiria eta kostaldeko herriak. Eta argi geratu zen zein ziren emakumearengan gehien baloratzen ziren nolakotasunak: ama ona, garbia eta langilea. Horiek ziren balore nagusiak, orden horretan, gainera. Ez genien gizonzkoet galderarik egin, baina emakumezkoet galdetu genien zer zen gizonzkoet gehien apreziatzen zituzten kualitateak. Eta hiru horiek ateratzen ziren, inolako zalantzarik gabe.

Egia da azterketak zeterren aldaketa adierazten zuela, batez ere hogeita hamar urtetik beherekoentzat. Emakume helduek,

11 Euskal emakumearen balore tradizionalak... hiru dira: ama ona, garbia eta langilea izatea»

berrogeita hamar urtetik hirurogeita bostera, onartzen zuten balore aldaketa, baina alabentzat eta gauza bera gertatzen zen seme-alaben kopuruari buruz.

Nik uste dut gaur egun kontua apur bat aldatu dela. Ama ona izate horrek jarraitzen du, garbia izatearena ez da aipatzen eta langile izan beharra bai, baina ez bakarrik etxeko kontuetan».

Aldaketaren kontra
«Noski, aldaketa horiek ez dira berez gertatu, emakumeek bultzaturik baizik, eta horrela eto-

11 Askotan, aldaketaren bat eragin ondoren, lehenago heltzen zaizu oinazea abantaila baino»

rriko dira hurrengo aldaketa ghehenak ere. Nik ulertzen dut gizonzkoentzat ez dela erraza berdintasunaren alde lan egitea, horrek pribilegioak galaraziko dizkiolako eta galera hori onartzeko oso argi eduki behar dituzulako berdintasunak ekarriko dituen onurak.

Onartu behar da, halaber, emakume asko ere aldaketen kontra egon dela eta dagoela, askotan aktiboki, gainera. Batzuek pribilegioak galtzeko beldurrez, norberekeria hutsez. Beste batzuek gizarteak onartzen

duenari kontra egitea gogorra dela dakitelako. Askotan, aldaketaren bat eragin ondoren, lehenago heltzen zaizu oinazea aldaketaren abantailak baino. Ez dira falta gizonen agresibitatea errepikatzen dutenak ere, adibidez, aldaketaren alde dagoen beste emakume bati irainka hasten zaizkionak.

Sarritan, emakumeen kontrahotasuna gizonzkoena baino gogorrago izaten da, emakume batek hobeto dakitelako nola eman min beste emakume bati.

Dena den, ezin ukatu gaur askatasun gehiago dugunik, alor askotan. Adibidez, ama bakoi-tzak aukeratzen du gustuko duen amatasuna, nik neuk nire alabekin egiten dudak bezalaxe. Gauza batzuk txikitzen ikasi bezala egiten ditut, beste batzuk askoz geroago ikasitakoaren araberak... Tradizioak agindutako kodea ez da, inolaz ere, bakarra, ez eta nahitaezkoa ere».



Autoargazkia

NORTASUN AGIRIA TERESA DEL VALLE

1937
Donostian jaio zen.

1958
Moja sartzeko erabakia hartu eta bete egin zuen, Berrizko Mesedetakoa.

1960
Estatu Batuetara joan zen, Mikronesiara misiolari joateko behar zuen prestakuntza burutzera.

ITZULERA
Atzerrian hainbat urte eman ondoren etxera itzuli eta irakaskuntzan jardutea erabaki zuen berrogei urte zituela. Argazkia 1985eko EHUren Udako Ikastaroetan egina da.



1977
Antropologian Doktore egin zen-Hawaiiko Unibertsitatean. Urte hartan bertan Euskal Herrira itzuli zen, urte betez gurasoak zaintzeko asmoz. Komunitatea eta erlijio bizitza uztea erabaki zuen orduan.



JENDAUURREAN
Ikerketaz eta irakaskuntza akademikoaz gain, dibulgazio lan bikaina ere burutu du argitalpen eta hitzaldien bidez.

1979
Bizitza berriari ekin eta Euskal Herriko Unibertsitatean hasi zen lanean irakasle.

1985
Mujer vasca, imagen y realidad, berak zuzendutako talde batek eginiko lana argitaratu zen.

1988
Antropologiako katedra lortu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean bertan.



EMAKUMEA
Bere ikergai eta kezka nagusietakoa izan da beti. Iazko argazkian, emakumearen kontzeptu berriari buruzko lensaioan.



MIKEL CASAL

TERESA DEL VALLE

Baikorra naiz, botila beti erdi bete ikusten duten horietakoa. Arazoaren sustraiera jotzeko joera dut eta batzuetan mingarri gertatzen bazait ere, beharrezkoa dut erretara heltzea. Zerbait erabaki baino lehen, sakon arakatzen dut kontua, sustraieraino. Hori egindakoan dator konponbidea bilatzeko ordua.

Beharrezkoa dut taldea zein bakardadea. Gustatzen zait entzutea, baita entzuna izatea ere. Asko maite dut jendeekin egotea, elkarrizketa patxadatsuak, pitin bat sakonak maite ditut. Beharrezkoa zaizkit ere bakardadezko tartekak, neure barrura begiratu ahal izateko. Bi horien oreka behar dut, taldea eta bakardadea uzartzeko ahalegintzen naiz.

Normalean proiektu bat baino gehiago izaten dut eskuartean eta nekerik gabe pasatzen naiz bate-tik bestera. Nahiago dut sistema hori eta ez gauza bakoitza hasi eta bukatu. Berez, ez naiz oso konstantea. Kontu honetan lortu dudana heziketaren fruitu izan da, ez berezko gaitasun bat.

Fantasia maite dut eta irudimen handikoa naiz. Eta nire lagunen lagun, nire bizitzan sartzen denak ez du zergatik beti nire aurrean egon beharrik nirekin jarraitzeko.

Bidaiak maite ditut. Bidaiazteaz ezezagunaren bila joatea da eta baita ere handik etxerako itzulia. Horretan ari naizenean ez naiz haserretzen hegazkin bat atzeratzen bada edo trenak kale eginen badit. Tarte horiek ohar batzuk idazteko edo aprobetxatzen ditut eta kitto. Esan dezaket nik beti dudala poltsa bidaiatzeko prest.

Zuhaitz sendoa

A.U.

Kaskoa eguzkiaren kolorekoa, galtza ilunak eta gainetik tertzi-pelozko konjuntua, berde ilun eta sakona. Lepoan egurrezko apain-garri bat, itsas urren eta urdinen lekuko.

Betaurreko handi xamarrek, tarteka begietan, tarteka harri txikiz osatutako lokarritik zintzilik. Koloreak beu ongi elkartuak, artea maite duen

norbaiti dagokion bezala.

Aber, esaten du askotan erantzun baino lehen, esan behar duena ongi antolatzeke denbora irabazi nahirik. Eta sarritan, esaldi baten hasieran, erdian nahiz bukaeran, barre egiten du, algara bizi eta laburrak, zeru osoa bete

ondoren segundu gutxitan itzaltzen diren su artifizialak bezalakoxeak.

Ez du keinu askorik egiten, esandakoa azzimarratu nahi ez balu bezala. Entzuterakoan begiak erliska isten ditu, bi zirrikito estu bilakatu arte.

Gehiago landare animalia baino. Zuhaitz zabal eta sendoa, agian hosto iraunkorrekoa edo ez, ilearen koloreari kaso eginez gero.

Hitzaren plazerra

MARIASUN LANDA

Adiskidetasuna urteetan zehar pilotzen doazen bizipenen ondorioa besterik ez omen da.

Duela hamabost urte ezagutu genuen elkar, Bilboko lagun amankomun baten etxean eta orduko elkarrizketa-gogoia ez dela ahitu aitortu behar dut. Harrotasunez aitortu, gainera. Donostiako bazterretan, Estatu Batuetako inguru eta bide ezezagunetan, Nafarroako udako egun sargaritsuetan eta, azken urteotan, Asteasuko mendri bides-

ketan txor-txor berba egiten jarraitu izan dugu, gai ugariko hitz-asperu nekaezinean. Teresak nik bezainbeste maite baltu hitza, batez ere jakinda, hitzik csan gabe oso ondo egon gaitzezkeela. Hizlari bezain entzule ona izanik, den-dena entresatzen zaio, egunerokotasunari begirada berezia eskainiz. Formakuntza antropologikoa eta bizitzaren jakitu-

ria maiz uztertzen dira bere ikuspuntuetan, berarekin beti zerbait ikasten ari zareneko sentiazioa ematen dizularik. Besteak beste, bizitzaren aurrean duen jarrera baikorra, bere bizipoza erudugarria, zorrotzitasun kontzeptuala eta bere betiko giza-kuriositatea.

Eta Teresaren barre algara? A, hori ezin da hitzetan jarri! Askotan, mal-koak isurtzeraino egiten du barre, antropologiako katedratikoaren bihotz gaitza lotsurik gabe erakutsiz.


ELKARRIZKETA


Juan San Martin

Euskaltzaina eta Ararteko ohia

Errespetuaren alde

Mendeak laurdena bete baino lehen jaio zen eta bizitza osoa darama euskararen inguruan. Errespetuz, zaharregandik ikasi omen zuen bezala. Ararteko izana da eta liburuak binaka edo hiruak argitaratzen ditu.





«Zuri falta zaizun egia zatia beste batek du»

Eibarren sortu zen, aita sozialisten aldeko eta ama abertzaleen aldeko. Giro horretan ikasi zuen bere bizitzaren zutabeetako bat: elkarrenganako errespetua.

«Errespetuan edukatuak izan ginen. Aitak beti esaten zigun errespetua nahitaezkoa zela. Adibidez, nik elizara joateari utzi nionean, gaztetxolan, ama kezkatu egin zen eta aitak esan zidan bamuela erabakia hartzeko aski bari, baina beti errespetatu behar nuela eliza, joaten ez banintzen ere.

Uste dut bete egin dudala aitarien aholkua. Ni agnostikoa naiz, baina harrenan ona izan dut eta dut apaiz askorekin, hasi Barandiaran zenarekin eta Euskaltzaindiakoekin jarraitu. Zoritxarrez, errespetua ez da gaur egun modan dagoen balorea, zoritxarrez».

Zaharregandik ikasia

«Ni urtero joaten natz Eibarra, betiko kuadrilarekin bazkaltzera, maiatzaren lehenean. Gehienak PSOEkoak dira, beste batzuk abertzaleak. Aurten, sondeo moduko bat egin nien. Galdetu nien zer nolako iritzia zuten gaur egun egiten den politikari buruz. Guzti-guztirik erabat desilusionatuak zeuden gaur gertatzen denarekin, bai sozialistak eta bai abertzaleak. Cure kuadrilan ez dugu sekula sozialisten eta abertzaleen artean arazorik izan. Elkarrenak entzun, konprenitu eta errespetatu. Hori irakatsi zigtuen zaharrek.

Orain, alderdien artean sekulako gerrak daude eta hori kuadrilako guztioi iruditzen zaigu gazki. Ez da hori gaztetan ikasi genuena eta guk oraindik hari eusten diogu, orain moda beste

bat bada ere».

Eta pasadizo batzuk kontatzen ditu lehengo errespetua goraipatzeko. Toriblo Echeverria aipatzen du birritan, Letzaola lehendakaria eta beste hainbat, xhetasun haundiz, urtea, eguna eta toki aipatuz. Errespetua pertsonetikiko, ideetikiko eta hizkuntzekikiko.

Elbakarren itsutasuna

«Nik euskararehiko kontzientzia hogeita bat urteren inguruan hartu nuen, soldadutzan. Erdaraz ez zekitenez itzultzaile lana egiten nuen nik eta ikusten nuen zenbat sufritzen zuten. Niri pena ematen zidaten, izugarrikoa, eta, halako batean, pentsatu nuen nik munduari begiratu behar niola, baina nire herritik, nire hizkuntzatik.

Hor hartu nuen nik kontzientzia eta, gerotik, eutsi egin diot

euskarari, horrelaz arduratu naiz gehien».

Idazle, euskaltzale, euskaltzain. Bizitza osoan.

«Hizkuntza da gure herriaren balio nagusia, askok aintzakotzat hartzen ez badu ere. Tristeena hori da, abertzale askok ez duela euskara behar bezala apreziatzen. Eta ez zaie etsenplurik falta. Sabino Aranak beruk, edo Campionek, hirurogei urte bete ondoren ikasi zuten euskara eta idatzi ere egiten zuen. Edo Ibarretxe lehendakaria, euskaraz dextente ikasi duena.

Abertzale batzuk, ordea, ez dituzte etsenplu horiek jarraitzen. Nik ezagutzen ditut kasu batzuk, abertzale gogorrek direnak eta baita ere sarri gaztelaren kontra aritzen direnak, Madrilan dagoen diputatu bat, besteak beste. Euskararik ikasi



ELKARRIZKETA

11 Bi hizkuntza dakizkienak burua irekiago dauka, baita hirugarren bat ikasteko ere»

11 Abertzale askok ez dute euskara behar bezala apreziatzen, eta hori oso triste da»

11 Politikoak alderdien interesei begira zeuden; gauzak konpontzea ez zen ardura nagusia»



ez, eta erderaren kontra hizketan.

Kale garbitzaile bati edo hoberatzaile bati eskatzen zate euskarari buruzko zerbait, baina kargu handi askori ez. Gero esango dute kristauak direla. Ba, kristauak badira, jakin behar lukete Kristok esan zuela fedea ekintza bidez frogatzen dela. Egin beharko luketena hauxe da: euskara ikasi eta, gero, etsenplua eman. Baina hor hutsune handiak daude alderdi gehienen barruan, are alderdi abertzaleen barruan.

Nik uste dut bi hizkuntza dakienak burua irekiago daukela, baita hirugarrena edo laugarrena ikasteko ere. Berez, elebidunak errespetagarriago ikusten du edozetin hizkuntza. Nik uste dut, kontu hauetan, itsutasuna monolinguandik datorrela, gehienez haiengandik».

Giza eskubideak

Elkarrenganako errespetua eta euskara aipatu ditu honezkerok. Giza eskubideak datoz ondoren, Ararteko izan zenean lanbidetzat zuena betiko kezka izan baitu.

«Ararteko izatea proposatu zidatenean, nik berehala esa nien ez nekiera ezer lege kontuetaz. Frantzun zidaten aholkulariak izango nituela, nik aukeratuak, gainera. Eta proposamena onartu egin nuen.

Ararteko gisa lanean hasi nintzenean, lehen inpresionatu ninduen politikoen arteko enfrentamendua izan zen. Hemen inor ez da egia guztiaren jabe eta zuri falta zaizun egiaren zatia beste batek du. Horregatik dira hain beharrezkoak elkarrizketa eta tolerantzia. Azken batean, herri oso bat atera behar da aurrera eta, era askotako jendea dagoenez, alderdi batek ezin ditu guztiak ordetzatu.

Egia esan, desilusio handia hartu nuen politiko gehien-

11 Normalean, politikoek gehiago begiratzen diote pertsona baten karnetari gaitasunari baino»

gandik. Kexa asko etortzen zitzaigun administrazioari buruz eta nik beti esaten nien politikoei hori konpondu egin behar zutela, ondo antolatu eta zuzendu gauzak... Baina beste toki batera begira gehiago zeuden, alderdi bakoitzaren interesei begira, eta ez zuten konpondu beharrekoa behar bezala konpontzen, hori ez zelako haten ardura nagusia.

Nik politikoak, orohar, itxtegi ikusten ditut. Berrogei urteko diktadurak ikuturik utzi gaitu gehienok, eta horren ondorenak hor ditugu.

Normalean, politikoek gehiago begiratzen diote pertsona baten karnetari haren gaitasunari baino. Baten bat izendatu behar dutenean, ez dute bilatzen prestatuen dagoena, beraien karnet beru duena baizik.

Espereintzia aberatsa izan zen hura eta jende interesgarri asko ezagutzeko aukera eman zidan, besteak beste, gainontzeko Arartekoak. Agian guztion berriak ginelako izango zen, batna gauza da gure lana ez zegoela politizatua.

Orain, berriz, gauzak beste modu batera doazela iruditzen zait. Adibidez, Mugica Herzog oso politizatua ikusten dut nik, gehiagi. Anaiaren arazoa ere izan zuen, baina kontu horiek gorde egin behar dira, ezin dira lanean antzeman. Berak ez du zertan sartu politikan. Berak esaten du giza eskubideak defenditzen

dituela baina, hori nahi badu, giza eskubideak defenditu nahi baditu, lehenik, Konstituzioaren kontra sartu beharko du, Konstituzioak ez batu esaten hizkuntza naturalak ofizial izan behar dutenik.

Gero esango dute abertzaleok politizatu egiten dugula hizkuntzari buruzko guztia, baina hori ez da egia. Ez. Abertzaleok gure hizkuntza defendatzen dugu, besterik ez. Kontu hau politizatu zuen Carlos III izan zen, hark erabaki baitzuen eskoletan gaztelania zela erabili zitekeen hizkuntza bakarra. Hori da politizatzea».

Orduz kanpo

Ararteko gisa lan egin zueneko garaia da lanbidea eta zaletasuna elkartu zitueneko garai bakarra. Ordura arte, San Martinen izan zuen lana, familia aurrera ateratzen lagundu ziona, bestelakoa izan zen.

«Gerra denboran hasi nintzen lanean eta gauzez eskolara joaten nintzen. Lantegian ahal nuen borondaterik hobereana jartzen nuen eta tornero ikasketak lantegiak ordaindu zizkidan. Gero, lantegiak buru jarri ninduten eta, ondoren, trokelaria ikasi eta nire kontura jarri nintzen, trokelak diseinatzen. Urte asko egin nituen horretan eta, ondoren, makinaria saltzen ibili nintzen. Azken hauek izan ziren, diru aldetik, nire urterik hoberenak.

Gainerakoak orduz kanpo egingen nituen. Horregatik naiz berandu zalea oraindik ere. Beti-danik ohitu naiz lana bukatu ondoren beste lanetan aritzen, idazten edo irakurtzen. Horrek betiko egin nau beranduzale».

Are gehiago gaur, jubilatutik dagoen honetan. Euskaltzaindia, giza eskubideak, arteari buruzko lanen bat... Berandu, gauzez, liburuz josia dagoen etxean.

ERRESPETUA. Behin eta berriro datorkio hitz hori ezpainetara, funtsezkoa iruditzen zaio eta. Halaxe hezi omen zuten: errespetuan.



NORTASUN AGIRIA
JUAN SAN MARTIN

1922
Eibarren jaio zen, ekainaren
23an, San Juan bezperan.
Hortik datorkio Juan izena.



EUSKALTZAINDIA

Gazte-gaztetan hasi zen lanean. Bere kabuz, ongi baino hobeto jantzi zuen burua. Besteak beste, euskara izan da bere langaietako bat. Argazkian, Aita Villasanterekin aspaldiko argazkian...

1957
Euskaltzain urgazle izendatu zuten. Derak ez zuen hori inondik ere espero.

1963
Euskaltzain oso izendatu zuten. Bere ogibidearekin eta gai askori buruzko ikerlanekin jarraitzen zuen artean, konpromiso politikoari ere ez zion muzin egin, eta transizio garalan ESEI alderdiko sortzailetako bat izan zen.



JENDAUURREAN

Ikerketaz eta irakaskuntza akademikoaz gain, dibulgazio lan bikaina ere burutu du argitalpen eta hitzaldien bidez.

1989-1995

Sei urte egin zituen EAEko Ararteko bezala, eta European Ombudsman Institute erakunde-ko buru ere izan zen

2000

Giza eskubideen inguruan liburua kaleratu berri du. Elkarlanean argitaltearean eskutik. Beste gai asko ere jorratu ditu aurretik argitaratuta zeuzkan liburu eta artikuluetan. Besteak beste, artea da bere zaletasunetako bat.



GIZA ESKUBIDEAK

Gai horri buruzko artikulua bilduma da bere azken liburua, hori baita bere kezka nagusietako bat. Hori, eta errespetu beharra.



MIKEL CASAL

Autoargazkia

JUAN SAN MARTIN

Mutikotatik irakurle handia izan naiz. Liburuetan ikasi dut dakidan gehiena. Era berean natura zalea ere banaiz.

Nire famillako gizonak armaginak ziren eta aitak bide horretara eramane nahi ninduen. Nik esan nion ezetz, nik ez nuela eskopetarik nahi, nik ez nuela txoririk hilko. Gaztetxotan, Hori izan da nire postura, naturaren aldekoa, naturarekiko errespetuaren aldekoa.

Mendian noanean, suerik ere ez dut hiltzen. Heltxo batek heltzen banau, plaf egin eta akaba dezaket. Baina, gainerakoan, ez. Nire semeek ere hori ikasi dute. Adibidez, txikitari irakatsi nien suge gorria zer den, nolako duen burua, nola ibiltzen den... Beti esa izan diet kontuz horrekin, benenosa da eta. Baina ez hil.

Betidanik interesatu izan zait artea. Nire gazetako bokazioa grabadore izatearena zen. Ezagutzen nuen nola egiten zuten lan Eibarren eta nik grabadore izan nahi nuen. Marrakilaria on nintzen, gainera. baina aitak armagintzara hurbiltzen eta mekanikara dedikatu nintzen. Gero, irakurriz, ikasi nuen estilo artistikoak antzematen eta asko ibili naiz bazterrak bisitatzen. Deskubrimentuak ere egin izan ditut, Eibarren bertan eta beste leku batzuetan.

Gustatu izan zaizkidan gauzeekin lan asko egin izan dut beti. Kezka ditut eta haiek bideratzen dute nire jakinmina. Hiztegiak, etnologia, artea...

Gauza guztietan arrazoiz gutia ezin duzu izan eta horregatik errepetatu behar dira bakoitzaren arrazoiak, egia hor dagoelako, guztion artean.

Beti esan izan dut giza eskubideen kontuan, Nazio Batuen Erakundearen agiria dela nire oinarria, baita hizkuntzari buruz ere. Nik euskara defenditzen dut, baina ez dut ezer gaztelaniaren kontra. Alderantziz, gaztelania nire bigarren hizkuntza da, behar dut eta malte dut.

Azken errenazentista

Duela hiru hamarkada pasatxo, lehen aldiz Joaneke Eibarko bere etxean hartu ninduenen, bizkar aldean zeukan liburutegi bikaina scinalatuz esan zidan: «Hemen dago nire txikiteoa». Harritu egin ninduen bere hobby nagusia aurkezteko modu horrek. Harrez gero askotan pentsatu dut gure Herri honetan nolakoak izango ote ginatkeen Joaneke bezala beste banaka batzuk gehiagok jokatu izan bagenu.

Jakinmina, gizalegea, urnorea, zer-

XABIER MENDIGUREN
BEREZIARTU

nahitakotasuna: horra Joan definitzen duten hitz batzuk. Azken errenazentista urri horietako bat da gure artean: mendigoizaletasuna, artezaletasuna, hizkuntzazaletasuna, teknologiazaletasuna, beste mila zaletasun, kulturzaletasuna litz batean eta, bereziki, euskaltzaletasuna dira nik Joanengan beti ikusi eta sentitu ditudanak era atsegin, natural eta bizian, konbentzi-

menduz eta sasi-akademizismorik gabe.

Eta euskarari dagokionez, beti ait-zindari, zetozen premiak aurreikusten, gure etxagintza ahula sendotzen eta eraikitzen, gazteagooi eskuak luzatu, gailur garaia goetara igozteko laguntzen, arrano zelatari mila-begidun baten antzera gaindegietatik gure hizkuntzaren urratsak zaintzen eta sustatzen. Horrela ikusi dut nik beti Joan bere haunditasunean apal, geroa eraikitzen ekaitz guztien aurka, eta gizailegez beti.

Pasadizo artean

A.U.

Txikia eta sendoa, gustura mugitzen da liburuz jositako paretan artean, begiak argi eta bizi, beti ironia puntu bat begiradan, gehiagi dakielako barkazioa eskatuko balu bezala. Ilea zuri eta motz, buru ertzak apenas lausotuz.

Barra-barra botatzen ditu pasadizoak eta istorioak, protagonisten izen-abizenak zehaztuz, non zeinek eta zergatik, noiz eta nola, adar txiki uga-

riekin landare sendoa osatu arte, garai baten kronika aletu arte.

Sarritan egiten du barre, batzuetan algarari ahotik ateratzen uzten ez badio ere. Ez omen zaio axola egindako lana eskertzen zaion edo ez, eskerona ez omen da beharrezkoa lan egiteko. Harrotasun puntu batez aitort-

tzen du Eibarren bai, Eibarren baduela itzalik.

Ideak garbi eta zehatz azaltzen ditu, ongi pentsatu eta neurtu ondoren onartu izan balitu bezala, zintzelaz sobran duen guztia kendu arte. Eta gero, idea hura nondik edo norengandik ikasi zuen esplikatzeko, kontakizun alaiean. Berrikeran, sukaldariak gustatu zaizun jakia nola landu duen esplikatzeko duen bezalaxe.

ELKARRIZKETA

Harkaitz Cano
Idazle

Sormena bizibide

Hogeita bost urte ditu eta, halere, ez da letren mundura heldu berria. Poemak idatzi ditu, eleberriak, ipuinak, kronikak, zutabeak, kantu bilakatu diren hitzak...



«Aurrekoek gauzak erraztu zizkiguten»

Hemezortzi urte zituen izen-abizenen atzean, lehen aldiz, idazle jarri zuenean, aitari gehiegizkoa iruditu bazitzaion ere. Gero Zuzenbide ikasketak burutu zituen, aitak heste zerbait ikasteko aholkua eman arren. Orain idaztea du bizibide.

«Suerte kontua ere bada. Baina, oro har, gauzak errazago dira gariko gazteontzat, dudarik gabe.

Duela urte batzuk, seguraski, beste iritzi bat nuen baina, orain, argi ikusten dut aurrekoek gauzak erraztu zizkigutela, haiek egin zituztela gauzarik zailenak.

Gu euskararen batasuna egina zegoela hasi ginen idazten. Ordu-rako sortuak zeuden argitaletxe-etan edo martxan zeuden komunika-bideetan, hain zuzen, aurreko belaunaldiek egindako lanari esker».

Lortutakoa defenditu

«Hori bai, urteek aurrera egiten duten eran, ezinbestean edo, jendeak lortutakoa defenditu nahi izaten du. Guk ere gauza bera egingo dugu etorkizunean eta, neurriren batean, horixe egiten dugu.

Hemezortzi urte nituenetik ona, ikusi dut jendearen bilakaera zein izan den, denon joera zein den: urteak hartu ahala, ahal duena egoera eroso batean jartzen da eta, hortik aurrera, bere esparrua defenditu egiten du eta hori gelditzen da, goian, ukiezin balitz bezala. Ukiezin eta minbera. Edozer esaten duzula ere, erasotuak sentitzen dira berehala, iruditzen zaie gazteok arriskutan jartzen ditugula.

Esan beharra daukat hori ez dela bakarrik aurrekoekin gertatzen. Neurri txikiagoan, horixe gertatu da duela zazpi urte edo nire inguruan zegoen jendearekin, eta ez bakarrik literaturaren esparruan. Nirekin Zuzenbidea egin zuten batzuek ere jokaera hori dute. Seguraski, horren arrazoia urteen igarokak ematen duen izuikara izango da.

Gauza da gure literaturaren badaudela bost edo sei idazle elkarren arteko lehia, guztioek Arturo erregearen mahaian gelditu ahal izateko. Goian daude eta elkarri zaintzen diote. Adibidez, batek totxo handia argitaratzen badu, besteak totxo handiagoa egingo du handik gutxira, gero eta lodiagoa. Hori bai, konpetentzia hitza aipatu gabe. Baina egon badago; isilean, baina egon badago».

Literaturaren alde

«Ez dut, halere, aurrekoekin goyoregia izan nahi. Aitoritzen dut gu, neurri batean, pribilegiatut

garela, garai batean egin zena egin zelako ahal dugula guk, orain, bizibidea idatziz irabazi.

Hori abantaila da, noski, baina kezkarria ere bai. Bolada batcan agian obsesionaturik eta guzti egon naiz horrekin eta oraingok ere kezkatzen nau: ez dakil zenbateraino den ona, idazle batentzat, idaztearen inguruko gauzet esker bizitzea.

Bat izan daiteke idazle profesionala. Baina horrek, agian, ez dizu nahi duzuna idazteko denborarik uzten. Idatziz bizi zara, baina agian literatura egiteko denborarik gabe. Zutabeak, gidioiak, artikulua... baina literaturarik ez. Agian nahiago dut, Ramon Sainzarbitoria egiten duen bezala, dirua beste nolabait irabazi eta, hamabost urtez isil-isilik egon ondoren, halako batean, liburu on bat aterra.

Horixe da orain nire borroka. Iruditzen zaiz lor daitekeela oroka hori, baina ez da hain erraza. Besteak beste, batzutan ezetz esaten ikasi behar duzu. Eta horretarako manualak egon badaude, baina nik ez dut oraingok hori menderatu.

Ikasle izan nintzen bitartean, zentzuren batean, bizieta eskizofrenikoa neraman: goizean, Zuzenbide ikasketak eta, arratsaldean edo gauean, nahi nuena. Bukatu nituen, azkenean, neronek neure buruari jarritako penitentzia ziren ikasketak, joan nintzen bolada batez New Yorkera eta orain hemen bizi naiz, iduztearen inguruko lanak eginez.

New Yorken egon nintzenean pentsatu nuen distantzia fisikoa beharrezkoa dela lasai idazteko. Distantziarik gabe, oso antipatiko jarri behar duzu zure lana defenditzeko, edo lagunak galtzen hasi.

Eskerrak nire lagunak hurbilenuk ez direla literaturaren inguruan bizi. Nik beti kontaktzen dut nire bi lagunak onen artean, batek ez duela sekula literaturarik irakurtzen, ez eta nik neure libururen bat opartzen dudlot ere; besteak nire liburua irakurtzen ditu, baina beste inorenak ez, agian nireak irakurtzera behartuta sentitzen delako edo.


Horrek ez du esan nahi aind guztietako idazleekin egoten ez naizenik. Ahal dudanean, liburu aurkezpenetara joaten naiz eta

I Gure literaturan badira bost edo sei idazle elkarren arteko lehia»

I Idazleak sintzerao izan behar du, baita gezurrak kontatzen dituzenean ere»



GAZTE. Idazten hasi zenetik darama etiketa hori, gazte-gaztetan hasi baitzen. Bere ustez, euskal idazle gazteek ez dute inolako korrontirik osatzen.



horrelakoetan adin guztietako idazleak elkartzten gava. Gero, lar- teka, gazteok egiten dugu afari- txoren bat edo. Eta bai, batzuetan errazago izaten da harremana adinkideon artean, errazago ater- ratzen dira bromak, adibidez. Baina gero, idazterakoan, bakoit- zak bere bidea hartzen du. Ez dugu inondik ere korronte bat osatzen».

Musikarako desastrea

«Nik uste dut harreman hobea dudala musikariekin idazleekin baino, errazago sentitzen duda- la konplizidatea musikariekin idazleekin baino, nahiz eta nik oso belarri txarra dudan eta musikarako desastre hutsa nat- zen».

Ez dut gaitasunik musikarako eta horrek frustrazio handia sortzen du nire barruan. Nik ikusten dut pertsona bat gitarraz musika egiten, eta badakit nik ez dudala sekula horrelakorik lortu- ko, niretzat ezinezko den zerbit- a egiten ari dela. Uste dut musika-

riak sortzaileak direla eta nik ere badudala hori, baina baina beste modu batean bideratua. Agian osagarriak gara eta hori da era- hartzen nauena.

Orain kaleratuko den diska batean nik neure poema batzuk irakurtzen ditut eta diskan dau- de baita nik idatzitako hitzak daramatzaten kanta batzuk. Bes- te norbaitek zuk idatzitako hitzak hantatzen dituenen oso sentia- zio atsegina sumatzen duzu. Batez ere hitzak eta musika bate- ra doazenean, biek bat egiten dutenean, ez direnean ura eta oltua bezala gelditzen».

Egia idatzi

«Nik uste dut irakurleak igartzten duela idazlea noiz ari den egia- tan eta noiz ez. Ez dut esan nahi eleberrietan edo zutabeetan batek bere bizitza kontatu behar due- nik, baina bai idatzi behar due- la min ematen dionari buruz, benetan axola zaionari buruz. Egia izatea da axola duena, egia hori askotan gezurrekin

« Urteak hartu ahala, ahal duena egoera eroso batean jartzen da, eta hor gelditzen da, goian, ukiezin»

« Ez dut gaitasunik musikarako eta horrek frustrazio handia sortzen du nire barnean»

edertzen baduzu ere.

Kaleratzeko zorian dudan libu- ruan, adibidez, New Yorken bizi- takoa kontatzen dut, kronika gisa, memoria puntu batez. Nire hasierako asmoa benetako kroni- ka idaztea izan zen, egunez egun gertatutakoa eta ikusitakoa kon- tatzea.

Batna, momentu batean, des- bideratzen hasi nintzen, besteak beste, hiriak joku handia ema- ten zidalako. Berehala ikusi nuen gauza batzuk ezin nituela konta- tu, sinesgarriak ez zirelako edo. Orduan, errealitateari fikzioa txertatu beharrean, errealitatea- ri zenbait adar moztu behar izan diot, errealistagoa gera zedin.

Nik uste dut idazleak sintzeroa izan behar duela, gezurrik kon- tatzen dituenen ere.

Buelta asko eman izan diot kontu honi eta, duela gutxi, erantzuna zutabe batean aurkitu nuen, Juan José Millásek El Pat- sen idatzitako zutabe batean. Kursk urpekontziari gertatutako- az ari zen eta marinela baten

patrikan aurkitutako testua aztertzen zuen: 'Hogeita sei gizon gara, bederatzigarren konparti- mendutik seigarrenera pascak. Ez dago hemendik ateratzeko erarik. Ilunpean ari naiz idazten'. Eta puntu.

Millásek esaten zuen testu hori literatur lantegi guztietan iraku- rri behar litzatekeela eta ni bat nator. Hori da literaturaren bete- beharra, ura orkatilatik gora datorkezunean gertatzen dena kontatzea. Noski, lerro horietan ez da dena kontatzen eta lerroek esaten ez dutenak ere axola du. Hor sartuko lirateke, besteak bes- te, itotzeko zorian dagoenaren bel- durra, haren inguruko pertsonen zuzendutako mezu isilak, bizi- tzen zehar egin duenaren azter- keta... Baina hori irakurlearen lana da, hori irakurleak jarri behar du».

Horretan ari da Harkaitz Cano, irakurleari lan hori eman nahie- an, buru-belarri, batzuetan eru- tina bera ere faltan sumatzen badu ere.

NORTASUN AGIRIA
HARKAITZ CANO

1975
Lasarten (Gipuzkoa) jalo zen.
«Franco hil zeneko urtean.
Guztira, bi edo hiru hilabetez
kointziditu genuen mundu
honetan».
Landaberri ikastolan egin zituen
lehen ikasketak. Ondoren,
Donostiako Santo Tomas
Lizeoan.



LUBAKI BANDA
1994an, Asier Serrano, Gari-
koitz Berasaluze, Harkaitz
Cano, Ibon Iribarren eta Xabier
Gantzarain *Kea behelainoan*
bezala liburua aurkeztu.

1994
Lehenengo liburua argitaratu
zuen, *Kea behelainoan bezala*
poema bilduma. Horren ondo-
tik etorri dira nobelak eta ipu-
nak. Beti ere, poesia baztertu
gabe.

1999
Zuzenbide ikasketak
bukatu zituen.

LIBURUAK
Argazkia,
1996an
Beluna jazz
nobela
aurkeztu
zuenekoa da.
Hurrengo
eleberria, *Pasaia*
blues, 1999an
eman zioten
argitara. Beti
ere, literatura
eta musika
elkarri lotuta.



2000

Oraingoz azken liburua duena
osatu du, *Piano gainean gosalitzen*,
New Yorken egindako egonaldia-
ren kronika.
Belarri barreko musikazale
amorruta, lehenengo diskoa ere
jarri du kalean, Igor Calzadarekin
lankidetzan.



UZTAIL OPARO OSTEAN

uzTAIL OPARO OSTEAN
Harkaitz Cano+Igor Calzada.
Harkaitzen lau poema Calzadak
kantu bilakatuak. Produktzio
lanetan ere biak aritu dira.
Lagunen laguntzaz, noski.



MIKEL CASAL

Harro apala

A.U.

Puntuan eta irribarretsu dator, eskua luzatuz.
Galtza beltzak, larruzko zamarra beltza, lanaz-
ko jersey lodia argia. Patila luzeak, gauaren kolo-
reko bekain zabalak, moztu ahala azala belzten has-
ten den bizarra.

Gaztetan famatu egin diren futbolariek bezala, ika-
si du zer esan eta zer ez esan, nola erantzun eta nola
ez erantzun. Korapilatu gabe egiten du hitz eta gai
da, bapatean eta inolako hiztegirik gabe, submari-
noari urpekontzi esateko.

Ez du oarririk egin, baina irribarre ugari banat-
zen du, agian gehiago begiez ezipainez baino. Apala
izateko gai dirudi eta izango da, hasieratik bere
buruari harrokeria leporatzen baitio. Denboraren
pisua aipatzen du, denboraren abiadak sortzen omen
duen ikara gaiztoa, baina ez du alde egiteko presa-
rik adierazten.

Seguru gurasoek gustura entzungo luketela adeit-
sua eta ongi edukatua dela. Ez du agurra esatera-
koan eskua berriro luzatzea ahazten eta han doa,
bizkarra plitn bat makurturik, esku bat sakelean eta,
bestean, liburu bat zorro zuri batean.

Handi haizenean,
zer izango
haiz hi, aixkide?

IGOR CALZADA

Galdere honi aspaldi erantzun zion Harkaitzek:
Idazle. Jakina, zer bestela? Obabako karrike-
tan barna ameslari, hamahirugarren irakur-
taldian, aidanaz, bere patua idazlearena izan zela
otu zitzaion. Eta gaurdaino behintzat halaxe da (ezta
hcanojau?).

Ez da hain erraza, zure aixkide eta maiz abentu-
rakide den pertsonaren soslala egitea. Harkaitz eta
blok lehendabizikoz *ñoñostiar peto-petoak bezala*
Donostiako Aste Nagusiko gau batean ezagutu
genuen elkar. Garai haietan *Kea behelainoan beza-
la* argitaratu zuen Harkaitzek eta ni, bitartean, Euri-
pean Sua rock taldean nenblen, tarteka etxean kan-
tuak osatzen nituelarik bere hitzetatik abiatuz. Nik
uste, hasieratik elkarrekin zerbaiteko asmoa azal-
du gurela blok, urteetako adiskidantza jorratzen
ari ginela ohartu gabe. Osterantzean, NYCn guztia
hezurmaniturik geratuko zen.

Egun, buru belarri gabilza uzTAIL OPARO OSTE-
AN egitasmoarekin bueltaka. Horrelakoetan kontu-
ratzen zara bidaiakide egokiarekin egotea zer den.
Eta egia esan, lasartearrekin edonora egin daitez-
ke bidaiak eta gustua ematen du piloto zein kopilo-
to izateak, ilusioa konpartitzea denean helmuga.
Azken batean, gure elkarlana Ingelesezt hain sarri
aipatzen den *feeling* moduko bati egotz dakiokegu-
la uste dut.

Akerreko mostradoreari bizkarra ematean asko-
tan ez dakizu *hcanojauen* begi beltzak non dauden
iltzaturik, ez eta burutik zer arraio darabilkin buel-
taka, eta are gutxiago *Carmelo C puntorekin* izan
dako hizketaldiaren berri. Baina kuidaorik ez izan,
hcanojau beti ari da zerbaite makinatzen. Definizioz,
esango nuke ameslari aktibo dela, istorio saltzale;
diplomatikoa eta lagunartean gustura murgiltzen
dena; *urbanita* konbentzituia (beti ere Lasartekoa
dela harrotasun handiz esatea gustatzen zaion
arren); bere gorpuzkera argal eta ibilkera pausatua-
gatik (besteak beste), jendetza arteetik bereizterraza.

Hala ere, aurreko guztia baino lehenago *hcanojau*
benetako *aixkide* dela esango nuke (kantauak dioten
bezala «interlokutore fina, lagun ixila, goazen beste
tabernara...»). Eta gero, esploradore. Esploradore?
Bai, Islandiako paraje hotzetako literatura desku-
brizteko ahaleginetan beti.

Harkaitz, aixkide (neuk esaten diat), handi haiz-
zenean eskimal izango haiz, zer bestela!
Biba hil

Autoargazkia

HARKAITZ CANO

Berhin, aspaldian, homeopata batek esan zidan
oso orgullosoa nintzela. Begiaren irisa aztertu
ondoren esan zidan hori eta buru-maitasuna-
rena. Uste dut egia dela.

Langilea ere banaiz. Hori da neure buruari argi
eta garbi, inolako apalkeriarik gabe, aitortzen diodan
gaitasuna: lana. Ordu asko sartuta atera nuen kare-
ra. Iruditzean zitzaidan nahi-ta-ezkoa zela ubertsit-
atea, eta hori aukeratu nuen. Azterketa bat gain-
ditzeko hemezortzi ordu segidari egon behar banuen
mahaitik altxa gabe, ba egoten nintzen.

Gorabehera handikoa naiz. Gauza gutxiarekin,
xehetasun txiki batekin asko pozten dena eta, era
berean, oso gutxiarekin zaputzen dena. Ikasi dit
azken hau pittin bat menderatzen, baina minbera
naiz eta hori, seguraski, orgulloarekin lotua dago.

Neure buruari aitortzen diodan beste zerbaite sor-
menerako gaitasuna da. Tipo sortzale bat naizela
uste dut, eta ez bakarrik idazterakoan. Lagunekin
hizketan edo collageak egiten... Nik, ahal banu,
horrela pasako nuke denbora. Idatzi, irakurri,
marraztu... Sortzale kontzeptua gustatzen zait.


Liburuak maite ditut, noizean behin liburu zahar-
rak bilatzen aritzen naiz, baina obsesioatu gabe.
Liburuekin dudan mania nagusia ordenarena da. Apa-
letan ordena aldatzen dut. Batzuetan, izenaren ara-
bera sailkatzen ditut, bestetan, gaiaren arabera... Eta,
bapatean, konturatzen naiz sailkapen berrian elkar-
rekin harreman txarra duten bi idazleren liburuak
elkarren ondoan daudela, eta aldatu egiten ditut.

ELKARRIZKETA

Javier Echeverria
Zientzia, Teknologia eta Gizarteko irakasle

Etorkizunaren talaiain

Matematikari da, filosofo, idazle... eta dagoeneko martxan dagoen etorkizuna da bere aztergai nagusia: talaiain dago.





«Parekorik ez duen iraultzaren atarian gaude»



ELKARRIZKETA

Javier Echeverría, Salakera Sari Nazionala eskuratu berri duen ikerlaria, hamarkada luze batez izan zen EIIUren Donostialako campuseko Zorroagako Fakultateko buru. Hasi 1979an, eta 1990an bukatu.

«Oso etxpa interesgarria izan zen, oso erromantikoa. Fakultate bat sortu genuen, ohiko botere akademikoetatik kanpo zegoen zerbait. Horrek unibertsitatean ezohiko-edo ziren hainbat intelektua biltzeko aukera eman zigun.

Gustura egin nuen lan: sumatzen genuen zerbait sortzen eta, ondoren, sendotzen ari ginela. Gero, bakoitzak bere biderei jarraitu ziolako ere, hasierako

talde hura (Savater, Azúa, Molina-Foix, García Calvo, Gómez Pin...) sahabanatu egin zen. Hori izan zen arrazota eta ez, handik urte mordoak batera askok esan duen bezala, arrazoi politikoak. Arazo politikoak, benetako arazo politiko larriak, gero sortu ziren unibertsitatean, hurrengo hamarkadan.

Halako batean, pentsatu nuen betea nuela nire bolada instituzionala eta niri ere heldua zitzaidala lan intelektuala egiteko garaia. Hamarkada batean nire lan instituzionalaren ondorioak gozatu nituen, baina horrek denbora asko kentzen zidan beste lanetarako. Egia esan, denborarik gehiena».

Hausnarketa intelektuala

«Hamarkada oso bat auzolanean eman ondoren, hurrengo hamarkadaren hasieran oraindik ere nire lanaren bi terro nagusi diren lanei ekin nien: Zientziaren Filosofiari eta «Telepolis» liburuan zabaldu nuen hausnarketari».

«Lan intelektuala» esan du, hitzez hitz, askorentzat susmagarri den zeregina aintzakotzat hartuz. Hortik, hausnarketatik, agertzen digu Javier Echeverriak informazioaren eta telekomunikazioen teknologia berriek gure gizartearen eragin eta eragingo dituzten aldaketetako buruzko lana.

«Demagun gure bizitza-hiru inguruneetan banatzen dela. Lehenengo ingurunearen oinarria berezko baliabideak dira: ur edangarria behar duzu, lur emankor eta aberatsak, itsasoa... Horik ateratzen dituzu berezko emaitzak eta gero, agian, emaitza horiek modu artisauek batean landuko dituzu edo ez, baina, oro har, lehen ingurunearen funtsa berezko produktuak dira.

Bigarren ingurunean, lehengoan aipatuko ditugun produktuek hor jarraitzen dute, baina, gainera, beste jarduera batzuk sortzen dira: industria eta merkataritza. Ingurune honen bereizgarriak hiriak dira, eta haien inguruan kokatzen diren industrialdeak, merkatalguneak... eta abar. Langileak batera abiatzen dira lantokirantz eta batera itzultzen lantokitik etxera. Errepideak behar dituzu, autopistak, garraio bideak. Bigarren ingurunean ez diozu, lehenengoan ez bezala, naturaren erritmoari jarraitzen, hirikoari batzik».

Hirugarren ingurunea

«Bi ingurune horietan beste bat gehitu zaie azken urteotan, eta hirugarren horren oinarrian zazpi teknologia nagusi daude: telefonoa, telebista, diru elektronikoa, sare telematikoak (Internet...), CD-Romak eta multimedia, bideo-jokoak eta, azkenik, errealitate birtuala.

Zazpi teknologiek bat egiten dute, elkar egokitzen eta moldatzen dira eta gizartegune berri bat sortzen dute. Ez da komunikabide berri bat, gizartegune berria baizik. Eta hirugarren gune horretan, gizakioek denetatik egin dezakegu: lana, maitasuna, gerra, merkataritza, artea, musika, erlijioa...

Hirugarren ingurunean ez ditugu lehengaiak batetik bestera eramaten, ez ditugu lehengaiak aldatzen. Ez, hirugarren ingurunearen isuria informazioa da, bit-ak, isuri elektronikoa... Informazioa eta ezaguera ditu oinarri. Eta ez ditu errepideak edo autopistak behar, batna bai inbertsio erraldoiak eskatzen dituen zuntz optikoa.

XIX. mendearen bukaeran trenbideak eta errepideak egin izan ez balituzte, ez litzateke industria-gizartea sortuko. Bada, berdin gaur, informazioa eta ezaguera batetik bestera eramateko sarerik gabe ez legoke hirugarren ingurunerik.

Hirugarren ingurune horrek moldatuko du gure bizitza datoren mende honetan, aurrekoak beste bi inguruneek moldatu dituzten bezalaxe. Tamaina handiko iraultza baten aurrean gaudu, eguneroko bizitza ere aldatu-

11 Hirugarren inguruneak gure etxeetan eta gure bizitzan eragingo dituen aldaketak aztertu nahi ditut»

11 Langileak astean bitan joan beharko du lantegira. Etxetik egingo du gainerakoa»



11 Hirugarren gunean denetatik egin dezakegu: lana, maitasuna, gerra, artea, merkataritza...»

11 Inguru horretan feudalismo berri bat sor daiteke, eta hori gaintzea da orain gizarte zibilaren erronka»

ko duen iraultza baten atarian».

Elite aitzindariak

«Iraultza honen aitzindari eliteak dira, noski. Horrelaxe gertatu zen, adibidez, telefonoarekin: aberatsak bakarrik zuten telefonoa hasieran. Gauza bera gertatu zen diru-txartelekin, eskuko telefonoekin eta abarrek. Eliteak dira hirugarren inguruneraren sartzan diren lehenak, eta horrek guneari ospea ematen dio. Atzetik etorriko dira gainerakoak, baldin eta agintariek politika aproposak egiten badituzte.

Hasi berria den iraultza honek, besteak beste, pertsonak exera itzularaziko ditu, langile izatetik tele-langile izatera bultzatuko dituelako. Lehen eta bigarren inguruneen langileak etxetik ateratzen dira arrantza egiteko edo autoak egiten dituen fabrikara joateko.

Hirugarren gunean, berriz, ez duzu etxetik atera behar lan egiteko. Konektatua egon behar duzu, besterik ez. Eta premia horrek etxeak eta ohiturak aldatuko ditu. Hain zuzen ere, hori da gehien aztertu nahi dudana, hirugarren inguruneak gure bizitzan

eta gure etxeetan eragingo dituen aldaketak.

Industria gizartearen, etxeak, gizezkoentzat behintzat, kontsumitzeko eta atsean hartzeko lekuak izan dira. Hemendik aurrera ekoizpen unitate ere bihurtuko dira. Langileak, gehienez ere, astean egun pare batez joan beharko du lantegira eta gainerakoa etxetik egingo du. Etxetik edo nahi duen lekutik».

Kaliforniako eredia

«Tele-langilea, lanean ari den bitartean, intentsitate handiz ari da. Ondoren, beste zerbait egin dezake, etxean edo kanpoan, ez dakit, lagunekin berriekin egin, paseotxo bat eman, bazkaria presatu, beste lan pixka bat egin, umcaren bila joan...»

Har dezagun, adibide gisa, broker baten lana. Ordu batzuetan etxetik lan-izugarri bitia egin ondoren, pertsona horrek beste zerbait beharko du: ingurune atsegina, lasaitasuna, bakea, jaki onak, ikuskizun egokiak...

Zerbitzu horiek eskaintza dituzten hiriek edo herriek egingo dute aurrera hasteko zorian dagoen mende honetan.

Bizitzeko modu berri honek sozializazio modu berriak behar ditu, noski. Eta sortu, sortuko dira. Gizakiak asmatuko ditu. Hor daude, dagoeneko, posta elektronikoa eta berriketarako guneak, gaur egun sare telematikoetan arrakasta gehien duten guneak. Ni eta nire lagunak modu horretan jartzen gara harremanetan. Ez diogu sekula elkarri hainbeste idatzi. Ondo idazteko gaitasuna edo gogoia badituzu, ongi idatziko duzu. Bestela, telegrama antzeko mezuak erabiliko dituzu».

Aireko jaunak

«Ez da falta hirugarren gune hau askatasunaren adierazpen dela uste duen erromantikorik. Nik, berriz, ez dut horrela ikusten. Hirugarren inguruneraren sartzan zarenan, gune hori kontrolatzen dagoela ikusten duzu, telefono linearen jabeek, diru-elektronikoaren jabeek edo telebistaren jabeek kontrolatua. Hirugarren ingurune hori erakitzen eta mantentzen dutenek kontrolatua.

Horiek dira Aireko Jaunak. Eta haiek agintzen duten esparruan, gainerakoak ez gara hiritar, ez dugu eskubiderik. Enpresa horiek erabakitzen dituzte zure sarriaren baldintzak eta haien esku zaude, erabat. Horregatik uste dut nik harreman klase horri dagoen deitura feudalismoa dela, feudalismo berri bat.

Botere hori ez da txantxetako. Aireko Jaunak estatu asko baino boteretsuagoak dira. Kontu egin Microsoften aurrekontuak Frantziaren aurrekontuak parekoak direla eta, gainera, askozaz abiatu handiagoan hazten direla.

Enpresa horiek dira benetako boterea, eta haien eremuan ez dago botere zibilik. Hori da oraintxe dugun erronka, hirugarren ingurunean botere zibilaren lehentasuna lortzea, hori gabe ez baita hirugarren ingurunean ez giza eskubiderik ez ezere».

Hori eta beste gauza asko ikusten ditu bere talaiatik hainbeste sari ospetsu jaso duen Javier Echeverriak.

Antza denez, Aireko Jaunak buruzko heldurrik gabe.

NORTASUN AGIRIA
JAVIER ECHEVERRIA

1948an
Iruñean jaioa.

1972-74
Irakasle izan zen
Madrilgo Unibertsitate
Politeknikoan.

EHU
Kanpotik
bertaratutako
lankide askore-
kin batera,
EHUren Zorro-
agako Filosofia
eta Psikologia
Fakultate ia
mitikoa jarri
zuen martxan.



1979
Irakasle postua lortu zuen
Euskal Herriko Unibertsitate-
an, Donostian, Zorroagako
Fakultate jaio berrian.
«Alemanian nongoen, egunkari
batean lanpostu baten eskaintza
irakurri nuenean. Idatzi nuen
eta, handik gutxira, EHUKo ira-
kasle nintzen. Hasi nintzen lane-
an, egin nituen oposizioak eta
Fakultate osoa erori zitzaidan
bizkar gainera».
Hura izan omen zen bere zizi-
tzako «etapa erromantikoa».

1994
Telepolis liburua argitaratu
zuen.



LIBURUAK
Arrakasta handiko liburuen
bidez dibulgazio lana ere egin
du. *Cosmopolitas domésticos* aur-
keztu zuenekoia da argazkia.

1995
Cosmopolitas domésticos liburua
argitaratu, eta Anagrama Saia-
kera Saria jaso zuen.

1996
CSICen hasi zen lanean, irakas-
ten eta ikertzen. Aro erromanti-
koaren ondoren, aro intelektuala.

1997
Euskadi Saria jaso zuen.



SARIAK
Argazkia Euskadi Saria jaso
zuenekoia da. Aurten, Saikera
Sari Nazionala eman diote.



MIKEL CASAL

Lorzainaren pazientzia

A.U.

Korbata soinean duela azal-
tzen da argazki gehienetan,
haina elkar izketaren egu-
nean ez; alkandera koadroduna
darama, goiko bi toia lotu gabe.
Gainerakoa ohizkoa da: betaurre-
ko arinak, aurpegia serio, begietatik
beste inora ez doan irribarrea,
soiltzen hasitako burua tente.
Jaizkibeldik zintzilik dagoen
etxeak bi aurpegi ditu: bata itsa-
sorantz, bestea harantz doazen
muino etxedunei begira. Sabatik
lurrera helzen diren leihoei *inter-
face* deitzen die: bata lehenengo
ingurunea du atzetik, besteak
bigarrena. Hirugarrena, berriz,
ezkutaturik dago.
Besteak beste, irakasle den gizo-
nak ez du pazientzia galtzen en-

tzuleak zerbait ulertu ez duela esa-
ten dionean. Galderak edo erant-
tzunak esandakoa gutxi gorabe-
hera bederen ulertua izan dela
adierazten dionean, berriz, begiak
argitu egiten zaizko. Orduan, lore-
zain itxura hartzen du, landatuta-
ko hazi txikia ernalduta dela egiaz-
tauta izan balu bezala.
Gero, agindutako orduan, minu-
tu erdia barkatu gabe, altxa eta
kaleko bidca seinatlatzen ditu
zakarkeriarik gabe, argudiorik
pitsutsuenarekin; alabaren bila doa
ikastolara, eta handik musika
eskolara.
Itzuli eta gero, alaba gobernatu-
opdoren, berritxo piztuko omen du
ordenagailua. Hirugarren inguru-
nera bidaiatzen.

**Iturburu
askotako
gidaria**

JOSEBA ARREGI

Javier Echeverriak azken urte-
tan landu duenaren zentzua
ulertu ahal izateko, bere hitzak
dira egokienak, baina ez bere azken
hiru liburu nagusietan bildurik dau-
denak, Euskadi Ikerketa Saria jaso
zuenean esan zituenak baizik.

Bere lanetan, Javier Echeverriak
mundu berri bat deskribatzen digu
eta, deskribatzerakoan, mundu berri
hori osatzen duten gauzak izenda-
tzen ditu eta, izena ematearekin
batera, gure egiten ditu, mundu
berria gure mundu egiten du. Egin
behar horren arrazola da, ordea,
gogora ekarri nahi nukeena, bere
aipaturiko hitzaldian esanak jasoz:
hiritar zela esanez, bere bizitzako
formazioa hiri ezberdinei zor zela
aitortuz; bere alabatxoari bere ize-
nak esan nahi duena eman zion
bidelagun, etxe berriak aurkitzeko
enkargua, hiri berrietako biztanle
bihurtzekoa.

Gizakiol berezkoa zaigu inongo-
ak ez izatea, beti hiri berrietara
joan beharra, beti mundu berriak
sortu, izendatzen ikasi eta gure
egitea.

Eskerrak horretarako Javier Eche-
verria bezalako gidariak ditugun!

Autoargazkia

JAVIER ECHEVERRIA

Uste dut, besteak beste, zorte
handia izan dudala, bizitzan
zehar, kontu batekin: asko-
tan, gehienetan, arrotz izan naiz bizi
nintzen lekuan.

Txikitan, Mexikon, guraso etor-
kinekin semea nintzen; beraz, Mexi-
kon espainol izan nintzen. Ondoren,
Donostia etorri ginenean, mexi-
karra izan nintzen. Madrilerara joan
nintzenean, bertan euskalduntzat
hartzten ninduten. Alemaniara joan
nintzenean, berritxo espainol izan
nintzen.

Gaur egun, Hondarribian nago-
netan, nafar kontsideratzen naute
eta gurasoan jaioterrira joaten nai-
zeitan, Nafarroara, gipuzkoartzat
hartzten naute.

Harro nago horretaz, horrela
suertatu zait eta egoera hori maite
dut.

Nire ustez, zenbat eta leku gehi-
gotakoa izan, orduan eta hobeto;
zenbat eta aberri gehiago izan,
orduan eta aberatsago. Horretan
sinesten dut eta hori irakatsi diot
gure alahari. Hobe bi aberri aberri
bakarra baino, hobe hiru bi baino,
hobe lau hiru baino, hobe ehun lau-
rogeita hamar baino...

Aberria esaten dudanean ez naiz,
bakarrik, lurraldeei buruz ari. Ez,
aberria zentzurik zabalenean era-
biltzen dut nik: hiria, lurraldea, mait-
te dituzun liburuak... Zenbat eta
leku edo zera gehiago maite, orduan
eta hobeto.

Nire heziketa ere mistoa da.
Matematikari bezain filosofoa naiz.
Baita xakelaria ere. Hamazazpi urte-
tatik hogeita bostera, hiru horiek
izan ziren nire denbora gehiena jaso
zuten zereginak: matematikak, filo-
sofia eta xakea.

Hori aberasgarri dela sinesten
dut benetan.

ELKARRIZKETA

Lourdes Bedia
Aktorea

Antzezteko jaioa

Antzerkia zenik ere jakin gabe egin zen antzeztele, bere kasa eta betiko. Aspaldian bihurtu zen jokoa lanbide, eta horretatik bizi nahi du. Ahal dela, barrea eraginez.



TESTUA: ARANTXA URRETABIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS

«Niri ez dizkidate hegoak ebaki»

«Jaiotzez datorlit hau guztia. Ez da nik aukeratutako bokazioa; bokazioak aukeratu ninduen ni. Nik antzerkia asmatu egin nuen, ez nuen ikasi. Bakarra nintzen Oñatin, eta uste dut oraindik ere bakarra naizela. Batzuetan, batez ere umetan, zaindua ere sentitu izan naiz, normaltasunaren arauak beteko ote nituen ala ez...»

«Ezkitan, uste dut une guztiak gustatzen zaiela sendagilearena edo azafatarena egitea; nola edo hala antzerkia egitea. Gero, hegoak ebakitzen dizkizute, eta kilto. Nik uste dut niri ez dizkidatela

hegoak moztu eta urteekin, txikitako jolas haiek lanbide bihurtu ditut. Kostata, baina lortu dut.

*Hamar urte bete baino lehenagotik ere, biltzen nituen inguruko umeak nik asmatutako eske-
txak antzezteko. Han etortzen ziren asteburuetan, gure etxeko*

lorategira, edo, eguraldi txarra zegoenetan, ganbarara.

Bakarke ere horrelaxe ibiltzen nintzen. Etortzen ziren lagunak nire bila eta okupatuta nengoela esaten nien. Askotan nahiago nuen nire gauzetara jolastu kalean betikoetara jolastu aritu bai-

no. Burukoak mozorrotzen nituen, eta opari gisa jasotako bi grabadoratan ahots desberdinak jartzen nituen. Hirugarren ahotsa, zuzenean egiten nuen. Agian, alaba bakarra izan nintzelako egiten nuen hura guztia; ez neuzkan anai-arrebak asmatu edo

fabrikatu egin nituen.

Idatzi ere beti idatzi izan dut. Triste nongoenetan, poesia, eta bestela, komedia.

Zorigaiztoari esker

«Antzerki ikasten ari nintzela, koprodukzio baterako aukeratu ninduten. Sekulako poza izan zen... Hainbesteren artean, ni aukeratu! Ordura arte aitari laguntzen nion lanean, baina esan nion beste bat kontratatu beharko zuela. Iruditzen zitzaidan iristen ari zitzaidala hainbeste gogoz bilatutako unean...»



ELKARRIZKETA



Umorezkoa, etseko marka izango zenarekin.

Malkoak eta algarak

«Batzuek ezin dute negar egin, ez dakite. Badira harre egiten ez dakitenak ere, ezin dutenak. Bata eta bestea zoritxarrak dira, zoritxar handiak.

Nire amak, adibidez, uste dut niri esker ikasi duela barre egiten dit. Agian ez du barre egingo telebistan ikusten nauenean, eta galdetu eta guzti egingo dit ea jendeak horrekin barre egiten duen. Baina bere zerbait karikatuzatzen dudanean bai, orduan barre egiten du.

Barreak, algarak, osasungarriak dira, on egiten dute, horretaz kontzientziarik nago. Gure artean jende askok giro berezi a behar du harre egiteko, afari bat, lagunartea bat... Baina paseatzen, edo lanean, ez zaie aproposa iruditzen. Barrez ari bazara, ez zara herria konpontzen ari, denbora galtzen ari zara. Batzuek barre egitean biluztu egiten direla pentsatzen dute; horregatik ez dute barre egin nahi.

Gero, noski, barre egiten baduzu inbidia izaten dituzte. Eurak kortseatuak baleude bezala. Kenduko lukete kortsea gustura, baina ez dira ausartzen. Bada nik barre egiten dut, horretarako lizentzia dut.

Nik bakarika egiten dut negar; eta barre, beti, beste norbaitekin. Bakarrik nagoenean ez dut barrerik egiten, ezta ideia barrengarri bat bururatzen zaidanean ere. Eta barre eta negar esaterakoan, dagokion keinua egiten du, segundo gutxitan tristura eta poza adieraziz.

Ikusi eta ikasi

«Nik uste dut neska koskor nintzenetik izan naizela oso obserbatzailea, beti ibili naizela jendeak egiten eta esaten duenari begira. Ikusten dudanak elikatzen naiz. Noski, horri irudikatzen eta sentitzen dudana gehitu behar zaio.

Hasi bezain pronto, erori egin nintzen eta hiru hilabetez izan nuen zangoa eskaiolatua. Akabola. Eta inork ez zidan deitu, ezta nola nongoen jakiteko ere. Uda zen, lagun gehienak kanpogan ziren, nire ametsa txirtxildua, eta ez ninduen inork deitzen. Ez nuen irtenbiderik ikusten. Depresioaren sakonaz edo, argiak ematen dizun orguiloa piztu zitzaidan. Zergatik egon zuzendari baten zain? Zergatik ez neure burua zuzendu, neure kabuz egin? Bizitza oso neraman idazten eta antzetzten, eta erabaki

nuen neronek idatziko nituela nire lanak.

Pianista batekin hasi nintzen, eta handik gutxira beste aktore bat aurkitu nuen, baina aktore hura beste konpainia batera joan zen. Gero beste bat, gero... Beti gizonak, bururatzen zitzaizkidan gauzak bikoteentzat zirelako.

Aktorea nuenean ez nuen pianistarik, edo ez genuen non entseaturik. Zoratzten hasia nintzen. Halako batean Javier Merino ezagutu nuen, eta bi urte ondoren aurkeztu genuen lehenengo espektakulua.

tin bat, sexualitate tanta batzuk edo erlijio apur bat. Guzti hauek, noski, bixigarri gisa erabiltiak, gazta eta piperra bezalaxe, ez jakiaten oinarri gisa.

Lanbidearen korapiloak

«Boladak ere izaten dira. Oraingo hau ez da lan askokoa eta horrek patxada handiagoa ematen dizu, lasaitasun handiagoa.

Baina lana egingo badut, profesionala izango banaiz, norbaiten arreta nireganatu behar dut, leku bat behar dut, jendaurre bat edo kamera bat...

Noski, hor daude ezer egin gabe famatu egin diren horiek. Aski da lehiaketa batean parte hartzea edo edozein disparte egitea famatua bilakatzeke. Hori guztiok sufritzen dugun gripa da, eta guren lanaren kaltetako.

Badakit ez dagoela lanbide errazik, eta gure hau ez da erraza. Segurantzirik eza dakar, eta hori gogorra izan daiteke. Nire kasuan errazagoa izango da, ez dudalako seme-alabarik ez aurrera atera beharreko familiarik.

Ez dago gauza errazik emakumeentzat. Errespetua lortzeko, gizonak baino hiru aldiz gehiago egin behar duzu, edozertan, alkatetzateko edo umorea egiteko.

Nik ere egin nezakeen gizonetakoek egiten duten bezala, eta taldea osatzerakoan emakumeak hautatu. Baina ez. Nik gizonak behar nituen, sortzen zitzaizkidan istorioetan gizonetakoak azaltzen zirelako.

Halere, taldeko emakume bakarra naizenez, batek baino gehiagok pentsatzen du agian ni naizela azkena etorria, edo taldeko baten andregai naizela.

Gainera, nik ez ditut emakumezkoen arma famatu horiek erabiltzen. Nik gizonetakoek erabiltzen dituzten armak erabiltzen ditut, eta hori ez zaio askori gusaitzen, susmagarri egiten zaio. Beldurra ematen diolako.

Badakit auzoko ateak ixterri joatea dela, baina ez naiz damutzen. Alderantziz. Hauxe nahi nuen, hauxe da nik aukeratu dudana, eta ez naiz damutzen.

Lanbide edo zaletasun gisa, ez dut sekula hau utziko. Hobe lana izatea, noski, baina hori ezinezkoa gertatzen bazait, ahaleginduta ere lortzen ez badut, bada zaletu gisa egingo dut antzerkia, ahal dudan lekuan eta momentuan, ez naiz bazter batean negarrez geldituko.

Eta inguruari begira jartzen da, zorteari dei egiteko tramankuluren baten beharra balu bezala, bedeinkazioen bat. Besterik ezan, keinuei ematen die, azkenean, mandatu hori, edo airearekin nahasturik dagoen zerbaiti.

«Maite dut lanbide hau, nire lanarekin maiteminduta nago, hori da egia. Eta batzuetan ez ditut beste maitasun batzuk horrekin batera eraman ahal izan. Maitasun bereziak, adiskidetasun bereziak utzi behar izan ditut alhora, nire lanari lehentasuna eman diodalako. Aukeratu behar izan dudana bakoitzean, neue edo nire lanbidea, nire lanbidea aukeratu dut, hori delako niretzat lehentasuna, egiten dudana egiteko jaiio nintzelako.

Tristura izpirrik gabe esan du hori guztiak. Edo agian tristura ere hor dago, baina tourmixak beste zerbait bihurtua.

11 Batzuek ezin dute negar egin; bada barre egiten ez dakienik. Bata zein bestea zoritxar handiak dira»

11 Txikitan, ume guztiak gustatzen zaie beste batena egitea; gero, hegoak moztzen dizkizute eta kitto»

11 Bizitakoak, ikusitakoak eta asmatutakoak bildu, tourmixari eman, eta horra hor ideia berri bat»

11 Maite dut nire lanbidea, eta horri eman diot beti lehentasuna, hori egiteko jaiio nintzen eta»

Tourmix batekin bezala. Elkartzten dituzu bizitakoak, ikusitakoak, asmatutakoak, ematen diozu tourmixari eta hor sortzen da ideia berriren bat. Agian ez duzu berehala erabiliko, agian hor utziko duzu billegiren batean, hurrengo baterako.

Gero, agian, azalera ekarriko duzu, gehituko diozu politika pi-

NEGAR**ETA BARRE.**

Negar, bakarika egiten du beti, Barre, ordea, beti beste norbaitekin.



NORTASUN AGIRIA
LOURDES BEDIA

Oñatin jaioa, aipatu nahi ez duen urtean. «Ez, lanbide hone-
tan garrantzi handiegia du jaiot-
urteak emakumeontzat. Noiz
jaio nintzen esango banu,
askok ez luke onartuko ni baino
gazteago diren pertsoniak egi-
ten jardutea. Gizonezkoak,
berri, beti izan daitezke
galaiak, baita hirurogei urte
bete ondoren ere. Ez, nik ez dut
horretan lagundu nahi».



1989

Lourv'ier'sen lehen ikuskizuna
plazaratu zuten, Donostian.
Gidoilari, idazle, zuzendaria eta
antzezle lanetan, LOURdes
Bedia eta JaVIERr Merino.

1995

Euskal Telebistaren bigarren
katean estreinatu zuten euren
lehen teleaioa: *!Qué pasa pues!*
Hirukote bilakatu zen bikotea
hortik aurrera, Oscar Terol bildu
baitzen taldera.



MIKEL CASAL

Errukigabea eta ulerkorra

Pertsona ona da, bai, baina baita
pertsonaia bat ere. Bera izan zen
Lourv'ier's taldearen sortzailea
eta bultzagile nagusia.

Askotan esan ohi du kasu gehiago
egiten diegula bere bidelagunei; azken
batean, bera minoria dela, ogibitar-
teko baten erdian dagoela. Arrazoi du,
nola ez, hori gertatzen baitzaie em-
akume gehienei.

Obsesioa da lanean, oso. Mila aldiz
galdetuko dizu zer iruditzen zaizun
hau, hura edo bestea, beti gauza
berriak proposatuz, beti lana hobetu
nahian.

ANTTON URUSOLO

Baina, era berean, eskuzabala da
gainerakoekin eta hori oso nahasketa
arraroa da. Errukigabea bere burua-
rekiko eta ulerkorra, oso, gainerako-
entzat. Aldi berean, esker onekoa da,
maitekorra, ezitsua ere bai, esango
nuke.

Guztiok ezagutzen dugu bere irri-
kortasuna, guztiok egin dugu barre
berarekin. Nire ustez, ordea, botere-
tsuagoa da dramarako duen gaitasu-
na. Antzezlea da beste ezer baino

gehiago, eta halako batean frogatuko
du komikotasuna ez dela bere gaita-
sun bakarra.

Asko maite dut bere umorea eta,
nire ustez, lan bikaina egin du Lour-
v'ier's taldearekin batera. Guztiz zaila
den alor batean oso lan zentzuduna
egin dute, distiratsua. Talde sortzailea
da, eta horrek sortzen duen tentsioa
ondo bideratu du. Nik uste dut horre-
lako egoeretan ez dagoela tentsiorik
gabeko etekinik.

Pertsona ausarta eta bultzagilea da,
beti aurrera egiteko prest edo, hobeki
esanda, beti aurrera egiteko irrikitan.

Autoargazkia

LOURDES BEDIA

Neskato handi bat naiz, eta
hegoak ditut. Iratxoak dabil-
kit inguruan, oso garrantzi-
tsuak nire bizitzan. Iratxoek eragina
gertatu zait gertatutako asko. Adibi-
dez, haiek eraginez hautsi nuen
belauna eta ondorengo krisialdiak sor-
tu zen azken hamar urteotan egin
dudan gehiena.

Lehen beldur gehiago nion etorki-
zunari. Orain badakit, iratxoek esker,
aterako naizola. Batzuetan helburu bat
jartzen diot neure buruari eta bide bat

seinalatzen diot. Gero, biltzak beste
bide batetik narama eta hori beldur-
garria da, baina bide horri ekiten
badiot, azkenean hasierako helburura
iritsiko naiz.

Agian bide luzeagoa egin dut, bai-
na puntu berera heldu naiz. Agian,
bide zuzenagoa aukeratu izan banu,
bakter batean jota geldituko nintzate-
ke, lehiaketaz kanpo.

Hegoak osorik

A.U.

Praka marroiak, oinetakoak laran-
ja kolorezkoak. Goiko partea
eguzkiak arratsaldean hartzen
duen kolorekoa. Gama berdekoak dira
betaurrekoak, baina ez hain laranjat-
suak. Ilea ere eguzkitua da. Irriba-
rrea, zer esanik ez.

Keinu aberatsak egin ditut, kari-
katura zipritinak. Intsumisioa adina-
rekiko, ez du noiz jaio zen esan nahi.

Guztiok, berehala, kenketa egiten hasi-
ko garela edo, funtsean, Oñatiko
neska hura defenditu nahi duelako.

Hizketan ari dela, magoak txistera-
tik usok bezala ateratzen ditu alga-
rak. Batzuetan, ordea, Melina Mercu-
riren itxura hartzen du, eta hunkitu

Benetan sinesten dut okerretatik,
ezbeharretatik ere atera daitekeela
onik. Zoriak ere kontatzen du, nos-
ki. Batzuetan, zoria pasatzen ikus-
ten duzun neskatza da, eta momen-
tu horretan ez duzu hurbiltzeko edo
agertzeko gogorik. Bada, seguraski,
gogoaren kontra ere agurtu behar-
ko duzu, zurekin haserre ez dadin.

Gero eta gehiagotan esaten ditut
datorren astea etorkizuna dela, ez
dakidala zer egingo dudan hain epe
luzean.

egiten zaitu. Edo Edith Piaff aipatzen
eta abesten dizu, «rien de rien, je ne
regrette rien».

Lepotik zintzilik domina antzeko
zerbait darama. Zera horretan zintzi-
lik dagoen biribilari bueltak emanara-
ziz gero, «te amo» irakur daiteke. Bai-
na bakarrrik biribila biraka ari bada.
Bestela marrazko batzuk ikusten dira,
mutu.

BETIKOA
Edozein
pertsonaia
sortzeko eta
horren larrian
sartzeko
ahalmena biki-
txikitandikoa
du Lourdes
Bediak.

AURRENEKO URTEAK

Telebistak deskubritu aurretik
bazeramatzen urteak lanean
jatorrizko bikoteak. Besteak
beste, kafe antzerkian.

1996

Hasieran hilean behineko saioa
zuten. Urte baten buruan, aste-
roko bilakatu zen.

1999

Hamar urte, eta teleaio berria:
Lourv'ier's express. Antton Urruso-
loren saioan ere aritzen ziren.

Lourdes Donostian bizi da, arna-
rekin.
«Soltera y sin compromiso».




ARRAKASTA

Ibilbide luzea egin ondoren,
1999an ospatu zuten taldearen
10. urteurrena.

ELKARRIZKETA

Antxon Urrusolo
Kazetaria

Bizitza kontatu nahi



Hitzak maite omen
ditu, idatziak eta
ahozkoak. Telebistak
egin du ezagun, eta
horri zuzentzen dizkio
lorerik ederrenak.

TESTUA: ARANTXA URRETABIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS

«Harritzen naiz; beraz, bizirik nago»

Gabardina inguruan hegan dabilkiola heldu da Irendaiko itsasertz lalnotsutik, luzapenik gabe jokorako prest, inolako oztoporik gabe, agian elkarrizketatzailearena egitea askotan tokatzen zaiolako.

«Kazetaria naiz, horrela ikusten dut neure burua. Hamar urtez egin nituen era askotako lanak egunkari batean eta, urte askoren buruan, oraintsu hasi naiz berriro idazten, apal-apal. Baina telebistan egiten dudana ere kazetaritza mota bat da, bata bestea bezain zaila.

Beti erukutsi nahi izan dut bizitza, bizitza marixan. Bizitza, ez ofizialtasuna. Sortzen den informazioaren ehuneko laurogei prentsa bulegoetan sortua da, edo marketingaren ondorio. Gelditzen den ehuneko hogei hori da bizitza, eta hori da interesatzen zaidana, ez gainerakoa.

Niretzat, idaztea plazerra da; baina bizitza bi punturen artean mugitzen da, plazerraren eta eginbeharraren artean».

Bizitza islatu

Egunkarian idazten ari zela heldu zitzaion telebistan lan egiteko aukera, eta berehala egin zuen salto. Hori bai, jausgailua bizkariaren zuela. Bost urteko eszedentzia lortu zuen, eta epe horren buruan telebista aukeratu zuen, sinkotasunetik urrun dagoen bizimodua.

«Jende askok pentsatzen du erraza dela telebista komertziala egitea, edonork egin dezakeen zerbaite dela, dena asmatua dagoela eta aski dela arrakasta izan duten saioak kopiatzea. Ez da horrela. Batzuetan, literatura egitea baino zailagoa izan daiteke, ondo idaztea baino zailagoa.

Telebista ez da bizitza, baina batzuetan haren antza du. Adibidez, bestela inolaz ere ezagutuko ez zenukeen jendearen bizitzaren zati bat entzun dezakezu, irudikatzen ez zenuen munduei begirada bat bota diezakezu, bertan gertatutakoa eta urrutikoa eza-gutik dezakezu. Gainerako komunikabideak baino hobekiago harrapatzen du errealitatea telebista.

Beti gustatu izan zait boteretik kanpo dagoen jendea elkarrizketatzea, ofizialtasunetik ahal bezain urrun. Askotan oso pertsona bereziak elkarrizketatu izan ditut, mugaren mugan zeudenak. Hori bai, errespetu osoz. Orain, berriz, horrelako norbait erakusten badigute, barre egiteko izango litzateke eta hori basakeria hutsa iruditzen zait.

Barrea edo irribarrea, hori da kotua. Orain ikusleak hori eskatzen dio, gehienez ere, tele-

Berehala harrapatzen ez baduzu, ikusleak tiro egingo dizu urrutiko agintearekin»



Mugaren mugan dauden pertsonak barre egiteko elkarrizketazeari basakeria deritzot»

Telebistaren inguruko gauzarik interesgarrienak etortzeko daude oraindik»

bistari, dibertsioa. Eta programatzaileek ere hori eskatzen dizute, salbuespenik gabe, kanal publiko zein pribatuetan. Nik uste dut filosofiaren inguruko elkarrizketa bat izan daitekeela dibertigarria, agian hiru sasi-famatu horietakoen arteko elkarrizketa baino dibertigarriagoa. Baina programatzaileek ez dute horretan sinesten, ez dute horrelakorik nahi.

Espektakulua nahi dute, hori

delako gure jendartearen bereizkuntza, espektakulua. Dena bilakatzeko da ikuskizun, politika bera, informazioa, edo burtsa. Korrika espektakulua da, HBk egindako manifestaldiak espektakulua dira, antzeztuak daude, musika dute, kantuak, hitzak, banderak, koloreak... Litwiyia osu bat».

Ikuslearen boterea


Arrakasta esaten zalon hori gertutik ezagutu du, balta kontrakoa ere. Telebista ugaritan egiten du lan eta «makineriaren barruan» sentitzen da, profesional guztiak bezala, saio bakoitzean agindutako tamaina ematera behartua.

«Nik uste dut oraindik ere misterio hutsa dela saio askoren arrakasta. Besteak beste, momentuak garrantzi handia du. Ni kombentzitu naiz 'Nadie es perfecto' saioaren porrota horrek eragin zuela, garaiz aurretik ibili izanak alegia. Handik urte gutxira etorri ziren Sardá eta gainerakoak, baina guk gotzegi jardun genuen eta ordu desegokian, gauko hamarretan. Aurreratzen bazara, galdu egiten duzu, horrelakoxeak dira gauzak telebistaren mundu honetan.

Gauza asko hobetu daitezke, baina hobetuta ere, ikuslearen harrera misterio hutsa da. Markeitinik boteretsuena erabiltzen baduzu, agian erakar dezakezu ikuslea. Baina urrutiko agintea eskuan duela jarriko zaizu pantailaren aurrean. Segundo gutxitan harrapatzen ez baduzu, ikusleak tiro egingo dizu urrutiko agintearekin eta beste kanal batera joango da. Orduan, zureak egin du.

Azkenean, ikuslearena da erabakia. Ez da horrela gertatzen kultur industriaren beste arloetan. Zinemari, adibidez. Harrapatzen zaitu marketingak, joaten zara pelikula ikustera eta gustatzen ez bazaitu ere, zuk aldez aurretik ordain egin duzu. Gauza bera gertatzen da liburuekin. Fmsiho duzu liburua eta agian ez duzu irakurriko, baina ordainduta duzu.

Alde horretatik begiratuta, askozaz demokratikagoa da telebista. Ikusleak erabakitzen du, beste komunikabideetan baino gehiago. Hori bai, herritarren heldutasunik gorenena egunkarietako irakurleengan dago. Kioskora zoaz, aukeratzen duzu egunkari bakarra askoren artean, gero zeuk erabakitzen duzu zer irakurri eta zer ez, baita ere zer sinetsi eta zer ez sinetsi, hausnarketarako denbora duzulako. Arinago heltzen zotzikin herriak irrati-telebistaren bidez, baina



egunkariak beste indar bat dute: pentsakizuna, hausnarketa, iritziak, ikuspuntu desberdinak, eztabaida lasatak».

Askatasun gehiago

«Nik uste dut telebistaren inguruko gauzarik interesgarrienak etortzeko direla. Interneten bidez egongo den telebista, adibidez. Ez dira desagertuko gaur ezagutzen ditugun kateak, baina jendeak ez dituz gaurko apurri-luetan ikusiko, ordenagailuaren pantailan baizik. Eta aukera gehiago izango du, askatasun gehiago ikusi nahi duena erabakitzerakoan.

Hemendik urte gutxira nekez gertatuko da saio bat guztion mintzagai. Jendeak eduki gehiago izango ditu eskura. Hor dago zailtasunik handiena, edukietan, ideietan.



Bistan da gaur sekula baino errazagoa eta merkeagoa dela zerbaite grabatzea. Gaur ez duzu zertan aberats izan beharrik kamerari txiki batekin film txiki bat egiteko. Gauza da zer kontatzen duzun, zer idea edo sentikizun islatu nahi dituzun, zertarako sar...

Niri asko interesatzen zaizkiet gazteak, ikasi nahi dut nola mintzatu diren, nola sufritzen duten, zer pentsatzen edo sumatzen duten, zein amets dituzten. Hori jakin nahian ihusten ditut haien lanak. Aferrrik, gehienetan, besteak beste, azken asteotan Bilbon egin den zinemaldian. Askotan, egiegitan, alde aurretik telebistan ikusitakoak kopiatzen baitituzte. Ez dira sentitutakoan edo bizitutakoan oinarritzen, ez dituzte beraien esperientziak islatzen. Ikusitakoa dute oinarri, ez bizitakoa».

Begiratzen duena

«Begiratzen, inguruan gertatzen dena behatzea funtsezkoa da niretzat. Ustegabearen bila, harri-dwaren bila behatzen dut nik. Ez baduzu begiratzen, ez zara harritzen. Kirol bat da niretzat, nola-hala forman mantentzen nuen zerbaite. Harritzen naiz; beraz, bizirik nago, ez naiz landare bihurtu.

Seguraski hori da hiriburuetatik gehien gustatzen zaidana, kalea bera espektakulu dela. Metroetan, adibidez, denetik ikus dezakezu, Madrilan, New Yorken



|| Maite ditut hiri handiak, baina ahal dudan bakoitzean Hendaiara nator»

ERREALITATEA. Gainerako komunikabide batzuek baino hobeto harrapatzen omen du errealitatea telebistak

nahiz Bartzelonan. Zenbat jende desberdin, zenbat kolore, zenbat arraza, zein aurpegi bereziak, zer arropak, nolako jarrerak. Hiriburuetako bizitzaren gogortasuna aurpegietan islatzen da.

Bilbon ez, ordea. Bilboko metroa ederra da, garbia, dotorea. Zeruia bera dirudi edo balneario bat. Baina ez da bertan ezer gertatzen, ez dago han ikuskizunik. Bilboko metroa ez da batere literarioa.

Maite ditut hiri handiak, aberasgarriak iruditzen zaizkidalako. Baina ahal dudan bakoitzean, Hendaiara nator. Hemen egiten dut bakarkako lana.»

Gabardina berriro ere hegan duela egin du alde, ilunabarrak hustu dituen kaleetara.

NORTASUN AGIRIA
ANTXON URRUSOLO

1953

Eibarren sortua, azaroan

1974

Kazetaritza ikasketak egin ziltuen, Madrilen. «Txikia nintzenez ez zegoen koloretako telerik ez frigorifikorik. Zaldi batekin ekartzen zuten izotza ebera. Nik ikasi nuenean, ez zegoen hemen kazetaritza ikasterik ere».

EUSKAL TELEBISTA



EUSKAL TELEBISTA
Prentsa idatzian aritu ondoren, ETBn hasi zen programak egiten, eta orduan egin zen ezaguna Antxon Urrusolo.

Ikasketak bukatu aurretik hasi zen lanean *El Correo* egunkarian eta bertan jardun zuen harnar urtez. «Denetik egin nuen, kalea, gaua, tokatzen zena».

1982

Saski Naski izan zuen bere lehen lana telebistan. Gerotzik saio ugari egin du: *Detrás del sinimiri*, *Rifi-rafe*, *Nadie es perfecto*, azken hau Televisión Española.



RIFI-RAFE

Bere eztabaida saio famatuena, jende askoren arreta bereganatu zuena.

2000

100 por 100 vascos izan zen ETBrako egin zuen azken saioa. Telebistari lotuta jarraitzen du, eta Madrilen, Bilbon eta Hendaian bizia da, batetik bestera, lanaren arabera. «Gustura geldituko nintzateke Hendaian, bertatik irten gabe, besterik ez bada Biriaturtik Larrun igotzeko edo hondartzan bueltatze bat emateko». Ezkontuta dago eta hogeitorteko semea du.



IKUSKIZUNA

Lorena Bernal, Yolanda Alzola eta Txexu Ugalderekin iazko Gabon Zaharretako programan.



Arranoaren indarra

A.U.

Beroki ilun luzea soinean due-la dator, eskuak patriketan eta besoak erdi luzaturik. Handik, zintzilik, berokiaren gona luzeak daude, dardarka.

Pittin bat saltoka zeharkatzen du neguko ilunabar zikin batek ilundutako tartea eta ez dio jolasari uko egiten.

Esertzen da, ilea motz eta eskas, kopeta tolesturik, betaurreko arinak eta irribarre ironiaz zprizindua. Noizean behin, hizketan ari dela, ingurura begiratzen du, lasai baina erne, esandakoa zuzenduz, neurtuz. Kontuz aukeratzen ditu hitzak eta, batzuetan, dastatu egiten ditu,

gourmetaren lizunkeriaz.

Praka erosoak eta polo urdin marinoa iletsua dirudien bularraren gainean. Idelak korapilatzen zatiklonean, berehala itzultzen da harira bere kabuz, bihurtzerria bat egin duen umearen itzala aurpegian.

Ez du hainbeste aipatzen duen jenioaren izpirik erakutsi, baina partailan haserreturik ikusi duenak ez du segituan zirrara hura ahaztuko. Ezta irribarre gozo eta apalak ikusita ere. Irudituko zaio begiek arranoaren indarra dutela sakonean, harriariaren arintasun azkarra ilunabar zikin batek ilundutako zeruaren kontra, kresala airea loditzen.

Autoargazkia

ANTXON URRUSOLO

Idaztea gustatzen zait, baina azken urteotan telebistan egin dut lan. Jakina da ezin duzula beti nahi duzun guztia egin. Hitzak maite ditut, idatzitakoak nahiz esandakoak. Hor dago guztia iturburua, hitzetan, hitzen erabileran.

Harridurarako gaitasuna dut, eta jakin-min ugari. Kanpora begiratzea gustatzen zait, baina barrura ere begiratu behar da, ezinbestean, aurrera egingo baduzu.

Normalean, zarenaren eta izan nahi zenukeenaren artean desberdintasun handia egoten da. Azken batean, nahi duzuna pentsatuko duzu, baina besteek nola ikusi, halakoa izango zara.

Hartutako erabakiek moldatzen zaituzte, eta egindako akatsek. Ondo egindakoek ere, baina usto dut marka handiagoa uzten dutela akatsek eta kaleek.

Adin honetara helduz gero, ezagutzen dituen norberak bere oker nagusiak. Horietako bat da nire jenioa. Familiatik datorkidala uste dut, familian bertan ikasla dela. Gaitza da jende bizi dudala, baina ez naiz iaera txarrekoa. Denboraren eta ahaletzen poderioz, batzuetan eusten diot jenioari.

Gehienetan, ordea, salto egitegi dut. Inguruan ongi egin ez dagoen zerbait ikusten badut, edo norbaitek bere lana betetzen ez duela antzematen badut, protesta egiten dut, errieta. Eta horrek ez dizkizu lagunak ugaltzen.

Jenio biziak, batzuetan, norbaitek egin ez duen zerbait egin dezatan lor dezakezu. Baina gehienetan gauzak okertu egiten dituzu, harremanak zailtzen dituzu eta ez dituzte arazoari konponbiderik ematen. Errukitsuagoa izan behar da, eta letxe txarrari eutsi.

Tela egiteko jende asko behar duzu, eta horrek kaleak ugaltu egiten ditu. Beti errietan jardun behar duzu, eta hori nekagarria da. Sekula ez duzu nahi duzuenaren ehuneko berrogeia lortzen, sekula santan, ezta errietan egin da ere.

Futbolaria izan banintz, honezkerok hamaika aldiz bota niuduten futbol zelatik kanpora, arbitroari protesta egiteagatik. Batzuetan egiten ditut jenioari eusteko ariketak, maite dudana tenore lasaia lortzen saiatzen naiz, baina gutxitan lortzen dut horrelakorik. Badakit heldutasun falta dela, eta horren kontrako botikaren bat balezko egunero hartuko nuke, txintxo-txintxo.

Izan ere, nik ez dut hain jenio biziko jendea maite. Niri jende lasaia gustatzen zait, bizi, baina kontuak distantzia apur batez ikusten dituen, umorez.

Jenio biziak izatea ez da txarra norberarentzat. Zuk botatzen duzu barruan duzuna eta lasai-lasai gelditzen zara, garbi, ez urdaileko ultzerarik ez ezer. Arazoa zuk botatzea jasotzen duenak du, ez zertorrek.

elkARRIZKETA

Helena Pimenta

Antzerki zuzendari eta irakaslea, dramaturgoa

Antzerkia buruan

Antzele gisa hasi zen, baina zuzendari gisa irabazi ditu saririk garrantzitsuenak. Beti antzerkiaren inguruan, serio eta taxuz, arinkeriarik gabe.



TESTUA: ARANTXA URRETABIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS

«Besteen bidez espresatzen naiz»

Hamazazpiren bat urte zituen lehen aldiz antzerkiarekin topo egin zuenean, unibertsitatean. «Quejio» izan zen, Tavorarena. Ez dut ahaztu kosta egin zitzaizkida antzerhirako pauso hura. Leku arrotza iruditzen zitzaidan, urruna, eta pentsatzen nuen bertan sartzeko ezaguera batzuk behar zenuela.

Han bertan erabaki nuen itzuli nintzela, baina lotsaren bat gaudituz otean. Egia da antzerkiaren kodea beste satil artistikoki batzuetako kodeak baino zailxagoa dela. Antzerkiaren gozatzeko deskodetzen ikasi behar duzu. Ez da zaila, baina praktika pixka bat eskatzen du. Behin ikasiz gero, atsegina da guztiz, baina ahalegin hori egin behar duzu. Irakurtzen ere ikasi egin behar da, ez da berezko zerbait.

Arazoa ikuslea lehen aldiz antzokira erakaritzea da, eta gero bigarren aldiz. Zenbat eta antzerki gehiago ikusi, orduan eta gehiago gozaten duzu. Filme bat ikustera zoaz eta agian ez ezatzen batere gustatzen. Baina antzerkian hori gertatzen bazaizu, erabakitzen duzu ez duzula handik aurrera antzerkik ikusiko.

Besteen bidez

«Antzele gisa hasi nintzen, unibertsitatean, baina antzelearen ari nintzenez ere sumatzen nuen ez nintzela nire lanean aski kontzentratzen, agertokian gertatzen zen guztiaz arduratzen nintzela. Izaera kontua izan daiteke. Aktoreak, lanean, desinhibitu egin behar du, bere burua azaldu behar du. Nik ez dut gaitasun hori, ez naiz hain zuzena. Hobe naiz arbitroarena egiten, elkartzen, lotzen. Besteen bidez espresatzen naiz, ez zuzenean.

Nik uste dut oso pertsona arrazionala nartzela, oso estrukturatua. Eta eszenatokian gehiegi nabarmenduko litzateke arrazionaltasun hori.

Zuzendari izateko gaitasun batzuk behar dituzu eta, era berean, bakarrik egotera ohitu behar duzu. Antzezlana prestatzen ari zaren bitartean, zu zara eskakizun guztien, maitasun guztien eta mirespen guztien topleku. Gero, bilakaera bukatzeko zorian dagoenean, atzera egin behar duzu, zeure burua baztertu. Aktore batek duen material guztia eskainiko dizu eta zuk hura lantzen eta ordenatzen lagundu behar diozu. Gero, ama batek bezala, hegan egiten irakasten diozu. Hori gertatzen denean zuzendariari erretiratzeke ordua heldu zaio.

Antzeleek esan ohi dute maitasun-gorroto harreman bat sortzen dela zuzendariarekin. Nik debekatu egiten diot gorrotoa neurri buruari, ez dut horretarako lekurik. Antzeleak zure eskutik jartzen da, duela eskaintzen itzi-

eta, batzuetan, ez daki noraino arriskatu den. Zuzendariak finitasunez jokatu behar du, kontuz eta mimoz, aktoreak bere bizitzaren zatia eskaintzen dizkizulako, ez teknika hutsa. Ama batek bezala, ezin duzu bereizkeriarik egin aktore baten eta besteen artean».

Horrela, zuzendari gisa eta Ur Teatroti lotua egin zuten, urte gutxitan, baztereko antzerkitik puntaren puntarako bidea. 1993an, esaterako, Espainlako Sari Nazionala irabazi zuten.

Pausoz pauso

«Pixkanaka egindako bidea izan da. Nik beti eman nahi izan dut aurrena pauso bat eta gero beste bat, baina ez diot neurri buruari helmugarik jarri. Erreterian estreinatzen genuen 'Sueño de una noche de verano'. Ondoren Aragoiko herri batera joan ginen eta ez genuen dozena bat ikusle izango. Handik Buenos Airesera, Cervantes Antzokira, eta bertako jamatu guztiak mutur-joka sarreak lortzeko... Hori aste gutxitan.

Jendeak esan izan dit, Madril eta, Sari Nazionala eman zigitenean itzaropena suspertu egin zitzaizkida. Egiazta omen zuten batek egin zezakeela lan antzerkitik ofizialatik kanpo eta hala ere, onarpena lortu. Ez da egia horretarako hau edo bestea sobornatu behar denik. Prestakuntza dugu, langileak gara eta pazientzia dugu. Aurkitzen ari gara gure lekua.



Esan dezaket zirkuituaren barruan nagoela, baina nire berezitasunak galdu gabe. María Guerreron zein abangoardiako antzoki batean, nire muina galdu gabe. Gainera, nire gaitasunetik edo nire muinetik urruntzen hasten naizenan, ondoezik jartzen naiz, fisikoki. Biziraupenerako sena izango da hori...».

1) Beti egin izan dut borroka aparteko mundu batean ez bizitzeko»

2) Zenbat eta antzerki gehiago ikusi, orduan eta gehiago gozaten da»

Oinak lurrean

«Nik uste dut komunikazioa dela gure lanaren funtsa, hori dela gure betebeharrak. Eta, horretarako, jendearengandik hurbil egon behar duzu. Lanbide honetan, batzuetan, sumatzen duzu nolabait errealitateetik kanpo zaudela. Maitte duguna dugu lanbide eta grinaz egiten dugu lan. Horrek poz handiak sortzen ditu, eta baita min handiak ere.

Orduetegi desberdina ditugu, hori bai. Jendea dibertitzera doanean egiten dugu guk lan. Heltzen zara hiri batera eta ez dago inor kalean. Bazoaz hoteletik antzokira eta kaleak hutsik daude, lana bukatzen duzunean bezalaxe. Azkenean, zure orduetegi bera dutenekin elkartzeko zara, nahi eta nahi ez.

Erreterian, urtetan, goizeko zortzietan entseatzeko, gainerako guztien orduetegi egin nahi gumeleko, besterik ez hazen ere autobusa jende guztiak hartzen zuenean hartzeko. Urtetan egin izan dut borroka aparteko mundu batean ez bizitzeko, eta truditzen zait semeak ere lagun du didala horretan. Eskolara eraman behar duzu, sendagilearengana, ez du inporta zer ordutan oheratu zaren.

Bestetik, lanbide honetan gaudenok oso obserbatzaileak gara eta ikusitakoa aztertzen dugu, galderak egiten ditugu, zergatiak jakin nahi ditugu. Eta horrek, naht eta naht ez, inkomfortista egiten zaitu, pttin bat behintzat. Eta, era berean, harreman sistema berrien bultzagile gara uste dut. Normalean beldur gutxiago diegu aldaketari, pertsona berririk handitzen duten elkarrizketak sortzen ditugu...»

Ez da luxu bat

«Nik badakit antzerkiaren inguruan egin nahi dudala lan aurrerantzean ere. Agian irakasten edo, auskalo, antzele gisa. Beti antzerkiaren inguruan. Eta momentu batean horretatik bizitzetik ez banu, gaur egingo nuke antzerkia, zaletu gisa. Argentinan bezala, adibidez. Egunez norik bere lana egiteko du eta gaur egun...»



ELKARRIZKETA



tseetzen dute. Eta batzuetan emaitza miresgarriak lortzen dituzte.

Nik uste dut jende asko dagoe-la sormenaren inguruan eta erakundeek ez dietela inolako irtenbiderik eskaintzen, ez daudela sortzen dena bideratuko duten politikak. Honez gero, aspalditik jakin behar genuke kultura osasuna dela. Zenbat eta kultur ekintza gehiago parte hartu, orduan eta hobea zara, aberatsagoa. Ez da luxu bat.

Hori horrela izanik, askotan galdetzen diot neure buruari zergatik egiten zaigun hain zaila gure lana, zergatik ditugun hainbeste oztopo. Agian, ordaintzen dutenek badakitelako lan hone-tan gaudenok bokaztoari jarraitzen diogula eta horretan jarraituko dugula, baita dirurik gabe ere. Gauza da lanbide honen alde-

I Honez gero, aspalditik jakin beharko genuke kultura osasuna dela, aberastasuna, ez dela luxu bat»

II Antzerki ofizialetik kanpo lan egitea eta, hala ere, onarpena lortzea posible da»

rik itunenak akullatzen dituzte-la, ez argitsuenak edo arrazionalenak.

Txikitian, Salamancan, nre familia liburu denda txiki bat zeukan eta guztiok egiten genuen lan bertan. Hamabost edo hama-

sei urte nituela han ibiltzen nintzen irakurtzen, saldu behar nuen ezagutzen. Gure aita oso zorrotza zen eta guztiok lanean jarri gintuen. Orain ere ez litzaidake batere axolako denda txiki bat edukitzea eta antzerkia maitasun hutsez egitea.

Hori bai, serio eta taxuz, arinkeria guztiz kaltegarria baita antzerkigintzan. Eguneroko bizitzan ibili zintezke azalkertan, batna lanean ez. Horrek ez du gauza dibertigarriak ezin egin dalitezkeenik esan nahi, noski. Antzerkiak gero eta humanoagoa behar du tzan, ez dibertigarriagoa edo serioagoa. Horixe ikusi behar du ikusleak agertokian, gizaki garenez gure ere badiren alderdiak, moldez edo hitzez.

Horretan ari da, batetik bestera, gelditu gabe, antzerkia buruan eta erraletan.

ZALETASUNA. Hortik bizitzeko modurik ez balu ere, antzerkigintzan jarraituko luke, zaletasun eta maitasun hutsez.



NORTASUN AGIRIA
HELENA PIMENTA

1955

Salamancan jaioa. Aita portugesa zuen eta ez du oraindik galdualdi batzuren bukean aita-hizkuntzari dagokion buke kantaria.

Filologia ingelesen eta frantsesean lizentziatua da. Hain zuzen, irakasle gisa etorri zen Euskal Herrira, Errenterira.


NIESSEN

Errenteriako fabrika ohian ekin zion lanari. 1993ko argazkian, bertako aldagelatan.

1979

Atelier antzerki taldea sortu eta klasikoak antzezteari ekin zioten: Molière, Voltaire, Ionesco...

1987

Atelier taldeko zenbait lagunekin batera, Compañía UR Teatro antzerki taldea sortu zuen.


SARIAK

1994ko Ercilla Saria irabazi zuen. Ez da, ordea, bakarra.

1993

William Shakespeareren *Sueño de una noche de verano* egokitu eta zuzendu zuen. Horrekin heldu zitzaion arrakasta. Ikuslariak 300.000 ikusle izan zituen eta baita *Premio Nacional de Teatro* saria lortu ere.

Hogei urteko seme baten ama da. «Hori bai dela misteriozua, seme-alabak ondo hezitzeko modua. Askotan pentsatu izan dut horrelakorik balego neronek itsuki jarraituko niokela. Baina ez, zerorrek asmatu behar duzu, zeure modura egin behar duzu».


SHAKESPEARE

Beti bidelagun. 1998an *Sueño de una noche de verano* antzeztu zituen berriro ere.

Autoargazkia
HELENA PIMENTA

Gogotsua naiz, sutsua, balna baita diziplinatua ere. Diziplinarena aitarengandik datorkit.

Ahal dudan neurrian, nire inguruko giroa hobetzen saiatzen naiz, tokatu zaidan bizitzazati honetan zerbaiteko balio dudala sentitzeko.

Guztia humanoa eta garbia izan dadin ahalgintzen naiz, batzuetan norabidea galtzen badut ere. Zorrotza naiz eta zintzo jokatzen salatzen naiz. Diziplinak laguntzen dit horretan, seguru.

Nire alta emakumez jositako etxe batean bizi zela eta (lau alaba gara), uste dut bere erantzuna feminista bilakatzeko izan zela. Bultzatu gintuen ikastera, kirola egitera, lan egitera... Orduetarako errespetatuz, gainera. Orain asko eskertzen diot aitari diziplina hori kutsatu izana.

Beti egin izan dut kirola eta asko ikasi dut jardun horretan. Eskubaloi eta igeriketa egin izan ditut. Gaur egun ezinezkoak zaizkit taldeko kirolak, nire orduetara ezin ditut eta egokitu, balna gustatuko litzaidake noizean behin partiduren bat jokatzea. Uda honetan, suertatu zitzaidan tarte libre batean, piraguismoa egitera apuntatu nintzen eta oso espetientzia ona izan zen, guztiak ume koskorak, mutiko gazteak ziren.

Pittin bat nomada nazela uste dut. Nire familia Portugaldik etorri zen Salamancara. Gero, ni Euskal Herrira eta harrezkero beti aritu naiz bidaiatzen, batetik bestera. Ez dut horren bila aritu naizenik uste, balna ez diot ihes egin ere.

Joan-etorri hauetan korapilorik handiena semea izan da. Orain hogei urte ditu eta ia autonomoa da. Baina txikia zenean hest leporatzen nion neure buruari ez niola nahiko denbora eskaintzen. Oraindik ere ez dut sentazio hori erabat galdu. Hainbat urtez, besteek deskantsatzen zuten bitartean nik etxerako bidea egin izan dut. Ildu, guztia kontrolatu, ahal nuena egin eta berriro martxa.

Iruditzen zait autoargazki honetan ez nazela oso zintzoa izan: alde onak bakarrik aipatu ditudalako, ez izalako.



MIKEL CASAL

Behar dena baino gehiago

Duela hogeitaka urte ezagutu nuen Helena, urriko goiz batez, Errenteriako Koldo Mitxelena Institutura frantsesa irakastera etorri zenean. Astea begiratu, ikusten dut goiz hartan bertan sortu zela gure arteko adiskidetasuna eta geroztik eguneroko nahiz ohiz kanpoko bizipenekin sendotuz joan dela. Trantsizioaren urte haietan Errenteria hurakanaren begian zegoen eta guk bertan egin genuen lan. Baina, garai haiek latzak izan baziren ere, bazegoen orduan alrean garai hobeak etorriko zirenen esperantza, eta gaur ez da horrelakorik antzematen. Orduko itxaropena argitsua zen, oraingoa itsua.

Garai hartan hasi zuen Helenak antzerkiaren abentura. Hutsetik hasi zen, ikasleekin eta frantsesez, eta gaur

LOLA VALVERDE

egin jasoak ditu Espainako eta nazioarteko saririk garrantzitsuenak eta eszenako handien artean dago, antzerkiaren inguruko edozein gertakizunetarako deltua. Film iparramerikar baten izenburuari tira eginez, esango nuke aintzarako jaioa dela. Arrakasta izateko behar diren osagai guztiak biltzen dituelako, baizik eta, galnara, pertsona edertua bai, balna arrakastarako nahitaezko diren galtasunez hornitua delako: indartsua da, batzuetan gizakiaz gaindikoa indarrez, adimen zorrotza du eta edozein egoera ikusteko eta ulertzeko sentsibiltatea, bizitzaren kolore guztiak bizia-

razten dizkion (agur, Carlos Cano) bizitasuna, erakargarritasun pertsonala, kementa eta mugarik gabeko langaitasuna. Bigarrenen artean garrez defenditutako barm askatasuna, zintzotasuna eta egialetasuna. Hitzekira arruntan, tipa legala eta benetakoa dela esango nuke. Eta olnazeak asintzen duen hauskortasun hori, dimentsio humanoa sakontzen duen bitartean, sekula amore emango ez dueneko segurtasuna adierazten duena. Hori guztia eta gehiago.

Lanak eraginda etorri zen gure arteko beste bat izatera eta orain ere arrazoi berberak litzake guggandik alde egiteko. Helenak, ordea, orainaldian hain gogorra den herri honetan jarratitzeko aukera egin du eta hori luxu bat da guztiotzat. Nik, behintzat, eskerriak eman nahi dizkiot.

Beltzez jantzitako dama
A.U.

Beltzez dator barrutik, goitik behera. Hasi asfaltoaren koloreko ileetik eta jertsei eta gona luzeak, oinetako eta galtzerdiak. Beltzak bekainak eta begiak. Zuria aurpegia eta laranja kolore eguzkitsua guztia gaineratik daraman beroki estua. Urrezko erazten bakarra eta ez belarrikorik ez lepokorik. Txikia da, bidez ere gaurko gazteekin alderatuz

(«Txikia naiz, eskerrak ahots sendoa dudana») baina bakarka ikusirik ez du sentipen hori ematen, gorputza barruan duenaz kutsatu izan balitz bezala.

Katarro pittin bat du eta sudurra garbitzen duenean burta makurtu egiten

du zaplaren bila. Orduan, begiak ikusten ez zaizkionean, ahula dirudi baina lehenengo begiradak adierazten ditu oker ari zirela, oso oker.

Erantzun aurteik barrura begira ari dela dirudi eta han, bazter batean, burmuinaren zimur batean txukuntxukun gorderik dagoena aterako du ondoren, ahots lodia eta barez, presarik gabe.

elkARRIZKETA

Ramón Fernández Etxabe
Sendagilea

Ruanda bihotzean

Ginekologoa da, eta aspalditik ari da lanean Medicus Mundirekin. Ruanda du bihotzean, gerrak txirxilatuako paradisia, eta ez du aski solidaritatearekin: justizia nahi du.



TESTUA: ARANTXA URRETABIZKAIA
ARGAZKIAK: SARA SANTOS

«Mundu aberatsekook tontoak gara»

«Ez da zaila ulertzen zergatik erabakitzen duen pertsona batek bere denboraren zati bat besteei eskaintzea. Gutxieneko sentikortasuna baduzu, pobrezia zuzenean ezagutzen duzunean, miseria gorria ezagutzen duzunean ukitututa geratzen zara eta zure barruak esaten dizu zerbait egin beharrean zaudela. Pertsona bakarra ezagutzen dut, salbuespen bakarra, Ruandako miseria ikusi eta hunkitu ez zena».

Aipatu du Ruanda lehen aldiz, paradisu ezaguna, lagun mina edo maitea aipatzeko erabili ohi den doinuaz.

«Ukitu hori Ruandara egin nuen lehenengo bidaiari gertatu zen. Asfaltiko laguna zen misiolari bati bisita egitera joan nintzela, besterik gabe. Eta han bertako errealtatearekin egin nuen topo. Batek, aurkitu nituen agian gure artean duela mila edo bi mila urte bizirik egongo ziren baloreak, baina orain zehuru galduta ditugunak.

Balore horiek bizirik zeuden Ruandan, duela hogeita bost urte inguru. Adibidez, jendea beti zegoen irribarretsu, leku guztietan, egoera guztietan. Gure artean, berriz, inork ez du irribarre-

rik egiten kalean, eta baten bat bakarrik eta irribarrez ikusten baduzu, tontoa dela pentsatzen duzu, edo psikiatra bat behar duela.

Bestetik, ikusi nuen ez ziotela heriotzari inolako beldurrik. Hori kolpe handia izan zen niretzat. Heriotza onartu egiten zuten, nahiz eta zeukaten aberastasun bakarra hura izan: ez zeukaten ezer, pobrezian bizi ziren eta ez zioten beldurrik heriotzari. Haien zantza, bizitza sustantziala da eta heriotza, akzidentala. Guk, heriotzarekin gauza esentziala egin dugu, gauzarik traszentalena halitz bezala. Bizitza da traszentalala, ez heriotza».

Inbadituko gaituzte

«Geroztik, hamarren bat aldiz izana naiz Ruandan. Lehenengo bisita hartatik itzuli nintzenean, Medicus Mundurekin harremanetan jarri nintzen eta, geroztik, hori naiz lanean, batzuetan bertako lehendakari gisa, besteetan bakide soil bezala.

Sakon-sakonean, baliteke erlijioaren eragina egotea, baina ez da hori indar nagusia. Sinestuna naiz, batna nire erara. Nik uste dut humanismoaren antzeko zerbait dagoela hor atzean.

Guk osasunarekin zerikusia

duen proiektuak bultzatzen ditugu Hirugarren Munduan. Baina gure lan nagusia hemen dago. Pentsatzen dugu hemen, mundu aberatsean, jendea sentsibiltzatu ez bada Hirugarren Munduko egoerak ez duela hobera egingo. Edo sekulako iraultza egiten dugu mundu osoan edo, bestela, aldatetako gungandik etorri behar du, mundu aberatsa hometatik.

Egia da askotan esan dena: mundu aberatsekook tontoak gara. Lehen, zeukaten guztia lapurtu egin genien, eta orain ez dugu haien garapena bultzatzen. Baina haien garapena bultzatzen ez badugu, goseari ihes egiteko inbaditu egingo gaituzte. Eta paterak aurrerakin bat besterik ez dira.

Bizkorrak bagina, herri pobreen garapena bultzatuko genuke, nobrekeriagatik besterik ez bada ere. Armatan eta gerratan hainbeste diru gastatu beharrean, diru hori hateri laguntzen gaitu beharko genuke.

Baina gure mentalitatea aldatzen ez den bitartean, ez da Afrikako egoera aldatuko.

Joxe Azurmendi filosofoak esaten zuen, duela gutxi, munduak ez diola gaurko egoerari luzarozan eutsiko, ezin duela munduak tentsio hori jasan. Pobreak gero eta pobreak, aberatsak gero eta gutxiago, gero eta aberatsago. Edo iparraldeko aldatzen gara, edo zera gogor bat gertatuko da».

Paradisuen bila

«Duela sei urte, Ruandako gerra gertatu zenean, hemen asko hitz egin zen hango egoerari buruz, baina orain ahaiztuta dago jendea. Bitartean, Ruanda benetan lur jota dago.

Gerra guztiak basatiak dira, berez, eta hura ere horrelakoa izan zen. Gerra bukatu zen, baina jendea goseak hiltzen ari da eta milaka dira egoera sinestegaitzetan dauden presoak.

Guk lan egiten dugun tokian bi presondegi daude, eta bakoitzak mila preso inguru ditu. Pilatuak daude, ziega txikietan guztiz pilatuak, ezin dute ez etzan ez eseri, ez diete janaririk ematen... ehuneko herrogeita hamar goseak hiltzeko zorian daude, aste batean hilko dira, laguntzen ez badiegu.

Batzuek familarengandik zerbait jasotzen dute. Emazteak edo semeak oinez egin behar dituzte hogei edo hogeita hamar kilometro presondegira astean behin edo bitan janari pixka bat eramateko.

Horretarako, gutxienez presoei janari pixka bat emateko



proiektu bat antolatzen ari gara.

Gauza da, urte askotan, niretzat Ruanda paradisuia izan dela. Pobreak ziren, baina ez ziren gosez hiltzen. Minifundioak zituzten eta bertan landatzen zituzten patata batzuk, babarrun batzuk eta horrekin bizi ziren. Era guztietako gaixotasunak izan arren».

Gerra bakteriologikoa

«Gerra eta gosea aski ez direlakoan-edo, hiesa ere barrabarra dabil Afrikan. Lehenbaitelhen txertoa asmatu eta Afrikara bidaltzen ez badugu, hiesak akabatuko du Afrikako pobrezia, bertako guztiak hilko baititu.

Ruandan nengoen ni 1.994an, gerra hasi zenean. Orduan ere sentitzen nuen gerra hura pobreak akabatuzeko asmatua zela. Eman diezazkiegun armak, oparitan; saldu ez, ez baitute ordaintzeko dirurik. Banatu armak, sortu istiluak bertan artean, areagotu elkarren arteko desberdintasunak... eta gerra sortuko da. Horiela bukatuko dira pobreak.


Gerra tradizionala ez da pobreak akabatuzeko modu bakarra. Gogoratzen naiz nola ihusi nuen behin, film batean, Japoniako gerran sendagileak harriturik zeudela, sekula ikusi ez zuten hepatitisa ikusten zutelako. Nola da posible, galdetzen zion sendagile batek bere buruari.


11 Guk zeharo galduta ditugun baloreek bizirik zirauten Ruandan»

11 Aldaketak gure munduan sortu behar dira, mundu aberatsean»

11 Bizkorrak bagina, herri pobreen garapena bultzatuko genuke»

11 Hori egiten ez badugu, inbaditu egingo gaituzte goseari ihes egiteko»





ERANTZUNA. Ruandan bizi zuten egoera ikusi ondoren, horri erantzun beharra sentitu zuen. Horretan jarri ditu burua eta eskuak.

Gerra bakteriologikoak existitzen duelako, erantzuten zuen. Nik askotan pentsatu izan dut ez ote dagoen horrelako zerbait hiesak Afrikan duen hazkunde izugarriaren atzean».

Benetako solidaritatea

«Medicus Mundiri eta antzeko gobernu kanpoko erakundeek harrera ona egiten die jendeak, baina bertan ez da dena guztiz garbia. Ni neu oso kritikoa naiz erakunde hauekin, are nitzearekin.

Giza erakundeak, denborarekin, degeneratu egiten dira, pertsonak bezala. Etiopiar autokritika behar dugu, behin eta berriro berpiztuko gaituen jokuera.

Hasierako paternalismo hura atzean gelditzen ari da. Gu ez goaz Afrikara irakastera bakarrik, ikastera ere bagoaz. Inongo jendearekin ere lanean ari gara, gero eta gehiago. Hori ona da, zeren haien egia ez da gurea, haien askatasuna ez da gurea, haien efizientzia ere ez... Zure pentsakizun guztiak erlatibizatu egin behar izaten dituzu.

Eta helburuak argi izan. Adibidez, niri solidaritate hitza ez zait gehiegi gustatzen, bigunegia iruditzen zait. Nahiago dut justizia. Benetako solidaritatea zuzena izatea da».

Ikasi eta irakatsi

«Urte hauetan guztietan ikasi dut basatiak geu garela, ez haiek. Gerrak lapurte egin die irribarra ruandarrei, eta hori da lapurretarik handiena. Ikusten dituzu pila bat ume argazki batean, eta denak triste.

Urte gutxitan, desageru egin dira irribarreak. Ume bati irribarra kentzea egin daitekeen gauzarik okerrrena da. Eta lapurreta horretan mundu aberatsak erantzukizun itzaragarria du, nahitaez.

Ruandara egin dudana bidaia bakoitzean kolpe bat izan da, eta itzulera beste bat. Itzultzerakoan ikusten duzu inoiz baino argiago zein ondo bizi zaren. Agian ez daukazu dirutza handirik, baina pribilegiatua zara, eta batzuetan ez zara konturatzen.

Ni konturatzen naiz, eta askotan galdetzen diot neure buruari zer egin dezakedan. Diru pixka bat eman, noski, baina hori gangrena bat sendatzeko tirita bat erabiltzea bezala da».

Horretan, gangrena sendatzen saiatzen da, itzaropena etorkizunean jarria. «Lehen mundu honek itzaropenik badu, gazteei eta emakumeek esker izan beharko du. Hain gaizki egin ditugu gizonok gauzak, hain gaizki...»

«Hiesak konponduko du pobrezia Afrikan, denak akabatuko ditu eta»

«Solidaritate hitza bigunegia iruditzen zait; nahiago dut justizia hitza»



NORTASUN AGIRIA
RAMON FERNANDEZ ETXABE

1940

Donostian jaioa. Zazpi urtez seminarista izan zen. Garai hartatik, besteak beste, gelditzen omen zaizkio apalz askorekin dituen harremanak.

1968

Medikuntza ikasketak burutu zituen, Zaragozan. Ginekologoa da.



RUANDARREN ONDOAN
Irudiko medikuaren lan berbera egin zuen Ramón Fernández Etxabek Ruandan.

1977

Lehenengo bidala Ruandara, bertan lanean ari zen misiolari bati (Isidro Uzkudun) bisita egitera. «Lagun intimoa nuen. Eta lagun inlimorik ez da izaten, edo bakarra gehienera». Hiri egin zuten Uzkudun, Ruandan, iragan udan.

**LEHENDAKARI**

Ramón Fernández Etxabe —eskuinekoa irudian— Gipuzkoako Medicus Mundiko lehendakari izan da. Juan Carlos Aretxabaleta eta Mikel Sánchez elkarrekin kideak dira bere ondokoak.

1994

Ruandako gerra hasi zenean, herrialde hartan zegoen eta han gelditu zen gudako lehen asteetan.

2000

Mediku lanean jarraitzen du, eta alabak ere bide bera hartu du: «Ni hasi nintzenezan ez zegoen ia emakume ginekologorik. Orain, nire alaba ginekologia egiten ari da, eta ez dago ia gizezkorik».

**ERAKUSKETA**

Duela bi urte Medicus Mundiko margo, eskultura eta argazkien antolatutako erakusketan zegoen Fernández Etxabek.

Gogotsua, gogotsurik bada

IMANOL APALATEGI

Ramon adiskideak lagun handi bat galdu du aurren, Isidro Uzkudun, Donostialako Gotzaitzegiko apaiza, Muginan (Ruanda) lan pastoral eta humanitarioa egiten zuena. Batek pentsa dezake nola ezagutu zuteri elkar bi gizon horiek, nolakoa izan zen adiskidetasun handi haren hastapena, biak praka motzetan, Pasaiaiko kaleetan jolasean; seminarioan ondoren eta, azkenik, Ruandako muinoetan.

Gogotsua gogotsurik bada, ezaguna da Ramon ginekologoa gisa, baina baita Eguzki klubeko kide gisa ere, edo Easo Abesbatzan abesten duelako, Donostialako Musika Hamabostaldian laguntzaile delako... eta Medicus Mundirekin boluntario gisa lan egin duelako. 1992-1998 urte bitartean, Gipuzkoako lehendakari izan zen eta urte horiek aipatze hutsek Isidro Uzkudun eta Ruanda dakarzit gogora.

Ruanda, zorritzarrez dagoeneko albistegitan alpatu ere egiten ez den herria, non bizitzak ez baitu ezer balio, oraindik ere Ramon lan solidarioaren helburu da (eta Gipuzkoako Medicus Mundin lan egiten dugun guztiona). Agian paradoxa latz bat dela medio: gosea eta pobrezia diren lekuko diren lurraldeak paradisua dirudielako, lakuen ur geldietan islatzen diren muino berdez egindako paradisua.



MIKEL CASAL

Autoargazkia

RAMON FERNANDEZ ETXABE

Era berean, bakardadea asko gustatzen zait. Oso gustura egoten naiz bakarrik, ez nau izutzen bakardadeak. Ezer egin gabe ere asko disfrutatzen dut, egonean, pentsatu ere egin gabe. Ruandan, adibidez, isiltasun izugarri hartan... Agian, nire bizitzan izan ditudan momenturik zorionsuenak Ruandan gertatu dira. Nik ezagutu nuenean paradisua zen; eta orain, paradisu hila.

Nire arazoa denbora falta da, egin nahi ditudan guztiak egin ahal izateko denbora.

Pestnista naiz, baina itxaropena ez galtzen saiatzen naiz. Honelako mundua ikusita ezin zara optimista izan.

Nik gazteengan eta emakumeengan jartzen dut itxaropena, aspalditik. Gizezko oso bazu utzi dugu listoa, oso gaizki egin ditugu gauzak. Guk baino okerrago nekez egingo du inork.

Emakumeak benetan agintzen hasten direnean —eta hori badator, zorionez badator, belaunaldi baten bueltan— mundua hobea izango dela espero dut. Urte batzuk irauten badugu, ikusiko dugu hori, emakumeak gizonak baino gehiago agintzen. Gu defenditu egingo gara, modu guztietan, baina emakumeek lortuko dute. Hasiak dira dagoeneko medikuntzan, irakaskuntzan, justizian...

Emakumeak eta gazteak dira nire esperantza. Gizezko ez naiz fidatzen.

Kopetan leihoak

A. U.

Bertold Brechtek esana omen da: «Gizajoa kopetan zimurrik ez duen pertsona heldua». Ramón Fernández Etxabek, ohizko toledura horizontalez gain, gotik behera doazenak ere baditu, kopeta zimurtzen duenean buru soildua kanpora begira dauden leihoz apaintzen dituzte.

Ahots gora eta garbia, landua, malguta, adierazkorra, gustuko dituen hitzekin jolasen egiten duen horietakoa. Presarik gabe egiten du hitz eta ideia baten atzetik abiatzen duen

ere ez du haria galtzen.

Arazuko praka eta oinetako ilunak. Ez hainbeste alkandora gainean darman txaleko koloreztatu eta irribarretsua. Arretaz entzuten du, lanbidearen erdia horretan ematen duenaren profesionaltasunaz, hitzik ere alferrik galdu nahi ez balu bezala.

elkARRIZKETA

Miren Azkarate
Irakaslea

Euskara samurraren bila



Euskaltzain oso izatera heldu den, lehen emakumea da, Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreorde izandakoa eta, jaztik, Euskal Irrati Telebistako Hizkuntza aholkularia. Arauak egin, arauak betearazi eta ikasitakoa irakatsi, egunero, urtero.

■ TESTUA:
ARANTXA URREBIZKAIA

■ ARGAZKIAK:
SARA SANTOS

«Hizkuntza samurtzea hiztunen lana ere bada»

Baten batek Euskaltzaindiakoak hizkuntz-politikiak ditrela esaten dihonean gauza da Miren Azkarate euskaltzaina bere buruaz barre egiteko, algata txikiz eta irribarre handiz, baina txisteak grazia handirik ez diola egiten igartzen zaio.

«Egia da euskaldun askok hizkuntzarekiko segurtasun falta adierazten duela. Badago jendea batzuetan esan didana ez dela ausartzen nire aurrean euskaraz egitera. Eta, sarritan, primeran hitz egiten duen jendea izan ohi da. Orduan galdetzen diozu zeure buruari zergatik ote den.

Kezkutzen nau, horixe kezkatzen nauela. Horretan ere, segurtasun falta hori aitortzen dutenak gutxiengatik beharko luketena dira, benetan euskara sendoa eta aberatsa dutenak. Baina euskara batu berriaren aurrean ez dira segur sentitzen. Horrek tristura pixka bat ematen du, zeren, azken batean, ez da hori kontua.

Onartu beharko dugu, ezinbestean, eta pentsatzen dut fase honetatik pasa diren gainerako herri guztietan gauza bera gertatuko zela, denbora kontua dela. Zuk baldin baduzu belatunaldi bat, edo bat baino gehiago, hizkuntza bat primeran hitz egiten duena, baina hizkuntza horietan eskolatu gabe dagoena, edo hizkuntza menderatu arren zenbait gairi buruz hizkuntza horietan hitz egiteko gauza ez dena, bada belatunaldi horien egoera ez da hizkuntza horietan guztiz eskolatuak daudenera».

Batuaren ibilbidea

«Batu beharrezkoa zen, hori gutxi jartzen dute gaur egun zalantzatan. Kontua hizkuntza batean eskolatuaren eta eskolatu gabearen arteko diferentzia da. Askotan entzuten dituzu euskara zoragarria egiten duten emakumeak, esaten dituztenak ilobak ikastolatik etorri eta 'amona, hori ez da horrela' entzun behar izaten dutenak... Guztiz akomplejuak gelditu ohi dira eta, gainera, umeak konbentzitu benetan arrazoi dutela. Nik neuk bizi izan dut hori umeekin, etxean. Nik beti esan diet eskolan esandakoa ondo zegoela, baina guh, etxean, beti horrela esan dugula eta

11 Euskaldun askok hizkuntzarekiko segurtasun falta dute, nahiz eta euskara aberats eta sendoa izan»

11 Hizkuntza idatzia eta ahozkoa bereizten lagundu behar zaie umei: eskolako eta etxeko»

11 Jendeak esaten duenean euskara gogorra eta ulergaitza dela, niri ematen dit horrek zer pentsatua»

horrela ere badela. Nik uste dut idea hori dela bultzatu behar dena.

Beharbada, batasunaren oinarrian egon zen aukera talde txiki baten kontua izan zen. Asko izan ziren Arantzazun batasunaren inguruan bildu zirenak, euskaltzain oso, urgazle eta momentu hartan inguruan zebiltzanak. Asko, baina gutxi euskaldun guztiekin alderatuta.

Orain, kontua izugarri zabaldu da. Ikusi besterik ez dago zenbat jende ari den euskaraz lanean, adibidez Administrazioan, irakaskuntzan, argitaletxeetan, komunikabideetan... Duela hogeita hamar urte, ordea, talde txiki aukeratu bat hasi zen batasunaren alde, eta horien artean hartu ziren erabaki guztiak.

Eta egia da, trakurtzen duzu orduan idatzitakoa eta orduan egindakoa eta berehala ikusten duzu nola aldatu den hizkuntza.

Batuak, nahitaez, aditz laguntzaile bakar bat finkatu behar zuen, erakusleen sisteman, ize-nordainen deklinabidean eta horrelakotan forma bakarra behar zen. Gero, sintaxi egituratan, hitzetan, garai batean egin zen baino askoz aukera zabalagoa egin behar da, dudarik gabe.

Azken batean, estandar bat finkatzeko urte asko behar dira eta guk hogeita hamarren bat daromatxagu. Huskerta du. Denbora gehiago eman behar zaio, erabileran alor desberdinetan finkatu dadin, maila desberdinak bereiz daitezkeen».

Maila desberdinak

«Jendeak esaten duenean euskara gogorra, ulergaitza dela... ematen du zer pentsatua, niri, behintzat, bat.

Nire iritziz, momentu honetan bultzatu behar dugun ideia ez da, horrenbeste, batasunarena, baizik bereiztea hizkuntzak, nahitaez, maila desberdinak behar dituela. Badagoela eredu oso formala eta zaindua, okasioak hala eskatzen duenean erabili behar dena, eskolan ikasten dena.

Gero, eskolan bertan ere, badira mila momentu beste modu bateko euskara erabiltzeko eta tokian tokiko esapide eta hitzak erabiltzeko. Nik uste dut hor lan handia daukagula egiteko, hor-txe.

Umei hizkuntza idatzia eta ahozkoa bereizten lagundu behar zaie. Adibidez, 'ez zegoen' idazten dela, baina ez dattezela etxera 'ez zegoen' esaten etorri, 'etzegoen' esan dezatela. Edo 'hoherena' oso ondo dagoela eta ikasi beharreko hitza dela, baina, agian, inguru hartan 'omena' esaten dela eta hori ere zuzena dela, hori ere erabili daitekeela.

Badirudi, askotan, erregistro bakarreko umeak sortzen ditugula eskolan, eta hori ulergarria da umeek etxean euskal giroa ez badute. Baina eskolan bertan ere liburuak eredu formal horretatik kanpo dagoena ere irakatsi daiteke. Beste modu batekoa entzuten badute, nik uste dut etxean erdaraz egiten dutenak ere hartuko luketela. Nire ustez, horretan ahalegin handiagoa egin beharko litzateke.

Garrantzitsuago iruditzen zait umei eredu sendo bat, betiko euskara onaren eredu ematea, araukin kezkatzea baino. Zabarherian erori gabe, noski. Batna axola duena eredu da, gurasoen eta aiton-amonen ereduarekin lotutako euskara transmititzea».

Arauk arau

«Kuriou da. Momentu batean, Euskaltzaindian eztabaidatu zen arauak eman behar genituen ala ez, edo jendea batean utzi behar genuen. Baina eskabidea argia zen, argitaletxeek edo irakaskuntzan lan egiten zutenek, itzultzaileek... sekulako zerrenda aurkeztu ziguten. Erantzun eske.

Eskakizun horiek eraginda ematen ditu arauak Euskaltzaindiak. Eta jendea guztiz dizi-

plinatua da: Euskaltzaindiak esan du, eta hor bukatzen dira kontuak.


Baina, araurik ematen ez den bitartean, bakoitzak berea erabili behar du, askatasun osoz, ez dago nahitaez arau bakarra erabili beharrik. Nik neuk ahaleginak egiten ditut araukin ez obsesionatzeko, uste dudalako momentu honetan euskarak daukan beharrik gorriena ez dela

arauak betetzea, eredu bera baizik, bere osotasunean.

Nahitago arau gutxiago bete, baina betiko euskararen oihartzun sendoa daukan zerbit. Testu askotan ez dago akatsik gramatikaren aldetik, arau guztiak betetzen dituzte, baina ezin dituzu irakurri, eskumatik erortzen zaizkizu.

Behar gorriena ez da arauak betetzea. Hori maila batzuetan beharrezkoa da, baina ez guztietan. Askotan, erabiltzen den euskarari gogortasuna kendu beharko genitoke. Ez baldin badugu samurtasunik lortzen, jat dugu.

Arazorik larriena hizkuntza gozoa aurkitzean datza. Hor dago kontua».



Hiztunen txanda

«Nik uste dut denbora falta zaitgula, oraindik. Duela hogeita hamar urte idatzitako liburuak monolitoak ziren, denak berdinak. Orain ez, orain anitzagoak dira».

Eta beste hogei urteren buruan, beharbada, oraindik eredu gehiagoko izango dugu, aukera gehiago. Orduan iritsiko gara, adibidez, literatura ona, erdipurdikoa edo txarra bereiztera, hizkuntza kontuan hartu gabe.

Hogei urte eta, suerte pittin batekin, gutxiengo.

Daukagun hutsunerik handiena hizkuntzaren samurtasuna bada, hutsune hori betetzea ez da araugileon kontua, hiztunena



11 Funtsezko gauzak, gauzarik zailenak, erabakita daude; orain hiztunei tokatzen zaie»

baizik. Gaur batasunaren beharra ez da apenas eztabaidan jar-tzen. Funtsezko gauzak, gauzarik zailenak, erabakiak daude. Orain hiztunei tokatzen zaie.

Oinarritzkoa egina dagoenean, bigarren urratsa egin dezakezu, eta horretan gabilta orain. Begi-

ratu beharko dugu zer falta zai-gun bide zabal hori gero eta zaba-lagoa izan dadin, gero eta harril gehiago izan ditzan.

Gero eta gaitasun handiagoa dugu bestearen euskalkia ulertze-ko, guztiok elkar ulertzeko estan-darra finkaturik dago. Ezinezkoa da hogeita hamar urtean batua egin, sendotu, zabaldu, gainera ordura arte sekula erabili ez den alorretara heldu eta, gainera, ez dakit zer egitea».

Denbora kontua omen da, Eta denbora horretan egingo den lanaren arabera egingo omen dugu aurrera. Azkaratek, behin-tzat, ez du falta omen zaizkigun hogeit urte horietan egonean ego-teko asmorik.

KEZKA.

Euskaltzain oso denetik, euskararen inguruko erabaki garrantzitsuak hartzea egokitu zaio. Egun, euskara samur eta gozoa bideratzea du kezka.



NORTASUN AGIRIA
MIREN AZKARATE

1955

Donostian jaioa. Ahizpa bat du.

1977

Filologia Erromanikoan lizentziatua, Deustuko Unibertsitateak Donostian duen egoitzan.

«Ikasketak egin bitartean, euskarazko eskolak ematen nituen, iluntzetan. Horren truke, ikasketak ordaintzen zizkidaten eta mila pezetako gubi batzuk hilero».

Urte berean, Elizaren Magistritzaren eskolan hasi zen lanean.

«Sasoi hartan, ikasketak amaitu orduko jendea zain zeneukan lanerako. Hori zorte handia izan zen».

**IRAKASLE ETA IRAKASKIDE**

1990.eko argazki batean, Patxi Altunarekin batera. Ordurako irakaskuntzan urte mordoak zeramatzan Miren Azkaratek

1978

EUTGn hasi zen lanean, Filologia irakasten, Patxi Altunaren eskutik.

«Gure belaunaldiko jendeak eskaintza asko izan zituen lanerako, Administrazioan, irakaskuntzan... Gaur nagoen lekuan neuk horrela aukeratu nago, beste hainbat lekutan ere egoteko aukera izan baitu».

**EUSKALTZAIN OSO**

Jean Haristchelhar euskaltzainburuaren eskutik jaso zituen euskaltzain osoei dagozkien domina eta diploma.

1982

Euskaltzaindiako urgazle izendatu zuten.

1992

Euskaltzain oso izendatu zuten. Bera da postu horretara heldu zen lehen emakumea.

Orain, eskola ematen du, Donostian eta Gasteizen. Hurrenberria du Euskal Irrati Telebistako Hizkuntza Aholkularitza. Euskaltzaindiako hainbat batzordetan hartzen du parte.

Ezkondua dago eta bi alaba ditu, 12 eta 15 urtekoak.



MIKEL CASAL

Autoargazkia

MIREN AZKARATE

Beti lasalago ibiltzeko esperantzan bizi naiz, beti lanez itota eta lasalago bizitzeko esperantzarekin. Ikasten ari nintzenean, pentsatzen nuen Tesina bukatu ondoren lasalago ibiliko nintzela. Egin nuen Tesina eta gero Tesiarekin hasi nintzen. Tesia bukatu ondoren lasalago biziko nintzela pentsatzen nuen, baina orduan titularitatea atera behar nuen. Hori bukatzerakoan, 1992an euskaltzain oso egin ninduten eta orduan...

Iruditzen zait lasaitasunarena jubilazioaren ondoren etorriko zaidala. Beti ilusio horrekin, beti lasalago bizitzeko ilusioarekin. Askotan esaten didate bizitza bakarra dela eta disfrutatzeko denbora beharko nukeela... Horretan gehiegi ez pentsatzen salatzan naiz, lan piloa egiteaz gainera deprimitzea besterik ez zaidalako falta.

Gauza da, tarteka, lau egun edo astebete libre lortzen dudanean, marabilla bat iruditzen zaidala.

Zentzu horretan, nire ilusioa hauxe da: lana bukatu ondoren, etxera iristen naizen orduan iristen naizela, papera bertan behera uztea. Sekula lortzen ez dudana, noski. Batzuetan, asteburu osoan ez dut lanik egiten, baina kontzientzi txarra egiten zait, hortxe dudalako egin beharra, zain.

Askotan izan diet inbidia ordutegi jakina dutenei. Seiak, zazpiak, iristen direnean, pertsiana bota edo altxa inahatik eta kitto. Nik, agian, Unibertsitateko bukatuko dut, baina beti dut Euskaltzaindirako txostena, ez dakit zer irakurtzeko edo zuzentzeko...

Beharbada, garen belaunaldikoak gara eta hori bizi garen arte ordainduko dugu. Gu militantismoaren belaunaldikoak gara, diruari begiratu gabe beharrezkoa iruditu zaiguna egin dugunak. Bestalde, aukera asko izan ditut eta gizartearengandik jasotakoa gizarteari itzuli nahi diozu. Horregatik sentitzen dut, batzuetan, ez daukadala ezetz esateko eskubiderik.

Laneko gauzak, etxeak, bestelakoak... Beti duzu kontzientzia txar pitin bat, etxekoei denbora gutxi eskaintzen diezula edo... Baina uste dut heste eredu bat ematen dieldala. Batez beste, uste dut alabak harro daudela amaz.

Ikaragarri gustatzen zaizkit esku lanak, bata puzzleak ere. Baina ez dut astirik. Handia naizenean horrelakoak egingo ditut, edo jubilatzerakoan.

Denean dirdiratsu

PATXI ALTUNA

Duela urte asko ezagutu nuen Miren Azkarate, Deustuko Unibertsitateak Donostian duen egoitzan, ikasle gisa. Sasoi hartan plan zaharra zegoen indarrean, bi urte sarrera gisa eta beste hiru espezialitateak egiteko. Sarrerako urte haietan ez zegoen Donostian aukera handirik, grekoa edo arabea aukeratu behar ziren. Kosta zitzaidan arabeko Irakaslea aurkitzea baina, azkenean, lortu nuen: Persiako emakume bat, Donostiarra ezkondua.

Mirenek arabea aukeratu zuen. Eta, gainerako gai guztietan bezala, nota ezin hobek ateratu zituen. Gero, Filo-

logia erromanikoan ere nota handiak irabazi zituen. Errebalda egin zuenean bezala, dirdiratsu.

Gero, EUTGn hartu nuen, irakasle izan zedin. Unibertsitate ofizialera irakasle joateko aukera izan zuenean, huraxe aukeratu zuen, baina gu erabat utzi gabe. Aukeratu beharrean zegoela esan zitoten arte.

Mirenek utzitako irakasgala niri leporatu zidaten eta aitortu behar dut (umiltasunik gabe) nik mila aldiz okerrago egin nuela.

Joan zen Euskal Herriko Uniber-

tsitatera eta handik pixka batera Salabururen ekipoa sartu zen, buru-belarri. Ez naiz Unibertsitatean egin zuen lana juzgatzeko proposena, baina edonork daki zenbat eta zein ondo egin zuen lan. Lau mila irakasle eta langileren buru izan zen urte batzuetan, eta hori ezin denazake edonork egin.

Tesi doktoraletan Mitxelaren zuzendaritzapean egin zuen eta cum laude atera zuen.

Gero, Euskaltzaindian hutsune bat gertatu zenean, Miren proposatu genuen, eta irabazi egin zuen. Nik uste dut Euskaltzaindiaren lorpen onenetakoa izan dela.

Aurpegia begiz josia

A.U.

Traje beltzez jantzia dator, txaketa entailatua paparreraino lotua, gona belauan gaintetik, galtzerdi finak, tinkoirik gabeko oinetakoak. Barrutik, eskumuturretik soilik ikusten zaion txanbra zuria eta zetazko zapi koloreztatua lepoan. Urrezko belarritakoak eta eraztuna.

Ilea motz, pintzelkada horailaz apaindua eta aurpegia begiz josia. Begi grisak; urre- edo kobrez zipri-

tinduak. Hor, telebista edo zinemako pantailetan bezala, denetik sartzen da, denetik gertatzen. Hor igaritzen diozu noiz ari den ikasitakoa errepikatzen, noiz gaineratzen zaion kortesia pazientzia faltari, noiz ukitu diozun benetan kezkatzen duen zerbak edo noiz ari den erakutsi nahi


ez duena gordetzen.

Etorri handikoa eta ordenatua hizketan, hasitako esaldi gehientsuenak hikatzen ditu, eta ez du haria galtzen, eraginkortasunaren ohoretan, dudarik gabe. Sarritan, azazkal zainduz apaindutako eskuak mahai gainean gurutzatuak dituela egiten du hitz, espantu gutxiarekin, hitzaren botereari makurtzera ohiturik dagoenaren moduan.

elkARRIZKETA

Ramon Saizarbitoria
Idazlea

Literaturaz maitemindurik



Soziologoa da bizibidez, eta idazle tarteka. Euskal nobelagintza modernoaren sortzailetzat hartu izan du zenbaitek, berak ohore hori lotsaz ukatzen badu ere. Dena den, gure kulturaren zutabe nagusienetakoa da. Eta beltza ikusten du mundua.

■ TESTUA: ARANTXA URRETABIZKAIA
■ ARGAZKIAK: SARA SANTOS

«Ez dakit denbora zertan joan zaidan»

Idazle gisa daramatzan urteak kontuan hartzen ez baditugu ere, betidanikoa du Saizarbitoriak literaturarekiko atxikimendua.

«Nik uste dut literatura irakurtzera hiltzaten nauena besteen esperientzien berri izatea dela. Hori da nik ere eskaini nahi dudana. Uste dut hori literaturaren alderirik serioenetakoa dela, nik gehien miresten dudana.

Esan dezadan niri liburu batzuek eta idazle batzuek adiskiderik minenek sekula esan ez didatena esan didatela, besteen bizitzaren alderdi ilun eta intimoenak erakutsi dizkidatela. Laburuetan aurkitu ditut nire inguruan sumatzen ez nituen gal-

dera eta erantzunak, lagunartean sekula aipatzen ez ditugunak aurkitu ditut nik literaturan.

Idazterakoan ere hori eskaini nahi dut nik, pertsonen arteko harremanei buruzko (berezihi gizon eta emakumeen arteko harremanei buruzko) hausnarketa. Nik bikote baten istorioa kontatzen dudanean, horixe nahi dut, irakurleak hausnarketa egin dezan, horretaz hitz egin dezan».

Gizonak eta emakumeak

«Gai interesantea iruditzen zait, beharbada gairik interesgarriena, orain behintzat politika baino gehiago interesatzen zaidana.

Nik uste dut horregatik izan naitzela literaturazalea, gai hori interesatzen zaidalako.

Ni beti emakumez inguratuta bizi izan naiz. Orain andrea eta bi alabarekin eta lehen-hori baino erabakigarriago- txikitari eta gaztetan, ama alargunarekin eta arreba nagustarekin bizi izan naiz. Hori bai dela erabakigarria.

Halere, ez naiz horretan aditua. Are gehiago, nire pertsonaiaren bat ausartu izan da, baina ni ez naiz orokortze handiak egitera ausartzen. Eta emakumeen batek ni 'gizon' generikoaren barruan sartzen banau, beti esaten dut gizonen artean ora denotarik egongo dela. Badira, zoritxarrez, gizonak bezalakoak diren emakumeak eta, alderantziz, badira gizon potahleak ere.

Oro har, jakinik orokortze hori sinplekeria izan dattekeela, nik uste dut emakumeak baduela bere kulturagatik edo ez dakit zergatik- gertatuko dena alde aurretik jakiteko ahalmena. Gizonazko, berriz, edo ni behintzat, ikusi arte ez gara enteratzen. Esperientzia behar dut, eta orduan konturatzen naiz gaizki egin dudana ala ez. Emakumeak, ordea, askotan alde aurretik daki hori.

Gainera, gauza bat da diagnostikoa egitea eta bestea zuze bizitza aldatzea. Diagnostikoa argi daukagu honezkeru. Ordenarekin antzeko zerbait gertatzen zait. Zenbat aldiz esaten ote diot neure buruari ordena pixka bat sartu behariko nukeela nire bizitzan, errazago izango litzatekeela guztia ordena pixka bat banu. Alferrik, ordea.

Azken liburua idazten ari nintzela ulertu nuen, jeneralean gizonazkoak balidarragoak garaela maitasun kontuak ulertzen, gure ulimen afektiboa eta emozionala eskasagoak direla. Salbuespenak salbuespen, emakumeak trebeago dira horretan, maila afektiboan hakarririk uler ditezkeenak ulertzen. Hor bai naitzela ni, askotan, arrazionalistegia».

Aitarenguruan

«Aitarekiko edo amarekiko harremana ere interesatzen zait, baina bestea gehiago. Amarekiko harremana da, adibidez, 'Ene Jesus' en ardatza. Beti eman izan diogu garrantzi handiagoa semeak amarekin duen harremanari, semeak aitarekin edo alabak amarekin duenari baino. Beti gure ama horrekin bueltatzen, gure gaitz guztiak hortik baletoz bezala. Askok ikuspegi horretatik aztertu izan du gure egoera politikoa ere, semeok amarekin izan dugun edo dugun harremanetan



oinarririk. Argitaratu berria dudana nobelaren azken atalean aita-semearen arteko harreman landu nahi izan dut, eta getora ere kontu hori gehiago sakontzeko asmoa dut.

Ez dut amaren garrantzia ukatuko, baina aita ere hor dago. Aita nazionalista, aita karlista, aita frankista... eta uste dut asko dagoela hor aztertzeko. Neurri handi batean, gure izateko modua, gure jorria psikologikoak eta abar atak taxutzen ditu.


Aita nazionalista izan genduenok pentsatu izan dugu asmatu egin zuela egiarekin, aita gerran gaitzaila izan zela, baina ideietan eta etikoki garaitu izateak eta gauza horiek eragina izan dute gure egoera politikoan. Bestalde, kuriosoa da aita karlista edo frankista izan zutenak nola ari diren oroitzen hura erredimitzen.


Beste gauza bat ere ikasi dut azken liburua idaztean. Umetan, esperantza duzu noizbait egingo zarela heldu, eta uste duzu gizon

Liburu eta idazle batzuek adiskiderik minenek sekula esan ez didatena esan didate»

bilakatu ondoren ez dituzula txikitari dituzan beharrik izango: teboak ezkontuan irakurri edo, eskolan zauden bitartean, errekrearen zain egon...

Pentsatzen duzu, handitzera-koan ez zaitzula hori gertatuko. Konturatu naiz ezetz, ez zaitzizula gauza horiek josten. Inlegetan jendeak teboak ez baina egunkariak irakurtzen dituela ezkontuan. Nik gizonazko gehienek hori ikusten diet. Ikusten ditut NATOko buruzagien bilerak, adibidez, eta iruditzen zait bata arratsaldeko golf partidan pre-





DISTRAITUA.
«Txorradetan
distraituta»
bizi izan ote
den ustea du
Ramon
Saizarbitoriak.

ii Gizon eta emakumeen arteko harremanak dira orain niretzat gairik interesgarriena»

tsatzen ari dela, bestea zer afulduko ote duen... gutxi axola zuena bileraz balitz bezala. Umeak bezala. Hori idatziz deskubritu dut, eta aurkikuntza penagarria izan zen. Heldutasuna ez datorkizu berez, garaiera edo pisua bezalaxe. Zerorrek lortu behar duzu, zerorrek landu».

Memoriarik eza

-Eta bai, urteek laguntzen dute, ikasten duzu. Ni orain ausartzen naiz esatera gehien axola zaidana emakume-gizon harremanak direla, eta gaztetan agian ez niri-

ii Duela urte batzuk lortu genuen eduki genezakeen momenturik hobereana»

Izen ausartuko. Baina ez dut gogoratzen zer pentsatzen nuen orduan gai honi buruz, ez dakit interesatzen ninduenik ere. Nire impresioa da distraitua bizi izan naizela. Ez dakit zeintan, baina distraitua. Eta ez gauza garrantzitsuetan, txorradetan baizik.

Duela gutxi, Suárezen alabari entzun nion bere aita Moncloan zegoen bitartean garai garrantzitsua bizi izan zituela, lehen ilarako lekukoa izan zela, baina orduan ez zuela horren kontzientziarik izan eta orain kontzientziaz delatzer nolako aukera

ii Kezkutzen nauena da ez garela gure benetako arazoez kezkatzeko gai»

galdu zuen. Bada, horrelako zerbait gertatzen zait neure bizitza propioarekin.

Iraikitzen dut mire gazte garai-kronikaren bat eta ez dut ezer gogoratzen, egon nintzen lekuetan egon izan ez banintz bezala. Orain behar dut jakin, eta ezin dut. Bilaketa izugarria egin beharho nuke jakin ahal izateko. Ez dakit denbora zertan joan zaidan».

Ni ia errenditua nago, bizitzaren aurrean errendituta eta ez naiz batere tragiko jartzten hori esatean. Kanpotik ere ez dut ezer askorik espero. Duela urte batzuk

bai, interesgarria zegoen mundua eta pentsatzen nuen gauzak hobe zitezkeela, lan eginez, bultzatuz...».

Garai ilunak

-Gaur, herriz, iruditzen zait atzera egiten ari garela. Duela urte batzuk lortu genuen eduki genezakeen momenturik hobereana, trantsizioan, eta beranduago ere bai. Jendea gauza gehiago onartzeko prest zegoen euskal kulturaren eta euskararen beraren aldetik, baita Euskal Herri oso bat helburu politiko gisa ere.

Nik uste dut armistizioa egin-go dugunean, auskalo noiz, euskal abertzaletasunari loturik egon diren baloreak, euskara bera barne, oso egoera eskasean egongo direla. Guk, oraindik, dagokigun lekura joan behar dugu eta leku hori xumea da. Nik euskarari berari etorkizun kezagarria ihusten diot. Uste dut ez dugula asmatzen, ez garela euskarak beharho lukeen politika pragmatikoetara jaisten.

Kezkutzen nauena da ez garela gure benetako arazoez kezkatzeko gai. Distraituak gaude hain larria den arazo horrekin, eta ezin dugu beste ezertaz arduratu. Pena ematen dit ikusteak gaitzaile direla operazio honetan euskaldungoa, euskal kultura bera eta gure izateko modua.

Nik uste dut badugula herri bezala izateko modu bat, gauza onak eta txarrak dituen. Gauza onen artean daude errebeldia, instituzioen aurreko jarrera errebeldia, militarismoaren aurkako jarrera...

Egia esan, ez zaizkigu falta kezkatuta egoteko arazoak: uranio pobretua, behi zoroak, eguzker petroliotziren bat lehetzen da eta itsasoa kutsatzen du. Bisigua desageritu da, legatza ere joan zen, laster joango zaigu txilxarrea ere...

Bitartean, gure arazo nagusienekin distraituta gaude, eta horiek ez digu gure etorkizuna lantzen uzten, ezta munduan gertatzen ari diren arazoez kezkatzen ere...

NORTASUN AGIRIA
RAMON SAIZARBITORIA

1944
Donostian jaioa. Arreba zaharrago bat du.

1967
Beste lankide batzuekin batera, Lur argitaletxea sortu zuen, Elizari loturik ez zegoen lehen euskal argitaletxea.



ZINEGOTZI
Donostiako Udalean zinegotzi izan zeneko da argazki hau. Ordurako ezaguna zen Saizarbitoria literaturgintzan.

1969
Egunero hasten delako eleberria argitaratu zuen, askok gure nobelagintza modernoaren hasapentzat hartu duena.
«Aitortu behar dut behin baino gehiagotan barregarri sentitu izan dudala neure burua nobela modernoaren sortzaile paperean, ia nobelarik eta nobelagilerik ez zegoen garaian».

1976
Ehun metro nobela argitaratu zuen.

1979-1983
Euskadiko Ezkerra alderdiko zinegotzi izan zen Donostiako Udalean.
Hainbat aldiz jasoa du Kritika Saria: 1982an *Ene Jesus*gatik; 1995an *Hamaika Pauso*gatik; 1996an *Bihotz* bigatik.




BELAUNALDI BEREKOAK
Patri Uzkizu, Bernardo Atxaga eta Saizarbitoria Galeuzkako bilera batean. Adin beretsukoak dira, baina bakoitzak bere bidea egin du literaturan.

1992
Rikardo Arregi kazetaritza saria irabazi zuen.

1994
Eusko Jaurlaritzaren I Sustatu saria jaso zuen, soziologo gisa egindako lanari eskainia.

2001
Oraingoz azkena duen nobela argitaratu du, *Gorde nazazu lurpean*.

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa zentroko zuzendaria da.
Donostian bizi da eta bi alaba ditu, 21 eta 22 urtekoak.



MIKEL CASAL

Pertsonaia sentiarazi

RAMON ETXEZARRETA

nik, gauza serioak aipatzeagatik. Hutsalagoak aipatuz, berriz, bada tabernari edo kioskero, bi frankizia motari buruzkoa besterik eragingo ez dionik. Fido itulureko orduz gain egun-argitako ordu bat bera ere galaraziko ez dionik. Idazle mekanikoak dira eskuarki, konbenlopekoak.

Bada, ordea, Saizarbitoria bezala idazlearen begiradatik gabe ezer begira ezin duenik. Diferentzia da. Gauzak era bakarrean ezin ditu ikusi. Ikusitakoak era bakarrean ezin ditu kontatu. Kontatutakoak modu bakarrean ezin ditu irakurri. Irakurritakoak mila era ezberdinetan ez bada ezin dira ez

gertatu ez irudika. Ebidentzia guztiak dira narraezinak eta narratutako guztiak dirudite ebidentziak. Oronen larruan jartzen ez dakiena ez da idazlea, eta baldin bada ez zait piperrik inportta.

Konta jezaioztu Ramon Saizarbitoria harro koskor horri zeure atsekabea edo poza; egileak ulertzen duen pertsonaia sentiaraziko zaitu, istorio garrantzitsuetako pertsonaia. Zer gehiago eskatu behar diozu inori? Modutsu, dotoreziaz...

Gaitzakeria askoren maisu, lotsarik gabe donostiar izatearen neurri, hain... non gezurra irudien euskalduna denik. Hogeita batgarren mende hasieran sentitzen ditugumetakoak, behintzat.

Zuri-beltzean

A.U.

ratzen zaitu behetik gora eta ez aldearantziz.

Zakar fama du, agian ondo merezita, baina galderetara zintzoki makurtzen da, aldez aurretik bere lanaren aldeko edozein hitz ukatuz. Bizkarra -zalantzen eraginez- gora eta beheara astinduz egiten du hitz, askotan soa mahaian gaitzean, izan zen ikasle

klandestinoari leial.

Entzuten ere badaki, eta ez zaio ahazten tarteka zertan ari den adieraztea.

Lantokian egin dugu elkarrizketa eta bere bulegora sartu baino lehen, oheak egin gabe harrapatzen duzun etxekoandrea bezala, barkazioa eskatzen du; liburuak edonon, han eta hemen Modiglianijren koadroak, eta bazter batean Brel eta Brassens, zuri beltzean.

elkARRIZKETA

Xabier Euskitze
Komunikatzailea

Lilurak liluraturik bizi dena



Puntaren puntan egon zen bertsolari gisa, eta leku berean dago orain *Sorginen laratzarekin*. Gaztaroaren azken urtea ari omen da bizitzen, ahotsaren bidetik.

■ TESTUA: ARANTXA URRETABIZKAIA
■ ARGAZKIAK: SARA SANTOS

«Ez diot inolako erreminik bertsolarietzari»

Beltzez jantzia dator, goitik behe-
ra eta beheetik gora. Berehala giro-
tzen da eta bertsolarietara liluratu-
tako mutikoa ekartzen du gogora.

«Las Vegasen izan berria naiz,
eta han ikusi dut munduan ikus
daitkeen espektakulatik huan-
dienetako bat, show liluraqarri
bat. Hala eta guztiz ere, niri ber-
tsolarietara sortu zidaten lilurare-
kin eta xarmarekin konparatze-
ko ez da. Oraindik ditut gogoran
jendearengan sortzen zuten irri
hura eta malloak».

Handik gutxira, mutiko hura
bertsolari egin zen eta miresten
zituena baiekin hasi zen laucan,
plazaz-plaza, jendearengan irriak
eta malloak eragin nahian.

«Bertsolariak erregistro asko
landu behar izaten du. Nik uste
dut badudala berezko joera bat,
oso garbia eta disimulatu nahi
izan ez dudana. Nire diskoa en-
tzelean ere batek baino gehiagok
esan dii triste puntu bat baduela.

Bertsolan umorea asko landu
izan dut, eta oso gustuko izan
dut. Baina, aukera jarritz gero,
nik, normalean, lirrikotasunera-
ko joera gehixeago izan dut.
Orain umorezko saio baten gida-
ri naiz, eta horrek beste aurpegi
bat landuarazi dii. Pentsatzen dut
oraingo Fuskitze hau ez dela
lehengoa baino egiazkoagoa edo
autentikoagoa, baina alderantziz
ere ez nuke esango».

Aipatu du, lehen aldiz, bere

burua beste norbait balitz bezala,
hitugarren pertsonan. Beste bat-
zuetan Xabier deitzen dio bete
buruari, pertsonaia publikoaren
ordez kaleko pertsona azpimarra-
tu nahi duenean.

Urratsaren zergatiak

Urte gutxiren buruan hasi zen
bertsolariaren elitean parte hart-
zen. Hala eta guztiz, duela bi
urte, hogei eta hamabi zituela-
erretiratu zen arte.

«Beharbada, momentuan bizi
nuen egoera pertsonalak ere era-

man ninduen horretara. Baina ez
nuen pauso hori emango aurretik
mila aldiz hausnartutako gaia
izan ez hain».

Bertsolarako ilusioa ezinbeste-
ko bidelaguna da. Ni bertsolari
lilurak eraman ninduen, niretzat
maisu izan zirenak gero tablado-
an lankide izatera pasatzeak sor-
tzen zidan harrotasunak.

Gero, pixkanaka-pixkanaka,
lilura hark indarra galdu zuen
eta, halako batean, neure burua-
ri esaten nion: 'Merezi al du ber-
tsolan jarratzeak, eguna iritsi-
takoan pozari perez eta gogorik
eza nagusitzen buzoio...'

Egoera politikoa ere hor zego-
en. Entzuten nuenean bertsolari-
ritza anitza dela, beti pentsatzen
nuen ez zela hain anitza eta ni
hor egotearen behar pixka bat
bazeukala, besterik ez bazen ere
aniztasunari eusteko, hori defen-
ditzeko».

Politikaren hotsa

«Arlo politikoari lotzen bago-
tzaizkio, dudarik ez dago ni er-
retiratu nintzen garaian -eta gaur
ere- elitean dabiltzan bertsolari-
aren joera jakin baten nagusi-
tasuna oso nabarmena dela. Eta
nik norberaren askatasuna defen-
ditzen dut, edozein arlotan, eta
joera den-denak direla zilegi.

Baina nik nituen eta ditudan
pentsamenduak, bahegintzaz eta
herri honen burujabetzaz eta gure

borrokez eta nahiez ditudan ikus-
pegiak eta pentsamenduak izan-
nik, dudarik gabea da, eta inola
ere eztabaida ez daitkeena, bes-
te zenbait pentsamendu eta iritzi
izatea baino deserosoagoa dela
herriz-herri ibiltzeko, batez ere
zenbait giro eta lekutan.

Egiten zuten jaialdietan bat
bahituta zegoen pertsona baten
askapena eskatzeko eta nire ize-
na izaten zen baharra. Beti jarre-
ra, pentsamolde edo eskakizun
jakin batzuen bertsozko bozera-
maila izan beharra, eta baharra,
gainera. Zenbat aldiz oldartu na-
zaion neure buruari eta saio
horiek antolatzen zituztenei ere
esan nien ni aspertuta nengola,
nazkatuta eta besteren bat aur-
kitzen saiatu behar zutela. Ni
konturatzen nintzen, hain hiri
eskatzen nien bitartean, eskula
erantzunik lortuko ez zuten deiak
proposatzen nizkiela.

Ez dut ukatuko momentu bat-
zuetan bakardade pixka bat bizi
izan nuenik eta, zenbait momen-
tutan, hoztasun apur bat ere bai.
Eta, zergatik ez esan, kontrako
jarrerak ere bai, behin baino
gehiagotan.

Horrek ez nau ikaratu izan.
Banekien zenbait gabeziari aurre
egiteko prest egon behar nuela,
eta hori ondo nireganatu nuela
uste dut.

Betebehar baten amaiera ere
izan zen hura. Nik, garai batean,
neukan dena eman nion bertsolari-
aritzari. Berak ere asko eman
zidan, eta ez dut uste ez berak
nirekin ez nik berarekin zorrik
daukagunik. Ez diot inolako erre-
minik bertsolarietzari. Baina
bukatu da, oraingoz behintzat.
Geroa ez dut asko imajinatzen.
Nork daki bertsolarietzara itzuli-
ko naizen... Nik, neronek, ez ditut
ateak itxi, badakidalako mun-
duak buelta asko ematen duela
eta, beharbada, hurrengoak horre-
tara eramango naudelako».

Gau txori

«Beharbada, ez naiz oraindik
jabetzen bertsolarietzari nire bizi-
tza izan duen eraginaz. Baina
tarteka gogoratzen ditut momen-
tu bereziak, jendea sortu izan
dizkiodan algarak edo atera izan
dizkiodan malloak...»

Ez dut uste bertsolarietzara nire-
ak nire bizitzara gehiegi aldatu due-
nik. Kaleko Xabier, behintzat, ez
da aldatu. Gogoran dut behin,
aspaldian, larruzko zamarra
batekin joan nintzela saio batera
eta sekulako begiradak jaso behar
izan nituela. Eta zer esanik ez
belarritakoaren kontuarakin.

Bestalde, ni betidanik naiz gau
txori. Telebistan nahiz bertsolan.

11 Elitean dabiltzan bertsolariaren artean joera jakin baten nagusitasuna oso nabarmena da»

11 Askotan izaten dut kezka ez ote naizen gauza gehiegitarra eta ezberdinegitarra makurtzen»



BERTSOLARITZA. Ez du erabat baztertu horretara itzultzea.





11 Tarteka gogoratzen ditut jendeari sortu izan dizkiodan algarak eta malkoak»

11 Kaleratu berri dudan diskoan dago Euskitzerik naturalena eta barnekoiena»

Nire gorputza aspalditik dago horretara jarrita eta niretzat goizeko hamarretan jaikitzea beste batzuentzat goizeko seieta jaikitzea bezala da».

Barrua hustu

Telebistan egindako lanak uzten dizkion tartectan ez da Euskitze egonean gelditzen. Horren lekuko, duela gutxi argitaratu duen diskoa.

«Askotan izaten dut kezka, ez ote naizen gauza gehiegitarra eta ezberdinegitarra makurtzen. Baina nire lan guztiak komunikazioarekin lotuak daude, baita ahotsarekin ere. Kantua berri ere ezin esan niretzat arrotza denik, nire bizitza erdia plazaz plaza kantuan pasatu dudalako.

Disko hau behartu gabeko zerbait izan da, denborak berak eman didan aukera. Pentsatu izan nuen, inoiz, disko bat egin nezaieela, beste askok egin duen bezala. Euskitze ez da pauso hori eman duen lehena izan, ezta gutxiagorik ere.

Ez nartzate bertsoei lotu, beste alor batzuk jorratu nahi izan ditut. Bertso kutsua berez ateratzen zaidan zerbait da, inondik ere ezkutatu nahi ez dudana zerbait. Nik uste dut disko horretan dagoela Euskitzerik naturalena eta barnekoena.

Gainera, instrumentazioarekin kantatzea sekulako gozatua izan zen eta bertsoan bizi izan ditudan momenturik liluragarrienekin konpara zitezkeen sentipenak bizi izan ditut.

Baina ez dakit hemendik bi urtera orain izan dudana gogo eta irrikia izango dudana, berriz ere pauso berbera emateko. Baletor, primeran; ez baletor...

Ni neu ez nahiz ekimen handikoa, ekimena izateko denbora ere behar delako, besteak beste. Egunerokotasunean gehiegi murgilduta nago, hortik aterako narten proiektuak landu ahal izateko, asmo horiei nire ahalegina eta izerdia eskaintzeko.

Orain arte egiten ditudan gauzetan onarpen maila ona lortzeko suertea izan dut, eta horrek ekarri dit bat edo beste antzeketako suerte itagarria. Gainera, ez dut nik gauzak eskatzeko baho. Nahiz eta disketxean konfiantzako jendea izan, lotsa emango lidake 'hiz' irudiltzen zaik: nire disko bat argitara emango al zenukete' esaka joateak. Segurasko, nik neuk neue kabuz ez nuen sekula pauso hori emango.

Hori bai, besteek eskainitakoa izateak ez du nire buruarentzat arrotz denik esan nahi. Baina, behar bada, egun batean eman beharreko pausoa bada nork bere proiektuak bultzatzearen ere».

Eta bista mahaiten puntu zehatz batean finkatu du, puntu hura etorkizuna antzematen uzten duen zirkuitua balitz bezala.

NORTASUN AGIRIA
XABIER EUSKITZE

1966
Ekainean jaioa, Azpeitian. Anaia gazteagoa du.
«Hogeita hamalau urtera arte kontsideratzen omen da pertsona bat gaztea eta hortxe nago ni».
Hamalau urtez egon zen Loiolako ikastolan. Ikastola kurnea da, beraz. «Nire lehenengo andereñoetan, Konbu Odriozola azaltzen zait».



1979
Lehenengo aldiz jarri zen jendaurrean bertsoan.
1982
Urtebete egin zuen Lekarotzeko internatuan. «Lehenbiziko soldadutza».

Hastapenak. Gazte-gaztetan hasi zen telebistan, Argazkia Azken Txanpa saioa aurkezten zuenekoia da



Bertsotan.
Andoni Egañarekin batera, 1989ko Txapelketa Nagusiko finalean. Punta-puntara heldu zen, baina handik gutxira erabaki zuen bertsolaritza uztea.

1983
Donostiako Santo Tomas lizeora joan zen, ikasketak amaitzera. Ordurako hasia zen irratirako lanak egiten.
1988
Bertsolaritza utzi zuen, abenduan.

Sorginen Laratza
Saio hori beste batzuekin taitekatzen badu ere, horrek eman dio, nolabait esateko, irudi berria.



1999
Sorginen Laratza saioaren hasiera, ETB1en.
Donostian bizi da. «Ezkonduta nintzen, baina ez zen ongi aterata bi urtera bereizi egin ginen. Orain, berriz ere, neska laguna daukat. Duela urte pare bat hartu nuen Donostian bizitzeko erabakia, eta uste dut oso aberagarrria izan dela niretzat, Azpeitiatik ateratzea hautsi beharreko kate-maila zela. Orain inguruan dudan mundua askoz ere irekiago da. Gainera, itsasotik hurbil».



MIKEL CASAL

«Hori hizketie»

JOXE MARI ARANALDE

Errezildar bati atera zitzaion harridurazko hasperen hori. Bertsolaria da bera, edo erdi egokitasauna, horrelako ateraldi bat eragiteko errezildar bati. Iltzaren maisurik non da herri honetan baino harrigarriagorik? Nongoak dira, izan ere, Baserri handia, Maria Dolores ederra eta Atxukarro grazizkoa? Bai, besterik bada eta, hitz egokiaren jabea da Errezil. Hala ere, «Hori hizketie» zioen, herri kamutsa ez den batek, Euskitze bertsotan entzunda, Azpetiko frontoian.

Ni, ordurako, harrিতua ninduen Xabier Perez azpeitiarrak. Zabalegin izan zen. Eskolarteko sariketa bat zen. Lehenik bertso idatziena jarri zuten,

Zabalegi nekazal eskolan. Han irakurri nituen, lehenengo aldiz, Euskitzeren bertso idatziak eta han ninduten harritu egokitasez. Gero izan ziren bat-batekoak eta han txapela jaso zuten. Bigarren gelditu zen idatzizkoetan.

Nik ez nekien zein zen. Ez nuen aurpegiz ikusia. Bat-batekoetan ezagutu nuen mutikoa.

Handik hilabete batzuetara egin nuen topo berarekin aurreneko aldiz. Bertso idatzi haletako zenbait esaldi eta errima gogorarazi nizkion gure mutikoari, Harritu zen.

Geroago, ikasle izan nuen Santo

Autoargazkia

XABIER EUSKITZE

Ez dakit astroek zenbaterainoko garrantzia daukaten, baina ni Geminis naiz eta honek, gutxienez, bi aurpegi ditudala esan nahi du. Nire kasuan, beharbada, hori oso markatua da.

Dezente lotsatila naiz, askotan, gaitza elementaleentarako ere lotsa sentitzen duena. Komunikatzeko zailtasun handiak dituen, dezente burukoia, bakardadezalea ere bai, bakarrik bizitzeko zailtasun handiak izanda ere. Norbaitekin bizitzeko premia dut eta, aldi berean, egunean pare bat ordu behintzat bakardadean pasatzeko beharra sentitzen dut.

Xabierrek, benetan, komunikaziorako zailtasunak ditu. Ikusten ditut nik inguruan mikrofono bat edo kamera bat aurrean jarrita ezentarako balio ez duen jendea, baina, aldi berean, edozein ezezagunekin amustadea egiteko erraztasun ikaragarria duena.

Niri alderantziz gertatzen zait. Kamera baten begiratuari eustekak ez dit batere errepatorik ematen, guero sei kameraren aurrean aurpegia emateak eta edozein ziminokria egiteak ere ez dit batere lotsarik, heldurrik edo ikararik sortzen.

Bakarka, ordea, beste pertsona baten aurrean egiteko zailtasun handiak ditut. Errazagoa zait begirada askoren aurrean egotea, bakararen aurrean egotea baino.

Tomás Lizeoan, Donostian. Ez ninduen harritu ikaslez. Astelehene goizetan lo egiteko baimena eskatzen zidan nire Filosofiako klaseetan eta pozik ematen nion nik, besoak mahai gainean tolestaturik eta haletan burua pausatuta, amets egin zezan. Bete egiten zuten amets klaseetan, bere munduan sartuta egoten baitzen.

Lagun nauka Euskitze. Bere disko berria kanta bat eskaini ere egin dit. Lotsa ematen dit. Eta zer egin nik? Eskertu, merezi gabeko lagun baten aitormena. Esatari ofiziala dauka orain ere, nahiz frontoietan nahiz Sorginen Laratzen. Bena du hitzaren egokitatasun miresgarria. Eta errezildar harekin batera «hori hizketie» esaten segitzen dugu guk. Urte askoz. Xabier.

Irriak eta malkoak

A.U.

Esana dagoenez, beltzez dator erabat, burutik oinetara, eta horrek bi puntu azpimarratzen ditu, edo hiru. Bata, zilarrezko belarritakoa, ezkerreko belarritik askatasuna aldarrikatzen duena. Besteak begietan daude. Berdexkak, niñaren ingurura hurbiltzen diren eran lur lehorren kolorea hartzen dutenak.

Aurreko mahaian finkatzen du soa maiz. «Diotenez, gora begiratzen duenak gauzak irudikatu egiten ditu eta behiera begiratzen duenak, berriz, bere barruan bila ari delako omen da». Barruan aritu da bila, beraz.

Handik atera ditu, fresko fresko.

ondo organizatutako artiboien modura, era guztietako oroitzapenak.


Arretaz entzuten du, puntuaren zain dagoen bertsolariak bezala. Arretaz, baina ez luzaroan. Kontua nondik norakoa den ulertu bezain laster abiatu da, eta orduan arreta bera espere du. Eskatzen du, exijitzen du.

Eta, horrekin batera, agian irribarre bat edo malko bat.

elkARRIZKETA

Antton Olariaga
Marrazkigilea

Marrazten gozaten duena



Marrazkigilea da, Zakilixuten *aita*. Bere eskutik sortutako pertsonaia honek 25 urte daramatza gure artean: *Eginen* lehenik, eta *Euskaldunon*. *Egunkarian* azkeneko hamar urteotan.

«Paperezko filma izan da beti niretzat komikia»

«Nire ofizioa adierazteko, esplikazio ghegi eman gabe, marrazkigilea naizela esan ohi dut. Beste batzuek nahiago izaten dute ilustratzaile edo... Behin, Hazienarekin harremanetan, eskatu zidaten zer ez nintzen azalduko zuen agiri bat, alegia, ez nintzela delincantea, ez nintzela marrazkilarik tekniko... Esan nien zirrikoko domadorea ere ez nintzela eta ea horri buruzko ziurtagiria ere behar zuten. Segituan sartu ninduten bailarina, titiritero eta horiekin. Eta ni harro, oso pozik, benetan, konpainia horrekin».

Izan zitekeen domadorea, bai-

ta titiriteroa ere, baldin eta lan horiekin gozatzen ikasi izan balu.

«Nik, batez ere, marrazkigintza joko bezala hartzen dut, joko dibertigarri gisa. Pintore batek, agian, beste zerbaite esango du; hitz dramatikoagoak erabiliko ditu, agian. Hori folio zuria aurreko beldurru bezala da, hainbestetan aipatu izan dena. Niri ez dit batere beldurrik ematen. Alderantziz, niri zoragarria iruditzen zait folio zuria, crakargarrria.

Badakit, txikitik, askori mugatu edo egiten ziotela komikiak irakurtzea. Baina niri ez, eta

▣ Eskuak, ikasi egiten du eta, batzuetan, autonomo bilakatu dela dirudi»

horretan suerte ikaragarria izan nuen. Cogoratzten dut zortzi edo hamar urterekin gaixorik egon nintzela, bizpahiru aste. Ez zait ahaztu gozada hura, egun osoa tebeoak irakurtzen, auzoko bate-

kin tebeoak irakurtzen... Nik tebeo pila bat nuen etxean, eta ez nituen bigarren mailako irakurketa kontsideratzen. Etzekoek ere ez. Igual ikusten zuten neroni marrazkiak egiten saiatzen nintzela eta, alde horietatik, agian bentajaren bat ikusten zioten, mahaira eserita eta lanean ikusten nindutela».


Tebeotik komikira

«Badakit gure artean komikitari ez zaiola garrantzi handia ematen, baina beste leku batzuetan bai. Frantzian, adibidez. Gogoan dut behin, duela urte pila bat, hipermerkatu batean ikusi nuela

tebeo sekzio luze eta zabal bat eta, aldamenean, gutxienez berrogei telebista pantaila pitutirik. Eta umeak lurtean eserita zeduten, lasai eta isilik, tebeoak irakurtzen, aztertzen, aukeratzen, telebistari kasurik egin gabe. Onduan ulertu nuen zer desberdintasun zegoen gurekiko.

Niretzat komikia beti izan da paperezko film bat. Lastima marrazkilarioek ez dugula behar adina gidoigile. Gauza buzerorako gidoigileen beharra ezinbestekoa da, eta hemen inor ez da horretara jartzen. Arrazoi teknikoak ere egongo dira horretarako, baina teknika ez da menderatzen. Gainera, gidoigile batekin lan egitea, idazle batekin konplizitate lortzea... hori bai dela benetakoa gozada, benetakoa.

Kontua da hitzez eta marrazkiz kontatzen dizuten historiarekin gozatzea. Gaur egun umeek eta gazteek hezkuntza grafiko zabalago daukate, nire ustez, eta gu txikiak ginenean baino garrantzi handiago ematen zaien marrazkilarik eskolan. Eta ez kulhaturik. Kopiatzea oso ona da, gaurtik ikasten dituzulako. Kalka-



tzera, ordea, oso txarra, horrela eskuak ez duelako ikasten».


Eskua eta ordenagailua

«Jardunaren poderioz, eskuak ikasi egiten du. Hori da, hain zuzen, Arte Ederretan egiten genuena, orduak eta orduak marrazten eman. Eta diziplina hori hartzen duzunean ikusten duzu eskuak ikasi egiten duela eta, batzuetan, autonomo bihurtu dela dirudiela, bere bideak hartzen dituela eta askotan harritu egiten zarela egiten dituzun gauzekin».

Eta eskuak aski ikasi zuenean, teknologia berriak azaldu ziren zerumugan.

«Tohi guztietan hast ziren diskete eske. Eta lehenengo galdetu behar duzu zer den hori. Erantzuten dizute diskete bat plastikozko gauza txiki eta zapala dela, oso zapala. Zuk luzatu egiten duzu kontua, atzeratu, ez duzu horretan sartu nahi. Zuk zure papera eta kartulinarekin jarraitzen duzu, zure arkatzekin eta..., halako batean, hitz madarikatua esaten dizute, eskaner, marrazkiak gaixorik baleude bezala.

Bale, ematen duzu amore,



gainditzen duzu beldurra, erosten dituzu ordenagailua eta gainerako tramankuluak, eta saiatzen zara ikasten. Noshi, horretarako lagun bat behar duzu aldamenean, erakutsiko dizuna. Nik argi izan nuen, hasieratik, erosiko nituela tresnak, baina nik nahi nuenean erabiltzeko, ez zegocla diferentziarik aitzurraren eta ordenagailuaren artean, biak lanerako tresnak direla. Ez nuen ofizio herri bat ikasi nahi, ez nuen neurre burua informatikari bihurtu nahi.

Suerte handia izan nuen, eta lagun onak. Pixkanaka joan nintzen ikasten eta, halako batean, neronek esan nien Egunkariakoei Zakilixuten tira disketez emango niela. Geroztik, ikusi dut lan batzuetarako sekulako aurrerapena dela ordenagailua. Liburu azalak egiteko, adibidez.

Baina sekula santan ez zitzaidan burutik pasa papera abandonatuta uztea. Esan eta guzti egin nion paperari ez niela abandonatuko. Pintzelari ematerakoa sentitzen den plazerra, edo arkatz batekin sentitzen dena, fisikoak da eta horri uko egitea astakeria handia iruditzen zait.

Orain gauza batzuk erabat ordenagailuz egiten ditut; beste batzu, erdizka.

Zakilixut gaztea

Eginekkin batera jaiotzen Zakilixut, 1.977an. Egunero, tira gisa.

«Nire ustez, urte hauetan asko aldatu da, eta ez Lakarrik grafikoki. Esateko erak ere aldatu egin ditu, pixkanaka. Baina aldaketak egunetik egunera gertatu zaizkio, ez kolpez. Lanca grafikoa aberatsagoa da orain, errekurtso gehiagokoa, eta txura fisikoa ere aldatu egin zait. Horiak dira nik jolaserako egiten ditudan zerak, eta herak, nahitaez, parratu behar dituenak.

Agian pittin bat zahartu ere egingo zen, ingenuitate puntu bat galdu baitu. Halere, ez du oraindik harritzeko gaitasuna galdu, ezta jakin-min intelektuala ere. Zenbait gauzatan ume bat dirudi. Bestetik, ematen du irakurria

«Folio zuria zoragarria iruditzen zait. Esan eta guzti egin nion paperari ez niela abandonatuko»

«Bakean uzten dut Zakilixut, nahi duena esan eta egin dezan»

«Inor gutxik esaten dizu zerbait zure lanaz; ez duzu apenas iritzirik jasotzen»

tuko duela. Eta jakin badakit pertsonaia horren izena eta irudia erabiltzeko izan direla nigan-dik kanpo eta, maila batean, nigan-dik aparte ere bizi dela. Kartelak ikusi izan ditut, baita pankartak ere; behin izen hori jarri zioten kros nudista bati, Bizkaia aldean, edo.

Gertatu izan zait zera ere, norbait nire ondoan edo aurrean tirari begira ikustea, baihor izanik, gehienez jota ere hamar segundoz.

Tira honekin hasi nintzenan ez nekien zenbat irauango zuen, eta oraindik ere ez dakit. Honez-kero Zakilixuten zortzi milatik gora tira egin ditut, mendi handiekkin bezala. Eta egiterakoan, besterik ez bada ere bost segundotan dibertitzen banaitz, nik aurrera egingo dut, baldin eta besteei ere ondo iruditzen bazaie. Niretzat gozaila bat da papera hartu eta lehenengo lerroak egiten hastea, nabardura txikiak asmatzen astea».

Berriketa pittin bat

Gozatu hitza aipatu, birraipatu eta azpimarratu egin du. «Suerte hori dut, lanean dibertitu egiten naizela, gozatu egiten dudala. Noshi, diziplina behar duzu. Lana agindutako egun eta ordurako bukatu, eta abar. Baina tira bat egin behar dudala pentsatze hutsak motibatu egiten nau».

Eta hasten da lanean, etxean, bakarka.

«Horrek alde onak eta txarrak ditu. Teknologia berriekin eta horien inguruan sortzen diren harreman berriekin, autista bihurtzeko arriskua ere badago. Ni, batzuetan, propio, tokietara joaten naiz lana eramatera, nahiz eta telefono sareaz bidaltzeko aukera izan. Beste norbaitekin bost minutuko elkarrizketa egiteagatik, gertakizunen bat komentatzeagatik. Bestela beti, egun osoan, lau pareta artean... Horrela ere gozatuko da, ez dut ezetzik esango, baina beste gozamen batzuk alde batera uzitza».

Eta horixe bakatirik falta zen.

MARRAZKIGILE.

Bere lana definitzeko ez du beste hitzik behar. Horrekin nahikoa...

NORTASUN AGIRIA
ANTTON OLARIAGA

1946
Usurbilen (Gipuzkoan) jaioa.
Hautzaroa Donostian pasa zuen.
Arte Ederretan (Valentzia eta Bilbo) lizentziatua. Ikasketak egiten zituen bitartean, *Argian* («Zeruko zenean») argitaratu zituen lehen marrazkiak. *Anaitasunan* ondoren.



RIKARDO ARREGI SARIA.
Jon Andueza, Felix Ibagutxi eta Patziku Perurenarekin batera eman zioten.

1977
Eginen lanean hasi zen. Han sortu ziren Zakilixut eta Marizikin.
«Eginen lehenengo aletik hasi nintzen. Han ezagutu nuen zer zen erredakzio bat eta lan egiteko modu berri bat».

LIBURUAK.
Hogeitaka urte badira Anjel Lertxundi eta Olariaga elkarrekin zenbait proiektu egiten hasi zirela.



1989
Euskadi Saria jaso zuen.

1991
Rikardo Arregi Saria irabazi zuen.



ERAKUSKETA.
Antton Olariagaren obrez osatutako erakusketa antolatuta zen Donostian duela bi urte.

1993
Argia Saria irabazi zuen.
Astigarragan (Gipuzkoa) bizi da, ezkonduta dago eta bi alaba ditu. Txikiak 20 urte dauzka eta zaharrena, 23. «Hor ere suertea izan dut, alabekin. Zaharrena Arkitektura ikasten ari da eta eztabaida politikazten ditugu, diseinuari buruz, etxe bati buruz edo moda kontuez. Niretzat aberasgarria da».



MIKEL CASAL

Autoargazkia

ANTTON OLARIAGA

Nik uste dut nire lehenahiziko ezaugarria suertea dela: ni suerte handiko tipoa naiz, lanaren aldetik suerte handia izan duena. Ez naiz propio suertea bilatzen duten hortelakoa, suertea delako, igual intuizioz egingo dut, baina ez bestela. Gauza da, normalean, ondo aterata zaidakidala gauzak.

Ate joka ere joan naiz eta gauza onak iruditzen zait, gutxienez proba egiteko, eta emegatu egiten nau beste norbaitengun bultzada hori ikusten ez dudanean. Kuriositatea, interesa, gauzak aurrera ateratzeko gogoia, jakin-mina, ate joka joatea... niri baloreak iruditzen zaizkit.

Gaur egun oihanak jan egin gaitu. Duela urte batzuk erraza zen, guretzat, lan batetik bestera aldatzea, frogak egitea, gauzak ikastea... orain ez da hain erraza.

Ez naiz aise ere gelditzen gustura gauzeekin, uste dut esijentea naizela. Baina trampa egiten ere ikasi dut, neurri buruari trampa egiten. Azkenean, bi gauzen nahasketa bat gertatzen da.

Pertsona arteko harremanak zaintzen saiatzen naiz, eta amore ematea ere ez zait gehiegi kostatzen, gazte denboran baino askoz gutxiago. Adibidez, bizitzan zehar idazle asko ezagutu dut eta harreman horiek zaindu egiten ditut, harremanel eusten saiatzen naiz.

Ez dut talde eginkizuntarako joera handirik, eta gehienetan bakarka ibiltzen naiz. Ni bakarrik niretzako, nire etxean eta kitto, hori eramanezina iruditzen zait. Baina laguntzekotan, nahago bakarka. Behin baino gehiagotan sentitu izan dut neure burua erabilia, eta horrek pittin bat atzera egitera bota izan nau. Gaiak oso inportantea behar du izan ni dinamika kolektiboetara makurtzeko. Nahago izaten dut aportazioa bakarka egitea.

Zakili gurean

MARTXELO OTAMENDI

Ez diot sekula ezer ulertzen, baina *Egunhariako* ataliko onena berea da. Idatzi zigun behin irakurle batek, mezuia jaso eta irakurri genuenok aho bete hortz utziz. Olariagak, seguru aski, guk baino hobeto ulertuko zion mezuia bidali zionari. Horixe baita Anttonen ofizioa, besteak baino lehenago ulertzea, beste ikuspegi bat eskainiz, historia eginez eta istorioak osatuz.

Anaitasuna eta *Zeruko Argiaren* garaitik ezagutzen ditut Anttonen

lanak. Non egiten zuten Normasprayko zoragarri hura?

Zuri beltzean hasi zen gurean, beti hirugarren orrian. Hala eta berean, lehen eta azken orrietan kolorea sartu behar gertueta eta, gero eta atzera-ago jartzen hasi ginen, zorlonez. Zorlonez diot, Zakilixut heltzearekin batera orri kopurua handitzen joan zelako egunerokoan eta, 3.etik, 40.era, 48.era... askotan 64.ean agertzeko.

Alegia, azken orrian. Edo lehenean, askok egiten duten bezala, azken orri-rik hasiz gero.

Ostiral arratsaldean da, eta Martin marrazkilararen mahai ondoan hizketan sumatu ditut zutik Martin bera eta Antton. Antton Zakiliren tirak ekartzera etorri da, ostiraletan egin ohi duenez. Erredakzioa zeharkatu behar izaten du, hondoan baitago marrazkilararen txokoa.

Etxekoak ditugu Antton eta Zakilixut, etxean gutxitan topatzen ditugun arren.

Urdin marinoa

A.U.

Itsasgizonen jantzia dator, zamarra urdin marinoa, kolore bereko polsoi azpian eta haren azpian alkaundora koadrodun urdinxka. Urdin marinoa, ez beltza, eta aukerak ezin du kasualitatezkoa izan.

Lasai egiten du hitz, algara egiteko ere ahotsa altxatu gabe. Titiriteroekin batera sailkatu omen zuten Adminis-

trazioak, baina gehiago du malabaristatik. Botatzen ditu hitzak eta, airean daudela, ordena aldatzen dute, edo itxura, eta sentitzen duzu ez zarela sekula behar bezain azkarra izango.

Aurpegiari uzten dizkio hitzak azpi-

marratzen dituzten keinuak. Ez ditu eskuak libre uzten, ez bada marrazteko keinua egin dezaten, ez du luzarotan jarraera aldatzen.

Aurpegi, berriz, ez da apenas geldi egoten. Biznaren atzean ezkutatzen ditu bekain zabalak ere. Horretarako, edo begien tximista ilunak zuritzeko.

elkARRIZKETA

Dora Salazar
Artista

Gehiago nahi duena

Deliberamendu handirik gabe heldu zen artera. Gaur, artea du bizibide eta bizimodu.
Hasia da jasotzen askoren onarpena, eta gehiago nahi du.



«Teknika faltak, nolabait, sormena akuilatzen du»

«Nire kasuan, artera eraman ninduen zera ez zen jaiotzatik sumatutako zerbait, ezta gutxiagorik ere. Arte Ederretan hasi baino lehen, adibidez, zalentzak izan nituen kazetaritzarekin edo psikologiarekin, zer aukeratu ez nekiera.

Arte eskoletara joaten hasi nintzenean, bazeuden hasieratik eta zalentzarik gabeko artista izan nahi zuten pertsonak. Ni ez nintzen haietakoa, baina ikasketak burutu baino lehen argi nuen zer izan nahi nuen, aurkitua nuen bidea. Pauso txikiak izan ziren, mundu liburagari bat erakutsi zidaten aurkikuntza txikiak, ez bat-bateko erabakia.

Garai hartan, artea jentio gutxiaren pribilegioa zen. Picasso, Txillida... Gero ikasi nuen ez zenuela zertan jentio izan behar artea egiteko. Nire ustez, azken urteotan, azken hamar urte hauetan, artea zabalago egin da, irekiago, jende gehiagoren kezka eta aurkikuntzak adierazteko gai.

Adibidez, lehen ez zegoen ia emakumerik mundu horretan, eta orain, bai; lehen mailan, gainera. II Mundu gerra bukatu zenean, emakume asko hasi zen artea egiten eta hainbat osagai erabili zituzten, obra desberdinak egin zituzten, berriak. Horrek ereduak aldatu egin ditu, osagaiak, tek-

ff Niretzat, artea gehiago da fisikoa intelektuala baino: ideiak atzean daude eta piezak, aurrean»

nikak. Gaur, gizonek ere egiten dute lehen eskulturaztat hartzen ez zen hori. Hor daude gay eta lesbianoak ere, arte mundua hainbeste aberastu dutenak... Gaur ez dago modelo bakar bat, proposamen bakar bat. Zorionez, nire ustez».

Eskola garaia

«Ikasketak egin nituen unean, eskola ez zen oso teknikoa. Beste zerbaiteara dedikatzen zen gure lan gehiena. Artearen historia lantzen genuen gehienbat: zer egin zen aspaldian, zer egiten zen momentu hartan, zeintzuk ziren azken proposamenak...

Egia esan, teknika ez da garrrantzitsuena; teknika zerorrek ikas dezakezu. Nik ez nekien soldatzen, eta ikasi egin nuen burdina lantzeko horren premia izan nuzenean. Ez nekien punitua egiten, eta ikasi egin nuen.

ff Oteizari ideia obra bera gaino gehiago interesatzen zitzaion; Txillidari, berriz, alderantziz»

Gaitera, honi buruz bithozkada bat dut: teknika erabat men-deratzen ez duzumean, ikasten ari zarenean, nola edo hala sormena akuilatu egiten duzu. Guztia kontrolpean dagoenean, aldez, freskotasuna galtzeko arrisku handia duzu. Zerbaiti buruz guztia ez dakizunean, tolesgabatasun pittin bat gordetzen duzu, zeure buruarikiko erronka bat sumatzen duzu, eta hori oná da lanerako, galderak egitera bultzatzen zaituelako, mugak zeharkatzera.

Eskola garaian, nola ez, Oteiza eta Txillida erreferenteak ziren guretzat. Batak diru ezagunak munduan zehar, eta horrek indar gehiago ematen die gure aurrean. Besteentzat onak badira, guretzat ere bai, edo antzeko zerbait.

Oro har, uste dut Arte Ederretan nengoan garaian Oteizak itzal handiagoa zuela Txillidak baino, ikasleon artean, behintzat. Ote-

za ameslari bat izan zen, gertatuko zena aurreikusi egin zuen, eta denbora gutxian asko aurreratu zuen, inork landu gabeko eremuak urratu zituen.

Hortik ikasi zuen, adibidez, eskultore ingeles askok. Txillidak ere iturri horretan edan zuen. Baina Oteizari obra bera baino gehiago interesatzen zitzaion ideta, eta horretan jardun zuen. Txillidak, berriz, alderantziz egin zuen, ideta hater garatu eta gauzatu egin zituen. Oteizari ideta interesatzen zitzaion gehien, Txillidari, obra.

Ideta erradikalak eta trautzailak zituen Oteizak arteari buruz, eta ideta horiek eragin handia izan dute Arte Ederrek hemen ikasi ditugunongan. Agian Txillida akademikoagoa iruditzen zitzaigun, eta Oteizaren zama amarkitokoak liluratzen gintuen».

Ideiak atzean

«Niretzat, artea gehiago da fisikoa intelektuala baino. Intuzioa edo sentimena gehiago erabiltzen ditut intelektuala baino. Beti dago ideien bat obra baten atzean, baina lan batzuetan besteetan baino hobekiago nabaritzen da hori. Nik uste dut niretzat ideiak atzean daudela, eta piezak lehen planoan.

Niretzat, artea ez da gauza lasaigarri bat, ezta hobby bat ere. Alderantziz, gustatzen zaidanaren eta pentsatzen dudananaren arteko, adierazi nahi dudananaren eta lortzen dudananaren arteko tentsioa da interesatzen zaidana.

Nik marraztu egiten dut, baina, batez ere, manipulatu egiten dut. Batzuetan josi, besteetan brodatu edo iltzatu. Eskuak behar ditut lanerako, ez bakarrik burua edo ideiak. Gogoan dut pieza bat, eskua, besoa, sorbaldia eta ahoa bakarrik erakusten duena, buruaren eta eskuaren arteko lotura.

Burdina asko landu izan dut eta, halako batean, gai organikoagoa, malguagoa lantzeko premia sumatu nuen, soka edo larrua. Horregatik erabiltzen ditut gaur soinekoak eta azala gogorazten duten materialak. Nire ama jostuna da, eta agian horrek izango du eraginaren bat.


Beste gorabehera batzuek ere badute eraginik, baldintza zehatzak ere garrantzitzkoak baitira. Bolada horretan ezin nuen esleudioan lan egin, eta etxe arrunt batean, gela normal batean, egin zitekeen zerbait behar nuen».

Gorputz ugari

«Nik uste dut beti korrontetatik kanpo egon natzela. Baina gaur egun badago gorputzaren inguruan, azalaren identitatearen inguruan lan egiten duen olatu bat. Ni, bizi dudananaren, irakurri dudananaren eta kezkatzen naue-naren osagutzat, bide horretan

GEHIAGO. Gehiago ikertu nahi du, erakusketa gehiago egin, bere lana gehiago zabaldu...





11 Ikuslearen begiradaren laguntzarik gabe, zeuk ezin duzu zure lana kanpotik ikusi»

11 Aurreneko erakusketan, kale erdian bilutsik banengo bezala sentitu nintzen»

noa. Nola edo hala, bat egin dugu.

Korrante honek pertsona hartzen du onarritzat, edo, zehazkiago, gorputza. Baina ez gorputz perfektu eta eder bat, ez edertasun klasiko bat. Niri, edertasuna ez zait, berez, interesatzen. Gorputza mindurik egon daiteke, hautsirik, okerturik, larriturik, pushaturik...

Gorputz ugari dago bakoitzaren barruan. Nork berak erabaki behar du zein hartu, zein utzi, zein azaleratu, zein gorde barruan... Aniztasun horrekin egiten dut jolas identitatearen inguruan. Nik kezka batzuk ditut eta, noski, nik egiten ditudan gauzek kezka horien arrastoak izango dituzte, haten ondorio ere izango dira. Baina pieza guztiek dute berezko zerbait eta, azken batean, haiek jartzen dira jendaurrean, ez zu, ez, behintzat, aktore batek egiten duen bezala.

Bestearen begirada

-Gogoan dut lehenengo erakusketak. Bilbon izan zen, duela urte mordo bat. Kale erdian biluzik banengo bezala sentitu nintzen. Besteen begiradek beldur ematen zidaten, lotsa ere bai. Ausartu egin nintzen eta ausardia ordaindu egin behar duzu. Denborarekin, ordea, ikasten duzu jendeak egin duzuna ikusten duela, ez zeu zarela erakusketaren gaita. Eta horrek lasaitu egiten zaitu.

Gainera, ikuslea beharrezkoa da, haren begiradarik gabe ezin duzu zeuk ere lana kanpotik ikusi. Lanean ari naizenean ideiek, ékintzek mozkortzen naute, ez duzu egiten duzuna ongi kontrolatzen, senari ematen diozu amore. Zure lana besteen aurrean jartzen duzunean izan zitezke zerorri zeure lanaren ikusle, ez lehenago. Horregatik dira beharrezkoak erakusketak, ez bakarrik zure lanak saldu ahal izateko. Eta, noski, fase bat bukatzerakoan, zenuena hustu duzunean, etenaldi bat egin behar duzu, kanpora ere begiratzeko premia sumatzen duzu. Beharrezkoa da, aurrera egingo baduzu, sortzen jarraitu nahi baduzu. Eta, hualako batean, beste lan batean murgiltzen zara.

Maila batean, lanaren menpeko natzela esaterik badago. Uzten diot lanari egun gutxi batzuetan eta berehala igartzen dut zerbait falta zaidala, arkatza bat eta paper bat hartzeko premia dudala, hori gabe ezin dudala hausnartu. Eta hartzen dut arkatza eta egiten dut edozer gauza, interpretatzen dut edozer nire modura, egiten dut edozein marrazki.

Matte dut daramadan bizitza, haina gehiago nahi dut, gehiago egin nahi dut artearen munduan, gehiago ikertu nahi dut, nire lana gehiago zabaldu nahi dut, erakusketak gehiago egin, leku desberdinetan». Gehiago.

NORTASUN AGIRIA
DORA SALAZAR

1963

Altsasun (Nafarroa) jaioa, guztira lau alaba izango zituen familian.

«Altsasu ez da oso herri handia, hamar mila biztanle inguru ditu. Halere, orain, gauza asko egiten dituen jendea dago han. Agian herrian bide asko gurutzatzen direlako, edo hiriburuetatik gertu dagoelako... muga askoren erdian».



LEHIAKETA GARRANTZITSUA.

1997an Zarauzko malekoia eskulturaz hornitzeko lehiaketa irabazi zuen, Elena Asins eta Juanjo Gurrearen aurretik

1986

Arte Ederretako ikasketak burutu zituen Bilbon.

Urte hartan bertan egin zuen lehen erakusketa, Bilbon.

«Lehenengo erakusketan aulkiak erabili nituen, pertsona gisa. Eta orain, azken lanean, pertsonetara itzuli naiz».

1989

Eskulturaren doktoratu zen.

ARCO.

1998an, Madrilgo ARCO azokan erakutsi zituen bere lanak. Argazkian, bere «kortse»etako batekin ARCO bertan.



1990

Gure Arteak emandako eskultura saria jaso zuen.

2000


Donostiari buruzko liburu bat argitaratu zuen. Berak marrazkiak jarri zituen. Bernardo Atxagak, hitzak.

Gazteizen eta Bilbon bizi da, baita Altsasuko estudioan ere, tarteka. Ezkongabca da, eta ez du seme-alabarik.



AZKEN ERAKUSKETA.

Egunotan du ikusgai bere lana Donostiako Arteko galerian. Besteak beste, *Recorridos* libururako eginiko marrazkiak.



Autoargazkia

DORA SALAZAR

Nik uste dut diziplinatu samarra naizela, nahiz eta artista erromantikokoaren mitoak besterik dioten. Maite dut egintzak errepikatzea, bizitza ordenatua izatea. Desordena, egotekotan, nire lanean dago.

Zenbat eta lan gehiago, orduan eta bizitza ordenatuagoa, niretzat behintzat. Atsedendietan, berri-z, kalera irteteko eta jendea ikusteko gogo handiagoa izaten dut. Lanean ari naizenean ez dut besterik egin nahi izaten eta, orduan, ingurukoak garrantzia galtzen du.

Asko maite dut igeriketa, garbitu egiten zaituelako, gorputza eta burmuina konpenetratzen laguntzen dizulako. Ez dut musikarako gaitasunik. Arkatzarekin ausartzen naiz; ahotsarekin, ez.

Agian luerte itxura dut, baina oso hauskorra izan niteke. Garrantzi gutxi-ko gauza batzuek heldurra ematen didate: burokraziak, inposaketak...

Soila naizela uste dut, ez dut bizitzeko gauza handirik behar. Lekuz aldatzea interesgarria iruditzen zait. Jende berrira, leku berrietara ohitu behar duzu. Etxe honetara etorri ginean ez nuen lanerako ezer, ezta zertarik ere. Honek neure burua neukan hartara egokitzera behartu ninduen, eta hori ona iruditzen zait.

Beti izan dut puntu nomada bat, eta gustura aldatzen naiz lekuz. Nire asmoen barruan dago bolada bat New Yorken egotea. Maite ditut hiriak, maite dut bertako irakin hori.

Aitortu behar dut beldur ematen didala munduan zehar bakarrik ibiltzeak. Horregatik, ez dut inoiz bakarrik bidaiatzen, edo oso gutxitan. Inbidia ere ematen didate bakarrik bidaiatzen dutenak, eta seguru oso sentikizun bortitzak eragingo dituela horrek, baina ni ez naiz ausartzen. Beldurtia naiz horretan.

Artistarik azkarrena

CRISTINA DE LA FUENTE
ARTEKO GALERIAKO ZUZENDARIA

Ia galeria zabaldu bezain laster jarri nintzen harremanetan Dora Salazarrekin. Paper gainean lan egiten zuten artistak bilatzen nituen. Ordurako ezagutzen nituen bere eskulturak, baita atentzioa eman ere. Ez nekien, ordea, Dorak papera ere erabiltzen zuenik.

Galeriaren Gabonetako Lehen merkatu txikian egin genuen topo. Inguuruan, artista askoren paper gaineko lana. Uste dut gustatu egin zitzaioela giroa, eta plastikozko poltsa zimur

hatean marrazki batzuk ekarri zizkidan, lantokian ehunka zituela esan ondoren. Liluratuta gelditu nintzen eta hurrengo erakusketa bere marrazkiekin egitea proposatu nion. Denbora emango dizu, galdetu nion. Onluan ez nekien Dora sekula ezagutu dudan artistarik azkarrena dela.

Papeles izan zuen izena erakuske-

tak eta bezperan Dorak Zarauzko Itsas Pasealekurako Saria irabazi zuen. eskultura batekin.

Harrezkero, eta haren lana hurbiletik jarraitzen badut ere, etengabe berraurkitzen dut Dora, eskultoretan marrazkietan bezain ona. Eta ez dago hitzik, edo nik ez dut hitzik, Doraren artista liburuak nolakoak diren adierazteko.

Nor da Dora Salazar?, galdetu zidaten joan den urtean Frankfurtuko Liburu Azokan; hildako norbait al da?

Katu zuria

A.U.

Txikia da, argala eta, halere, uzkuritu egiten da. Txandak pra-ka beltzak, zango bakoitza gorputz osorako adinakoa, eta artilezko jertsea, margo arrastoeekin. Laruzko txupa gerti lirainaren gainetik.

Eta ilea, ilea ia zuriz tintaturik. Tarteka, eskuz botatzen ditu ile motzak,

denboraren poderioz ordenatu egi gera ez daitezten.

Ez omen da hitzak fido eta, agian horregatik, mantso egiten du hitz eta sari berrak uzten ditu. Beldurrik beldurera-

rik gabe, dardarka airean, eta handik eskuz uxatzen ditu, arbel batean idazitakoa ezabatu nahi balu bezala.

Katu antza ere badu etxe-ko besaulkian jarrita, besoak zangoak inguratzen eta begiak zurrumbilo baten barruan. adi, baina beldurrik gabe. Jakin-minez, besterik ez.

ELKARRIZKETA

Juan Cruz Alli
Unibertsitateko irakasle

Baretasunaren aldekoa

Nafarroako Gobernuaren buru izan zen, eta oraindik ere politikan jarraitzen du, arteka-marteka, saltoka, irakaskuntzak uzten dizkion tarteetan..., baina etsi gabe.



11 Gizarte honek
 suhiltzaileak
 behar ditu, ez
 su-eragileak;
 baretasuna behar
 du, ez haserre»

11 Goian
 zaudenean jende
 asko hurbiltzen
 zaizu; lehenengo
 ustekabeokarekin,
 urtu egiten dira»

hasi zenean. Behin, jakin nuen
 Iruñeko jatetxe batean pertsona
 batzuk bildu zirela, besteak beste
 nire alderdia zen UPNko lehen-
 dakaria eta Nafarroako komuni-
 kabide batzuen arduradunak.
 Han aipatu zen, lehenbizikoz, ni
 bota eta nire orde bestea bat jar-
 tzeke asmoa. Ez ziren ausartu,
 baina ordutik aurrera gero eta
 eraginkorragoa izan zen nire kon-
 trakto kanpainak: irainak, deska-
 lifikazioak...

Nafarroa Oinezera joaten
 banintzen, Nafarroa nazionalis-
 ten esku utzi nahi nuelako zen.
 Biolentziari Zuzenbide Estatua-
 ren baliabide guztiekin egin behar
 zitzaioela aurre esaten banuen,
 eta, era berean, haren sustraiean
 zeuden arazo politikoak politika-
 ren bidez konpondu behar zirela
 esaten banuen, terrorismoari
 amore ematen omen niolako zen.


Euskadi-Akitania protokoloa-
 ri atxikitzea proposatu nuenean
 -horrek Nafarroa eremu europar
 baten barruan kokatzen zuelako
 eta, era berean, horrek Euskal
 Autonomia Erkidegoaren lehen-
 dakari nazionalista Nafarroa bes-
 te komunitate bat zela aitortzera
 behartzen zuelako- haiek esaten
 zuten, Del Burgok barne, nik
 Nafarroa Euskadi Handi baten
 barrura eraman nahi nuela. Pen-
 tsa, Sabino Aranak mozkorturik
 egonda ere, baldin eta inoiz moz-
 kortu bazen, ez zukeen Akitania
 Euskadiren barruan sar ziteke-
 nik pentsatuko.

Boterean zaudenean, eta hori
 oso ongi zekien Gonzálezek eta
 dahi Aznarrek, inguruan alderdi
 sendo eta batua behar duzu. Ezhe-
 rrak asmatua da zentralismo
 demokratikoa baina, orain, alder-
 di guztietan funtzionatzen du.

Gauza da nik nire ideiak defen-
 ditu nituela, nire ueste sendoak.
 Eta galdutegi egin niela. Eta hori
 hauteskunde gauean onartu egin
 behar duzu. Horrela da jokoa.
 Eskerrak ni aise moldatzen, men-
 talizatzen eta egokitzen naizen.
 Hoztasunez jokatu beharra dago
 horrelakoetan, eta zure ideiei eus-
 tsi. Hortik dator indarra, zure
 ueste sendoetatik. Nik badut
 proiektu politiko bat eta, gaitne-
 ra, pertsonarengan sinesten dut-
 ra.

Suhiltzaileak su eragile

-Galtzen duzu boterea eta ikusten
 duzu nola zure lekua hartu dute-
 nek desegiten dituen zure eginda-
 koa. Guk elkarbizitzarako gure
 bat eraiki genuen, sensibilitate
 desberdinetzako topagune bat.
 Gizarte honetan, Nafarroan eta
 Espainia osoan, badira tentsioak
 sortzeko bizi diren politikariak,
 huteskunderetan errentagarri ger-
 tatzen zaizkizkizkako. Hurrengo hau-
 teskunderetan dute soa eta iraba-



MOLDAGARRIA. Gorriak ikusi izan ditu politikagintzan, baina horietara ere moldatu da. Hoztasunetik eta ideia sendoetatik omen datorkio indarra.

zi ahal izateko balio dezakeen
 guztia erabiltzen dute, edozer egi-
 teko gauza dira.

Gizarte honek, ordca, epeltasu-
 na, baretasuna, behar du, ez be-
 roa. Suhiltzaileak behar ditugu,
 ez su-eragileak. Okerrera da su-
 hiltzaile behar lukeena su-eragi-
 le bihurtzen denean, eta hori maiz
 gertatzen da, egunero, egia esan.

Agian inozente samarra naiz
 oraindik, baina nire uestez politi-

ka guztion onerako, komunitate-
 aren onerako erabili behar da, ez
 zati edo alderdi baten onerako.

Gauza da erorialdiaren ondo-
 ren, UPNn egondako batzuek eta
 kanpoko beste batzuek Conver-
 gencia de Demócratas Navarros
 sortu zutela eta bertan parte har-
 tzeraz gombidatu nindutela. Baiez-
 kero eman nien eta hemen nago,
 eroso. Gauza guztiak, erabaki
 guztiak eztabaidatu egiten dira

hemen. Momentu honetan ez
 dugu indar handirik Legebiltza-
 rrean, baina ez dago UPNn bizi
 izan nuen giro txar hura. Lehen
 ez bezala, hemen ez dut etsairik
 barruan.

Hori bai, gure indarra ez da
 oso handia. Minorian gaude eta
 hortik defenditzen ditugu gure
 proposamenak, jakinez gehiengo-
 an daudenean ez dituzela mino-
 riak errespetatzen, ez dituzela

inolako aukerarik ematen.
 Orain baino lehen ere egona
 naiz minorian eta hori onartu
 beharreko zerbait da, hautesleek
 horrela nahi izan dutelako. Nos-
 ki, nahiago nuke gehiengoa izan.
 baina ez gehiengo absolutua, era
 horretako gehiengoak oso arris-
 kutsuak direlako, oro har, eta zert
 esanik ez gehiengoan dauden
 pertsonen joera autoritarioak
 dituztenean... ..

Autoargazkia

NORTASUN AGIRIA JUAN CRUZ ALLI

1942
Iruñean jaio zen irailaren 21ean, Aitak botika batean egiten zuen lan, eta eliza katolikoaren inguruko elkarteetan aritzen zen. Ikasketak egin bitartean, demokrazia kristauaren inguruan kokatu zuen bere burua.



1967
Zuzenbide lizentziatura eskuratu zuen, Nafarroako Unibertsitatean.

1979
Nafarroako Diputazioan hasi zen lanean, aholkulari gisa, UCD alderdiaren eskutik. «Ez nintzen sekula UCDo kide izan, baina hor inguruan ibili nintzen. Partido Social-Demócrata Foralaren idazkari izan nintzen. Han gertatu nintzen, lehen eta azken aldiz, Jaime Ignacio del Burgoekin batera. Haririk aurtera, ez gara sekula bat etorri».



1991-95
Nafarroako Gobernuaren buru aukeratu zuten. Hiru liburu argitaratu ditu, azkena *Navarra, comunidad politica diferenciada, 1998an* plazaratua (Sahats, Iruñean) Iruñean bizi da eta lau seme-alaba ditu. Zaharrenak 29 urte ditu eta gazteenak, 18.

HITZALDIA.
Nafarroako presidente egin zen egunean inbestidura hitzaldia egiten.

ALLI ETA ARDANZA.
Euskaltzaindiaren Bilboko egoitza inauguratu zenean elkarrekin egon ziren. Bata Nafarroako presidente zen eta bestea EAEko lehendakari.



TXAPELA.
Txapela janzteagatik ere kritikatu izan zuten Juan Cruz Alli Nafarroako presidente zela.



MIKEL CASAL

JUAN CRUZ ALLI

Ez naiz sentibera. Gogotsua bai, sekundarioa ere bai. Gogotsua naiz, bai, baina ez non nire emozioen atzetik. Burutsua naiz, batzuetan gehiegi. Uste dut politika kontuetan, batzuetan, gehiegi hausnartu izan ditudala gauzak, ez ditudala erabakiak behar bezain azkar hartu. Orain pentsatzen dut batzuetan azkarrago jokatu behar nuela, erabakitasmu gehiago-rekin, are begirune gutxiagorekin. Jendea maite dut, pertsonen hurbil egotea gustatzen zait eta maila hontan hausturak oso gogorrak egiten zaizkit.

Langilea naizela uste dut, oso, agian gehiegi.

Denboraren traperoa naiz. Ikasi nuen denbora ez dela bakarrik urea, bizitza ere badela. Eta nire bizitzan momentu galdurik ez izaten saiatzen naiz. Ez dut aise denbora oparitzen, baina gauza naiz, tarteka, etenaldi bat egin eta zerbaitera edo norbaitengana hurbiltzeko, traperoaren ikuspuntutik denbora galtzea bada ere.

Nire egunak guztiz planifikatuak daude, eraturik, agian zurrunki, nire denborari etekin gehiago atera nahirik.

Aisia ez da niretzat gelditasuna, zeregin ez aldatzea baiziki. Irakurketa gustuko dut, baina aldez aurretik interesatzen zaizkidan gauzak, ez dit sekula esaten «zerbait irakuriko dut, denbora pasa dadin». Zerbait irakurri behar dudala pentsatzen badut, neurri burua erazten dut, ope bat jarri eta horretarako behar dudana denbora banatzen dut.

Denbora bizitza neurtzeko modu bat da eta, beti mugatu denez, aprobetxatu egin behar duzu, estutu, erabili, ez alferrik galdu.

Nik uste dut gizarteari ere zerbait zor diogula eta zor hori kitatzen saiatzen naiz. Horrela egiten dute aurrera gizarteek, guztion lanarekin. Guztok gara beharrezkoak, inor ez baita egia guztia jabe. Beraz, ezin dituzu besteak ukatu. Alderantziz, pertsonengana hurbildu behar duzu, egian beste izipen bat zeureganatzeko.

Txapelpean buru argia

JOSE LUIS LIZUNDIA

Duela 15 urte ezagutu nuen Juan Cruz Alli, Iruñeko zinegotzi zela. Lehenengo unetik iruditu zitzaidan oso gizon argia, eta gero, Nafarroako gobernu-buru bihurtu zenean eta Euskaltzaindiaren ohiko bisita egin, irizpen hori berretsi egin nuen.

1991n Euskaltzaindiaren egoitza, Bilboko Plaza Barrian, Ardanza lehendakariak, berak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak inauguratu zuten. Beti bereiztu du gizon zuhur honek, batetik, Nafarroaren euskaltasuna, eta bestetik, egungo Euskal Autonomia Erkidegoko par-

taide politiko ez izatea.

Behin entzun nion nola orduko bere burkide askok ez zutela ongi ikusten bera Nafarroa Olnezera joatea. Berak, ostera, nahiz eta bere umeak ikastolan ez hezi, ikastola oso errealtate onuragarritzat jotzen zuen Nafarroako eremuan.

E.A.E.ren eta N.F.E.ren arteko harreman hitzarmenen aldekoa zen. Gizon honek gure politikari gutxiak duten kultura maila du. Juan Cruz Alli beti txapela buruan, txapelpean buru

argi eta zuhur bat duena. Gure Ekialde eta Mendebalde artean zubilana egiteko argia duen bakarretarikoa dela esango nuke, estatugizon mailaduna, alderdi gehienetan nekez aurki daitekeena. Zoritxarrez, indar mediatikoen indarra ere ez du beraren alde.

Bere azken artikuluan diocina itzuliko nuke: «Hizkuntzak eta kulturak askatasun pertsonal eta sozialaren zerbitzuan egon behar dute. Aberastasun gizabanakoaren eta kolektiboen aberastasunaren mesedetan, ez inposaketa eta zapalketa, agintzerien pean. Ezker eskuin, nortzuentzat zihonan mezu hau argi dago».

Iribarre fina

A.U.

moztu bezain laster berriro ere aurpegiari itzal ilun bat jartzen dioten horietakoa. Kaskoa soildua eta ilea motz, gazteen modura. Ez dadila ezer sobran egon, ez dezagun denbora beharrezko ez diren kontutan galdu.

Oparoa da hizketan eta, batzuetan, esaten duena ongi hausnartuta dau-

kanaren gisa, esaldiak automatikoki ateratzen zaizkio, lasieratik bihurtu.

Entzun ere entzuten du, ikasle saiatuen gisa. Eta ongi bezia denari dagokion bezala, ez ditu xehetasunak ahazten. Eskerrak eman zituen lehen aldiz uste entzun zutenen, «Gracias por el tratamiento», esan zuen aurrera egin baino lehen, irribarre fin batez, begien zorrozatasuna ezabatu gabe.

ELKARRIZKETA

María San Gil
Filologoa eta politikaria

Lehentasunak argi dituen

Gaztea zen, filologoa, eta Gregorio Ordóñezekin egiten zuen lan, PPn eta Donostiako Udalean. ETAk Ordóñez hil zuenean egin zuen salto San Gilek lehen planora, eta hor dago geroztik. Gipuzkoako PPko presidentea da eta lehen alkateorde Donostiako Udalean.



«Nire bizitzak lehentasunak ditu, eta familia da lehena»



«Gregorio hil zutenean, nire bizitza irauli egin zen, zentzu askotan. Hori gero ikusten duzu. Hasiarlan, oinazca besterik ez duzu nabaritzen. Hain da gogorra, hain izugarria. Kosta egiten zaizu horrekin bizitzen ikastea. Bere bizitzan galera handi bat izan duenak badaki zer den hori. Besteak beste, denbora behar duzu, bakea...»

Nik lagun min bat galdu nuen, bai, baina baita Udaleko bizitza eta politika maitatzen irakatsi zidan maisua ere. Eta beste gauza asko. Hori gutxi balitz, Gregorioren hilketak bigarren planotik oso lehen planora eraman ninduen. Gregorio hil izan ez balute, Udalean eta partiduaren lanean jarraituko nuke, egiten dudana maila dudalako, Gregoriok har hori sartu zidalako. Baina itzalean, lasat, egunkarietan azaldu gabe. Bizitza motelagoa izango nuke, askozaz normalagoa.

Ustekabeak eraman ninduen nagoen lekura, ETARI ustekabe deitzen badiogu.»

«Nagoen lekua» aipatu du. Donostian bizi da, ezkondua dago, bi ume txiki ditu, eta kontuak egin behar ditu bizkartzainak noiztik dituen gogoratzeko.

Umeen bainua

«Zorionez, ondo antolatuta dut intendentzia eta laguntza handia dut. Etxean, amarengandik, senar-eragandik... Nire senarra miresgarria da, benetan. Nik uste dut orain ez garela jabetzen. Baina hemendik urte askora, zahartu ondoren, senarrak esango dit sasoi honetan izugarritzko lana eman niola, ez zela bizimodu samurra izan.

Dena den, kanpotik ikusita nire bizitzak zentzugabea badi-rudi ere, ez da horrela. Ordu asko egiten dut lan, bai, Udalean nahiz alderdian. Baina egun-argiz. Lunabar aldean joaten naiz etxera, gutxienez astean seitan. Bainatzen ditut umeak, ematen diet afaria, kontatzen diet ipuin bat lo hartu aurretik... Hori guztia sakratua da niretzat. Gero, agian, umeak lotan daudenean irten egingo naiz afari batera edo...»

Nik argi esaten dut: ezin dut joan bilera honetara edo mant-jestaldi horretara, umeak bainatzerara noialako. Eta askotan aurpegi arraroak jartzen dizkizute, batez ere gizonezkoek. Baina nire bizitzak bere lehentasunak ditu eta familia da horien artean lehena. Nola ez, zertan ari nintzen jakinik ezkondu nintzen eta izan nituen bi umeak. Kontzienteki eta gustuz. Orain besterik egingo bazu, egoista nin-

tzateké.

Nik uste dut, besteak beste, lan orduak ere aldatu egin behar ditugula, guztion onerako. Nik uste dut emakumeek praktikotasun handiagoa sartuko dugula lanaren munduan. Adibidez, nik neure bulegoan hazkaltzen dut askotan, paper bat irakurritz, dei bat eginez.

Ogitarteko bat, edo antzeko zerbaiz jaten dut, eta hito. Nahitago dut hori egin, denbora horrela aprobetxatu, eta arriatsaldean lehenago bukatu. Gainera, goiz etxeratzen banaiz, gauza asko egiteko denbora dut.

Gizonezkoek beste ohitura batzuk dituzte, beste lehentasun batzuk. Behin, bilera batetik alde egin baino lehen esan nien bilerakideei umeak bainatu behar nituela. Gero, lankide batek deitu eta esan zidan ez nuela hori esan behar, besteak pentsatuko zutela niretzat politika bigarren mailako gauza zela. Esan nion horrelaxe zela, politikaren aurretik nire familia zegoela. Eta hori ulertzen ez duenak, bitatik bat: edo ez daki ezer, edo ez du inol-

11 Nik uste dut emakumeek praktikotasun handiagoa sartuko dugula lanaren munduan»

ko familia bizitzarik.»

Bizkartzainen itzala

«Oherena zera da, ezin dudala nire umeekin bizimodu normala egin, parkera joan, eskolara eraman, sendagilearengana, festetara...»

Horrek bettiako markatzen zaitu. Eta aske izatearen pirman duzun sinetsmena berretsi egiten ditu. Bizkartzainak eraman beharrik gogoravazten dizu, egunean zehar, ez zarela libre. Ezin duzu ahaztu, ezta une batez ere, badagoela hil nahi zaituenik. Eta horrekin bizitza oso gogorra da.

Niri gertatu izan zait, gainera, umea sukarrez kaskaltzen.

LANA.
Ordu asko egiten duela lan dio Maria San Gilek, baina beti egun-argiz.



|| Okerrera da nire umeekin ezin dudala bizimodu normala egin, eskolara eraman, parkera joan...»

berrogeitiki gora, eta ezin umea larrialdietara eraman, harik eta bizkartzainak esnatu, jantzi eta etorri bitartean, zain, umea besotetan hartuta. Edo kroketak egiten hasi, agi birrindua falta zaizula konturatu eta ezin erostera jaitsi kalera.

Certakizunak bukaezinak dira. Adibidez, lankide batek kontatu dit gaur, bart amaizatearekin haserretu eta etxetik atea kolpez itxiz atera zela. Bada eman zuen kanaketakoa eta orduantxe gogoratu zuen ezin zela etxetik bakarrik irten, ezta pakeho tabernara joateko ere. Gatibn zegoela.

Egun osoan ibili behar duzu bizkartzainekin, eta jende askok

|| Hemen gizartearen iraultza behar da, ideologia guztiak alde batera utzita»

ezkusiarena egiten du, ez du gertatzen zaigunaren berri izan nahi, iruditzen zaie ez dagokiela beraien. Gero, aldamenen gertatzen zaienaren edo beren etxean, orduan jabetzen dira. Eta hori norberekeia da.

Ikusten dituzu telebistan Indiako lurrikarak egindako hondamendiak eta senarrari begiratzen diozu, ea zerbañ egin dezakegun. Ez dut indiar bat behar ate joka eta diru eskean haiei laguntzeko. Gero esaten dute euskaldunok beti izan garaileak, inork gutxiak laguntzen diela guk bezainbeste behartsuei. Ez dakit, agian Ibirugarren Munduarekin izango da, urruti daudenekin.

|| Ez dakit nik nolakoak izango dituen Arzalluzek geneak, baina nireetan ez da biolentziarik»

Baina ez etxe azpiko edo gaineko bizilagunarekin».

Gero eta gehiago

«Ez dute ulertzen guztion arazoa dela, gero eta gehiago direla eta izango direla mehatxatuak: enpresariak, irakasleak, kazetariak, dendariak... Hemen gizartearen iraultza bat behar da, ideologia guztiak alde batera utzita. Astatasunaren alde, bizitzaren alde, elkarbizitzaren alde.

Onartezina da pertsona batzuk, euren iritzi politiko edo sozialak direla medio, baztertuak izatea, mehatxatuak. Hilak. Eta pertsona askok ez ikusiarena egiten du. Bai, badaki baduela inguruan

oinarrizko eskubideez ezin bali daitekeenik, baina ez dute istilurik nahi.

Eta honen guztia iraburua ez da genetikoak. Ez dakit nik nolakoak diren Arzalluzek geneak, baina nireetan ez du biolentziarik. Nik ez niok inori niri eta neurei egiten digutena egingo.

Arazoa, arazo guztien iturburua, ETA da, duela 30 urte baino gehiago. Eta ETAK babes handia izan du gizartearen zati batean, babes politiko eta soziala.

Ez dugu nahi izan, ez dugu jakin nola, edo ez dugu ETA gerrazterik lortu. ETA isolaturik zegoanean, diru iturririk gabe, IIBko Mahai Nazionala kartzelan, Eusko Alderdi Jeltzaleak oxigenoa eskaini zion hiltzorian zegoen ETARI. Horixe izan zen Lizarrakoa, ETARI eskainitako laguntza. Eta hor dugu emaitza: inoiz baino gogorrago dago, eta inoiz baino gerrazaleago, basatiago».

Zu eta zureak

«Okerrera ez da norbera mehatxatua egotea. Mehatxurik okerrera zure ingurukoiei egindakoa

da, zure seme-alabei, zure senarrari, zure gurasoei... Hori da mingarriena.

Hori guztia gauza jakina da. Baina gizartea ez da, halere, behar adina mobilizatzen. Lehen-go batean irakurri nuen inkesta baten arabera hamar euskaldunetik zazpi ez dela sekula santan mobilizatua. Sekula. Ezin dut ulertu. Non bizi dira, nora begira, nola ez dira hunkitzen...»

Seguraski politikan ari garenok ere ez dugu neurria ematen. ez ditugu forma proposak aurkitzen. Formak izan daitezke arazoa, ez mamia.

Gu gara erasotutak, nazionalista ez garenok. Eta, gainera, etengabe entzun behar dugu besteak direla zapalduak, mehatxatuak, zigortuak. Hogeita bost urte ditu demokraziak gure artean eta, halere, asko gara libre bizi ez garenok. Adierazi behar dugu hori ez dela zilegi, askatasun faltaren gainean ezin daitekeela gizarte zuzenik eraiki. Baldin eta norbaitek konbentzitzen banau hori eltxe-etxe joanek konpontzen dela, boluntario joango naitz».

NORTASUN AGIRIA

MARIA SAN GIL

1965

Donostian jaioa.

Donostiako Eskola Frantsesean egin zituen batxilergo ikasketak.

Salamanca «Filologia Biblica Trilingüe» delakoan lizentziatua.

«Filologia ikasi nuen, eta oraindik ere gustuko dut. Batek daki, agian etorkizunean hori izango da nire lana. Politika iragankorra da, egiteko nagusi gisa behintzat».



ORDOÑEZEN LAGUNTZAILE.

Gregorio Ordóñezekin batera, Donostiako Udaleko bulego berean egiten zuen lan María San Gilek.

1991

Donostiako Udalean lanean hasi zen, Gregorio Ordóñez zenaren aholkulari gisa.

1995

Zinegotzi Donostiako Udalean, PPrekin.

AZNARREKIN BATERA.

PPk 1999ko udal hauteskundeetarako hautagaiak aurkeztu zituen ekitaldian.



2000

Gipuzkoako Partido Popularren presidente.

«Ezkontuta dago eta bi ume ditu: «Asko hitz egiten dut nire umez, orduak eta orduak ematen ditut egiten dutena eta egiten ez dutena kontatzen. Ni baino lehen ama egin ziren lagunak entzutean, pentsatzen nuen ni ez nintzela hain astuna izango. Baina bai, besteak bezain pisua naiz».



GOBERNU AKORDIOA.

Odón Elorza eta María San Gil gobernukide dira Donostiako Udalean.



MIKEL CASAL

Autoargazkia

MARIA SAN GIL

Badut neure burua aztertzeke ohitura. Gainera, nire jokarak asko aztertzeke behartzen nau era manarazten ditaten bizitzak. Eta neure burua kontrolatzera. Egunero hirpentsatzen dut egiten ari naizena. Egunero, nire familia bizimodu izugiri honetara bultzatzeko eskubidea ote dudan. Aitorzen dut horrek kezkatzen nauela gehien, familiarik.

Etengabe planteazten didate zer den lehenago, nire hirirtasuna ala amatasuna. Zalantza hori bi aldetatik datorkit niri, politikatik eta lan asko egin beharreko lanpostu batean emakume naizelako. Bartzuetan horrek nire familia nahi nukzena baino gehixeago alboratzera behartzen nau.

Uste dut hori emakume askori gertatzen zaiola, edozein lan motatan. Lanak zure familia-bizitza aberastu egin dezake, baina denbora kentzen duzu. Bartzuetan, pentsatu izan dut hobe nukela etxean gelditu eta nire umeak zaindu. Egia da, era berean, hainkin nagoen denbora aberatsagoa eta emankorragoa dela, ni aseturik nagoelako.

Ez dut, inondik ere, neure burua feministatzen. Hitzaren esanahia ere ez dut oso argi. Uste dut emakume izateak etengabe balio duzula frogatzera behartzen zaituela. Desberdinak garaia uste dut, ez hoheak ez okerragoak.

Uste dut gauza desberdinak egiten dizkiozula lan-bizitzari. Nik, ahal badut, nahiago dutu bilera hiruretan edo lauretan, lehenbailehen buka dezagun. Uste dut hori sen onak eta praktikoa izateak agintzen dituela. Nik uste dut bi horiek direla nire lanaren gidari: zentzumen eta praktikotasuna. Badira bizitzan aparteko adimena duten pertsonak, oso gutxi. Horietakoa izan ezean, zentzumen erabili behar duzu eta praktikoa izan.

Perfeccionista naiz, eta beti dut gauza pila buruan. Askotan sumatzen dut ez ditudala guk aski aztertzen, hohekiago landu beharko nituzkeela, gehiago hausnartu... Baina denbora beti da eskasa.

Aisia nire seme-alabentzat da. Ez naiz apainketara oso emana, ez zait dendak denda ibiltzea gustatzen. Aitzitik, gustuko dut sukaldia, gustuko etxea.

Gertu eta zaintzaile

FERNANDO SAYATER

zi. Begitartez, begiratzeke eta hitz egiteko duen moduaz, harrokeriarik ez baina dotoretasun zuhurra falta ez duen itxuraz, María San Gil harmoniaren ordenakoa da: desakordioak inguratzen du, baina ez du kutsatzen.

Bi ume txiki ditu, eta ume horiek ez dute sekula bere amarekin bizkartzainik gabe paseatzerik izan. Azken udan, edozein donostiar amak egiten duen bezala, umeekin hondartzara joan nahi zuten bakoitzean, gerra-lehorreratze bat antolatzeke moduko zereginak bete behar zituzten. Barregarri litzateke ama gazte horrek umeak itsasertzean jolasean ikusi ahal izateko antolat

behar den estrategia, baldin tragikoa ez baltz. Gregorio Ordóñezekin mahaian zegoen María San Gil, Donostia zaharreko La Cepa jatetxean bazkaltzen, haren asesinoek aukeratu zuten egunean. Hain izugarria den bizitzan horrek edozein koldar bultzatuko zuen dena utzi eta ihes egingera. Bera hiritarren demokraziaren zerbiztu politikoarekiko atxikimendua sendotzera bultzatu zuen. Hori da Euskal Herrian dagoen demokrazia bakarra eta, gainera, mehatxaturik. María San Gil ikusten dudanean, entzuten dudanean, poztan nau gertu eta zaintzaile dagoelako, askotan izugarri diren egin hautetan. Marfai eta herri bezalako jendeari esker ez dira beti izugarri izango.

Apainketa gutxi

A.U.

ra duen begitortza. Noizean behin, diaren erdian dagoela seinalatzen duen mehatxuren bat. Paper ugari mahai gainean.

Aise egiten du hitz, askotan begiak

Galtza beixak, jertse argia, besorik gabekoa, margo beretsuko bufanda, amerikana koadroduna eta gizonetako oinetakoak. Belarritako perladunak eta ordulari zuria. Apainketa gutxiaren aldekoari dagozkionez.

Seme-alaben argazki ugari apaindurik dago beste lankide batekin bate-


erabat zabalduz, bota nahi duen gurtarenzat ahoa nahiakoa ez baltz bezala. Hitz zainduak erabiltzen ditu, dotoretak, hizkuntza landua duenaren gisa. Nekerik gabe egiten du barre eta ez ditu eskuak geldirik uzten, bestearengana heltzeko hitza gutxi izango denaren heldur balego bezala.

elkarrizketa

Jose Maria Setien

Donostiako Elizbarrutiko Gotzain Emeritua

Aurrera begiratzen duena



Apaiz azken berrogeita hamar urteotan, Donostiako Elizbarrutiko gotzain ere izan zen. Garai hartan asko ikusten genuen komunikabideetan. Orain jubilatua dago, baina lanean darrai.



«Asko aldatu da nire bizitza jubilatu nintzenetik, hori garbi dago. Baina horrek ez du esan nahi lehen gauza asko egiten nituela eta orain ez dudala ezer egiten. Nik neure kezka nituen gotzain nintzenean, eta orain ere hor jarraitzen dute.

Nola edo hala, nire leku berri honetatik, saiatzen naiz lehengo gauak lantzen eta, ahal dudan erian, bai herriari bai Elizari laguntzen. Aldaketarik handiena egin beharretan gertatu da. Orduko egin behar gehienak gotzain izateatik zetozen. Goizean, jalkitzean nintzenean, ez nuen asko pentsatu beharrik zer egin behar nuen jakiteko.

Orain aldatu egin da, zer egin behar dudan nik erabakitzen dudalako. Alde horretatik benta jak ditut, baina zaila da aukeratzeko ere. Denetara iritsi ezin duzunean, nahitaez, aukera egin behar duzu, eta aukera egiterakoan ez da beti asmatzen.

Eguna nahiko bete da dut eta, halere, ez naiz nahi dudana guzti ra iristen. Badirudi jubilatu gero bizitza erabat aldatzen zaizula, baina nire kasuan ez da horrela gertatu».

«Leku berri honetatik saiatzen naiz lehengo gaiak lantzen»

Aurrera begira

Jubilatu da, baina ez du denbora atzera begira ematen.

«Ez naiz oso zalea. Lehengo gauzak eginak daude, ondo edo gaizki, ahal izan dudana hobekien. Badakit asko horretan ibiltzen dela, gertatukoari bueltak eta bueltak emanez.

Baina nik oraindik bizi nahi dut, eta bizitza gerokoa izango da, ez atzokoa. Geroak bai eskatzen duela azterketa bat, gauzak non-

dik nora doazen ikusten saiatzea, eta gero nola sartzen naizen ni bizitzaren bide horretatik.

«Hobe da gaurko arazoak diren bezala ikusten saiatzea, alde guztietatik, bai Elizaren bai gizartearen aldetik. Eta bizi. Eta hori geroari begiratu egin behar da, nahitaez. Horrelako erromantizismo txarrik ez daukat nik», erantsi du, geldiro, segundo batez algarara ere heltzen den irribarre zabal batez.

Teknologiaren laguntza

Gaurko egunean bizi nahi du, beraz, eta lanean, gizarteari begira, horretarako behar den teknologiariko uko egin gabe.

«Irakasle nintzenean, idazteko makina erabiltzen nuen. Ez nuen mekanografiarik ikasi, nire hasa egin nuen. Horrela jarraitu nuen urte askotan.

Gero, gotzain bezala hasi nintzenean izan nuen pertsona bat, erlijiosa bera, nik eskuz idatzita-

koa txukun jartzen zuena. Oso iaioa zen, eta berak egiten zidan lan hori.

Jubilatu ondoren, honetan ere, gauzak aldatu egin dira. Nik ez nuen ordenagailua erabiltzen ikasteko asmorik, ez nuen horren premiarik ikusten, baina niri ezer esan gabe, bazen talde bat, fun dazio batekoa, ordenagailu bat erosi zidana.

Argi zegoen kontua: ikasten ez banuen, beste idazkari bat behar



ii Ez dakit gorrotorik sumatu nuen ala ez; gorrotoa ez da nire kategorietan sartzen»

ii Maiz, alde batera utzi behar dituzu sentikizunak, eta gauzak objektiboki aztertzen saiatu»



ii Nire helburua, nire bizitza osoko kezka, Ebanjelioa zabaltzea da; pertsona osatzen laguntzen du»

ii Beti ikusi izan dut nire burua gehiago ikasten edota idazten parrokia batean lanean baino»

nuen eta, azkenean, jarri nintzen ordenagailuan, eta orain nik behar ditudan lantxoak egiteko moldatzen naiz. Posta elektronikoa ere erabiltzen dut. Oraingoz behintzat, nik tresnari atera nahi diodan zerbitzua ateratzeko gauza banaitz.

Orain, Internet eta horrelako gauzelan ez naiz oraindik sartu. Esaten didate oso lagungarri dela, baina nik uste dut Internetek eskain dezakeen laguntza aprobeitatu daitekeena baino gehiago dela.

Autoa neronek gidatzen dut. Lehen, Erroman, motorrean ibiltzen ikasi nuen. Esan ohi da Erroman motorra eramaten moldatzen dena motorretan itaio den seinalea dela. Eta ni oso erraz ibiltzen nintzen han.

Gustatzen zait gidatzea. Askotan, beste norbaitek gidatzen duen auto batean zaude eta, jakina, guztiok modu desberdinean gidatzen dugunez, gidariaren erreakzioak ez dira zureak, eta kezkatu egiten zara».

Sentikizunak kanpoan

Gotzain izan zen garaian, polemika askoren aitzakia izan zen

Setien. Denetik ikusi zuen, beraz, inguruan, mailasuna nahiz gorrotoa.

«Ez dakit gorrotoa sumatu nuen edo ez. Niri hain zaila egiten zait inork bestearekiko gorrotoa izatea... Hori ez da nire kategorietan sartzen.

Gotzain nintzenean pilaka gutun hartu nituen. Eta batzuetan gutun horietan, agian, gorrotoa zegoen. Baina niri gorrotoa horrek ez dit kalle egin. Horrelako kartak hartzerakoan batez ere pena sentitzen nuen, batetik hura idazteko gauza zen pertsonak ez zuelako balorazio positiboa izango eta, bestetik, horrelako pertsonekin gure gizarteko arazoentzat konponbidea aurkitzea zailago delako.

Nik, edozer idatzita ikusten dudanean, komunikabideetan, gutun batean nahiz txosten bat irakurtzen dudanean, beti kezka bera izaten dut: honek zer esan nahi du, hemen esaten dena egia da edo ez da egia; egia izanik edo ez, zein interesen zerbitzura dabil edo ibili nahi du honek.

Errealitateari begiratzen diot nik, eta horren arabera erabakitzen dut irakurritakoak balio

ALDAKETA.

Bere bizimodua aldatu dela dio, baina ez beti izan dituen kezkak. Ez du atzera begiratzen. Bizi, aurrera begira bizi da.

didan edo ez. Hori idazteko egileak izan duen animoa, gorrotoa nahiz maitasuna, ez zait, berez, interesatzen, edo oso interes txikia du niretzat. Sentikizuna baino gehiago axola zait idatzitakoa.

Batzuetan, zerbait irakurtzerakoan, pentsatu izan dut pertsona horren barruan bazegoela zerbait. Baina ni zertarako jarriko naiz pertsona horren azterketa egiten, nirekiko dituen sentikizunak antzematen. Berak jakingo du.

Horrelako egoeretan, ez lasai, baina barruko bakea gordetzeko bidean jarri behar duzu. Nik esandakoa edo ez esandakoa bihurtu eta aldatzen zutenean bezala. Objektiboki aztertzen baduzu, horrek barruko ziurtasuna ematen dizu. Sentikizunak kanpoan utzi behar dituzu. Niri laguntzen dii, edo ez dii ezertan laguntzen, merezi du arreta pixka bat edo ez, hura idatzitakoa sentikizunak alde batera utzita.

Ikuspegi afektibo edo psikologikoan ez dut nik sartu nahi. Nahiago dut ikuspegi objektiboa, eta iruditzen zait hori dela erantzukizun handiak dituenaren jokabide zuzena: entzutea, pentsatzea, hausnartzea... baina objektiboki».

Pertsonak pertsonago

«Nire helburua, nire bizitza osoko luna, Ebanjelioa zabaltzea da. Nire iritiz, Ebanjelioa pertsonaren onerako da, pertsona osatzen laguntzen du. Hori da nire kezka, gizon-emakumeak pertsona izan daitezela eta horretan laguntzea. Horrek pertsonaren duintasuna

zaintzea esan nahi du, lagundu benetan pertsona izan daitezen. Pertsona libre, kontzienterak eta arduratsuak. Hori egiten ez baduzu, ez dituzu pertsona osak lortzen.

Pertsonak gero eta gizatiarrago izan daitezke nire ahalegina, eta Jainkoari nola edo hala irekiak. Zoritxarrez, gaurko giroa ez da horretarako aproposena.

Eginkizun horretan asko lagundu didate egindako ikasketek, konfiantza handia izan baitut beti ikasi nuenarekin, oinarritzko iritzi haiekin. Seminariotan bukatutakoan Erromara joan nintzen ikasten jarraitzeko, eta geroztik neronek ere osatu ditut ikasitakoak, baina iruditzen zait alde aurretik burna ondo antolatua nuela. Aspaldian neronek idatzitakoak aztertu izan ditudanean, iruditu izan zait segida bat dagoela hasieratik. Horrek ez du esan nahi beti gauza bera esan dudantik, ez, Baina oinarritzko iritzi bera da, ikasle nintzenean ikasitakoa».

Ikasi aditza aipatu du behin baino gehiagotan.

«Seminariotan nengoetik, beti ikusi izan dut neure burua ikasten, idazten, hitzaldiak prestatzen, parrokia batean lanean baino gehiago. Nik ez nuen neure burua hainbeste parrokia batean ikusten, eta Elizaren agindua betetzeko prest banengoen ere, ez ninduten parrokia batera bidali».

Egin zen apaiz, eta, ikasketak bukatu ondoren, irakasle izan zen, gotzain-laguntzaile, eta gotzain ere bai. Orain lanean jarraitzen du, eguna bete arte.

NORTASUN AGIRIA

JOSE MARIA SETIEN

1928

Hernanin (Gipuzkoa) jaioa, guztira lau seriide izango zituen familian. Gaur, bi gelditzen dira bizirik.

1944

Hamasei urte zituen seminarioan sartu zenean. «Askotan, guk jaso genuen heziketari buruzko gaitzespenak entzuten dituzu. Baina nire oroitzapenak ez dira horiek, nik uste dut bake handiz begiratzen dudala atzera, nire irakasleak baloratzerakoan. Denak ez ziren berdinak izan baina, dena den, nik uste dut ni ikasle erraza izan nintzela. Iruditzen zait erraz egokitzen nintzaioa hartzen nuen hezierari, eta horrek ere errazago egingo zidan irakasle onarpena».

1951

Apaiz egin zen, Donostiako katedralean.



GOTZAIN LAGUNTZAILE.

Jacinto Argaya zen gotzain Jose Maria Setien gotzain laguntzaile egin zenean. Zapi urte egin zituzten elkarrekin lanean.

1972

Donostiako Elizbarrutiko gotzain laguntzaile izendatu zuten.

1979

Donostiako Elizbarrutiko gotzain titular egin zuten.



AITA SANTUA EUSKAL HERRIAN.

1982an egin zuen bisita Juan Pablo II.ak. Argazkian, Aita Santua, Jose Maria Setien eta Carlos Garaikoetxea.


2000

Erretiratu egin zen. Astigarra bizi da, komentu bateko kapelauarekin batera.



SETIEN ETA URIARTE.

Jose Maria Setienek iaz eman zion lekukoa Juan Mari Uriarte gotzain berriari.



MIKEL CASAL

Autoargazkia

JOSE MARIA SETIEN

Hamasei urte nituela joan nintzen seminariora eta, beraz, hamasei urte denbora gehiena seminarioan pasatu zen. Gogoratzen naiz, baina ere zein zen nire bizitza seminariora joan ondoren. Lagunak, ikasketak eta giza. Kirola ere egiten nuen baina, oro har, ez zitzaidan gustatzen nire lagunen bizimodua. Nik nire sinemenen inguruan, Elizaren inguruan bizi nahi nuen, eta horrela sortu zen seminariora joateko erabakia.

Apaiz izan nahi nuen, eta izan nintzen. Erabakia sendoa zen eta ez nuen krist handirik izan. Ez nuen pentsatu, normala den bezala, gotzain izango nintzenik.

Izaeraz sekundarioa naiz, dudarik gabe, eta horrela behar du. Maila pribatuan gelditzen den pertsonarentzat errazago izango da bere sentikizunak azaltzea. Baina lan publikoa duzimean, zuk egindakoaren ondorioak handiagoak dira, eta horrelako karguetan ez zate emozioei amore eman behar.

Badakit batzuek nirekin komunitatzeko zailtasunak dituztela, baina nik beraien ez. Urruna naizela esan izan ohi dute, eta baliteke. Baina nik jendearekin hitz egiteko ez dut eragozpenik izan, beti gustura hartu izan dut nirekin hitz egin nahi duen gizona, denekin hitz egin dut eta denek entzun diet. Horrek, noski, ez du esan nahi horiek guztiak nirekin gustura gelditu zirenik.

Goztain egin nindutenean, hasieratik pentsatu nuen batzuek apreziazio egingo zutela nire lana eta beste batzuek ez.

Setienen aldapagora

JOSE MARIA ZUNZUNEGI

Gasteizko seminarioan, aparta kirolatan eta zentzutasun handia. Ordu luzeak otoitzean. Erroman, alaitasun pozgarria. Unibertsitate Gregoriarak ohorezko matrikula eta bi urrezko domina eman zizkion saritzat. Gasteizko eta Salamancako katedretan, liburuak, artikulak eta hitzaldiak, guztiak giza justiziaren eta giza eskubideen alde.

Artean gazte zelarik Artzai Onaren Katedralera heldu zen, eta gotzain izendatu zuten, izan duen elizbarrutik bakarrean. Ikasketen pozari uko egingez, artzain zerbitzu apalera eman

zen. Milaka kilometro bakardadean, bere -kapera pribatua-ren gidari. Bizimodu apala. Aldarte alaita du: badaki nola gozatu mahaikideak adiskide direnean. Ez dute izutzen bihotzeko nahigabeek eta ebakuntzek ere. Rivera sendagilearen hitzak dira: «Don Jose Mariak ez du beldurrik. Koronarietako ebakuntza egin nion. Gizon mardul eta osoa ezagutu nuen, bere bizitzarekin emankor». Bere zaletasunak, alaitasuna eta bere herriarekiko

maitasuna. Aurrekoak ez bezalako gotzaina izan da. Kontzilioari eta berea duen tenore etikoa esker, bere herriaren baldintza konplexuek arduratzen da. Bakegintzari buruzko *compus* iragarlea utzi digu. Ez du biolentziari buruzko gaitzespena beste interesekin nahasten. Anbigutasuna baino nahiago du ambibalentzia. Berak dira hitz hauek: ez gara batenak ez bestearenak, ez dugu elkar aditzea planteatzen, bakegintza baizik, eta azken hau askoz zailagoa da. Ez diti maitate biktimakeria ez iraina. Bejondetuzula, Don Jose Maria.

Tximista iluna

A.U.

Beltzez, noski, lepoan pintzelkada zuria eta guzti. Ilea urez orrazturik, zintzo eta zuri. Betaurrekoak tinko sudur ederrean. Eskuak luze eta dotore, eraztun pare batez apainduak. Handiena ure kolorekoa da, zabala, eta gurutze bat du apaingarritzat. Gurutzea ere lepotik zintzilik, zilar eta egurrezkoa.

Astiro egiten du hitz, esaldiak

hasieratik osorik baleude bezala eta, erantzuna bukatu baino lehen, beti aurrekoa laburbilduko duen esaldi biribila.

Arretaz entzuten du eta begietan igartzen zaio, tximista ilun batez, noiztik ulertu duen esandakoa. Sarritan,

pazientziatz baliatu behar du hizlariak bukatu arte itxaroteko.

Gurutzatzen ditu eskuak eta herabezain azkarta ez denaren zain gelditzen da.

Zutik jartzen denean, luze eta sendoa. Batek espero du sotana gorri baten gonon zetazko murruria entzutea mahaiaren edo aulkiairen kontra. Ez doa, ordea, ez gorriz ez zuriz.

elkarrizketa

Milagros Rubio
Zinegotzi eta parlamentari

Gutxiengoarekin, beti

Txikitatik ikasi zuen mundua gaizki banatua egoela. Hori konpondu nahian jardun du geroztik. Batzarreko parlamentari da Iruñean; zinegotzi Tuteran, aspalditik.



«Ez da zilegi minoriak zanpatzea»

«Tuterako familia pobre batean sortu nintzen eta zazpi anai-arrebak ginen. Nik aita berrigogoratu dut gaurerik, eta nire ama besteen etxeak garbitzen. Txikitatik hasi nintzen neroni lanean: ume txikiagorri irakurtzen irakasten nien, klaseak ematen nituen, eskolan eta etxean, zentzua dudanez geroztik.

Bederatzi urte nituela, beka bat lortu nuen, ustekabean, eta hari esker atera ninduten eskola publikotik Mariaren Konpainiaren eskolan sartzeko. Nik ez nuen eskola herrira joan nahi, beka gutxi banatzen zirela jakinda ere. Eta arrazoi nuen. Han, ikasle batzuen jokarari esker (ikasle, ez irakasle), sendotu egin zitzaidan bidegabekeriaren aurkako sentiberatasuna.

Txokea handia izan zen, baina gero egokitu egiten zara, integratu. Hamalau urte nituela jarri nintzen harremanetan, Elizaren inguruan zeharritzen gazte talde batzuen bidez, Albeñerren Eskola Antikapitalistarekin. Horrelaxe zinen izena, gehitu du irribarez, izen horiek XXI mendean duen oihartzun bitxia azpimarratuz.

«Han sortu zen nire kontzientzia soziala eta, geroztik, beti hartu izan du parte giza-mugimenduetan. Ikasleekin, auzoetan, CC.OOren sorreran... Klandestinitate garaietan EMKko militante egin nintzen... 79an, Ezkerreko Udak Nafarren izeneko zerrenda batean Tuterako zinegotzi aukeratu ninduten, eta hemen nago harrezkero, hauteskunder hazteskunder».

Ezkerraren ezkerria

Ezker muturretik beti, ezkerrek garai batean zituen ereduak suntsitzen ikusi baditu ere.

«Nik badakit askorentzat ereduaren suntsiketa hori katastrofe bat izan dela, baina niretzat ez. Nik uste dut irabazi egin dugula, aberastu egin garela. Lehen, adibidez, gure ikuspegia eskematikoa zen gutxi, gizarteari edo prozesuari dagokionez. Gaur erreferenteak anitzak dira, leku desberdin askotan sortuak. Gaur baterako lehen munduan aurkituko dugu erreferentea, beste baterako hirugarren munduan.

Eredurik gabe gelditu gara, bai, eta horrek aberastu egin gaitu. Aniztasuna eta mestizajea onak dira ideientzat ere.

Nik uste dut gehiago irabazten duzula zalantzaren bidez, ziurtasun erabatekoaren bidez baino. Zalantzatik pasa ondoren ematen dira aurrerapausoak. Horik, eta bestearen lekuan jartzetik. Biak dira premiazkoak.

11 Ezkerra eredurik gabe geratzea katastrofea izan da askorentzat, baina aberastu egin gaitu, nire ustez»

11 Ez zaie uko egin behar norberaren iritziei, baina onartu behar egin da jendea horien alde ez egotea ere»

Ereduak galdu ondoren hobeto uler dezakegu banakotasuna naiz talde lana. Niretzat biak dira premiazkoak. Are gehiago, iruditzen zait biak, banakotasuna eta taldearekiko atxikimendua bizirik daudenean lortzen duela gizakiak oreka.

Nik taldea beharrezkoa dut, eta ez bakarrik politikaren esparruan. Adibidez, idaztea gustatzen zait, eta literatur-lantegi bateko hide naiz».

Minorien lanak

Prozesu aberasgarri hori gutxiaren artean egin da. Milagros Rubioren hasi ziren asko desagertu egin dira politikaren mundutik, erretiratu egin dira.

«Askok utzi du borroka politikoa. Arrazoi ugari dela medio. Batzuek ziklo biologikoari jarraituz, beste batzuek nahi zutena lortzea zaila zela ikusi zutelako, beste batzuek... Joan direnen artean, askok borroka politika utzi egin du. Baina ez kezka sozialak, ez halletuen, gutxietsien aldeko jarrera. Hilobira ere eramango duzue jarrera hori, bitartean chinien politikoei buruz zalantza ugari izan arren.

Parlamentuan bakarra naiz berrogeita hamarren artean; udalean bi gara hogeita biren artean. Ohitu naiz, nola ez, minoria izatera. Batzuetan ez duzu ulertzen nola esaten dioten ezetz zuk proposatukoari, nola ez duten minoria entzun ere egiten. Besteok ere badugu geure bihotz txikia.

Zerbaitetan sinesten denean, adibidez, gizon eta emakumeen arteko eskubide berdintasunean, ez da erraza kasurik ez dizutela egiten onartzea. Apaltasuna ikasi behar da, hori landu behar

dugu. Ezin duzu dena kolpetik lortu.


Onartu egin behar duzu gizartearen gehiengoa ez dagoela zurekin eta, beraz, zuek defenditzen duzuna zuzena izanda ere, ez da gaurko.

Munduaren bi heren pobrezian bizi dira, eta heren aberastua da mundua gobernatzen duena. Zuk argi ikusten duzu hori bidegabekeria dela, eta bat-batean bukatu nahiko zenuke munduaren banaketa horrekin. Baina, baldin eta posible baldin, bihar bertan, sutzidua litzateke.

Helburua ukatu gabe, momentu bakoitzean noraino heldu jakin behar da, tamaina, neurria hartu behar zaio kontuari, aurrerapausoak atzerapauso bilaka ez daitezela. Eta hori arte bat da, edonork ez duen trebezia».

Gutxiengoaren eskubideak

«Nik uste dut minorian gaudenok onartu egin behar dugula minorian gaudela, gure helburuak eta jarrerak matoria bilaka daitezkeela, baina ez orain, ez oraindik. Ez zaie uko egin behar norberaren uste sendoei, baina onartu egin behar da jendea ez dagoela horren alde, eta ez beti gu baino tontoagoak edo gaiztoagoak direlako».





Beste adibide bat Nafarroarena da. Ni nafarra naiz eta euskaldun sentitzen naiz, nire modura, guztiok bezala, nor bere modura. Bada onartu behar dut gaurkoz jendeak Nafarroa banandurik nahi duela. Onartu beharra dago jendeak zer nahi duen esateko eskubidea duela eta gaurkoz ez duela Nafarroa Euskarriaren barruan nahi.

Hori bai, ez da zilgi minoriak txikitzea, zanpatzea. Hemen, Nafarroan, euskaldun sentitzen garenok onra erasotuak, minoria gara eta erasotu egiten gaituzte. Ez dituzte gure aukera politikoa eta sentikizunak errespetatzen. Aski litzateke giza sentikortasun pittin bat eta borondate on pittin bat. Horrekin aski litzateke. Maioria erabakia hartzeko eskubidea du, baina minoria errespetatu bere eskubideak».

Erakundeetako lana

«Politika ez dut sekula bizibide

11 Nafarroan euskaldunok gara erasotuak, ez dituzte gure aukera eta sentikizunak errespetatzen»

izan. Sekula. Eta erakundeetako lana ez da ere gehien maite dudana. Gusturago nago asanblada anti-militarista batean edo emakume asanblada batean. Legebiltzarrean baino. Udalean bertan, hurbileko gaiez arduratu behar izaten dut, eta atsegin zait hori.

Legebiltzarrak garrantzi handia du, bertan egiten baitira guztion bizitza gobernatzeko duten legeak. Baina Legebiltzarrak eta antzokiek elkarren antz handiegia dute, nire gusturako. Prota-

11 Amets bat baduzu, ametsik ez bazenu baino pauso bat gehiago emango duzu»

gonistak antzezle dira.

Uste dut pixkanaka ari naizela egokitzen, baina ez dut hori karrera politikoa egin nahi. Are gehiago: nahiago nuke legealdi hau parlamentari gisa azkena bati.

Halere, ez da ahaztu behar Legebiltzarra bozgorailu bat dela, eta nik defenditzen ditudan ideiek ez dutela sarritan bozgorailurik lortzen».

Ametsaren indarra

«Gauza da niri ez zaidala gusta-

tzen munduak nola funtzionatzen duen, gizarte mailan, ekonomian nahiz politikan. Eta hori aldatzeko etenik gabeko lana egin behar dela, iraupen handiko jarduna.

Amets bat baduzu, ametsik ez bazenu baino pauso bat gehiago emango duzu. Amets hori akuilu bat da, bultzatze bat. Skulan santan bere osotasunean lortuko ez baduzu ere.

Horrek historia bat dakarkit gogora. Ba omen zegoen, aspaldian, zeruan omen zuen aitaren bila joan nahi zuen gazte bat. Jendeak ezetz aholkatzen zion, esaten zion ez zuela helburua lortuko eta, gainera, txirtxilatatu egingo zela. Gazteak ez zuen etsi. Egin zuen galdi bat, jarri zizkion hegokak eta salto egin zuen. Ez zuen zeruan omen zuen aita aurkitu, baina lurreantze zihola zera pentsatu omen zuen: bai bidaiari zoragarria».

Bada, horixe.

POLITIKA.

Ez da hortik bizi, ezta nahi ere. Gusturago omen dago asanblea batean parlamentuan baino.

NORTASUN AGIRIA
MILAGROS RUBIO

1950
Tuteran jaioa, guztira zazpi anai-
arriba izango zituen familian.
Babxilergoa bukatu ondoren,
Nazioarteko Idazkaritza ikasi
zuen.

1970
Ingalaterrara joan zen, ingelesa
ikastera.
Handik itzulitakoan hasi zen
lanean, idazkari gisa. Garai
horretan egin zen EMK-ko kidea.

1979
Lehen udal hauteskunde demo-
kratikoetan parte hartu zuen,
ezkerreko zerrenda batean.
Zinegotzi aukeratu zuten
Tuteran.

TUTERA.
Eriberako
Tutera herrian
jaio zen eta
han bizi da
Milagros
Rubio.



1999
Parlamentari hautatu zuten
EHren zerrendan, Batzarrekoak
ere hor aurkeztu baitziren.



BATZARRE.
Erakunde politiko honek EHtik
alde egitea erabaki zuela
jakinarazi zuen.

Tuteran bizi da eta 24 urteko
alaba bakarra du.
Baliogabetasun orokorrarekin
baterra, duela gutxi pasa da
pentsiodun izatera.
«Bizkarrezurreko arazoak ditut.
Horrekin ordaintzen dut
hainbeste denboraz eserita lan
egin izana, estresa, joera
genetikoren bat, edo auskalo
zer».



ZUTIK.
Alderdi honek joan zen urrian
egindako Nazio Biltzarrean har-
tu zuen parte Milagros Rubiok.

Autoargazkia

MILAGROS RUBIO

Desordenatu samarra naiz, eta
ez paperekin bakarrik. Diber-
tsifikatzea maite dut, eta
horrek alde onak eta txarrak ditu.
Etrazago zait gauzel hasiera ematea
bukaera baino. Hori bai, konpromiso
angj bat hartzen badut, bete egiten dut
agindutakoa, horretan oso hitzekoa
naiz.

Ohe ondoko mahai txikian beti
ditut sei edo zazpi liburu, eta guztiak
irakurtzen hasiak. Tenorearen edo
momentuaren arabera, bat edo bes-
tea hartzen dut. Batzuetan zakarra
naiz, jenio bizia dut. Saiatu naiz hori
aldatzen eta maila batean lortu dut

zerbait. Baina, halere, batzuetan
lehertu egiten naiz.


Sentibera naiz, oso, oso. Horrek
gainerakoan oinazearekiko sentikor
egiten zaitu eta, era berean, hainbat
konturi ez duen garrantzia ematen
dionzu. Ez zait batere kostatzen bes-
teen oinazearekin bat egitea eta kal-
tetuen alde jokatzeko. Esango nuke
berezkoa dudala hori. Teleberri batek
ere hunki nazake, urrutiko berri
batek.

Uste dut besteen esperientzien

bidez neure burua aberasteko gauza
naizela, besteel benetan entzuteko gai-
tasuna dudala.

Aise egiten dut negar, baina politi-
kari irakatsi dit ez dela egoki jendau-
rrean negar egitea. Behin gertatu zi-
tzaidan, Udalean, malko batzuk atera
zitzaidakidala. Damutu nintzen eta
geroztik ez zait horrelakorik gertatu.
Negar egiteko arrazoirik falta ez bada
ere. Baina hobea da etxean egitea, jen-
daurrean baino.

Izatera kontua izango da, baina beti
apreziatu izan dut elkarbizitzeko har-
monikoa, beharrezko diren liskarrei
ihes egin gabe, baina harmonian.



MIKEL CASAL

Ez hotz ez gogor

JOSE MARIA LACARRA

Duela ia berrogeita hamar urte
ezagutzen dugu elkar eta nor-
mala da, biok baikara Tutera-
koak.

Erabakitutasun handiko emakumea
da, nahiz eta emakumerik apenas
zegoen politikaren munduan bera
horretan hasi zenean. Lehen udal
demokratikoetan parte hartu genuen
ere garrantzi handia izan zuen
bere buruzagitzak, guztiontzat hain
berri zen esparruan.

Entzun izan dut bere trudia ema-
kume hotz eta gogor batena dela, bai-
na hori ez da inondik ere egia. Hori
dionak nahastu egiten du gogortas-
una kontsekuente izatearekin.

Milagros sentibera da, sentikorra,
besteen oinazearekin sufritzen dakie-
na. Uste dut berak ez duela sekula
hori ezkatutu eta gogorra dela diote-

nak aurreiritziei amore ematen ari
zaizkie.

Franco hil aurretik ezagutu nuen,
arazoei aurre eginez, eta horretan
daraiz gaur egun ere. Dituen gaita-
sunengatik edozein kargu betetzeko
gauz izango litzateke. Ez da hori,
orde, interesatzen zaiona. Alde-
rantz, aukeratu dituen alderdi poli-
tiko eta giza mugimenduetan ez dago
jendak «karrera politikoa» deritzona
egiteak.

Katu persiarra

A.U.

Biribila da, begi-bistan behintzat
arantzarik gabea. Ite leuna,
zaindua, oraindik apenas zuri-
tu gabea. Zilarrezko belarritakoak eta
amatista txiki bat zintzilik daraman
katea.

Begi argiak, grisak, harridura ara-
zorik gabe adierazten dutenak, eta era
berean sarkorrak, kontuen mamira

heltzen ohiuak, sakonerako joera
nabarmena dutenak.

Mantso egiten du hitz, esaerak
akatsik gabeak nahituelako, argiak,
edonork ulertzeko modukoak; sarri-
tan jendaurrean hitz egiteko ohitura

duenari dagokion modura.

Entzuten ari dela katu itxura har-
tzen du Milagros Rubiok, katu persiar
bizkor eta atseginezalearen itxura, laz-
tanak nahituzenari bakarrik onar-
tzen dituzten horietakoa, lasaia, bai-
na beti alde egiteko prest, askatasu-
naren defentsak hala eskatu bezain
laster.

ELKARRIZKETA

Aurelia Arkotxa

Unibertsitateko irakaslea eta ikerlaria

Bizitza bidaia bat delako

Literatura irakasten du Bordeleko Unibertsitatean, eta azkenaldi honetan urtearen zati bat Amerikan ematen du, Kanadan. Han egiaztatu ahal izan du mundua dela bere etxea, mundukide dela.



«Bilatzea, eta bilatuz ikastea, da enetzat garrantzitsua»

«Ofizios irakaslea naiz, eta ikerlaria. Ikerketa, niretzat, biziki garrantzitsua da. Ni ikerlari sentitzen naiz lehenik, irakasle ere bai, baina, batez ere, ikerketa –erran nahi da bilatzea eta bilatuz ikastea– da enetzat garrantzitsua. Horregatik aukeratu nuen dudan lanbidea, ikerketarako astia uzten didalako eta nire pasioa ikertzea delako.

Dena lotua da nire bizitzan, irakaskuntza, ikerketa, idaztea, abentura, bidaiak... Dena lotua da nire barruan.

Betidanikoa dut bidaiatzeko zaletasuna. Familia, txikitatik,

horrela sortua naiz. Muga batean sortua naiz, eta ni haurra nintzela aita Hendaian destinatu zutelarik, bertze muga batera joan nintzen bizitzera. Mugetako bizia berezia da, baina mugen artean ere ezberdintasunak badira: Baigorri eta Errazu artean den mugak gauza guti du ikustekorik Hendaia eta Iruen artean denarekin, oso ezberdinak dira.

Gainera, ene familian betidanik izan dira Amerikara joan direnak, bi aldeetatik, amaren nahiz aitaren aldetik. Nire aitari bizkatarra zen, eta hogeitau urte iragan zituen Argentinan. Han-

dik etorri zen Iparraldera. Bai-gorri Banka herriko neskatxa batekin ezkondu eta han jaiotzen ziren bere hiru semeak. Berak kontatzen zidan nola ibili zen Argentinan, nola ibili zen urte bila...

Nire amaren aldetik ere, izebabak Txilera joan ziren, 1950 urte inguruan. Beraz, niretzat bidaiaren kontua normala zen, etxean askotan atpatzen zidatelako eta, gainera, gazte-gaztetatik irakurtzen nituen Amerikari buruzko liburuak, Ipar Amerikako pioneroen gaiak aipatzen zituztenak, Jack Londonenak adibez.

Abentura liburuak nituen maite, eta neure abenturak irudikatzen nituen guire etxe ondoan ziren zaldiak lagun hartzen nituela... Zaldi gainean Cochise, Jernimo edo edozein... ene abenturako heroi bat nintzen.

Bi anaia badituz, eta nire etxean inork ez zekidan mugak juri ni neska nintzelako. Ez didate inoiz esan ez egin hori, mutilen gauza delako. Edo hori ezingo duzu egin neska zarelako. Nik ez dut muga hori ikasi. Eta anitz eskertzen ditut aita eta ama, konturatu bainatuz nire belar-naldiko neska guztien esperien-

tzia ez dela hori izan.

Ni eskaldun bidaiarietako bat naiz, guire artean hain zabalduta izan den tradizio horren parturde. Horrela sentitzen naiz.

Amerikarako bidea

Gauza da 1994an «bizitza pribatuaren eraginez» ezagutu zuela. Lehen aldiz, txikitik irakurritako liburuetan azaltzen zen Ipar Amerika, eta ez turista gisa. Hori azpimarratu nahi du, bidaiaria dela, ez turista.

«Nire Amerikako esperientziak ikaragarriko haustura markatzen du nire bizitzan, eta orain



11 Denbora behar dut idazteko, denbora behar dute gauzek nire barruan alkimia gerta dadin»

hasi naiz horri buruz idazten. Lehenago ez zitzaidan egokia iruditzen. Denbora asko behar dut idazteko, asko pentsatu behar ditut gauzak, denbora behar dute nire barruan, alkimia gerta dadin. Denborak irakasten dizuzer ken, zer atxiki...

Quebec ongi ezagutzen dut, hegoaldeko iparralderaino eta ekialdeko sartalderaino, baita Kanadako eta Estatu Batuetako leku asko ere. Baina bereziki dut maite Ternua.

Ternuan bi itzuli egin ditut, biziki inportanteak. Ez dut bakarrik herri bat, paisaia mirengarri bat deskubritu, geografia bat. Deskubritu dut baita gure lehen itsasgizonen oihartzuna, euskaldunok askotan ahaztu dugun historia-zati bat. Testuekin lanean hasi naizenean, abenturaren barruan beste abentura bat aurkitu dut.

11 Nire Amerikako esperientziak ikaragarriko haustura markatu du nire bizitzan»

Lehenago zeuden han

«Ipar Amerikara heldu nintzenean indioen berri ere izan nuen, baina denbora asko pasa zen hor inguruan zerbaiz bilatzen hasi baino lehen, errespetu handia nuelako haienaz.

Ikasi nuen ez dutela indio hitza maite, amerindiar hitza ere ez. Han, autoktono hitza erabiltzen dute. Nik tokikoak esaten dut. Gainerakoak kanpotik etorriak dira, ingelesak, frantsesak.

Quebec ez hitz egiten delarik, frantsesaren eta ingelesaren hizkuntzen arteko eztabaida aipatzen da. Oso gutxitan aipatzen dira, ordea, ingelesak eta frantsesak baino askoz lehenago bizi zirenak, haien hizkuntzak, haien eskubideak, haien nahiak... Quebecen hamaika populu dira, hamaika nazio bertakoen hitza erabiliz, bakoitzak bere ohiturak eta bere hizkuntza ditu, batzuetan ahaztu ere egin dutena.

Eta Quebecen bertan zuriek ez dituzte estimatzen, horrekin sekulako arazoa dute, are politikoa. Montrealen, entzun izan ditut solas biziki arrazistak. Ez ditut autoktonoak errekonozituak sumatu, ez estimatuak. Baztertuak sentitu ditut, gutxietsiak».


Tokikoen bila

«Eman dut denbora. Ez naiz berehala joan norbaitekin hitz egitera. Gainera, euskalduna izanik, herri minorizatu baten kide izanik, nire begiradak, nahitaez, haien egoerarekiko kritikoa behar zuen izan. Lehenik, indio hiritartu bat ezagutu nuen, Herbert, ojibway nazioekoa, unibertsitatean ere ikasitakoa, Toronton, Ontarioko probintzian, 1994an. Indiarra da, agian bizibidez apur bat zuritua, baina, era berean, zuri ez dena dakiena.

Gero, urte horretan Ontariotik Quebec bisitatzean Quebecoko Cree nazioekoa oihan ikaragarri baten erdian den erreserbaren bat ezagutu nuen, berezgarritzat pobrezia eta iluntasuna zuena. Ondoko urteetan, huronek organizatutako kanpamendu batera joan ginen. Kanpamenduak eratzten dituzte, tipi eta guzti, oihan txiki baten hegian, erreka bazterrean, Quebec hiritik hurbil.

Huronek hizkuntza galdua dute, aspalditik, zurutuak dira. Arduraduna ile horia zen, begi urdinduna. Oro har, oso folklorizatua iruditu zitzaidan. Kasu batzuetan, batez ere gurekin batera bertan zeuden batzuk kontuan hartuta, barregarria ere bai.

Nire herrian, Hendatan, antzeko zerbaiz gertatzen da. Berrikitzen suntsitu dute Priorenian, besteak beste. Orain hori 'Port Hendaye' deitzen dute, Priorenia izena mende mende ezagutua zena hendu diote. Erdi Arotik, Europako erronesak Compostelara zihozazenean erabiltzen zuten aterpe hori. Bada Pello izeneko kortario famatu bai XIX. mendean lehen erditsuan hor bizi izan zena, eta han dago bere etxea. Bada etxea desilxuratu egin dute, suntsitu han inguruan zegoen parke mirengarria. Eta azken urteetan ospatzen dute



BIDAIA. Euskaldun bidaiaren tradizioan kokatzen du bere burua Aurelia Arkotxak.

Pelloren desenbarkoa edo antzeko zerbaiz. Eramaten dituzte eskolako haurrek eta festa egiten dute. Hori dena Hendaia berrizte puntan... Haur horiei nor die irakatsi egiazko Pelloren etxea hor zegoela oraindik zutik Priorenian? Dagoena desegin, historia, errealitatea desagerrarazi, oromena ere bai eta haren ondoan gauza folklorizatu bat egiten dute. Eta jendea pozik festarekin».

Iparralderago

«Hori guztia ikusi ondoren, pentsatu genuen etorria zela ordua eta Quebeco Iparraldeko itsas hegira jo genuen berriz, jadanik ezagutzen baikenituen Tadoussackeko inguruak aspalditik, baina aldi honetan iparralderago joan behar zen.

Han, lehen aldiz egiazki, aurretik ezagutzen genituen innu edo muntañesekin sartu ginen harremanetan. Hizkuntza gordezen duen herri bat da, zuritua izan ez dena. Betsiamitesko erreserban zen, Saint Laurent ibai handiaren hegian den innu herriaren herri nagusia, bihoitzean. Frantsesa egiten dute berriz hizkuntzaz gain, eta ez dute estimatzen hizkuntza gorde ez duen herriak.

Irekiak dira, biziki abegitsuak. Hau da gure etxea eta zu kanpo-

11 Quebecen bertan, zuriek ez dituzte indiarrek estimatzen; horrekin sekulako arazoa dute»

11 'Zabal ezazu munduan indiarrok ez garela salbaiak', eskatu zidan adiskide batek»

tarra zara, baina laguna eta gonbidatzen zaitugu, gure etxean errezibitzen zaitugu. Han antzeman ditut ni bezalako jendeak, beren eguneroko arazoekin. Emazteekin, adibidez, harremanak biziki errazak izan ziren. Naturarekiko errespetuaren barruan bizi dira eta nabarmena da, era berean, zaharreko errespetua eta garai bateko ohiturak berreskuratzeko borondatea. Gurekin konparatuz, okerrago

daude, egia erran ipar eta Hegoaldeko Euskal Herriko egoerak ere oso ezberdinak direlarik. Zuek, adibidez, euskarearen ofizialtasuna baduzue, guk ez; eta ez ahaztu Nafarroan dituzten arazoak. Baina, oro har, gu baino okerrago daude, bai.

Halere, oso dinamikoak diren irrati komunitarioak badituzte eta indar politiko azkarrak dute, biziki organizatutak daude. Konfederatuak daude beste nazioekin eta harreman zuzenak dituzte Ottawako gobernuarekin. Kanada osoko eta Estatu Batuetako beste autoktonoekin harreman estuak dituzte, Hego Amerikako indiarrek ere harremanetan daude. Badute ongi prestatutako jendea. Ez dira inuzenteak. Handik urrun.

Innu populuko adiskide batek eskatu zidan zabal nazala munduan zehar ez direla salbaiak, basatiak.

'Ternuan dire salbaiak / eye isquimau etsatuk / guica brestia crucial, / hillic jaten mariñelac'. dio presesi XVIII. mendekoa izan daitekeen kantu zahar batek. aipatzen du Arkotxak, atbukatzen duen arrazakeriak gure artean ere arrastoak utzi dituela frogatu nahirik. «Zabal ezazu munduan indiarrok ez garela salbaiak», esan zion innuak, eta horretan ari

NORTASUN AGIRIA
AURELIA ARKOTXA

1953

Baigorri sortua, urriaren 3an, haurtzarotik Hendaian bizi da.

1976

Filologia Hispanikoan Lizenziatura lortu zuen, Bordeaux 3 unibertsitatean.

1990

Doktoretza, unibertsitate berean. Gaia, Gabriel Arestiren inguruko.



HITZALDIA.

Gabriel Arestiren obra sakon aztertu eta idazle bilbotarrari buruzko hitzaldiak eman zituen.

1993

Atari ahantziak liburua argitaratu zuen.

1994

Lehen bidaia Amerikara.

I lamasei urteko semea du.



MIKEL CASAL

GASTON MIRON-i

Hi
 Québecantropoa
 Lila kolorezko
 Goizean
 Québec
 Hain goraki
 Defenditu huen
 Nun dituk
 Innuak
 Waban-Akiak
 Anishnabeak
 Atikamekwak
 Ndoohenooak
 Welustukak
 Mig' Maqak
 Kanien 'kahakak
 Wendatak
 Naskapiak
 Québecoko abots ixilduak?
 Gure "salbaiak"?
 Gure marinelen "güñon bestiu cruelac"?
 Gure Miranderen "kakhatsuak"?
 Hemengo ur
 Hemengo lur
 Hemengo mendi eta zelaien jabe
 Zuek baino lehenago zirenen
 Arimak
 Badoaz
 Urrun
 Elur-lumetan dantzari
 Libro

Etikaren geriza

Markatzen gaituzten jendeak badira, liburuen pare irkitzen eta sekula bururatzen ez direla nahi genituzkeenak. Bizitza salhestu ibai eitzetan laster egiteaz eta laster egin ondoan «harrizko lau poema» kaskar idazteaz beste helbururik ez duen honi, Aurelia Arkotxak, aspaldian, perspektiba etikoaren geriza eskaintzen dio. Susan plazaratu nuen *Orain* bilduma autosuntsizailerari aitzi solasa oparitzerakoan, eman dezagun, hitzak salbaitasunaren ilun-keriatik balizko argitasun jasagarria ekarri zituen. Bera ni bezain poeta

ITXARO BORDA

delako, edo gehiago. Literaturaz mintzatzen badaki gainera, eta hori lparaldean eskergarria da.

Urtean bietan bederen biltzen gara, oilasko on baten inguruan, gure eskualdeko gertakariak, izan politikak edo kulturak, aipatzeko, aztertzeko eta nola ekin planteatzeko. Hendaian naiz, Aureliaren laguntzarekin Abadia Urrustoiaren Idazki zientifikoetan sartu eta Erdi Arotik honarainoko mapan undi anitzetan galdu,

ene geografiazale izaera errotik aseztu. Eta Aurelia Arkotxak unibertsitateak ateratzen eta egiazki interesatzen nauten aldizkariak ematen dizkit irakurtzeko. *Lapurdum*, demagun, zeren Euskal Herri zenbaitetan nazkagarri honetan, toki sozial egokian ez baldin bazaude, Informaziorik ez duzu erdiesten. Aurelia Arkotxak badaki *Lapurdum* gustatzen zaidala, frankok irakurtzen ere ez dakidala uste duten arren.

Eta exiliarako trenak hartzean begiz jarraitzen den azken itzala izan daiteke halaber.

Hegoak zabalik

A.U.

Txoria, dudarik gabe, dotorea bezain efikaza hegan, haize korrontez haliatzen mautu.

Beltzez etorri da, goitik behera, aho zabaleko jertsea eta are lirainago egiten duen lebita. Inainbesteko belztasunaren erditik, justu lokarri beltz batez osatutako lepokoak markatzen

duen puntutik, luna argi eta horixkez osatutako kalpar fina. Oso puntu zehatzetan jarri behar duzu fokoa, neska gazte bat ez dela ikusteko. Begiak erdi berde erdi marroi, irri-

barreak azpinarratzen dituen toledura finen erdian. Zehaztasunez egiten du hitz, eta enborra utzi eta adar batean abiatu zelarik, disgresione bat da, esan zuen, baina disgresione kontrolatua. Eta bai, kontrolatua zegoen disgresioa eta haren hegoetan kultura zintezke, erortzeko beldurrik gabe,

Autoargazkia

AURELIA ARKOTXA

Bidalari gisa ikusten dut neure burua, zentzu atzeratuta, barruan nahiz kanpoan. Ez dut besterik enetako, barne-kanpo bidaiak, hil arte. Hori, heriotzarekin bukatzen bada. Ez dakit gero jarraitzen duen edo ez, baina hori ez da arazo niretzat. Bidaia bizitza da, eta kontua horixe da, bizitza bizitzea, osoki, azken tantaraino eta azken punturaino, kontzientzia galdu gabe.

Organizatua naiz, nola ez. Nik ere aunitz bizi dut eta organizaziorik gabe ezin dituzu guztiak bizi. Baina ez modu idortean. Jakin behar duzu zue orduak aldatzen ere lagun batekin egoteko, semearekin... Gehiegizko organizazioak bizitzarekiko beldura adierazten du.

Kortesia maite dut. Beste norbaitekin tratatu duzularik, premiazkoa da kortesia. Zu ez zara nor beste norbaiten libertatea kentzeko. Zuretzat libertatea garrantzitsua bada, eta niretzat oinarritzat bada, behar duzu jakin bestearen libertatea errespetatu behar duzula. Hori ere bada kortesia.

Maite dut 'kortesia' hitza, gure literaturaren lehen liburuan dago: Etcheparek, amodioaz ari delarik, 'kortes' hitza erabiltzen du, Etchepare bera gizon kortesa delarik, emazteen faboretan lehen aldiz euskaraz atera izan den gizona...

Halere, batzuetan, deskortesia behar da izan, batzuetan deskorteski oldartu behar da. Baina kortesia zer den jakinez.

ELKARRIZKETA

Begoñe Ariño

Gaixo Mentalen eta Senideen Bizkaiko Elkartearen buru

Gaixo dagoena zaindu



Lau seme-alaba zituen eta irakaslea zen seme zaharrenari eskizofrenia nabarmendu zitzaionean. Orain, arazo bera dutenei irakasten die berak nekez ikasitakoa.

«Eskizofreniak gaixotasuna sortzen du ingurukoengan»

«Eskizofrenia ezkutuan egoten da, estalia, eta halako batean nabarmendu egiten da. Mundu osoan, %1 omen da gaitz horrek jota daogun jende kopurua. Bizkaitan hamar mila lagun edo izango dira. Baina tratamendupean mila, edo bi mila, daude.»

Fernandori, nire semcari, hogei urte zituela nabarmendu zitzaion eskizofrenia. Bero, sortzer, gorra da. Urte eta erdi zuela konturatu ginen, eta geroztik berroziketarekin jardun genuen. Sasoiari ez zen erraza izan, baina gure semea entzuten zuten haurrekin batera ibili zen eskolan.

Borroka latza izan zen, ez zene-
kion sekula gehiegi ala gutxiegi
eskatzeko zentzio. Gauza da orain
ez zaitola gorra denik nabaritzen,
baina, gaixotasuna nabarmendu
zitzaiotenean, gogoan dut pentsatu
nuela zertarako hainbeste neke».

Kolpearen ondoren

«Nik, hasteran, pentsatzen nuen
gaixotasuna gortasunaren ondo-
ria zela eta sasoiari irakurtzen
zuten liburuen. Parapsikologia-
rekin hasi zen, eta nik uste nuen
korapilo bat egin zitzaiola buruan.
Ez zen hori, ordea. Buruan ger-
tatzen ari zitzaiotona ulertu nahi

zuelako hasi zen liburua horiek irak-
urtzen, erantzun baten bila.»

Eraman genuen psikiatra ba-
tengana, eta hark esan zigun kri-
sialdi eskizoida bat zuela. Ezer
gutxi zela eta hobe zuela etxean
gurekin jarraitu eta botika ba-
tzuk hartu. Etxera heldu ginene-
an, senarra eta biok korrika joan
ginen hiztegiaren bila. Halere, ez
genuen askorik ulertu.

Kolpea izugarria izan zen, gure
bizitza osoa hankaz gora jarri zi-
tzaigun. Erotasunak beldurra
ematen du, besteak beste, horri
buruz ezer gutxi dakigulako, in-
formazioa falta zaigulako. Zeure

buruari leporatzen diozu semea-
ren gaixotasuna eta atzera begi-
ra jartzen zara, non erratu zinen
jakin nahirik. Txikitako kasketa
halek ez ote ziren zerbaiten sei-
nale, edo eskolan buru egiten zi-
totean izaten zituen erreakzioak
normalak ote ziren...»

Uste duzu munduan bakarra
zarela zorigaitzo horrekin. Goi-
nera, ez dakizu ezer gaixotasun
horretaz eta ez dakizu semea nola
tratatatu ere. Lehenengo sei urteak
izugarrikoak izan ziren, baina
nola edo hala eutsi gendun. Hala-
ko batean ingresatu egin behar
izan genuen arte. Eta ia hankaz

gora erori ginen. Eritxean denak
zaharrak ziren, eta han zebiltzan.
buelata, "Kukuaren habia" izen
las.

Ingurukoak gaixotu

«Gaitz honek, zoritxarez, gaixo-
tasuna sortzen du ingurukoen-
gan, anai-arreba edo senar-emaz-
teengan. Banoketa asko gertatzen
dira, adibidez; gaixotasunak jota-
ko familietan. Eta horixe bera
gertatzen da mantako-depresio-
ekin. Halere, pertsona ospetsu
askok pairatu du gaitz hori. Wis-
ton Churchillek eta Abraham Lin-
colnek, adibidez.»



Guk, eskerrak, eutsi egin genion, nola edo hala. Hirugarren semea oraindik ere gogoratzen da zer pena ematen zion anaia baino txikiago izateak, horrek anaia defenditzeko ahalmena gutxitzen ziolako».

Distantziaren bila

«Gauza da, egun batean, Basurto ospitalean giuela, familientzako terapia zegoela jakin nuela. Han hasi nintzen ikasten distantzia pittin bat jarri behar duzula zu eta zure semearen gaixotasunaren artean. Arazoak arrastaka eraman ez zaitzan. Zure semea gaizki dagoenean, zuk ezin duzu gaizki egon. Hori da lehen ikasgaia.

Guk, orain, elkarteon, alaba eskizofreniak jota zeukan australiar batek asmatutako sistema erabiltzen dugu senideei laguntzeko. Hamalau puntu ditu, guztira. Lehenengoak dio gaixotasuna asumitu egin behar duzula; bigarrenak, ez duzula zure burua eruduntzat hartu behar... eta beste batek, zure burua zaindu egin behar duzula.

Halako batean, Elkartearekin harremanetan jarri nintzen. Txiki

zia zen, oso, elkarteak, oso laguntza gutxi ematen zuen. Ni irakaslea nintzen, eta lanean ari nintzela guraso-eskola bat antolatu genuen. Pentsatu nuen Elkarteak antzeko zerbaitekin behar zuela, senideei laguntzeko.

Nekien guztia, bizitzak eta lanbideak irakatsitako guztia, eman diot nik elkarteari. Asko ikasi dut atzerriko esperientzien bidez ere, han egiten dutena ikusiz eta aztertuz.

Eta zer esanik ez gaixoen senideekin. Orain ez ditut nik taldeak zuzenean eramatean, orain monitoreen atzetik nago. Eta askotan esaten diet ez dutela oraindik distantzia behar den bezala mantentzen ikasi, ezin dituztela inondik ere besteen arazoak eta oinazeak elxera eraman. Hemendik gutxira asteburu batez joango gara norabaitera, atsedean hartzera eta, bide batez, talde-dinamikak lantzera».

Elkartzeko premia

«Nire ustez, zenbat eta gehiago luzatu Elkartearekiko harremana, orduan eta okerrago zuretzat eta zure sendikoezkat. Isolatatu egiten zara, eta horrek ez dio ino-

«Mundu osoan, %1 omen da eskizofreniak jota dagoen jende kopurua»

«Semeraren gaitza zeure buruari leporatu eta atzera begira hasten zara, zertan erratu ote zaren jakin nahirik»



ri ontk egiten. Adibidez, nik uste dut larriagoa dela arazoa aberatsengan, haiek bakarka egiten diotelako aurre gaixotasunari, eta hori kaltegarria da, are kaltegarriagoa gaixoarentzat.

Elkarteari hurbiltzen zaion jende gehiena klase ertainekoa da, edo hortik beherakoa. Lehenengo egunean negar egitera etortzen dira, luzaroan pilatu duten oinazea eta larridura kanporatzera. Galdetzen diezu zer moduz danduen eta gaixorik dagoena aipatzen dizute, semea edo senarra. Eta, pixkanaka, ikusten duzu nola ateratzen diren zuloetik, nola sentitzen diren berriro pertsona, arazo larri bati aurre egin behar dion pertsona..., baina pertsona. Askok esan digu Elkartearen ikasitakoa ikasi izan ez balu, ez zela aurrera egiteko gauza izango.

Gizarteak ere ez ditu asko laguntzen. Kontu egin oraindik ere tabu ugari dagoela jendartearen gaixotasun mentalei buruz. Ni bezala egunero —eta jubilatu naitzenetik egun osoan— gaixotasun horren inguruan gabiltzanoi iruditzen zaigu jendeak onartu duela zenbait puntu, informatua dagoela. Errealitateak, ordea, besterik frogatzen ditu.

Duela gutxi hitz egin nuen berriki alabak eskizofrenia zuela jakin zuen emakume batekin. Esan zidan alabaren psikologoak esan ziola hobe zuela kontua isti-

«Nire ustez, arazoa larriagoa da aberatsengan, haiek bakarka egiten diotelako aurre gaixotasunari»

«Oraindik ere tabu ugari dago jendartearen gaixotasun mentalei buruz»

lean eraman, gaixotasunaren izena aipatzearekin batera alabari etiketa bat jarriko ziotela, jendeak seinatatu egingo zuela, estigmatizatu. Erantzun nion alabaren gaixotasuna ezkatutuz edo ukatuz ez zuela gauza onik lortuko eta hobe zuela talde batean parte hartu. Ezetz esan zidan, ezinezkoa zela, taldean parte hartuz gero jendeak jakin egingo zuela alabarena.

Estigmari kontra egin behar zaito, baina hori ezin daiteke ezkutuan egin».

Etorrizunari begira

«Hainbeste urteren buruan, azkenean, ikasi dut nola bizi nire semearen gaixotasunarekin. Lan egiten du, eta eguneko ospitalean egin zuen lagun batekin ibiltzen da batetik bestera, Euskal Herrian bertan edo Europan zehar. Adiskide onak dira eta batak beste zaitzen du. Kanpora doazenean, adibidez, biek eramatean dute behar baino botika gehiago, besteari ahaztuko zaiolakoan. Hasieran, ateratzen zenean, ezin egonean ematen nuen denbora, berriro elxera itzuli arte. Orain konfiantza gehiago dut berarengan, eta ni ere lasiago nago.

Noski, etorkizuna kezka garria da, inor ez baita betirako. Horren inguruan ere ari gara lanean. Erakundeekin. Guk uste dugu gaixotasun mentala dutenen arazoa osasun kontua dela, baina baita soziala ere.

Espainian, %85 edo dira gurasoei bizi diren gaixoak. Europan, aldiz, oso bestelakoa da egoera. Elxebizitza habestunak sortu nahi ditugu, gaixoak gero eta independenteago izan daitezen. Haien ardura duena desagertzen denean ahalik eta autonomoen bizitzeko gauza izan daitezken.

Hori guztia eta beste hainbat gauza bideratzea ez da erraza. Baina nor esan du bizitzeko erraza denik?».

Begoñe Ariñok, behintzat, ez.

ITXAROPENA. Gaixoa pixkanaka zuloetik irteten ikusteak ematen dio poza Begoñe Ariñori.

NORTASUN AGIRIA BEGONE ARINO

1943
Caracasen, Venezuela sortua.
Ama ingelesa du.

1959
Bost urtez Ingalaterrako
barnetegi batean ikasi zuen.

1964
Ezkondu egin zen. Lau
seme-álaba izan ditu.

1965
Seme zaharrena, Fernando, jaio
zen.



FAMILIA.
Etxekoekin sarri ibili arren,
Elkarteko lanetan ere denbora
asko ematen du Begoñe Areitioki.

1985
Eskizofrenia nabarmentzen hasi
zitzaien Fernandori.

1990
*Asociación Vizcaína de Familiares
y Enfermos mentales* elkarteko
partaide egin zen.

1998
Elkartearen presidente aukeratu
zuten.

SEMEAREKIN.

Fernandok, seme
zaharrenak
—ezkerrean—,
eskizofrenia
gaixotasuna
du. Ama beti
ondoan
izan du.



1999
Elkartearen Europako
presidenteorde izendatu zuten.
«Ama ingelesa izaki, eta
hizkuntza hori menderatzen
dudanez, ni ibili izan naiz
gehien Europan zehar. Tokatu
egin zait».

2000
Getxoko Udalak Urteko Elkarte
Boluntarioari saria eman zion.
Bilbon bizi da eta lau biloba
ditu.



ELKARTU.
Lau seme eta lau biloba ditu
Begoñe Areitioki, eta haien
ondoan egotea du gogoko.



MIKEL CASAL

Nekaezina eta irribarretsua

AVIFFSko presidentia bezala da ezaguna Begoñe Arino, borrokatzaile sutua, aldarrikatzailea, asmo eta ekimen berrien bultzagile.

Pertsona gisa, ordea, ez da hain ezaguna, gaixotasun mentala duen semeak aurrera egin dezan eguneroko borrokatzeri den ama ez da hain ezaguna. Eguneroko borroka horretan arazoak irribarretz aurre egiten dien emakumea da, beti animozko hitzak esateko prest, nekeak gaindituko zaitula pentsatzen duzunean adorea ematen dizuna. Sendian norbait gaixo duenari laguntzeko parez pare zahaltzen ditu

MIRKO GEROLIN

beti atekak, eta ez da urria denbora eta lana eskaintzeko orduan.

Berarekin lan egiten dugunonzat, eguneroko kontua da bilera bat bukatu ondoren edo jardunaldi batzuen amaieran Begoñe beste norbaiten arazoak entzuten ikustea. Batzuek goizaldean deitzen diote etxera, laguntza eske; beste batzuk, elkarteko kuota ordaintzeko aitakiaz, etxera joaten zaizkio, sende batekin zer egin ez dakitelako.

Begoñek behartsuekiko duen kon-

promisoa ez da bakarrik gaixotasun mentala dutenenguna edo haien sendeenguna helzten. Deitzen diozu telefonoz eta magrebarr baten etxera joan dela esaten dizute, edo hegoamerikarren baten paperak konpondu nahian ari dela.

Begoñe nor den adierazteko lan hitz bakarrik banitu, hauek aukeratuko nituzke: nekaezina, hurbila, berezkoa, solidarioa. Plazerra da berarekin lan egitea eta ekimenak zer nolako ilusio eta esperantza entzuten dituen ikustea, beti irribarre itxaropentsua ezpatetan.

Etsituen esperantza

A.U.

botatzerakoan, batzuetan, hitz dotoreren batekin estropezu egiten du eta irribarre batez eskatzen du barkazioa. Algarak ere maiz botatzen ditu, labur eta kantari, sarritan bere buruaz.

Edozein lur jota uzteko modulo nekeak azaltzen dizkuzunean ere, ez zaio bizkarrak makurtzen, oraindik beste hainbat pisu jasotzeko prest balego bezala. Lagun duen Jon Sobrinori halako batean esan omen zion bezala, etsituen esperantza da berca, itxaropenik sendoena.

Autoargazkia

BEGONE ARINO

Animo handiko pertsona naiz. Kementsua, energia nolabait gastatzeko premia duena. Elkartera bideratu ditut nire indarrak azken urteotan. Batez ere jubilatu nintzenetik, elkarteak da nire zeregin nagusia.

Baikorra naiz, eta neure buruarekiko irudi baikorra dut. Ausarta izan naiteke eta, batzuetan, apur bat harroa ere bai.

Trekia naiz, kanporakoaia, besteekin gustura komunikatzen dena. Agian horregatik tokatzen zait niri elkarrekin komunikabideekiko harremana.

Ez dut neure barrura asko begiratzen. Berez jokutzen dut. Berezkoa dut lan egiteko premia ere. Eta beti aldatzeko tenorean egoten saiatzen naiz, hori izan baita bizitzan gehien lagundu didan jarrera.

Besteen arazoelako sentikorra naiz, horrelakoxea nintzen semea gaixotu baino lehenagotik ere. Uste dut nire semeak eta biok zoria izan dugula: nik, bera bezalako seme ona dudalako, zintzoa, maitekorta; eta, berak, ama kementsua tokatu zaiolako. Behin esan zidan orain nik zaintzen nuola, baina ni zahartzerakoan berak zainduko ninduela.


Ez litzateke kasu bakarra izango, ez horixe.

ELKARRIZKETA

Meho Kodro
Futbolaria

Mundukide sentitzen dena

Gazterik egin zuen alde Bosniatik, Errealak fitxatu zuenean. Pasa zen gerra, pasa zen futbolari garaia, eta orain bidegurutze batean dago. Donostian. Munduan. Beraz, etxean.



«Mugarik ez balego, ez genuke armada beharrik»

Hogeita lau urteko futbolari gaztea zen Donostiara, Realera, etorri zenean. Berarekin batera etorri ziren emaztea eta hederatzi hilabeteko alaba. Gurasoak, anaia... jaitzerian gelditu ziren, Bosniako Mostarren.

«Etorri eta handik sei hilabete-
ra hasi zen gerra Bosniau. Handik alde egin nuenen banituen susmoak. Gertatu zen Kroaziakoa, Esloveniako, eta guztiok genekien litekeena zela gerra hasia gure herrian. Hori bai, beti pentsatzen duzu azken momentuan gauzak konpondu edo bideratuko direla».

Artean, ez nuen bertatik bertara egiazlatu zenbateraino izan zen latza gerra».

Gerra Europan

«Ordurako, nire anaia Donostian zegoen, gurekin, eta gurasoak bakarrik Mostarren. Hasieran maiz egiten nuen hitz haiekin, baina gerrak aurrera egin ahal, komunikazioa gero eta zailagoa egin zen. Eta egoera horretan, herri-erik ez duzunean, mamu guztiak iruditzen zaizkizu posible».

Hemen, Europan, ematen zen informaziorik Bosniako gerraz, baina orain badakit gertatu zeneren zati txiki bat kontatzen zigitela. Gehiago izan zen, askoz gehiago. Eta jendeak ez dakit zenbaterainoko arretaz entzuten zituen herriak. Oraindik ere, noizean behin, aurkitzen dut Bosnian gertatutakoa esplikatzeko eskatzen didanik».

Eta saiatzen naiz, nola edo hala; baina batzuetan, afari baten inguruko hiru edo lau orduak ez dira aski han gertatu zena esplikatzeko. Gainera, bertan jaio eta gaztaroa arte bertan bizi izan nintzen arren, neronek ere ez dut guzti-guztia ulertzen».

Nik, txikitik eta gaztetan, jugoslaviartzat nuen nire burua. Jakin banekien bosniarra nintzela, baina ez nion horri garrantzirik ematen. Jugoslaviarra nintzen, eta hitlo. Orain, Jugoslaviak ez du existitzen».

Kontuan izan behar da, baita ere, gu erregimen komunistak baten bizi ginela, eta baldintza horietan ezin zarela zenbait gauzaz jabetu, informazioa ez zaitzula heltzen. Orain bai, orain jakin ahal izan dut zer ari zen gertatzen nik eta gainerakoek jakin gabe. Jugoslaviak ez du existitzen, ezta nik egiazkotzat nuen errealitateak ere».

Begiak zabaltzen zaizkizunean oharitzen zara lehen itsua zinela. Horixe da Bosniako gerra leheritu zenean niri eta nitarrei gertatu zitzaiguna».

1 Jugoslaviak ez du existitzen, ezta ere Bosnian bizi nintzenean nik egiazkotzat nuen errealitateak ere»

2 Sufrimendua etengabe sortzen duen makina da gerra. Eta hurbil duzunean, bakea baloratzen duzu»

Gerrari esker

«Ahal izan dudun informazio guztia bildu dut, nire ustez jakiteak garrantzi handia duelako bizitzan. Eta orain jakin badakit gezur askoren artean bizi ginela. Atsekabe handia izan zen, batez ere nirekin haurtzaroan zerikusi handia izan zutenak gerran nahasturik ikusi nituenen».

Sufrimendua etengabe sortzen duen makina da gerra. Eta hori hurbiletik ezagutzen duzunean, inoiz baino gehiago baloratzen duzu bakea, lehen baliogabetzat zenituen gauzak baliotzeko».

ikusten dituzu. Hasten zara pentsatzen, jasotako informazioa aztertzen, eta, sarritan, ondorioak mingarriak dira. Baina oinazea bizitzaren zati bat da, bizitza oinazea ere bada».

Dena den, gizakiaz nuen iritzia ez da horrekin hobetu, ez horixe».

Ni mugen kontrakoa naiz. Ez ditut mugak eta hesiak maite. Horregaitxe behar ditugu armadak, mugak ditugulako. Mugarik ez balego, ez genuke armaden beharrik».


Ni mundukide sentitzen naiz, ez bakarrik munduaren zati txiki bateko kide».

Euskaldunen solidaritatea


«Realeko jokalaria nintzen eta. Donostian bizi nintzen gerra hasi zenean. Eta truditut zitzaidan zerbait egin behar nuela nire herriaren eta nire jendearen alde».

Laguntza eskatu nuen; baita lortu ere. Esan beharra daukat hemengo jendearen portaera ezin hobea izan zela. Bikaina. Gauza asko bildu eta bidali genuen, jakitak eta egumerako bizitzarako behar diren gauzak».

Gero, egiazlatu ahal izan dut solidaritate hori ez zela salbuespena izan. Alderantziz, guri lagundu zigun jende bera beste herri batzuei laguntzen ikusi dut. Eta hori eskertzekoa da, momenturik larrietan jasotzen den laguntzak urrea baino gehiago».



OINAIZA.
Bizitzaren
zati bat dela,
bizitza oinazera
ere badela, dio
Meho Kodrok.



balio duelako. Nik askotan aipatzen dut solidaritate hori, askotan esplikatzen diet nire herrikideei gerra garaian jaso nuen laguntza. Adibidez, terrorismoa aipatzen didatenean, beti esaten dut Euskal Herria hori baino askoz gehiago dela».

Gerraostea Bosnian

-Gerra garaian gurasoak ekarri ahal izan nituen, baina orain han bizi dira. Nire anaia hemen gelditu da, eta gaur egun Donostian bizi eta lan egiten du. Eta ni maiz joaten naiz Bosniara familiarekin, urtean bitan edo.

Bukatu zen gerra eta urte pare batez kontua bareturik egon zen. Kanpoko jende asko zegoen, militarrek batez ere, eta horietan esker bizitza ez zen hain latza. Gero, Bosniak galdu du interes militarra eta, horrekin batera, arazo ekonomikoak sortu dira eta, ondoren, giza arazoak.

Bosnian ez dago ez industriarik ez lanik. Zegoen gutxia gutxitu lur jota dago. Gainera, herri komunista ginenez, ondasunak estatuarenak ziren, eta orain ondasun horiek gainbehera doaz.

|| Zenbat eta hizkuntza gehiago hitz egin, zenbat eta leku gehiagotakoa sentitu, hobeto»

Seguru aski, merke asko pribatizatuko dituzte hemendik gutxira.

Horrek langabezia dakar. Guxti gorabehera, hamarretik bi dira lana daukatenak. Eta gerrak sortutako zauriak oso mantso sendatzen dira. Mantsoegi. Ulertzekoa da. Gerra izugarri bat sufritu genuen, milioi laurdenetik gora dira hildakoak eta milioitik gora errefuxiatuak munduan zehar.

Garbiketa etnikoa ere hor dago, bizirik. Demagun hau izan dela nire jaioterria, hiri honetan bizi izan naizela betidanik, kale horretan, etxe horretan. Bada agian, orain, Irunen bizi behar dudala esaten didate, nire etxetik hogeit hamar kilometro. Kasu horretan,



ni ere errefuxiatua izango nintzateke.

Horixe da nire gurasoei gertatzen zaiena. Itzuli ziren, baina ez betiko etxera. Beratek badute etxe bat Mostarren, sarritan ikusten duten etxea. Baina ezin dute bertan bizi, beste arazo batera joan behar izan dutelako. Errefuxiatuak dira, etxetik hain hurbil bizi badira ere.

Hori guztia dela medio, zaharrrak dira itzultzen diren baka-rrak, bertan hil nahi dutelako. Gazteak ez dira itzultzen. Ez

|| Niretzat, Donostia Mostar bezalakoa da; hemen ere etxean sentitzen naiz»

dute lanik, ez dago eskolarik. Beraz, gazteak ez dira itzultzen. Gainera, munduan zehar hainbeste urte pasa ondoren, errefuxiatu asko girotu egin da, ume zen alde egin zuenean eta dagoeneko gazte da, edo seme-alabak izan ditu atzerrian».

Bidegurutze berria

-Horixe gertatu zait niri. Etorri nintzenean alaba txikia nuen. Orain hamar urte ditu, eta zazpi mutilak. Eta oraingoz Bosniara itzultzeko asmorik ez. Etorkizunean, agian, auskalo.

Gure umeak leku askotan bizi izan dira: Donostian, Tenerifen, Gasteizen, Tel-Avivén... Bosnieraz mintzatzen dira, gaztekeraz eta

ingelesez. Euskaraz ere ekiten dute pittin bat. Zenbat eta hizkuntza gehiago, orduan eta abaratsago. Zenbat eta leku gehiagotakoa sentitu, orduan eta hobeto. Hobeto haientzat, ez mundua-erentzat edo gurasoentzat.

Lehenagoan, umeak eskolara eramaten ari nintzela, neskek esan zidan berak erli bosniar erdi euskaldun izan nahi zuela. Esan nion, agian, laster eskola herri batera joango zela (ez nion herri aldaketa aipatu) eta ezetz esan zidan, dagoen eskolan jarraitu nahi zuela. Koskortu egin da eta, hemendik aurrera, bere iritzia ere kontuan izan beharko dugu zer egin erabakitzena.

Bidegurutze batean gaude orain. Auskalo non biziko garen hemendik urte pare batera. Bitartean, Donostian gaude, eta pozik. Niretzat Donostia Mostar bezalakoa da. Esan nahi dut hemen ere etxean sentitzen naizela. Izan ere, hemen bizi izan ditut nire bizi-tza profesionalaren momenturik hobeenak. Eta lagunak ditut bertan, aspaldikoak...

Etxean, munduan dagoelako. Mundukide delako.

NORTASUN AGIRIA
MEHO KODRO

1967
Urtarrilaren 12an jaio zen Mostarren, Bosnian. Orduan Jugoslaviako herrialdea zen Bosnia. Txikitatik hasi zen futbolean, eta bikiki-bikitatik erakutsi zuen golegile sena.

1991
Velez Mostar taldetik fitxatu zen Toshackek Realerako. Liga hasi eta gero gauzatu zen aurrelari bosniarraren traspasoa.



EMAZTEA ETA ALABA.
Alaba txikiarekin eta emaztearekin heldu zen Kodro Donostiara, 1991ko irailean.

1995
Realean eman zituen lau denboraldietan, batez ere azken hirurutan, golegile nagusia izan zen. Barcelonak fitxatu zuen, 800 milioi pezeta ordaindu ondoren.

1996
Urtebete baino ez zuen egin Barçan. Ez zen taldera egokitu, eta Teneriferi saldu zion klub kataluniarrak.



BARÇA.
Ametza bete zuen bosniarrak Barcelonak fitxatu zuenean. Baina amesgaiztoak ere izan zituen Nou Campen.

1999
Teneriferekin Bigarren Mailara jaitsi zen, eta kanariar klubak Alavési zeditu zion. Denboraldi polita burutu zuen Arabako taldean, bost gol sartuz.

2001
Hogeieta hamalau urte ditu, talderik gabe geratu da -futbolak ere baditu langabetuak-, eta hain ondo hartu zuen Donostiara itzuli da.



ALAVESEN URTEBETE.
Alavés izan da Kodroren goi mailako azken taldea. Irudian, Gonzalo Antón presidentarekin.



MIKEL CASAL

Golik ederrenak

JOSEBA LEZETA

Bartzelonan, Tenerifen, Gasteizen eta Tel-Aviv-en futboleko jokatu ondoren, Donostiara itzuli da Kodro, isilik, zaratarik gabe. Lanik gabe geratu denean, bere familia osoa hain eskuzabal hartu zuen hiria aukeratu du Meho biziitzeko.

1991n Bosniatik heldu zen Realera artean jugoslaviarra zen gizon gazte hura. Une latzak bizi zituen Bosniak, eta handik gutxira piztu zen gerra. Futbola, gerra, etxeokak, lagunak... gauza gehixto zebiltzkioren buruan, eta kosta egin zitzaien Realera moldatzea. Gurasoak Euskal Herrira ekarri zituen, baita Mela anaiarekin. Hamar-hamabi bat lagun bizi ziren bere Donostiako etxean, eta patxada pixka bat hartu zuenean piztu zen goletzailea.

Atotxak eta Anoetak, biek, ezagutu zituen Kodroren golegile sena. Eskutuz, ezkerrez, buruz... era guztietako golak sartu zituen. Area barruan harrapatutako baloia bizkor jartzen zuen atea bidelan. Jotzen zuen baloikada bakotzean Bosnian gertatzen ari zenak sortutako amorrazioa jartzen zuen.

Klub asko zituen ate joka eta Realak, nahiz eta bere asmoa jokalaritari eustea izan, Bartzelonarekin egin zuen tratua. Kodrok berak hala eskatuta. Klub txurriurdiak operazio ekonomiko polita burutu zuen: 80 milioi pezetan erosu eta 800ean saldu. Gustura harrapatuko luke beste horrelakoren bat...

Camp Nou, hala ere, Kodroren argia itzali egin zen. Hura ez zen Donostia; taldekideek amama zituzten baloik ez zituzten berari ematen; okerrik ez zituen barbatzen... Handik Tenerifera joan zen, eta errendimendurik ez zuen hobetu. Taldea, gainera, Bigarren Mailara jaitsi zen. Futbolerako poza berreskuratu zuen Iaz Alavésen. Hogeieta hamalau urterekin, futboleko gustura jarraituko zuen, baina ez zuen nahi bezain eskaintza onik jaso, ez Gasteizen ez beste inon.

Harantz eta honantz zebilen bitartean, jugoslaviar zena bosniar eta mundukide bihurtu da. Goleatzailearen bolborak nahikoa su piztu zuen busti aurretik, eta gerrak eragindako une ingurriak gainditu ditu. Kosta ahala kosta estadioetan adina gol, edo gehiago, sartu ditu zelaitatik kanpo.

Giharra eta burmuina

A.Ú.

Luzea da eta liraina. Ez ditu izteretan hainbat futbolariaren praktikak puzten dituzten muskulua nabarmenak. Ederra, 'bainarik' gabe, eta munduaz pentsatzera ohitua. Nahasketa hori, tamaina aproposoko giharrak eta burmuin landua izan daitezke emakumeengan sortzen duen liluraren iturburu. Hainbeste maite duen emaztea aipatuz kanporatzen ditu baloi horiek, inongo ostikoz ez duen eraginkortasunez.

Eta estiloduna. Panazko praktikak lokartu batez gerriratuak, pana zaba-

la, marroia. Marroiak zapatak ere, bigunak, erabilerak hobetzen dituen horietakoak. Elastiko gris iluna, ia beltza, eta artilezko polo laranja. Hain gutxi erekin estilodun denak ez du beste frogarik behar.

Lasaia, hitzak oraindik min egiten duen zauri batetik iritertzen direnean ere. Baina beti gelditzen zaio tristora pittin bat, irribarreak ezin uxatu duena. Ez aurpegiaren bakarrik. Mo-

mentu batzuetan aurreratu egiten du ipurdia jarlekuan eta jaitsi bizkarra, pisuren bati aurre emango balio bezala.

Seme-alabak aipatzen ditu maiz, eta haiekin gertatutako zerbit. Nola joan nahi zuen mutlak Erreala-Alavés partidura, Anoetara, Alavésen bufanda lepotik zintzilik zuela, edo nola neskek ez zuen alde egin izan nahi Tel-Aviveko eskolatik, bertan hifabete bakarrik zeramala.

Bidegurutzean dago, eguzkiaren epela gozatuz, giltzariarekin jolasen.

elkarrizketa

Rosa Valverde
Pintorea

Irudimena pintatzen duena

Paradisuan bizi zen, hamazazpi urte zituela aita hil zitzaion arte. Geroztik lurrean bizi da, pintatzen, izen handiz osatutako belaunaldi bateko kide. Infernua ere ezagutu du, eta berehala erakutsiko ditu berriz bere lanak.



«Margotu gabe ez naiz inor, ez naiz ezer»

-Bai, paradisuan bizi nintzen, baina, halere, beti izan naiz erreheldea. Eskolan, adibidez, beste-en notak etxean falsifikatzeko sistema bat nuen. Laputu nituen boletín hutsak, garbiak, eta nire lagunen notak falsifikatzen nituen, eta haien gurasoen firma. Kobratu gabe. Azkenean, txotxola baten kulpaz harrapatu ninduten.

Gure aita oso pertsona magikoa zen, alana, apala, guztiak berdin tratatzen zituen, jakintsua izan edo ez. Bromazalea oso, luzez barre eginarazten ziguna. Nik uste dut familia osoa zegoela kolgatua harengandik.

Aitarekin hasi nintzen pintatzen, txiki-txikitatik. Ez dut ahaztu zer poza hartzen zuen neure koadru bat erakusten nioenean. Ni libre sentitzen nintzen berearekin, bururatzen zitaidana esaten nion. Eta gustatzen zitzaien».

Gauza da aita hil zela, Rosak hamazazpi urte zituela. Duela hogeita hamar urte luze. «Nik aita presente dut, denbora guztian. Bere pintzelak erabiltzen



ditut batzuetan, kaballetea ere berra da, batzuetan berak erabiltako mantala janzen dut lan egiteko, bere argazkiak ditut paretetan, aldaretan... Dena dedikatu diot, geroztik egin dudana guztia. Badakit ez dudala berriro ilusioa, baina ez dut ahaztu nahi,

ez diot gauzantzia kendu nahi. Oraindik ere, lasteka, amak eta biok luzaroan egiten dugu negar aita gogoratuz».

Urrezko taldea

Handik gutxira czagutu zuen Bixente Amoztoy. -Bai, Bixente

ezagutu ondoren hasi nintzen pintatzen seriozki; ez altari poza emateko, barrutik ateratzen zitzaidalako baizik. Hor hasi zen nire bizitzaren beste zati bat, garrantzi handikoa».

Taldea, izenik ez baina abizen ospetsu ugari biltzen zuen pinto-

re taldea: Llanos, Ametzoy, Gocnaga, Zumeta, Zurriaran, J. Valverde...

-Lehenengo urteak izan ziren hobereenak. Artearen menpe bizi ginen, erabat. Anarkista samurrak ginen eta, aqian, pittin bat senonitoak, kontziente ez baquena ere. Dena den, suerte bat izan da nire bizitzan. Oso gauza politak bizi izan genituen elkarrekin, eta gure sasotko koadroetan gure arteko hlahe ezkutu asko daude, gure bizitzaren arrastoak hor daude, jendeak zeintzuk diren ez badakit ere.

Bixentek eta Zumetak, batez ere Bixentek eta Zumetak, beti sinetsi dute nigan eta, gainera, publikoki esan dute hori. Teknukaren kontua aipatzen nioenean ere beti esaten zidaten ez joateko inora ikastera, nire kasa ikasiko nuela...

Geva, denborarekin, taldea aldatu egin zen eta, ondoren, ba kottzak bere bidea jarraitu zuen, eta orain banakakoak dira harremanak eta, askotan, telefono bidezkoak. Atzo britan egon nintzen ordu pare batez Llanosekin



Hasieran plazer handia hartzen duzu heroinarekin, baina, azken batean, bizitza izorratzen dizu»

Hortik atera nintzenean frogatu nion nire buruari indartsua nintzela, ahulezia guztien gainetik»

Aspaldiko partez, erakusketa bat egingo dut Donostian maiatzean»

hizketan. Espero dut nire hurrengo erakusketara bilduko direla».

Kontzentrazio-esparruak

Bakoiñak bere bidea hartu zuela esan du. Bereak min handia egingo zion ezkontza batera eramán zuen.

«Zulo batean sartu nintzen, eta sufrimendu hura ahaztu ahal izateko heroina erabiltzen hasi nintzen. Banekien arriskutsua zela, baina beldurra galdu nion. Senarrarena ahanztarazien zidan, eta hori zen axola zitaidana.

Eta bai, hasieran lagundu zidan. Baina puta bat da heroina. Plazer handia hartzen duzu, baina bizitza osoa izorratzen dizu. Behin hor sartuz gero, dena da nazkagarria, zikina, ez dago garbitasun izpirik.

Eta hortik ateratzea zaila da. Nik asko sufritu dut hortik ateratzeko. Behin baino gehiagotan egon naiz kontzentrazio-esparruetan. Horrela deitzen diet, horrela tratatzen gintuzelako. Jaitkitzen ginen goizeko seietan eta gosaldia baino lehen footing egin behar genuen, bestela ez zegoen gosaririk. Eta lana, pikatxoarekin eta palarekin mendi haietan...»

Egia esan, familiak asko lagundu zidan. Hasieratik, anai-arreba guztiek. Iruditzen zait hortik atera nintzenean frogatu niola neure buruari indartsua naizela, ditudan ahulezia nabarmen guztien gainetik.

Momentu batean pentsatu nuen hori eta gero ez nintzela pintatzeko gauza izango, baina ez zen hori gertatu. Drogak hartzen nituenean barruko mundua margotzen nuen.

Orain ez, orain ikusten dudana margotzen dut. Hor dago benetako diferentzia. Orain, ikusten dudana interpretatu egiten dut. Lehen askotan esaten zidaten ez zutela nire lana ulertzen, eta orain ez dit inork horrelakorik aipatzen.»

Nola margotu

«Ni modu hasiatian hasi nintzen margotzen, teknikak ikasi gabe. Nire aita anti-akademizista zen eta nire sormena atera behar nuela esaten zidan. Berak bultzatu zuen nire ziletasuna, baina ez



ninduen ezertara behartu.

Gero, egiten duzu erakusketa bat eta jende guztia hasten zaizu teknika aipatzen, teknika eskatzen.

Halako batean erabaki nuen Madrilerara joatea, bertan zegoen oso irakasle on batekin zorieko teknika horiek ikastera. Erakutsi nion egiten nuena, esan nion zer nahi nuen eta ezezkoa eman zidan. Esan zidan teknikaren bidez nire pintura hondatu egingo zuela eta ez zidala hori egin nahi. Justu Bixentek eta Zumetarak esaten zidatena.»

Geroztik asko ikasi du eta asko margotu du. «Etengabe, margotu gabe ez naiz inor, ez natz ezer. Pintura dena da niretzat, nire lana, nire askatasuna, nire bizitzeko arrazoi...»

Gaur egun, aspaldiko partez, erakusketa bat prestatzen ari da Donostian, Galeria 16-en. Maiatzerako. «Zan, uste dut, data ego-kia, Goyaren fusilamenduena.»

«Aitaren ereduia izan zen lana alde batetik eta artea bestetik. Oso libre zen margotzen zuena, eta nik ikasitako horri eutsi nahi diot. Nik ez dut askatasunik gabe pintatu nahi, ezta asko salduko dudala ziurtatzen badidate ere.»

Artearen merkatua

«Izugarrizko okerkeriak ikusi ditut nik galerietan, nirekin eta beste askorekin. Leku askotan tratatzen gaituzte behiak edo zerriak bagina bezala, ganadu gisa. Galerista batek hitzartu dezake erakusketa bat pintore batekin eta bi hilabete falta denean atzera egin. Noski, pintorea lur jota gelditzen da, baina galeristari ez zaio axola. Nik ezagutzen dut Donostiako Boulevard jende bat horrelakoak egiten dituen.

Batzuek zer eta nola margotu behar duzun agintzen dizute. Eta nik ez diot galerista bati lana nola egin behar dudana erabakitzen uzten. Horixe besterik ez genuen falta! Nik ez dut puntaren puntara heldu nahi, nik ez dut inora heldu nahi, ez bada nire lamaren bidez bizitzeko adina irabaztera. Hori bai, askatasunez lan egin, askatasunik gabe ez baitu zentzua pinturak.

Hori guztia dakidalako izan dut nik beti hainbeste beldur merkatuarekiko. Eskerrak, orain, beste era bateko galerista aurkitu

dudan. Ganzek beltz-beltz diruditenean ere, hor zabaltzen da leiho txikiaren bat.»

Berdinkeria nagusi

«Iruditzen zait gaur egun kopia asko dagoela arte munduan, orijinaltasun gutxi. Eta nik uste dut artista batek hori bilatu behar duela batez ere, orijinaltasuna. Nik ikusten badut beste batek egin duela nik buruan bueltaka dabilkidan zerbat, ez dut hori egiten, baztertu egiten dut ideia. Interpretazio bat egin dezaket, baina inoiz ez kopia bat.

Nik irudimen gutxi ikusten dut artista askorengan, eta harriztekoa iruditzen zait. Inoiz baino informatuagoak gaude, inoiz baino gauza gehiago dakigu, baina irudimena ez da neurri berean ugalduta. Horretan ez dugu inolaz ere aurrera egin. Hainbeste jakinduria, hainbeste prestakuntza, gero plagioak egiteko. Hori bai, amerikaraz eta korbatuz jantzi-rik, bulegoetan bezala.»

Prestatuak ditu ia lan guztiak erakusketarako, baina oraindik ez du erabaki zer jantziko duen. Txori txuri batez apaindutako sombreroa agian. «Agian bitxikeria hori jarriko dut, besterik ez, amari ez zaizkio gustatzen eta...»

AITA. Margotzera bultzatu zuena. Aspaldi hil bazen ere, bere pintzelak erabili ohi ditu maiz pintatzeko.

NORTASUN AGIRIA

ROSA VALVERDE

1953

Donostian jaioa, guztira bost anai-arreba izango zituen familian.

1970

Aita hil zitzaion.

1975

«Urte horretan erabaki nuen pintura kontu serioa zela niretzat eta horretara dedikatu nahi nuela».

1978

Lehen erakusketa, San Telmon, Donostiari. «Lehen koadroa Zumetak erosi zidan, eta harro nago horretaz».



ETXEAN.

Bere mundua osatzen zuten gauza kuttunez inguratua, 1994an egindako argazkian.

1980

Erakusketa Bartzelonan, Miró Fundazioan.

Urte horretan ezkondu zen, lehen aldiz.

«Irakastea ere gustuko dut. Akademia izan nuen Donostian, eta nire ikasle batzuek lortu dute gero eskola onetan sartzea. Orain Baionan ematen ditut arte eskolak, astean behin. Horixe da, oraingo, etxeko ekonomiarri ekartzen diodana».

1997

Bigarren aldiz ezkondu zen.

2000

Grabaketa-erakusketa egin zuen, Donibane Lohizunen.

Azkainen bizi da.



LANAK IKUSGAI.

Hilabete barru-edo egingo du, aspaldiko partez, erakusketan Donostiako Alberri galerian.



Autoargazkia

ROSA VALVERDE

Lehenengo eta behin, ni hiperes-toska naiz, hori da, gehiegizko sentikortasuna duten pertsona. Berezkoa dut, ezin da sendatu. Beraz, sentikortasun hori artera bideratzen saiatzen naiz.

Ez dut bizitzan erdi-mailarik ezagutu. Gaizki nagoen oso gaizki nago eta beherraino joan behar izaten dut, mugara heldu ondoren egiten dut berriro gora.

Psikologoek esan didate pittin bat masoka naizela, baina, nire ustez, sormena eta sufrimendua batzuetan lotuak daude.

Irudimen handia dut, agian gelbigizkoa. Eta hori arterako oso ona da, baina bizitzarako oso arriskutsua. Lanean ari ez naizenean nire buruak sekulako bidaia egiten ditu, sekulakoak.

Edozer txikikeriak egiten dit min handia edo on handia. Min egin nahi didanak erraza du, baina maite naiz ere. Hauskora naiz, baina ez ahula. Uste dut frogatu diodala nire buruari indarra ere badudala, baina hauskora naiz, sentibera.

Garrantzi handia dute niretzat maitasunak eta adiskidetasunak. Hori gabe ez naiz piztatzeko gauza ere, ez dut ezertarako ilusiorik ez kenenik.

Familiarekin lotura handia dut, ahizpekin, anaiekin, amarekin.

Txorria naiz, libre sortutako txoria, eta katolak gorroto ditut.

Oroitzapenen lorategia

EDORTA KORTADI

Hiruogeita hamarreko hamar-kadan Bixente Amezcua, Ramon Zurriarian, Jose Llanos, Juan Luis Coenagak... osatu zuten artista taldearen emakume-neska bakarra, Rosa Valverde, modu erradikal eta ausartaz itzuli da pinturara. Eta berea, ez beste inorenena den moduan itzuli da galnara. Amelsez, errealitatez eta oroitzapen magiko eta pertsonalez gainezka, bere «Gozamenen Lorategi» pertsonala eraikitzeko erabiltzen dituen kuttuez, pinturez, grabaketez gainezka.

Hainbeste uteren buruan, eta bere obra Bidasoaren beglak bezala agertu eta desagertu egin den arten, mundu-ikuskerara eta errealitate hasieran bezala fresko eta bizirik baitaude. Bihotzaz eta maitasunez margotzen du Rosak,

gaur egun arte munduan oso modan ez dagoen moduan. Agian horregatik ulertzen dute hobeto bere lana ume handiek eta emakume helduek.

Objektu aurkitu, erabili eta bizituen magiak, postalen oroitzapen eta presentziak, kromoek, oihalek, lepokoez eta perlek errealitate berri bat sortzen dute eta, askotan, begirada zitela dugunok ez dugu obran dagoen benetakotasuna eta sakontasuna aurkitzeko gaitasunik.

Ez dirudi, ordea, hori plintoreari asko axola zalonik. Eskuzabala baita Rosa, Antonio Valverde (Ayalde) bere aita zena bezalaxe eta bere obran ongintzia, maitasuna eta laztanak bana-

tzen baititu. Euskal herria gaizto eta biolento honetan modan ez dagoen zerbait. Bere lanak baketsuak dira, alaiak.

Agian horregatik Rosak *Lorategiak*, *Arrain-ontziak*, *Venusez*, *Maitalez* eta *Natura biziz* josiak dauden lanak eskaintzen dizkigunean, gure buruan dagoen *hoherena* azaleratzen zaigu. Horregatik potzen gaitu bere itzulerak eta berriro harritzen gaitu beti adeitsu eta erakargarri den poesia oniriko eta ironikoaz.

Rosa ahots propioa izatera deitua dago, XXI mende honen hasieran Arte Plastikokoetako lorategian lanean ari diren emakumeen artean (Menchu Gal, Ana Izura, Marta Cárdenas, Carmen Maura, Jeanne Devoyon, Dora Salazar, Itziar Okariz...).

Bizitzaren mesetan

A.U.

Badira bizitzaren gallurra ume-tan bizi dutenak eta zahartzar-rakoan ere ume itxura erabat galtzen ez dutenak. Alderantziz, Rosa bizitzaren meseta honetara heltzeko sortua dirudi.

Hiltzaz ez dela fidatzen dio, baina nekerik gabe egiten du hitz eta oroitzapen bat kontatzen duenean sentitzen duzu hortxe bertan zegoela, ez

duela bila ibili behar izan. Halarik, batzuetan, nahiago du desberdintasun bat bi koadro aipatuz nabarmendu, hitzekin baino.

Iurbil ditu beti, batzuetan batera, algara eta negarra ere. Handia izan arten, hosto batek bezala egiten du

dar-da-, arroka sendoa da edo txori batek bezala egiten du ilhes.


Zakur bat du, Werther izenekoa, etxekoandreaen antza hartu duena, eta bisitarien aurrean tintik egin gabe begiratzen duena. Landarezalea da eta udaberri honetan jazaito ederak ditu etxeraren aurreko aldean. Eta niri aurreten eta aurrekoan erdibidean gelditu zaizkit.

elkARRIZKETA

Pascal Gaigne
Musikagilea

Inongoa ez den musikaria

Berrogeita hiru urte ditu eta horien erdia Euskal Herrian eman du, lanean, musikagintzan.
Hitz gutxiko eta nota askoko gizona da.



«Hizkuntzak aberastasuna eta, aldi berean, langak dira»

Frantzia jaio zen eta, aitaren lana zela-eta, hautzaroan butetik bestera ibili ondoren, Baionan suertatu zitzaion lehen gaztaroa. Han, batxilergoa egiten ari zelarik, jarri zen lehen aldiz harremanetan musika euskaraz egiten zuten batzuekin.

«Frantzia jaioa naiz, frantsesa da nire ama hizkuntza, baina ni ez naiz ez frantsesa ez ezer sentitzen. Ez naiz inongoa, eta ez dut ulertzen nonbaitekoa sentitzen denaren bizipena. Agian hori izan zen Euskal Herrira hurbiltzean gehien harritu ninduen sentikizuna, lurralde batekiko eta kultura batekiko atxikimendu irmo eta sakona.

Azken urteotan bertatik ihusi dut nonbaitekoa izatearen sentikizuna, baina, halere, ez zait buruan sartzen. Guztiz zuzena ez den konparaketa bat eginuz, esango nuke sentikizun horrekin erlijioarekin bezala gertatzen zaidala: sinesten duzu ala ez, erlijio batekoa sentitzen zara ala ez. Horixe da gertatzen zaidana, ez dudala nongotusun hori ulertzen.

Egin nuen bada batxilergoa eta, ondoren, musika ikasketetan murgildu nintzen. Horretan ari

«Ez naiz inongoa eta ez dut ulertzen nonbaitekoa sentitzen denaren bizipena»

«Euskaraz abesten duenarentzat ez da erraza Euskal Herritik kanpo lan egitea»

nintzela, hemengo talde batekin lan egiteko aukera izan nuen. Froga egin, eta gustatu egin zitzaidan. Horrela hasi nintzen. Gero, beste musikari batzuk ezagutu nituen, eta haien bidez beste batzuk... Gaur arte».

Gure abeslari askorekin egin du lan urte hauetan, haien zerbi-

tzuari jarri du ahal zuen guztia.

«Abeslari batekin jotzen duzunean, zu ez zara ikuskizunaren erdigunea: zu ikuskizunaren zerbitzuan zaude eta ez dagokizu zuri aurre-aurrean egotea. Atzealdean zaude kontzertuak irauten duen bitartean eta gainerakoetan ere. Artisanu bat zara, mekaniko bat. Abeslaria da ikus-entzuleekin eta komunikabideekin harreman zuzena duena.

Zu abeslariak nahi duena egiten saiatzen zara, atzean, erditimpean, eta inork ez dizu sekula ezer galdetuko, galdere guztiak abeslariari zuzenduko zaizkio.

Ez dute lan erraza bertako abeslariak: merkatu txiki batean murgildurik daude, eta ez zaie erraza egiten hortik ateratzea. Euskaraz abesten duenarentzat ez da erraza Euskal Herritik kanpo lan egitea, eta horrek ez du zerikusirik abeslariaren edo taldearen kalitatearekin.

Denetarik dago hemen ere, baina guztiak dute puntu komun bat: gutxiengo egoeran dagoen hizkuntza erabiltzen dute eta, gainera, oinarritzko ezaguera batzuk eskuratu gabe ezin uler daitekeen hizkuntza. Nik uler dezaket italiar batek, portugaldar batek edo katalan batek abesten duena, baina euskaraz zailtasun gehiago du, uleryaitzagoa da. Zorionez, askotan hiluratsen zaitu hitz ulertezinak dituen kantu batek.

Noski, badira hemendik kanpo ere lan egiten dutenak, ez dakit, Oskorri edo Fermin Muguruza. Baina salbuespenak dira. Gehien merkatu bakarra bertakoa da, eta horrela zaila da bizitzeko adina diru eskuratzea, oso zaila. Eta hori gutxi balitz, hor daude kultur munduan eragina duten arazo politikoak ere...».

Norberengan musika

«Horixe izan da nire lana urte askotan, baina gero eta gehiago egiten dut orain nik egin nahi dudana musika, nik konposatutakoa, eta gero eta gutxiago jotzen dut besteekin zerbitzuan. Zentzu horretan, orain orekatuago sentitzen naiz.

Talde bat dut aspaldi honetan, eta nire izenean egiten ditugu kontzertuak; nik aurkeztu behar dut lana, nik hitz egin publikoari... Eta gustatzen zait, asko. Gustatzen zait ganbera-musika egitea, talde osoa halera zuzenean musika egiten...»

Baina musika egiteko modu hori ez da interesatzen zaidan bakarra. Nik usie dut ez dudala buru izateko bokazioirik eta, gainera, ez naizela famatua izan nahi duen pertsona.

Musika interesatzen zait, oso-

tasunean. Niretzat pasio bat da, grinarik sendoena. Gainera, abantaila handi bat du musikak: edozein lekutara zoazela ere, agian ezin duzu bertakoekin hitz egin, baina bai bertako musikariek musika egin. Hizkuntzak aberastasuna dira, baina, aldi berean, langak dira, hesiak.

Izan ere, gertatu izan zait leku arrotz batera lanera joatea, Bucarestera edo Egiptora, adibidez, eta izugarri aberatsa izan da esperientzia. Ez dut turismoa maite, baina bai lan eginez bidaiatzea. Turista gauzak kanpotik ikusten ditutena da, eta nik, horrelakoetan, batez ere herri pobregoko batean egon naizenetan, ez dut ikusitakoaz disfrutatzen ahal izan.

Egipton, berriz, hilabete egin nuen, bertako jendearekin lanean, eta epea bukatu baino lehenago elxean bezala sentitzen nintzen. Nire ohiturak nituen, nire


errutinak, nire dendak, nire harremanak... Berehala egokitzten zara, hori berezkoa dugu pertsonok.

Neroni behin baino gehiagotan sentitu izan naiz etorkin. Batzuetan, erdi-ixantzetan, ni etorkina naizela esaten dut, bertakoen ogia lapurtzera etorritako etorkina».

Berdinkeraren kontra

«Nik pertsonak beretzat ditut, ez herriak, ez pertsonen jatorria. Jendea interesatzen zait, pertsonen arteko harremanak, eta usie dut askok sentitzen duela hori nire inguruan.

Arriskua, benetako arriskua, kultura telebistaz soilik jasotzea da, horrela gehienbat Estatu Batuetan egindakoarekin konformatu behar baituzte. Eta hori kaltegarria da, guztiok berdin bizitzera, gauza berak jolera edo



ETORKINA. Behin baino gehiagotan bere burua etorkin ikusi duela dio Pascal Gaignek.



ZABALIK

entzuzera bultzatzen gaituelako.

Nik uste dut alor honetan gauzak okerrera doazela, sormenak beharrezko duen askatasuna gero eta ahulagoa dela. Informazio asko dugu, duela hogeitau urte baino gehiago, baina, azkenean, guregana heltzen diren kultur-produktuak gero eta elkarren antzekoagoak dira.

Berdinkeria horri kontra egin behar zaito, nire ustez. Eta norberaren sustraiak defendatzea izan daiteke bide bat. Baina berrikuntzei atea itxi gabe, beste kulturetan egiten dena baztertu gabe. Zurea defendatu, baina nahasketak onartuz. Hori da interesatzen zaidan bidea. Kulturari dagokionez, jakin-mina ezinbestekoa da. Zerbaiten bila joan behar duzu, nora zoazen ez jakinda ere».

Zinemarako musika

«Nik uste dut nire bizitzan senak,

|| Gustatzen zait ganbera-musika egitea, talde osoa batera, zuzenean musika egiten»

intuizioak, garrantzi handia duela. Kontrola erabat galdu gabe, intuizioei amore ematen diet sarritan. Egiten duzu topo pertsona batekin, eta horrek eragin handia izan dezake zuregan...».

Bide horri jarraituz egin zuen topo, duela hamabost urte, zinemarekin edo, zehazkiago, zinemarako musikarekin. Geroztik, hogeiren bat pelikulari ipini die musika. Azkena, Montxo Armendarizen *Silencio rotori*.



«Betidanik interesatu izan zait zinema, eta pelikula baterako musika egiteko aukera izan nuen zinemarekin gabe ekin nion zinemarako lan egitea interesgarria da, zure artea erakusteko

|| Zeurea defendatu, baina nahasketak onartuz, hori da interesatzen zaidan bidea»

aukera ematen dizulako eta, bide batez, bizitzeko behar duzun dirua irabazteko modu aproposak delako.

Hasieratik izan nuen intuizio hori eta orain, hamabost urteren buruan, uste dut nire barruan lan horretarako egoki egiten nauen zerbaitek dudala. Ez zara guztiz libre, zure lanak pelikularen zerbitzura makurtu behar duelako eta, gainera, zinemaren legeak onartu behar dituzulako.

Baina erronka horretatik aberastasuna sortzen da.

Bestalde, zinemarako lanak itxiak dira, denbora mugatu batera egin beharrekoak. Hilabete batzuetan lan asko egin, eta gero akabo. Akabo lana, baina ez lamen oihartzuna. Nola edo hala, zure lanak iraun egiten du, filma zinematokietan eta telebistan zabalzen delako...».

Gainera, zinemaren munduan ondo tratatzen gaituzte musikaririk, filmaren barruan gure lanak garrantzi handia duelako.

Ez da lan erraza, baina berez dituen zailtasunei bi modutara egin diezaikezu aurre: pentsatuz ezinezkoa dela nahi duzun guztia berrogi segundotan adieraztea, ala pentsatuz adierazi nahi duzun hori berrogi segundotan laburbiltzeko gauza zaitela...».

Bistan da zein den behar aukeraturako jarrera.

NORTASUN AGIRIA

PASCAL GAIGNE

1958

Caen hirian, Frantzia, sortua. «Alta hant suertatu zen, lanean, baina nik ez dut hiri hori ezagutu ere egiten».

Haurtzaroa Pauen, Parisen eta Baionan eman zuen.

1974

Batxilergoa egiten ari zelarik, musikari euskaldunekin jotzen hasi zen.

Pauen egin zituen ikasketak, Unibertsitatean. Egitarau esperimentalak zen, eta ikasleak ez ziren bakarrik txiki-txikitatik kontserbatorioan arituak.



MUSIKA BERRIAK.

Donostian antolatuta zen jaialdian aritu zen 1994an. Ezkerrekoa da Pascal Gaigne.

1985

Estreinaldia zinema munduan, Xabier Elorriagaren *Zergatik, Panpox* filman, Amala Zubirlararen batera.

1985

Urte berean konposatu zuen ganbera-musikarako lehen lana: *Lo-portes d'area*.



OIASO NOVIS TALDEA.

Iñaki Alberdi eta Josetxo Silguero zituen taldekide.

1986

Amalia Zubiriarekin batera *Kolorez eta ametsez* diskoa kaleratu zuen.

2001

Montxo Armendarizen *Silencio roto* pelikularen musika konposatu du.



LABRITEKIN.

Labrit kantariari *Paradisua* diskorako musika konposatu zion Pascal Gaignek.



MIKEL CASAL

Autoargazkia

PASCAL GAIGNE

Nik aste dut gehienbat intuizioen arabera jotzen dudala. Zerbaitek gutxi funtzionatzen duela sumatzen dudanean, orduan bai, barrura begiratzen dut, neure burua aztertzen dut. Itsi egiten naiz, eta momentu horietan ez dut asko komunikatzen.

Emozionala naiz, aise hunkitzen den horietakoa. Baina ez dut negarrik egiten, horrela hezi nindutelako. Gainera, nire kasuan, karga astungarriak nituen, nire aita militarra zelako.

Zorionez, hor daukat musika, emozioak adierazteko. Adibidez, momentu batez guztiz hunkiturik sentitzen naiz eta konposatzeari ekiten diot, musika egiteari. Agian horri esker lasaltzen ditut emozioak, eta musika terapia ere bada, terapia merkea, lanbide izateaz gain. Horretarako aparatuekoa da musika.

Aintzat hartzen dut komunikazioa. Askotan pentsatzen dut pertsonak nor bere alorrean gelditzen direla, elkarri hitz egin gabe, elkarri ezer komunikatu gabe. Honako edo halako taldean ez dugu hau edo hura aipatzen, zentuz ari garelakoan. Eta horrek pena ematen dit, horren kontra nago. Uste dut hobe dela hitz egitea, hobe dela elkarrekin komunikatzea. Ez duzu, eglaren jabe zarelakoan, bestea aldatzen saiatu behar. Okerrena nor bere buruaren barruan ezkatzea da, hori da okerrena.

Nire lan honetan kalitatea eta zintzotasuna defendatzen saiatzen naiz, nire arte-lanarekin zintzo izaten. Beharbada horren eraginez gustatzen zait beste musikari batzuekin elkarri eta elkarri informazioa ematen jardutea, gure eskubideak defendatzen.

Nostalgiaaren doinua

Niretzat, musika da arterik abstraktuena, hitzez adierazten zailena. Doinu batek emozio mundu oso bat ekarriko dizu gogora, baina emozio horiek banatu eta izendatzea ez da lan erraza, ez behintzat niretzat.

Duela hamar urte nire lehen filma izan zen *Ander eta Yul* errodutua zegoen, eta-musikaz aduratzeko ordua

ANA DIEZ

heldu zen. Beldur nitzen, nire jakinduria musikala guztiz kaskarra baita. Ez nekien nola adierazi Pascali zein soinua nahi nituen, zein musika tresna, zein erritmo, tinbre edo tankera nahi nuen.

Gizon kriptiko batekin egin nuen

topo, isila bezain samurra eta sentikorra. Nik barra-barra egiten nion hitz, nire musika-kulturalak eza estali nahian, eta hainbeste hitzen artean uzten nituen tarte txikietan Pascalek zerbat entzuten edo ikusten zuen, eta horretan oinarriturik itzultzen zituen nire isilunak.

Nonbaitetik aterako zaio hain musika nostalgikoa.

Hitz kontzentratuak

A.U.

Adi-adi jartzen da, baina inolako tentsiorik gabe, irribarretsu, biribil eta samur. Badaki entzuten. Are gehiago, badirudi premiakoa zaiola besteak dioena entzutea, agian arnasa edo doinuak bezalaxe.

Bitartean, begiak biribildu egiten ditu, eta txanparta isilik irriten zaiz-

kio betazeletatik, batzuk hitz formaz, besteak garlen eta ikustezi.

Baina luzea da begietatik ahorako bidea, bihurgune asko ditu, langak, hesiak, aduanak... Eta gutxi dira hel-

mugara heltzen diren hitzak, hamarrena kontzentratuak, fundamentu handiko saldak bezalaxe.

Batzuetan, iruditzen zaizu hain tristora garbia darien musika entzuten ari zarela, baina oker zaude, baren oihartzuna besterik ez da, kontzentratua hura ere.